

ITXI DEZAGUN

ZIRKULUA

Xabier Amuriza

*Izen guztiei bihotzez
bat bakarra balira lez.*

ZIRKULUA

2016ko maiatzaren 3an, 75 urte egin nituenean, bat-bateko bertsogintzari agur egitea erabaki nuen. Pentsatu nuen bazela nahikoa adin, ibilera luze eta sarritan ezorduzko haiek oroimen lasaiaren esku uzteko. Adinaz gainera, azken urteak beste asmo batzuetara bideratu nahi nituen, eda denpora ez zegoen itxaroten gelditzeko. Eta kito! Ez dago argibide gehiagoren beharrik.

Aurretik eta ondoren, ordea, ordenagailua beterik neukan, edo betetzen ari zen, hainbat bertso, koplak eta kanta-hitzek. Sorta asko -mordo luze bat estrofa bakarrekokoak- enkarguzkoak dira. Hauetan lotu behar dira enkarguaren motiboa, datuak eta enkargatzaileak adieraz dadin nahi duena. Hori guztia arte apur batekin islatzea lortuz gero, genero literario bat bihurtu daiteke. Niregan horrelaxe izan da. Zertarako argigarri gehiago? Sorta bakoitzak bere azalpen labur bat badakar, eta horrelaxe ixten da, beste barik, nire zirkulua.

Kopla sorta batzuk, diskoetan argitaratuak izan arren, zirkulu honetan sartzeko gogoak izan dit. Hauek dira: Korrantziren *Koplariak* diskokoak, *Indar bat dabil hor* (Mikel Markez), *Bizkaian zehar* (Kepa Junkera), *Anbototik Gorbeira* (Tapia eta Leturia).

Ohar garrantzitsu bat egitekotan, koplak idazkerari buruzkoa litzateke, zirkulu honetan hainbeste agertzen direnak eurak. Jakina da koplak dela estrofa bat, zeinaren zatiak, kantatzean, errepikatu egiten diren, eta egin behar diren. Noiz edo noiz izan ezik, errepika horiek ezabatu egin ditut, eta bakoitzak jakin behar du -edo interesatzen bazaio, galdetu behar du- koplak mota bakoitzak nolako errepikak eskatzen dituen.

«ERRIAREN SEME»

Ez dakit ixtea ala irekitzea den, baina ondo iruditzen zait nire zirkulua bertso honekin abiatzea. Apaiz ordenatua izan ondoren, «Meza Berria» esaten zitzaion, norbere jaioterrian eman ohi zen lehen meza solemnari. Herritar zibilentzat ezkontza bezala, apaizentzat Meza Berria izaten zen. Egun handi horretan, estanpa antzeko txartel bat banatu ohi zen, ospakizunaren iragarpen eta oroigarri moduan. Nik diptiko bat atera nuen. Alde batean, neure jaiotetxearen marrazki bat, honako eslogan eta testuekin:

Erriaren semea naz eta Erriarentzat abade egin naz

Abadegintza - Derio'n 3-7-65
Meza Barria Etxano'n 18-7-65

Amuriza ta Zarraonaindia'tar Xabier

Datak, oraindik, erdal ordenan ematen genituela ikusten da. Idazkera horrelakoa genuen, eta H-rik ere, jakina, oraindik ez zegoen gure artean. Beste aldean, bertso hau zetorren:

Oi, zu, Etxano, lenen-arnasa
ta odola emon zeunstana!
Zugandik daukat nazen guztia
zugandik Erri-izana.
Zu goratzeaz ez deusat kentzen
Jaunari zor deusadana.
Berak zugandik artu ta barriz
bialtzen nau zuregana
ERRIAREN alde izan daiten
nire abadetzako lana.

Bertsoa guztiz ondo eginda egoteko, azken puntuan etena errepetatzea falta zuen. Ez konturatu ez nintzelako, baina nik «erriaren alde» lema argi utzi nahi nuen, eta ez nuen modurik aurkitu. «Erriaren alde» kontrakzioa egin nezakeen, baina hori, nire kriterioetan, kolokialtasun desegokia zen orduan ere, halako testu jaso baterako.

Diptikoari ez zegoen inolako erreparo doktrinalik jartzetik. «Herria» izan zitekeen – eta zen– kristau terminologiako «Jainkoaren Herria». Baita izan zitekeen –eta zen– «Euskal Herria», oroigarria ohiko estanpa itxuratik apartatzeak pentsaraz zezakeen moduan, eta kontrako begia zeukatenen maleziak salatu ahal izateko baino gordeago. Noiz eta «dieziotxojulioan», «altxamendu nazional biktoriosoaren egunean». Oroigarri guztia euskara hutsean izateaz gainera -latina eliminatzea atrebentzia iraingarria izan zitekeen-, herri zabalago bat sintetizatzen zuen jaioterriaren aitormen beroa bertsoz egiteak identifikazioa nabarmenago uzten zuen, zapalkuntza etengabe bizi zen hizkuntzaren forma landuagoak harekiko atxikimendu kontzienteagoa adierazten baitzuen.

Meza Berri eguna bera ere espiritu horren arabera pentsatua izan zen. Ohi bezala goizean barik, igande arratsaldean izan zen, ospakizun herritar moduan. Elizkizunaren ondoren, bertsolari eta guztiko plaza-ekitaldian, herri osoa gonbidatua izan zen aperitibo xume batera. Horrela, herriari eskaintza nabarmenduz batera, bide batez, ezteien antzeko edo handiagoa izan behar zuen bazkaria disimulu egokian saihesten zen, etxearentzat gastu handi bat aurreztuz. Gure aita, semearen abadegintza bere mundualdi inbentiboaren epopeia bat gehiagotzat hartzen zuena, ez zen behingoan errendituko nobedade ustez ebangelikoago hartara. «Meza barria bankete barik? Besterik ezean, neu bakarrik jaitsiko nok Kojoarenera, bazkaltzera edo afaltzera». Zornotzako jatetxe ospetsu bat. «El Cojo».

Amaren aldetik, bazkaririk ezagatiko ahaide eta herritarren zeresanak kezkatzen bazuen ere, kasik ohiko bezain ikusgarri izan zitekeen ospakizuna ontzat hartzen asko lagundu ziola uste dut gastuak saihestearen lasaitasunak. Azkenean, etxe-etxekoen eta nire karrerako «aitabitxi-amabitxien» afari batekin konplitu zen errituala.

ESKER MILA, PANDEMIA

2022-09-06. Pandemia garaian, elkar ikusteak eta lagunarteak erabat murriztu zirenez gero, bertsolarien elkartze-egun bat antolatu zen, Zeraingo Oiarde sagardotegian. Okasiorako koplak batzuk eskatu zizkidaten, eta hauxe da sorta, Korrontziren *Urtaroak* izeneko doinuan.

- | | |
|---|---|
| 1)
Esker mila pandemia
eman baituzu menia
elkar trukatzeko geure
iritzi edo premia.
Baita ere bide batez
nola ez, ba, konpainia. | 5)
Zaharrok gaude ezin ahantziz
ematen zaigun garrantziz.
Gazteak zahartzen dira
baina nekez alderantziz.
Sugea ere zahartzen da
larru zaharrak erantziz. |
| 2)
Bertsogintzaren ildoak
asko aldatuz ei doa.
Bertsoa ez dakit zenbat
baina bai kolektiboa.
Gaur hemengo irudia
ez da beti-betikoa. | 6)
Sagardotegi bertsoa
gaur hain zelai dibertsoa.
Dela berezkoa edo
jatorraren inbertsoa
Ia normal ari gara
esaten «unibertsoa». |
| 3)
Batzuk gaude hemen noizbait
ustez baginenak norbait.
Oraindik geratzen zaigu
banitatearen zerbit.
Denek dakiten egia
aitortzea gustatzen zait. | 7)
Nor da sinesten duenik
euskara galduko denik?
Beraz, bertsoak ezin du
sekula izan etenik.
Beste kontu bat da nornahi
Maialen izan daikenik. |
| 4)
Eguzki berria hara!
Gauean ere bera da.
Izan ginen gazteenak
zaharrenak ere bagara.
Zer beste eska liteke
atzerantz korik ez bada? | 8)
Bizi liteke harpean
honetako elkartean.
Egun hau geratuko da
beste lau rogei urtean.
Niregan behintzat oroipen
maitatu enen artean. |

UZTAPIDE, UZTAPIDE

2022-05-22. Uztapide bertsolariaren inguruan, Zestoako udaletxeak astebeteko zikloa antolatu zuen. Amaierako ekitaldia «Txapeldunak» saioarekin burutu zen igande arratsalde batez, aipatu data horretan. Maialen Lujanbio, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña eta Amets Arzallus izan ziren kantari, bat-bateko saioan, Amaia Agirrerren gidaritzapean. Nik, bat-bateko jardunetik erretiratua izanik, «Euskal Herritik aparte» bertso sorta kantatuz parte hartu nuen. Eta saioaren bukaeran, Uztapideri eskainitako koplak sorta hauxe kantatu nuen, Korrontziren *Urtaroak* izeneko doinuaren.

1)

Uztapide, Uztapide
mais, lagun, adiskide.
Berdin izen handiago
nahiz txikiagoen kide.
Harekin konpontze txarrik
diote, ez zen posible.

2)

Uztapide ta Basarri
bertsoaren alkazar bi.
Batak zelaiak zabaldu
besteak mugak ezarri.
Zein zeinen zordunago zen
pentsatu izan dut sarri.

3)

Uztapide ta Xalbador
zerbait indartsua dator.
Txistuen aurrean edo
aldamioan erorkor.
Zein hilko, zein salbatuko
misterio bat bada hor.

4)

Uztapide ta Lasarte
aro beraren bi parte.
Biak Manuel izanik
bi gizon-modu, bi arte.
Izen horiek gaur ere
bihotz-kolpe bat dakarte.

5)

Uztapiden zenbat sagar!
Eta batek zenbat adar!
Adibidez, Lazkao Txiki
edo hiru azpeitiar.
Azpillaga, Lopategi
eta abar eta abar.

6)

Uztapide, Amuritza
hortaz ezin luze mintza
gutxi gurutzatu baitzen
bien artean bizitza.
Elkar maitatu zutela
bai eman dezaket hitza.

7)

Uztapide ta Maialen
zu orain eta hura lehen.
Zer pena ezin jakina
nola hartuko zintuen.
Ziur naiz poztuko zela
eta gozatuko gehien.

8)

Uztapide betikoa
denen bihotz-begikoa.
Zestoak eskaini dizu
gogo beteko zikloa.
Zu ere baitzara gure
memoria historikoa.

BIZKARGIN SORTU NINTZEN

2022-05-08. Bizkargi izeneko mendi ospetsuaren tontorrean, bada Gurutze Santuaren ermita bat, Bizkaian Santakurtz edo Santikurtz esaten duguna. Maiatzaren hirua. Egun horretan jaio nintzen, 1941ean, Bizkargin bertan, legenda batek dioen moduan. Laurogei urte egingo nituen egunean eta errepetizioan, bietan igotzeko asmoa neukan Bizkargira. Pandemia zela eta, 80.ean ezin izan nuena 81ekin egin nuen. Egunean bertan ere joan ohi da jendea, baina jai nagusia hurrengo domekan izaten da batez ere. Errepetizioan. Beste hainbat ekitaldiren artean, omenaldi gozo bat egin zidaten, eta nik aipatu legenda hori ondorengo kopletan kantatu eta kontatu nuen, doinu tradizional bat eta Korrontziren *Urtaroak* izeneko txandatur. Neurrian berdinak, baina erriman, bata hirukoa eta bestea laukoa. Nire bizitzako egun goragarrienetako bat izan zen.

1)

Zer dozu, Eguzki gorri?
Zer daroazu, Itargi
goiz-iluntze ikusteko
Torreburutik Bizkargi?
Gorderik dodaz zuentzat
ule bat eta bizar bi.

2)

Hogeigarren mendekoa
berrogeita batekoa.
Histori bat bada hemen
Santi Kurtz maiatzekoa
egia on baten bezain
ames baten antzekoa.

3)

Osaba soinulari bat
jotzen Bizkargiko plazan.
Danak dantzan eta bera
burua pixkat balantzan.
Eta hara bat-batean
zeri erreparatzen deutsan.

4)

Kitanoak jo ta kean
nahasturik jente artean.
Euren sal-erosietan
diharduen bitartean
mantarretako haurtxo bat
hara karrope batean.

5)

Txizalarri plantan dino:
«Parka! Atoan hemen nau».
Haurtxoa bakar-bakarrik
«Ene! Baina zelan da hau?».
Kontuz-kontuz heldu eta
soinu barruan sartzen dau.

6)

Soinuan sartu ta hasten
umea arrantza baten.
Soinua be irrintzaka
ezer igarri ez daiten.
Erromeria aurrera
dantzan edo jan-edaten.

7)

Kitanoak ume faltaz
konturatu diranean
hasi dira gerra baten
labana danak aidean.
Soinua ezabatzen da
Autzaganera bidean.

8)

Musikak, antza, emon poz
negarrak agortu behingoz.
Umetxoa isiltzen da
gogoz kontra edo gogoz.
Beste bideko alai bat
eta Torreburun gagoz.

9)
Osaba bere amari
edo gure amamari
bildur da eroateko
ume barri bat opari.
Orduan gure etxean
uzten deutso arrebari.

10)
Gure ama geratu da
begira soinu barrura.
Zertzuk esaten hasten dan
ez dot pentsatu be gura.
«Eroaik ume hau bertan
ekarri doken lekura.

11)
Gure osabak orduan
ikara guztien jabe:
«Parkatu, baina ezin dot
hori egin ezelan be.
Ume hau bueltatzen badot
bertan narrutuko nabe».

12)
Bigundurik amak: «Tirok!
Tirok, tirok! Ondo jagok!
Utzi umea berton, ze
geurean be bat behar dok.
Ondo-etorri lez behintzat
martxa polit bat jo eiok».

13)
Amak hartzen dau umea
besoetan gozo-gozo
eta osabak soinua
jotzen dau gogotsu oso.
Halantxe munduratu zan
alai eta animoso.

14)
Haurra heldu da zazpira
ta hor dator Bizkargira.
Dana sinistuta dabil
zoko guztiai begira.
Karrope baten ume ta
txakurrak pilatzen dira.

15)
Halantxe argitzen jako
misterio arraioa
Parisen barik zelan dan
bera Bizkargin jaioa.
Gero bueltan Autzaganen
lelengo bertso saioa.

16)
Aita sasi-bertsolari
tabernan dabil kantari.
Batek barrara jaso dau
eta danak: «Aupa Jabi!».
Ekin eta ekin hantxe
jakin barik zertan garbi.

17)
Batek txapela pasatu
eta hara miraria
diru guztiak beretzat
delirio bat da ia.
Hantxe sortzen da harako
«mutiko bertsolaria».

18)
Inozentzia totala
edo gandu boreala
non bertsoa bihurtzen dan
bere gehigarri formala.
Ez daki bere mundua
hortik zabalduko dala.

19)
Eskerrik asko, Bizkargi
egotea horren adi!
Igaz ezin izan zana
nahi neban aurtan ekarri.
Badaezpada ezin neutsan
itxaron ehungarrenari.

MUGA BAT BETI HOR

2022ko otsailean, Anje Duhaldek hitz batzuk eskatu zizkidan bere doinu baterako. Neurriak zortziko txikia izan behar zuen. Eta lelo bat. Muga bi aldeetarik maizen gurutzatu duen euskal artista bera izango zela pentsaturik, ideia horixe bururatu zitzaidan haritzat, Anjek oso era pertsonalean kanta zezakeena. Hala abiatu nintzen, eta hauxe atera zen.

1)
Banabil Iparrean
banabil Hegoan
batean naizenean
bestea gogoan.
Inork ez dit galdetu
mugan oraingoan
nondikan heldu naizen
edo nora noan.

2)
Ibili naiz munduan
ene kantu maitez
eta txalotu naute
mira eder batez.
Dohatsu sentitu naiz
nintzena izatez
eta ene herria
hain gora ikustez.

*Hala itzuli nintzen
pozik eta baikor
baina barne-barnean
muga bat beti hor.*

3)
Grina bat nuen eta
betea dut dena
agian ez osoki
agian gehiena.
Maite dut berritza
ene oroimena
eskura izan baitut
desio nuena.

4)
Zer edo nola izan
ninteke gehiago?
Zirkulua joan da
geroz handiago.
Gelditu naiz pentsatuz:
«Hemen ongi nago!
Iritsia naiz uste
baino aitzinago».

*Hala itzuli nintzen
pozik eta baikor
baina barne-barnean
muga bat beti hor.*

OBABATXOA PATAKON

Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen *Zazpikoloroa* diskorako sorta. Manuel Antonio Madariaga "Patakon". Bidelapur ospetsua. "Daukanari kendu, ez daukanari emon".

1)

Obabatxoa lo ta lo
zuk orain eta nik gero.
Patakon dozu zaldun gaueko
zuk egin daizun lo ta lo.

Lo... lo... (Edo: Hm... hm...)

2)

Obabatxoa, egizu lo-lo
luze-luze, sakon-sakon
begitxu ederrok zabaltzera
etorri arte Patakon.

3)

Obabatxoa, ez bildur izan
ez Belekoi ez inoren
Patakonek ez deutse utziko
zure leihora igoten.

4)

Zure sehaska bateltxoa da
bitsezko uren ganean
irlatxo baten itzar zaitez
goiza bainatzen danean.

5)

Ez izan bildur irla horretan
bakarrik aurkitu zaiten
Patakon joango da zure bila
airezko zalditxo baten.

6)

Patakon nok dekon, nok eztekon
Honi kendu, hari emon
berak eingo dau zure loari
ezer falta ez dakion.

INDAR BAT DABIL HOR

Mikel Markezentzat egina, izen bereko diskorako.

1) Bizi-legeak dio
argi bezain idor
gaztea hilkor dela
zaharra derrigor.
Herri batez, ordea
zergatik ez aitor
hain zahar dela zeren
sortu zen ez-hilkor?
Ba, hala izan dadin
indar bat dabil hor.

2) Talde, xede, mugida
han tira, hemen bultz!
Zenbatek uzten duen
arima ta gorputz!
Su hori dena ezin
bihur liteke hauts.
Begiratzen badugu
helburu bereruntz
gailurra bertan dago
ezin da egin huts.

3) Gesalak haitzen kontra
haustean hartzen min
aparrak eman dezan
oinetan atsegin.
Gure erronka ez da
hil bat piztu dedin
baizik bizi den zerbait
biziago egin
sentituz geure eta
ondorengoan duin.

4) Gure aditz gutarrak:
gara, ginen, gaude.
Itsasoa bizi da
lorik egin gabe.
Gauden zu ta ni denak
olatuen alde!
Argia islatzen da
malkoetan ere.
Garaipen bat ospatuz
bada 'hainbat hobe!

IPAR HAIZEA

Nire lagun handi batek azken luzea eta gogorra izan zuen, Ela gaixotasun madarikatu horrengatik. Kantuzale handia eta bikaina izanik, bazuen kanta oso maite bat, *Viento del Norte* izenekoa, Nando Agüeros eta Sergio Agüeros anaiena. Erdaraz kantatzen zuen -zuten, korua baitzen-, baina berak euskaraz kantatu nahi zuen, eta itzulpen-bertsio hauxe egin nion kantari. Doinua eta hitz originalak nahi dituenak Youtuben aukituko ditu nahi beste.

1)
Bai sorgingarriak ibai ta mendiak!
Nahi dut busti nazan maiatzeko euriak.
Nola gauez otso ibiltariak
korritu nahi ditut zure zelaiak.

2)
Ilargi izpi bat daramat gidari.
“Zatoz!” esan diot egunsentiari.
Edertasun hori hain zait bizigarri
maite dudan lur berde honen sari.

*Berritu nahi dut gure haritz zaharra
hegan zabaldu bere zuztarra.
Ipar haizea da gure indarra
itsas oldarra da bere aparra.*

3)
Elur-melur, hondar edo lur multzoa
zein txikia naizen erakutsiz doa.
Behin kementzen nau ta behin mintzen gogoa.
Zugandik nator baina nora noa?

*Berritu nahi dut gure haritz zaharra
hegan zabaldu bere zuztarra.
Ipar haizea da gure indarra
itsas oldarra da bere aparra.*

DURANGOKO BONBAKETA

Durangoko bonbaketaren urtegarrenak ospatzen hasi zirenean, bertso-sorta bat egitea proposatu zidaten, historia hura kontatuz. Ahalik daturik gehien jasotzen saiatu ondoren, honelaxe gelditu zen kondaira kantatua, Durangoko Ander Ertzilla musikariaren doinu zirraragarri batekin.

- 1)
Martiko hilak hogeta hamaika
egunaren zabaleran
durangotarrok itxartu ginan
kanpaien dei zapalberan.
Mamutzar batzuk agertu ziran
Elorrion zehar hegan
goiko zeruak jarri ginduzan
inpernuaren sarreran.
- 2)
Kurutziaagak jasango eban
suzko danbarrada lehenen.
Ezker-eskuma ha zan triskantza
geltokiraino ondoren!
Alzamentua zer izango zan
laster jakin gendun hemen
hirurehun hilda, herririk erdi
txikituta itxi eben.
- 3)
Jesuitetan goizeko mezan
jaunartzeko gengoza
berrogetamar kristau hil ginan
mezaduna buru zala.
Bardin komentu ta Andra Mari,
aitzen emonaz bezala
Jainkoa euren alde ez bazan
danak erreko ebezala.
- 4)
Barrenkale ta Goienkaletik
geltoki apurturaino
arratsaldean barriro ez zan
hilak eta hautsa baino.
Frontoia zabor, Ezkurdi ketan
suak "gero arte!" dino.
Halango beste ekitaldi bat
falta genduan ondino.
- 5)
Apirilaren bian barriro
Savoia eta Fiatak
gure ganera hustu ebezan
italiarren goi-zartak.
Kanposantura hilak lepoan
jo gendun bizi ausartak
geu be zulora etzun ginduzan
suntsipenaren enbatak.
- 6)
Behin gitxi zala, bigarreanean
krimenez nahikotu bako
bonba-lapiko hegalarien
saldarik ez zan faltako.
Ospitala be hauts bihurtua
hondamen zelai Landako
eskerrak ia danok herritik
aldeta gengozalako.
- 7)
Francok agindu, Molak birrindu
Hitlerrentzako biak on
Tronperri maite honi suberte
mortala etorri jakon.
Oi, Picassoren zezentzar hori
gaur be ondino nun hagon!
Gernikan fama zelan gailurtu
ikasi heuan Durangon.

HIRU IHESLARI

2018-04-11. Urte horretan egindako koplak, 2019an grabatuko zen lan baterako. Pieza batean, Leturiak, Imanolek eta Motriko kantatzea zen asmoa, eta halaxe gertatzekoa zen, Korrontziren *Koplariak* izeneko diskoan, baina azkenean, ez ziren sartu.

1) *Leturia*

Pandero finak, hona bi,
iheska soinu banari:
Imanol eta Motriko
Martin eta Junkerari.

2) *Imanol*

Ixo, ixo, Leturia!
Koiote ibiltaria!
Negarrez utzi zenuen
gitarra jotzen Tapia.

3) *Motriko*

Bilboko inozentzian
sartu nintzen probintzian
ta sentitu nintzen nola
iheslari bat Frantzian.

4) *Imanol*

Argiak aireportuan
Motriko handik gertuan.
Galdu eta agertzen da
komeni zaion lekuan.

5) *Leturia*

Motriko noiznahi Madrilen
Imanol nondik dabilen!
Eskerrak, zeren horrela
“Letu” gelditzen da gailen.

6) *Motriko*

Panderoa nuen maite
zuen grinak ez hainbeste.
Bilbotar bati eskerrak
apur bat findu zarete.

7) *Hirurak batera*

Izar iheskorren partez
bildu gara une batez
larrutik maitatzeko ta
larrutzeko elkar maitez.

AXPEKO JAIALDIA

2007-06-23. Bizkaiko Axpen -gaur Atxondoko auzo Axpe- dantza-egun berezi bat egiten zen. Zenbait urtetan kantari joan nintzen. Eta bai bitxia, urte batez eurek niri kantatzea nahi zuten, paperak jende artean banaturik. Horretarako, bertso batzuk neuri eskatu zizkidaten. Lehen biak «O, baserritxo» doinuan nahi zituzten, eta hauexek egin nituen:

Kaixo, Xabier, ondo etorri
hasi orduko erronkan.
Igaz hementxe izan zinen zu
kantuan eta bertsoan.
Gaur be pentsatu dogu deitzea
baina kondezino hontan:
Axpek merezi dauen moduan
ganoraz kantatzekotan.

Hemen daukazuz herri bi dantzan
Atxondo eta Bergara.
Eurei begira gu pozik eta
gozatzen egoten gara.
Nor bizkorrago, hain elegante
urteten dabe plazara.
Hankak jaso ta gerri makurtzen
zeu zelan moldatzen zara?

Hurrengo biak «Aita izena» doinuan nahi zituzten, eta hona eurak:

Axpe dezente aldatuz doa
etxe barriz eta jentez.
Sarritan alkar ezagutzen be
ia ez daukagu errez.
Zeu be Berrizko auzo batera
holantxe joan zinenez
zelan lortzen da alkartasuna
herri eta auzo legez?
Edo lortzea gatxa bada be
ahalegindu gitxienez?

Gaur ekainaren hogeta hirua
atzo egun luziena
luzien luzez goizeko gauzak
ahaztu egiten direna.
San Joan suak amaitu barri
hau da gaurik sorginena.
Zuk zeuk bazendu su magiko bat
egiteko adimena
zer da erreko zeunkena eta
zer da gordeko zeunkena?

Azkenik, beste bertso bat izan zen, Habanera doinuan nahi zutena.

Etorkizuna buruan
gorputza barri-barria
aurrean dozu, Xabier
geroaren euskarria.
Dantzari dagokionez
ez da harrobi urria.
Seguru bildurrik barik
baietz mogitu gerria.
Euskera sanoz beteta
dabil euren eztarria.
Zelan ez da, ba, egongo
ameslari aberria?
Honexek sortzen deuskue
barrea edo irria.
Gazteak doguz dantza ta
baita be Euskal Herria.

Esperientzia bitxia bezain hunkigarria izan zen norbere bertsoak entzutea,
norberari eginak, frontoi bete ahotatik, paperak eskuan zituztela.

HARITZA MENDIAN

2020-04-28. Faktoria irratsaioa. Nerea Ibarzabal, Karlos Cid Abasolo eta hirurok ginen irratsaioaren partaide, Manu Etchezorturen gidaritzapean. Behin, Nereak eta Karlosek «Mendian gora haritza» izeneko poemarekin proba bitxi bat egin zuten. Imanonel kantatuak lau ahapaldi ditu, eta bada Mikel Urdangarinena ere, sei ahapaldikoa. Ba, esandako biek Imanolen bertsioa hartu zuten eta, Google-n zazpi itzultzailetatik pasatu ondoren, azkenengoa berriz euskarara ekarrita, nola geratzen zen probatu zuten, eta honako emaitza irten zen:

1)
Haritza mendian
Ahuntzak harrietan.
Itsasoaren arima pixkat
sartu da ozeanoan.
Bizitza usteltzen ez denean
kantatu nahi dut.
Mundua dantzatuko nuke
Jainkoa banintz.

2)
Euskal nerbioa
puntu beltzak.
Txoria malkoz eta umorez
beteta dago.
Ekarri freskagarri bat eskura.
Garizko almidoi zopa
edatea gustatzen zait.

3)
Euskal poeta
Tronperoen Batzarra.
Hildako kanpaia deitu du
eta hutsik.
Sartu zartagina
zuretzat gordetzen diren malgukiak.
Goizero, lana
bizitza da.

4)
Mundua ez da beti solemne.
Beti tristea.
Baina mila arrazoi daude
zorte on kantatu.
Bestela, zigorrak egongo dira.
Ez dut sua piztu nahi.
Lo egin ondo, hiltzen naizen
gauean behintzat.

Eraitza bitxi hori ikusitakoan, interesgarri iruditu zitzaidan poema zortzigarren hizkuntza batetik pasatzea, eta honako eraitza irten zen:

1)
Haritza gora mendian
ahuntzak igeri harrian
itsasoaren arima sartu
da Ozeanian.
Bizien ustel aldian
kantatuko dut agian.
Mundua laster dantzatuko da
Jainkoen badian.

2)
Euskal nerbioen guda
puntu beltzenak zerura.
Txorien malkoz beteta dator
umorezko uda.
Freskagarri denen ura
ekarri nire eskura.
Garizko almidoi zopak edanda
ito naiz gustura.

3)
Euskal poeta zazarra
tronpero denen batzarra.
Hildako kanpai hutsek deituta
hasi da liskarra.
Atera hagin bakarra
sartzeko zartagin zaharra.
Malgukietan goizero lana.
Hau bizitza txarra!

4)
Mundua ez da, aiene
beti alai ta solemne.
Beti tristea, baina arrazoiz
zorte ona barne.
Ez bota surik, Edurne
bestela zigorrak berme.
Ondo lo egin, ni hiltzen banaiz
egongo naiz erne.

Nereari eta Karlosi esker, ez dakit, bertasio honen eta jatorrizkoaren artean, bat beharrean, berau ez nukeen hautatuko.

ANJE DUHALDE - MENDE ERDI

Anje Duhalde musikari eta kantari handiak mende erdi bete zituen kantuz, Euskal Herrian eta munduan barna. 2019ko otsailean, bere zale eta lagun talde batek ospakizun batzuk antolatu zituen, motibo garrantzitsu horren kariaz. Nik ere -Anjeren lagun eta lankide kanta askotan- parte hartu nuen ospakizunean, hiru bertso hauek eskainiz, zeinetako lehenengoa ohol batean pirograbaturik gelditu baitzen, bere omenezko eskultura baten ondoan. Mende erdi bat ospatu bagenuen, bigarren erdia ere arrakastaz darama aurrera lapurtar kantari ospetsuak.

1)
Euskal Herri guztiek
bat egiten dute
Anjeri aitortzeko
zenbat duten maite.
Zazpietan kantari
mende erdi bete!
Beste mila urtetan
ari baliteke
lehen xarma berdinez
entzunen lukete.

2)
Zure kanta abestuz
irri eta malko
jarraitzen dugu hartzen
plazer onik franko.
Ez da bakarrik esker
on bat zugarako
baizik zure emaitza
maite dugulako
hor geldituko dena
santa sekulako.

3)
Milaka kontzertutan
a zer momentuak
eman dizkigun zure
ahots maitatuak!
Orain opa dizuna
ziklo burutuak
jarrai dezala luzaz
bai zure kantuak
baita sasoiak eta
zure talentuak.

MARURI-JATABE

2021. Agus Barandiaranek, *Korrontzi* musika taldearen buruak, bere jaioterriari kanta bat egin gura zion. Herriko auzoak eta bereizgarri batzuk koplatu behar ziren, eta horixe egin nuen, aurretik informazio zehatz batzuk jasota.

1)

Koplatu daigun geure
Maruri-Jatabe.
Herri honek izen bi
ditu bere habe
eta biek mundu bat
edertuten dabe.

Jatazpi txokoa.
Lekua eta dana
geure gustokoa.

2)

Billabaso, Ibarra
Ianduri, Goieta,
Elortegi, Sakalde
Sagardui, Larreta.
Itxaron ze beste lau
falta dira eta.

7)

Atxurra ta sardea
solara begira
pozik joaten gara
Jatabe-Mendira.
Kontu tristeak bere
han alaiak dira.

3)

Erribera, Erdigune,
Jule, Kurtzegana,
hamabi izen eta
baztar polit bana
eta auzo bakotxa
baztar politena.

8)

Alkarte batean zein
bestean platera
betetuko deusue
jesarriz batera.
Salto polita da, bai,
Jatatik jatera!

4)

Santa Kurtzek jagonik
Jataren barrenak
baserri ta errota
ikusgarrienak
topako dauz bistatik
sano datorrenak.

9)

Basajaun, Basandere
antxinako fede.
Ba, guk hemen Basajai
dogu bizi-lege
bardin gaztetan eta
zahartzaroan bere.

5)

Esku batean sua
bestean euria
San Lorentzo maitea
dogu zaindaria.
Sarri betetu ohi dau
gure guraria.

10)

Halan egiten doguz
ederto gauza bi
Jataben ogeratu
ta Marurin jagi.
Eta gosaltzen emon
egun barriari.

6)

Pozez edo tristuraz
beterik kolkoa
gure gogoan dabil

11)

Hamaikagarrenean
goaz akabaten
dozenea osotu
barik lotu daiten.
Biribilduko dogu
beste urte baten.

PELLO JOSEPE ETA KARMENTXU

2011-02-10. Bilbo Zaharra euskaltegiak antolatutako Foruma. Kepa Junkerarekin atera genuen *Betibizi* izeneko diskoaren aurkezpen saio bat, Euskaltzaindiaren aretoan. Ekitaldia bertso hauekin amaitu eta agurtu genuen.

- 1) Pello Josepe tabernan dala
Karmentxuren aldarriak.
“Haurra besoan eta senarra
ito behar egarriak”.
Aitak ez ditu ondino ikusi
umearen belarriak
Pello Josepe! Egon trankil ze
jaioko dira barriak.
- 2) Pello Josepe tabernan dala
sartu da Kepa Junkera
Pellok: *Hi nor haz edo zer haz hi?*
Ez dau ezagutu bera.
Kepak erantzun: “Oh Pello, Pello!
Tirozu, erdu gurera!”.
“Nik ezin joat hankarik altzau”.
“Ba, orduan buruz behera”.
- 3) Pellok dinotso: “Musika hutsez
ez dozak konpontzen gauzak.
Ez buruz behera, ez hankaz gora!
Hemen ederto gagozak”.
Kepak dinotso: “Ama-umeak
etxean larri dekozak.
Pello Josepe, bizkortu hai ze
gehiago jaioko dozak”.
- 4) Pello Josepek: “Ez, koño, ez, ez!
Ume gehiago ez, mesedez!
Plaza Barritik pasauko gozak
beste lau bat trago merkez”.
Badatoz eta: “Zer dok hau baina
dana hain beterik jentez?”.
“Euskaltzaindian sartu zarie”.
“Oin zelan urten geintekiz?”.
- 5) Pello ta Kepa, hauxe dok gure
euskal berben erresuma.
Eta ganera gaur tokatu dok
Bilbo Zaharreko Foruma”.
Entzunik zelan zeuek zentozen
horra zer jente bilduma!
Gaur ez dok gitxi poztuko edo
puztuko zuen amuma.
- 6) Bilbon euskaldun asko ala gitxi
ez izan horren kezka lar.
Asko izateak zer balio dau
ikusi ezina badakar?
Gitxitasuna konpondu leike
sarritan ikusiz alkar
eta hortako badakizue
ez da etxean egon behar.
- 7) Astiro-astiro heldu da alkar
despeditzeko ordua.
Eskertzen dogu izan dozuen
etorteko akordua.
Pozgarria da alkartasun bat
geure musikaz ondua
Lagunartea kendu ezker
zer da, ba, bizimodua?
- 8) Oraingoan bai, hau da azkena
baina ez gero per semper
Gaurko jaiotzak BETIBIZI dau
bere iragarpen eder.
Beronen eta aurtengo partez
agur eta mila esker!
Eta hurrengo urterako be
sortu lei beste zeozer.

NESTOR BASTERRETXEARI KOPLAK

2014-11-17. Begoñazpi Ikastolan jaialdi bat izan zen, non, beste ekitaldi batzuen artean, Nestor Basterretxearen gomuta ohoratzen baitzen. Ikastolaren aurreko parkean bada bere eskultura bat, zeinaren espiritua eta, oro har, Nestorrena kantatzen saiatu nintzen koplak sorta honetan.

- | | |
|---|---|
| 1)
Ama Lurra bera betor
Begoñazpira maitekor
goratuz hainbat esker on
zor deusagun gure Nestor. | 5)
Arantzazun zendun baiki
euskal mundu bat eraiki
kripta magiko bat jarritz
Kristo intrigante bati. |
| 2)
Hiru xaflatan burdina
ointzat gure eraikina
etxe honek izan daian
garapen amaiezina. | 6)
Jarririk zeu be Arantzan
Begoñazpiri emon zeuntsan
indar bat lantzeko zure
erreplika bat hezkuntzan. |
| 3)
Diziplina da lehena
fantasia bigarrena
mogimendua danean
bizia sortzen dabena. | 7)
Arantzazu-Begoñazpi
hiru ta lau dira zazpi
zure artea gugaz dabil
zeure pertsona ta guzti. |
| 4)
Diziplina, metodoa
artista baten gogo
ahalegina zizelkatuz
etxe hau aurrera doa. | 8)
Maite dogu zure lana
eskertzen deusugu dana
egin dozun guztia ta
Guretzat izan zarana. |

AITITA MEDEO

(Berria egunkarian)

1)

Esaera da munduan hartu
behar dela datorrena.
Hauxe da nire azken bertsoa
bizi guztiko onena
nahiz meritua ez den neurea
baizik heriotzarena.

2)

Negarrerako motiboren bat
izango nuen jaiotzan
barrea ere bizi luzean
maiz gezurra izango zan.
Utzidazue isil-isilik
gorde nadin heriotzan.

3)

Agur, gelditzen zaretan denok
hilerri isilaz kanpo!
Derrigor bada, nik aski ditut
planta bat eta bi malko.
Eta txaloak gorde, mesedez,
zeuek zatoztenerako.

OIANE ETA IDURRE

Bi neska gernikar ezkontzera zihoazen 2017ko uztailean, hamabost urte bikote moduan ibili eta bizi izan ondoren. Euren lagun batzuek, eztei eguneko sorpresa modura, bertso batzuk eskatu zizkidaten, bazkal ondoko zeremonian kantzeko eta pergamino batean ezkonberriei oparitzeko. Pantxoa eta Peioren *Greziako itsasontzia* izeneko doinuan kantatzeko modukoak izatea eskatu zidaten. Halaxe egin nuen, baina lerro guztiak errimatuz. Jaso nituen datu askoren artean, ustez garrantzitsuenak eta esanguratsuenak sartu nituen bertsoetan. Honakoak:

- Bi neskak Ourenseko jatorrikoak dira, bata guraso bien aldetik, eta bestea, aitarenetik, ama Elantxobekoa duela.

- Biak kirolari porrokatuak dira, eta furgonetan ibilzaleak. Eztei-bidaia ere furgonetan egingo zuten Norvegiara.

- *Urtz* izeneko txakur golden bat urteetan bizi izan zuten eurekin, hil zitzairen arte. Atsekabe itzela!

Bertsogintzari dagokionez, bizitza guztian hartu dudan enkargurik atseginenetako bat izan zen. Uste dut emaitzan ere islaturik gelditu zela sentimendu hori.

1)
Goazen laurogei ta biko urtera.
Apirilak sei! Hogeita bost zer da?
Urte bera ta hila ere bera
txiripaz jaio ez ziren batera.
Apiril baten bildu bikotera
dena bat dator gaurko egunera.

2)
Biak Ourensez gehi bat Elantxobez
osatu ziren bihotz berri morez
hango aire ta hemengo kresalez
antzeko eta ezberdin izanez.
Mirari baten bi aurpegiak lez
Idurre Vazquez, Oiane Gonzalez.

3)
Zenbat kirolari egitera aurre
ausartu diren kontatzeko ere!
Ezingo dira ibili haserre
pozoï guztiak baitituzte erre.
Izan litezke Oiane-Idurre
nahi den ordenan zilar eta urre.

*“Oiane-Idurre” filmak du izena
edo “Gonzalez eta Vazquezena”.*
Hauxe da orain dagokizuena:
Izan bikote zoriontsuena!!

4)
Kirol guztien errematetzako
dena prest dago furgonetarako.
Hamabost urtez amets egindako
bidaia ez du bihotzik faltako.
Fiordo oso bat Norvegian dago
Oiane eta Idurrerendako.

5)
Txakur golden bat buztantxo iletsuz
pasako zaie elurretan goruntz.
Noizbait ordezeko baten bat pentsatuz
izen polita izan liteke Urtz.
Oiane-Idurrek zerbaite balute huts
beteko dira pozez eta zentzuz.

6)
Film honek badu berritasun sena.
Eredu itzela benetan zuena!
Hauxe da orain dagokizuena:
Izan bikote zoriontsuena!!
“Oiane-Idurre” filmak du izena
edo “Gonzalez eta Vazquezena”.

AGATE DEUNA

2019ko santaeskean, lau koplak egin nituen, berrizko kaleetan kantatzeko, lelo tradizional horren gainean.

*Aintzalduta daigun Agate deuna
bihar da-ta Deun Agate.
Etxe honetan zorion hutsa
betiko euko al dabe.*

1)
Errekan behera ur hotza
Oizek harrizko bihotza.
Ezin dabenai jartzera gatoz
gogoa eta ahotsa.

2)
Izar bat goian dantzari
gu hemen haren kantari.
Alkartasun bat eskeintzen dogu
hartu gura dabenari.

3)
Laino baltz, eguzki gorri.
Eskerrak, entzule horri!
Bagoaz beste kale batera
gura badozu etorri.

4)
Azkena gaurko partean
dogu etxe on batean.
Hurrengo urtean barrero eta
ondo izan bitartean.

TXILLARDEGI

Bere heriotzaren inguruan (2012-01-14), Donostiako Victoria Eugenia egin zitzaion omenaldi-ekitaldian kantatu nituen bertso hauek.

1)
Pianojole, matematika
hizkuntzan goren aurpegi
idazle eta politikari
ta beste zenbat alderdi!
Prisma handi bat beti iraulka
gogo bat inoiz ez geldi.
Goitzen pila baten azpian
mundu bat zen Txillardegia.

2)
Juntagailu edo partikulatxo
ximple bat zuen hauteman
hauteman edo beste esanahi
sendo batera ereman.
Nahiz hor dabiltzan orain amaia
nola suntsituko deman
hasierako ideia hari
ezingo diote lur eman.

3)
Leturiaren egunkaria
ta beste hainbat ondoren
gure hizkuntzaren batasuna ere
ia bere zain zegoen.
Odola jarri zuen euskara
izan zedin ikur goren
zail da pentsatzen beste halako
figurarik sortuko den.

4)
Politika ta militantzian
harrigarrizko kasua
espetxe edo erbeste eta
hil arteko mehatxua.
Esaldi baten laburtuko dut
bere izate indartsua:
sentitzen dena defendatzeko
pasioa eta sua.

LAU URTAROAK

Plentziako eskola baterako, bertso batzuk eskatu zizkidan, *Lau urtaroak* gai zirela.

Negua

Kantu kantari gatoz
“Urte barri, barri!”
zelan zaharrak gaituen
honaino ekarri.
Opatuz poza eta
txarrik ez elkarri
negua izan bedi
hotzean pizgarri.

Udaberria

Neguaren mirari
da udabarria
eta gu Lur Amaren
lan miragarria.
Ospatu daigun jaia
banatu irria
eskola animatuz
alaituz herria.

Uda

San Joan suen gainean
sartu gara udan
geu bere suzko gaiak
ete garen dudan.
Eguzki bero eta
ur gazien guran
ai, opor zoragarri!
Zer maite zaitudan!

Udazkena

San Martin, ai San Martin!
Bildurrez beterik
txarriak ez dau maite
gantxora joaterik.
“Zergaitik hiltzen nabe?”
itauntzen tristerik.
“Zer txar egin dot, ba, nik
janda lo besterik?”.

BITTOR KAPANAGA

2014-07-13. Otxandioko elizan egin zitzaion omenaldian kantatu nituen koplak hauek. Bittor Kapanaga Elorza (1925-10-15 / 2011-07-14) euskaltzale eta euskal idazlea izan zen. Solaskide deigarria, polemista zorrotza eta intuizio handikoa. Bere liburu enblematikoa 1978ko *Erro eta gara* dugu, euskararen erroen bilatzaile.

1)
Berriztik Otxandiora
Urkiola egongo da.
Bide batez han sartu naz
San Antonion ondora.

2)
Santu argia bazara
galdera gatxa ez bada
esaidazu isilean:
Non da Bittor Kapanaga?

3)
“Ez neban asko ezautu.
Horrek kezkatzen bazaitu
zoaz Otxandiora ta
hango harriei galdetu”.

4)
Izan naz, ba, Otxandion
ia norbaitek zer dinon.
Harriak badagoz baina
Bittorrik ez dabil inon.

5)
“Oraintxe jatort gogora
hiru bat urte izango da
«Agur, San Antonio» ta
galdu zan Anboton gora”.

6)
Anbototik Gorbeiara
pasa zan antzar ilara.
Lumazko letraz idazten
eben *Erro eta Gara*.

7)
Agur, Bittor adiskide!
Segi zuk aidean libre.
Ez hartu prisarik, baina
nonoiz helduko naz ni be.
Segi zuk aidean libre
Agur, Bittor adiskide!

ESNEAREN ETXEA

2012-09-17. Lazkaoko Iztueta baseritik eskari bat iritsi zitzaidan, oso gustura egin nuena. Bertso ezberdin batzuk, etxerako bertarako bat, banaketarako beste bat, eta, azkenik, promoziorako beste bat. Hona hirurak jarraian.

Esnearen etxea

Esnearen Etxea da
zapaltzen ari zarena
gizaki eta abere
sendi bakar bat garena.
Sortzen dugun isurkia
bere zurian gardena
bizigai eta sendagai
gurea eta zuena.
Lurrak badu arima bat
behiak bazkatzen duena
guk gehitzen dugu bakarrik
lana eta sentimena.
Gizon eta emakume
zelula bat da hau dena
ondasun bat eskaintzeko
naturaren berarena.

Betiko esnea betiko eran

Betiko esnea, betiko eran
gaurko aurrerapenekin.
Betiko inguru, belar eta lur
behiak zer duen atsegin.
Ekoizpen txiki, kalitatezko
izadi zindo baten duin
baserri edo lantegitxo bat
edo sendi-lan bat berdin
bizi oso bat edango duzu
Iztueta esnearekin.

Iztuetako behiak

Iztuetako behiak
dira zoriontsu
esneak berriz: “Ni naiz
emaitza” diotsu.
Naturaz ez bazara
oraindik fio zu
jogur edo izozki
usain egiozu
ta jateari ezin
utziko diozu.

ARNALDO OTEGI

«Arnaldo Askatu» izeneko Elgoibarko herri-plataformak antolatu zituen ekitaldi askotan kantatzeko zortea izan nuen, eta hemen daude gordeak nituen sorta batzuk. Ez dira bertso jarriak, baina guztiz bat-batekoak ere ez.

2012-01-28. Logroñoko espetxe aurrean.

1)
Aupa, Arnaldo, bazakiagu
entzuten haizela ari
hire oinetan elkartu gaituk
erromes eta kantari.
Hi ez haiz, noski, Santiago edo
Pilareko Andre Mari.
Hi haiz olatu handikor baten
ikur eta buruzagi
eta eraso denen gainetik
laster gure lehendakari.

2)
Aro berri bat abiatu da
olatua gorantz dator
Portuan eta zeruan bada
kaio aina zantzu baikor.
Pentsa oraintxe dela eustea
inoiz ez bezain emankor
lortua denaz lasaitu edo
konforma ez dadin inor.
Zuen kinada behar diagu
aurrera jotzeko gogor.

3)
Euskaldun askok ardo-herritzat
ikusi ohi dik Logroño.
Guk ez diagu ikusten zuen
indar kolosala baino.
Indar horrexek zaituzte laster
ekarriko etxeraino
etxetik ere aurrera beti
independentziaraino.
Zer gutxiago gaituk, ba, europar
estatu txikiak baino?

2013-03-02. Logroñoko espetxe aurrean.

1)
Kaixo, Otegi, Arkaitz ta denak!
Bizi al zarete oraindik?
Bai, noski, zeren zuen airea
sumatzen duk edonondik.
Gu ere bizi-indarra hartzen
ari gaituk zuengandik.
Nahiz urtean behin etorri hona
urrunera ta urrundik
gure begiak urte guztian
ez dituk joango hemendik.

2)
Lotsagarria dela European
baina zuek segitzen hor.
Zentzu gabeko zigorra dela
baina zuek eusten gogor.
Jakirik zuen baikortasuna
gu ere ez gaudek ezkor.
Jada birloran dagon zuhaitza
bere fruitura baletor
denek aitortu beharko dute
zuek zinetela enbor.

3)
Hire aurrean gaituk, Arnaldo
burutik ezin kenduan
nola mendeku inperial batek
ezabatu nahi hinduan.
Espainia hori usteltzen eta
hondatzen doan moduan
Euskal Herriak laster dik egin
bere lekua munduan.
Eta garaipen horren izar bat
hi izango haiz orduan.

Azken agurra:

Agur, Arnaldo, ta agur, Arkaitz
beste denekin batera
bateragune hauxe bidali
nahi gendun zuen atera.
Berriro ere hemen izango
gaituk urtetik urtera
baina ez zinez amestu gabe
geure hurrengo aukera
etorri behar baitugu zuek
etxera eramatera.

2014-10-10. «Arnaldo askatu» ekitaldia, Elgoibarren

1)

Inork ez zuen uste helduko
ginenik bosgarrenera.
Heldu gara, ba, ta aldatzeko
itxura gabe gainera.
Behin honezkero itxoin beharko
zigorraren bukaera.
Estatuaren seta beltz hori
dei bat bezala da bera
guk ere eramán dezagun geure
helburua azkenera.

2)

Espainiako inperioa
mendeetan ezaguna.
Inperioa txikitu zaio
baina ez zitaltasuna.
Zital horretan sartzen da denok
mendekutzat jo genduna
mendeku hortan diraute baina
bidean dator eguna
dena batera ospatu eta
irabaziko duguna.

2015-10-18. Arnaldori ongi-etorria Elgoibarren:

1)

Zenbat alditan kantatu dugun:
“Noizbait eguna hel bedi!”.
Ongi-etorri lehenik batzuei
ta bihotzez agur t´erdi.
Beste batzuek oraindik hortxe
beharko duzue segi
ta zuk, Arnaldo, ez pentsa ematen
zaizunik aipu gehiegi
zure abizen bat baino askoz
gehiago baita Otegi.

3)

Han eta hemen “Otegi aske!”
Zenbat aldarri, zenbat hitz!
Udaberrian gertatuko da
gehiengo baten poz handiz.
Zu ere, Rafa, beste denekin
gure martxan hemen zabiltz
baina gaur zertan etorkizuna
jarri zabal edo murriz?
Itzul zaitezte osorik eta
oso ta erdi ahal balitz.

2)

Kloaka baten zuzenbidetik
epaia jakin zenduan
eta urteak etorri dato
okerra ezin onduan.
Behin honezkero itzuli zaitez
guztia bete orduan
baina itzul zaitez Mandela edo
Mujika baten moduan
laster figura agintari bat
izan zaitezen munduan.

TRONPATU NAIZ ZORIONEZ

2019ko maiatza. Euskadi Irratiko *Faktoria* programa. Banuen etxean RDS telefono bat, irratia ipinia. Programaren aurkezle Manu Etxezorturi honako mezua bidali nion:

Kaixo, Manu:

Nire aparatua ez dabil. Duela denbora bat, teknikariak etorri ziren, konsola berria ere utzi zuten, baina... (Horrelako xehetasun batzuen azalpena). Esaiozu, mesedez, teknikariren bati ...

Kontua da, Manuri iritsi beharrean, mezua Mixel Etxekoparri iritsi zitzaioa, zeinak honako bertsoarekin jakinarazi baitzidan okerra:

Zure aparatua!
Ez dabil berria.
Eta zu bila ari
non teknikaria.
Hemen aurkitzen naiz ni
gogoan irria
teknikari bat txarra
soil txirularia.

Izan ontsa berriz arte
berriz ontsa izan arte.

Bertso eta agur-era bitxi horri neuk ere koplak batekin erantzun nion:

Tronpatu naiz zorionez
zu hartuz Manuren ordeztu.
Zuk zuzendua umoreztu
jaso dut irria gordeztu.
Oker nengibilen edo ez
tronpatu naiz zorionez.

«HERRIRA!» EKIMENA

2013-03-17. Gernikako Jai-Alai pilotalekua lepo bete zen, *Presoak Euskal Herrira* izeneko kanpainaren barruan. Ekitaldi hartarako, zerbait egitea proposatu zidaten, eta koplak hauexek kantatu nituen.

1)
Arratsaldeon, Gernika!
Halan besteok herrika.
Ipini daigun berbetan
kanpai zaharren errepika.

2)
Suziri horrek zer dira?
Presoak Euskal Herrira!
Osoaren esperantzan
gitxienez biderdira.

3)
Zelan loreak alera
halan presoak kalera.
Ortzimugan begizten da
arranoen itzulera.

4)
Olatuak kai ertzera
bardin presoak etxera.
Izan daitela etxera
baina ez etxe hutsera.

5)
Herri, kale eta etxe
zer bake edo baketze?
Berbatxo bi falta dira:
Oraintxe eta hementxe.

6)
Zer dozu biharko barri?
Zoroak bardin igarri.
Kaletik etxera eta
etxetik herri ta harri.

7)
Batzuek dinogu baietz
Madrildik ezetz da ezetz.
Erdian dabilzenekin
barkutxoak egin leikez.

8)
Ezin da lortu adosik.
Onena izango da kasik
mapatik alde eginda
bizi daitezela pozik.

9)
Madariak zazpi hazi
behar dira ehunda zazpi.
Eusteak erakusten dau
zer behar den irabazi.

10)
Hauxe da despedidea
agur, jente senidea!
Helmuga bistan dago ta
badakizue bidea.

«GATZA»

Jose Maria Sagardui, «Gatza». Espetxean 25 urte bete zituen egunaren inguruan, bere jaioterri Zornotzan hainbat ekitaldi egin ziren. Mikel Urdangarini eta niri kanta bat egitea proposatu ziguten, eta hauexek dira nire bertsoak, Mikelek bere doinu berri batean grabatu zituenak.

1)

Mende lauren bat zelan bete dan
pentsetan be hain da gatxa!
Zorrontzan bazan esakera bat
“gatza eta berakatza”.
Guretzat “Gatza” zara zu eta
izango be aurrerantza
fintasunaren berakatza ta
bizitasunaren gatza.

2)

Mende lauren bat, aurrean hormak
eta zigorrak atzean
eta zu hortxe diamantea
sarturik legez hatxean.
Imajinatzen zaitugu zeure
ziega estu baltzean
giza ardatzik makurgaitzena
gatzean eta latzean.

3)

Mende lauren bat edo hogeita
bost arantzako lorea
gudaren alde gordina eta
gudarien ohorea.
Zilarra ona, urrea ona
Zer hobea? Zer hobea?
Agertu zendun, agertzen dozun
gatza eta adorea.

4)

Mende lauren bat, bizi erdi bat
irunsi dauen osina
Herri bategaz egitearren
askatasunaren zina.
Etsita behar zendun oraingo
ez bazina, ez bazina
amaren odol, aitaren azal
gatzaren ustelezina.

ALAIA ETA XABI

2022/05/20. Zeanuriko nire senide Txomin Ozerinjauregik esan zidan bere alaba Alaiaren ezkontzan bertso batzuk berak abestu gurako zituzkeela, eta ea zerbait egin ahalko nion. Nola ez, ba! Alaia, ikasketaz eta lanbidez psikologoa, Xabier Etxebarriarekin ezkonduko zen, futbol profesionala utzi berria berau, Bilboko Athleticen lehen taldea barne. Ezkongaien datu batzuk jasorik, bertso hauexek bidali nizkion zortziko handian, doinurik errazenak neurri horretan aurkituko zituela pentsatuz.

1)
Ondo etorri eta esker on
batu zarien danari!
Zeren motiboz gagozan hemen
jantzietan dago argi.
Halan, ba, mila zorion danon
partez, Alaia ta Xabi!
Esanda ez da nahikoa eta
hagaitik gatoz kantari.

2)
Biok batera zabiziela
hamabost urte edo da
alkar polito ezagutzeko
bada nahikoa denpora.
Bitarte hori ondo joan da ze
beitu nondik eta nora:
Dimen hasi zan ibilbidea
ailegau da destinora.

3)
Psikologia eta futbola
ondo ezkontzen dirala
lehen halan bazan, heldu jatzue
baieztapen literala.
Gure aldetik, Alaia-Xabi
hauxe bai benetan dala:
Zuen bizitzak datorren dana
onetik izan daiala.

KOPLAK UMEENTZAT

Roberto Etxebarria trikitilariak kopla-sorta batzuk eskatu zizkidan, bere ikasleekin kantatzeko. Hauexek bidali nizkion:

Trikitia

- 1)
Sagarrak daukaguz loran
iturriko aldasgoran.
Nik gura neuken pitxi bat
ez dakit nora joango dan.
- 2)
San Jose lorak larrean
udabarria aurrean.
Zerua ikusi neban
nik zeure irribarrean.
- 3)
Zozoa kantuz goizetan
ta ni zeugaz amesetan.
Lagundu eidazu dantzan
edo zeuk agindu zetan.
- 4)
Kukua entzun dot atzo
neuk bere egin dot zantzo.
Dantzan gura ez badozu
egon zaitez mantso-mantso.

Porrusalda

- 1)
Erlea ibiltan da
loratik lorara
goizean eskolara
gaubean lotara.
Agur, ama, gaur belu
etorriko gara.
- 2)
Ez jaku gitxi kosta
dantzan ikastea!
Hanka bat altza eta
lurrean bestea
biak altza ezker
seguru jaustea.

- 3)
Mahaia lau hankakoa
maisua bikoa.
Beti ikasten eta
inoz ez nahikoa.
Katuak eroan dau
gure lapikoa.

- 4)
Zoaz haratxoago
edo erdu hona
aititak ez dau gura
amamak emona.
Gaztetan izango zan
txorimalo ona.

Txoriak eskola bueltan

(*Egun da Santi Mamiñe*
doinuan kantatzekoak).

- 1)
Txoriak eskola bueltan
gustaten jakuz benetan.
Eurei entzunez egun osoa
pasako geunke olgetan.
- 2)
Andereño Martak dino:
“Ez da ordua ondino”.
Kaleko hotza gurago dogu
hemengo epela baino.
- 3)
Aste Santua badator
oporraldi bat bada hor.
Hoba litzake San Joan gaba
bihar goizean baletor.
- 4)
Udabarria badoa
laster da uda beroa.
Hau da hau dantzan eta hondartzan
asaskateko gogoa!

MINTZOLA-SUBIJANA ETXEA

Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen eskutik, Billabonako Mintzolan edo Subijana Etxean, egoitza berriaren inaugurazio ekitaldi distiratsu bat antolatu zen. Bertso batzuk edo nahi nuen zerbait egitea proposatu zidaten, eta sorta haxe kantatu nuen. Elkarrizketa antzera moldatuak izanik, bigarren eta laugarren bertsoak Etxearen beraren ahotik bezala ulertu behar dira.

1)
Ohore zuri, egoitza berri
ortziak bizi zaitzala
lehen Subijana zinena orain
Mintzola zaren bezala.
Izen horzkari, ozena duzu
fabrila ta musikala
lehengo ilunetik sortu zaizuna
zuritasun kolosala.
Zer nahi zenuke etorkizunak
zuretzat ekar dezala?

2)
Zueri ere ohore eta
onezko desira bera.
Etorkizuna ez al da zeuek
erantzuteko galdera?
Euskaldunaren sen basikoan
etxe baten izaera
badakizue izaten dela
etxekoen arabera.
Hemen naiz, bada, zuen meneko
zer izan hontaz aurrera.

3)
Gure lehenengo kolegioa
zela sagardotegia
zu ola zinen orduan eta
orain bertso-lantegia.
Izan zaitela, oi berritasun
kasikan ederregia
bertsozko hitzen erdietxe ta
sorkuntzaren jauregia.
Erdia zeure barrurantz eta
kanporantz beste erdia.

4)
Badakizue zein den etxe bat
honda lezaken patua.
Zahartu nahi nuke uztaren kargaz
ez denborak zanpatua.
Nahi dut sendirik ugarien bat
nazionala ta batua
beherantz gozo, gorantz oldartsu
igotzen den olatua.
Mundura ere zabalik eta
munduaren olatua.

5)
Izango duzu sendi ta mundu
eta uzta zeinek eman
zin dagizugu leialtasuna
Arestik zekien eran.
Baina ez dizugu zahartzen utziko
denboraren erriberan.
Iraungo duzu gaur bezain fresko
gaztetasun irriberan
zure atetik pasatuz joango
diren belaun berriengan.

KULTUR ETXE BERRIA

2022ko martxoan, Atarrabiako David Bizkai Iturrik bertso batzuk eskatu zizkidan bera idazten ari zen liburu baterako, Atarrabiako Kultur Etxe berriaz. Lehen kolpean, bera animatu nuen bertso horiek egin zitzaizkion, gero, nahi bazuen, nik berrikusita. Hiruko honen lehenengoa berea da ia hitzez hitz. Gainerakoak nik egitea nahi zuen. Datuak eta ideiak eskatu nizkion, eta hurrengo bertso biak neuk eginik, hiruko hauxe geratu zen, beti ere berak adierazi nahi zuenaren gainean.

1)

Kultur Etxe berria da
eraikin mundiala
egitasmo handiaren
jabe dela udala.
Zein du, ordea, bihotza
erdi bizirik hala?
Pertsonarik gabe bertan
ahalegin hutsala.
Jalgi bedi Atarrabia
suziri bat bezala
herri-mugimendua da
motore kulturala.

2)

Zenbat diren elkarteak
Atarrabiakoak!
Kontatzeko behar hatzak
esku-oinetakoak.
Hala ere, asko dira
hortik gainerakoak
ez bat eta sei ta hamar
baizik dozenakoak.
Eta ez soilik hainbat baizik
mota orotakoak
batzuk «Industrialak» eta
besteak «Landakoak».

3)

Herri hontan batzen dira
Arga eta Ultzama
ibaiak hortik aurrera
doble indar darama.
Hala nahi dugu elkarte
horien denen lana
bakoitzak bereaz gaindi
bildu elkarrengana
Kultur Etxe honek ukan
dezan denboran barna
Kultur Herri bizi eta
euskaldun baten xarma.

ALBERTO BADIOLA ETA XABIER ELU

Bertso-ibilbidea amaitzear nuela, hauxe izan zen saio niretzat delikatuena. 2016ko martxoaren 14an, Ondarroan, Alberto Badiola eta Xabier Elu, izotz fabrika bateko langileak, amoniakoaren eztanda batek hil zituen. Kofradia zaharrear egin zitzaien hileta ekitaldian kantatzeko eskatu zidaten, eta benetan langintza emozionalki gogorra izan zen. Bizitza honen geroko jarraipenean sinesten ez baduzu, zer kanta dezakezu kontsolagarri edo hain samin handiaren leungarri? Bestalde, egun haietan Ondarroako herri guztia airean bizi zen, mendi bat gainera zetorkiolako. Tragediaren aitortzak eta poesia zerbaitek bakarrik laguntzen dute horrelako trantze batetik duinki eramaten.

1)
Neurri hontako zorigaizto bat
kantatzea ez da gozoa.
Familia bi lur joak eta
mindurik herri osoa.
Destinoaren ezpata baltza
zugana bada jaso
negarrarekin baino ezin da
jasan bere eraso.
Eskerrak malko danak hartzeko
gertu dagon itsaso.

2)
Bizibideak eroan zaitue
Xabier eta Alberto
laguntzaile zen gas bat hiltzaile
bihurtu zena tarteko.
Portuan laga dozuen hutsa
ez da sekula beteko.
Kontsolamen bat dago bakarrik
herriari emoteko:
orain mendi bat igual zainduko
dozue hortik hobeto.

3)
Zerualdea lar ilundu da
lainoak pilatu jakuz.
Hasiko ahal da astiro-astiro
argiuneak banatuz.
Agur Alberto, Agur Xabier
minez, baina ahots altuz
saiako gara zuen gomuta
gozotzen hitz eta kantuz
ziur begiak bustita baina
«Boga Ondarru!» kantatuz.

BIZKAIAN ZEHAR

ANBOTOTIK GORBEIARA

Kopla zaharretan, Bizkaikoetan behintzat, nekez izaten da argumentu bat edo diskurtso bat. Kopla bakoitza ale solte bat izan ohi da, dela irudi, dela arrazoi. Izan al daiteke argumentudun sorta edo poema bat? Zergatik ez, generoaren estetikari eusten bazaio? Hona bi adibide, batean Bizkaiko herri batzuk, bestean Euskal Herriko mendi esanguratsu batzuk. Lehenengoa Kepa Junkerarentzat, bigarrena Tapia eta Leturiarentzat. Bata ironikoa, bestea lirikoa.

1)
Ondarru ta Lekeitio
Elantxobe ta Bermio.
Daukanak ez daukanari
popatik ematen dio.

2)
Erandio ta Santurtzi
Lutxanan txitxi-burduntzi.
Altzairuak sardinari
igerian erakutsi.

3)
Arratiako zekorra
txikerra baina gogorra.
Lekura heldu ezker
garantia hilezkorra.

4)
Anbototik Oiz puntara
airezko zubi bat bada.
Batean ezin denean
bestera pasatzen gara.

5)
Bizkaiko herri zenbaitzu
hurrengoan beste batzu.
Goraintziak aititari
amamak uzten badautzu.

1)
Anbototik Gorbeiarra
ortzian arku bat bada
eztaietan edertzeko
Bizkaia eta Araba.

2)
Jaizkibel eta Aizkorri
Ernion gora oskorri
haitzean isladatzen den
Gipuzkoa eder hori.

3)
Aralartik Iratira
izarrak oihandu dira.
Ilargia pasatzen da
Nafarroari begira.

4)
Ordeka eder Lapurdi
Zuberoan bortu haundi.
Gorago ta lerdnago
Orhi eta Auñamendi.

5)
Aturritikan Ebrora
itsasoa eta lehorra.
Herri batek kantatzen du
etorkizun hilezkorra.

JOSE MIGELEN BATELA

2011-01-17. Bermeoko Artza pilotalekuan, kontzertu handi bat, herriko koru eta musikarien aldetik. Parte hartzera gonbidatu ninduten, eta *Jose Migelen batela* izeneko doinu ezagunean, koplak sorta bat burutu nuen, denek batera interpretatu genuena, nik koplak, eta koruak, musikariek eta entzuleek leloa kantatuz. Doinu bikoitza du, a eta b, neurriak ere ezberdinak dituela.

“Kakapur”. Orduantxe jakin nuen hitzaren benetako jatorria eta esanahia. Bermeon bada familia oso bat, “Kakapurrenekoak” deritzena, gertaera bitxi batetik. Familia horrek denda bat zeukan, eta dendariak, antza, azukrea, arroza eta halako jenero xeheak hain astiro eta ondo neurturik ematen zituen, ezen zain zegoen andre batek esan omen baitzuen: *Jesus! Zuk kaka be apurka emongo zeunke*. Hortik “Kakapur” eta “Kakapurrenekoak”.

- | | |
|--|---|
| 1)
a) Jose Migelen batela
karga-karga dakarrela
txitxarroa Almiketik
Kakapurretik berdela. | 4)
a) Ikastolako batela
boga-boga mariñela.
Urte barrijek itxaso
eder bat emon dajjela |
| b) Jose Migelen batela dabil
portuan ezin atraka
katxalotie ustela dakar
Francoren narruz forrata. | b) Euskal Herriko batela dabil
itxaropen barrietan.
Aurten beteko ahal da amesa
hain itxarona benetan |
| 2)
a) Patxi Lopezen batela
laster joango da urpera.
Komeni da joan daitela
Basagoitigaz batera. | 5)
Gaur bonbaz mehatxatu gaitunak
ez gaitu bota zulora.
Geure bidean aurreratzeko
arrazoi bat gehiago da. |
| b) Zapateroren batela dabil
Patxi Lopezen uretan.
Bata-beste salbatu nahian
biak ito leikez bertan. | 6)
a) Agur, Bermio, azkenez
danori ta danon partez.
Eskerrik asko bihotzez
beti holan porta zaitez. |
| 3) Mariano Rajoy-n batela
ez da ordezko ederra.
Galego bategaz lehen be
izan gendun nahiko gerra. | b) Agur, Bermio, agur, Bermio!
Hain gagoz zuekin pozez!
Hain ondo porta zarielako
eskerrik asko, bihotzez. |

- Almike. Bermeoko baserri-auzo bat.
- Zapatero, Jose Luis Rodriguez, Espainiako presidentea. Patxi Lopez, orduko lehendakaria. Basagoiti Antonio, orduko PPren Euskadiko idazkari nagusia.
- Mariano Rajoy. Une hartako PPren Espainiako idazkari nagusia, laster presidente bilakatuko zena.
- “Galego bategaz”. Franco galegoa izan baitzen, Rajoy bezala.
- “Gaur bonbaz mehatxatu gaitunak”. Egun hartan izan zen leherketa bat, jatorri parapoliziaren itxura guztia zeukana.

TXOMIN ZILUAGA

2012-10-25. Lagako hondartzan egin zitzaion omen-ekitaldian kantatu nituen bertso hauek.

1)
Oi, gure Txomin! Iritsi zara
itsasoaz bestaldera
Santi ta zure hainbeste lagun
zain dauden hegal maitera.
Hortxe ere zu geldi egotea
posible izango ote da?
Har zazu atsedean irabazia
marrazoekin batera
eta ez irten, ez bada noiz behin
olatuak ikustera.

2)
“Irabaztera kondenaturik”
ukabil bat zeruraino
zure oihu ezagun hura ez zaigu
erabat bete oraino.
Baina bide bat utzi zenuen
urrundik urruneraino.
Guk ez daukagu zure oroimen
biziari segi baino
eta, nola ez, zure kemena
eroan azkeneraino.

3)
Ohore zuri, gidari handi!
Agur, gure Ziluaga!
Gaurtik bi izen banaezinak
dira Txomin eta Laga.
Noizbait “kondena” dohatsu hori
betetzera heltzen bada
horizonteak islatuko du
berriz zure begirada
eta mirari horrek deiturik
garaile jaikiko gara.

TXINOAK DAUZKAT GOITIK

Nork zehazki gogoratzen ez dudan norbaitek kopla batzuk eskatu zizkidan aspaldi, baina, nik dakidanez, oraindik ez dira inon erabiliak izan.

1)
Txinoak dauzkat goitik
txinoak azpitik.
Ispiluetan ere
txinoak dakuskit.
Ametsetan ilaran
desfilatzen zaizkit
oraindik ez didate
sortu amesgaitzik.

2)
Lasai esnatu ohi naiz
txinoen kalera
ez bainaute bortxatzen
txinoa izatera.
Ez gaituzte behartzen
mugaz bi aldera
“fraternité”-ra edo
“una gran libre”-ra.

3)
Espainia zen Kuba
Manila ta beste.
Zergatik gu beste bat
izan ez gaitezke?
Inperio txar baten
ondorio triste
auzo onak izaten
noiz hasiko zizte?

3)
Gu garela zuen gaitz
guztien laburpen
ez dugu, ba, plazerez
etsigaitz jarduten.
Utziguzue zuek
maita zaitzaguten
distantziatik eta
paretasun baten.

5)
Ahazturik konkista
franco-espainolez
proba zazue noizbait
nahi dugun ala ez.
Zuen aldera balitz
hor gaudeke lehen lez
bestela utzi geure
airean hegalez.

6)
Karlostik Fernandora
Primotik Francora
ez zarete aldatu
askorik gerora.
Zuen morrenen aurka
gatoz maldan gora.
Azkenean tontorra
gurea izango da.

MIKEL LABOAREN OMENEZ

2008-12-06. Laboaren oroitzapenez, Durangoko Azokako Ahotsenean egin zen ekitaldian kantatu nituen bertso hauek.

1)
Hain bakan zure pertsona eta
hain bakar zure artea!
Agur, Laboa handia eta
adio, Mikel maitea!
Bietan zeuk nahi duzun ordenan
betiko bizi zaitea.

2)
Zure ahotsa hain sarkor eta
bere zalantzan hain gazte!
Maitea zara, handia zara
denek aitortzen zaituzte.
Maiteak asko izan litezke
hain handiak ez hainbeste.

3)
Goizuetatik Lesakaraino
ortzadar bat da haitzean.
Iraunen duzu Baga Bigaren
eta izarren hautsean
zure artearen handian eta
euskaldunon bihotzean.

PERIKOREN ARRAZOIAK

Periko Solabarria hil zenean (1930-01-27 - 1915-06-24), *Argia*-tik kolaborazio bat eskatu zidaten, eta haren pertsona eta pertsonaiari buruzko hiru bertso hauexek bidali nituen. Lehen bertsoan kontatzen den pasartea eta antzekoak ospetsu egin ziren Bizkai guztian. Portugaleteko eliz agintariak eta Bilboko gotzaingoa ere astindu zuten galanki.

1)
Neska bat haurtxo batekin dator.
Etxegabeen samina.
Ostatatzen du elizan eta
goietan a zer muzina!
“Ama Birjina balitz –darantzu–
zein litzateke ezina?”
“Gainera birao!” –sutzen zaizkio
eta Perikoren zina:
“Ez da, ba, joango zeren gaur hemen
hauxe da Ama Birjina”.

2)
“Ezin dugula esan al dute?
Ba, egin dezagun proba!”.
Zapalkuntzari jarkitzea zen
haren sostengu baikorra.
Berdinentzat hain samurra eta
goikoentzat hain gogorra
haren ars vitae teorikoa
laburtu ahal balitz, horra:
“Egin sinesten duzuna eta
betor nahi duen zigorra”.

3)
Hizkeran gatza gesalak aina
arrazoietan eztena
konsekuentzia, berriz, galtzeko
ezer ez daukan batena.
Lema bat zuen: “Lehenik egin
eta gero azalpena”.
Zeren “hutsaren gainean zer da
esplikatu behar dena?”.
Periko berdin hirutasun bat:
sena, bihotza, kemena.

«PERIKO, BETIKO»

“Betiko Periko”. “Periko, betiko”. Beti bat eta bera izan zena. Udal hauteskunde batzuetan aurkeztu zenean, deitu zidan esanez pare bat bertso egin behar nizkiola, berak mitinean kantatzeko. “Pero que no sean demasiado buenos, para que puedan creer que los he hecho yo”. Egin nizkion eta egunak eman zituen, buruz ikasi ezinik. “No me entran en la cabeza”. Hauexek izan ziren, ez “onegiak”, beharbada, baina bai sentimendu osokoak, Perikori bidali nizkionak, eta hark bere mitinean kantatu zituenak. Gero deitu zidan, esanez: “¡Todos asombrados! Me felicitaban por lo que había avanzado yo en euskera”.

1)
Zuen herria, gure herria
zuen-gure Barakaldo.
Udaletxea herriratzeko
noiz aukera ederrago?
Ni naiz betiko Periko eta
betiko lekuan nago
betiko txapel lantsua eta
beti baino tenteago.

2)
Badakizue nor naizen eta
nongo langilea naizen.
Ez dut osperik, dirurik edo
negoziorik bilatzen.
Esaiozue Barakaldori:
"Herritarrok bil gaitezen!
Perikok ez du goikorik maite
ez behekorik engainatzen”.

2015-11-6. Bere heriotza ondoren, Portugaleten egin zitzaion omenaldian, bertso hauexek kantatu nituen.

1)
Agur, Periko, zeure kalean
betiko sentipen maitez!
Ezkerraldean ezkerrena zu
kemen harrigarri batez.
Bizi-legeak mendera gaitzan
onartzen dugu nahitaez
baina gizaki batzuk besteak
zapaltzerik sekula ez.
Zu izan zara makurgaitzena.
Noizbait atsedendu zaitez.

2)
Zugatik esan duguna ez da
inoiz izango gehiegi
eta aukera dugun guztian
nahi genuke hortan segi.
Zurea ez zen izan bizi bat
baizik zazpi eta erdi.
Zure zelaia orain haizea
edo ura izan bedi
ziur baikaude zu hortxe ere
ez zarela egongo geld.

Ondorengo bertsoa Perikoren errautsak itsasora bidaltzeko ekitaldian izan zen.

Errautsak portu gainean behera
txapel zorrotza buruan
zaude etxekoen odolean da
zaude gure akorduan.
Zer esan zure izate dena
urari eman orduan?
Ezkerraldean, Euskal Herrian
zabaldut zinen moduan
zoaz Kantauri itsasora ta
zabaldut zaitez munduan.

SAGUA ORDENAGAILUAN

Ez daukat gogoan zertarako edo norentzat egin nituen kopla hauek. Kopla sorta gehienetan egiten ez dudan moduan, hemen errepikak ere idatzita zeuden ordenagailuan, eta halaxe utziko ditut.

1)
Neure sagu maitea
beti hatzen bueltan (bis)
goizean joan naiz eta
ez zegoen bertan.
Hatzen bueltan
ez zegoen bertan.
Neure sagu maitea
beti hatzen bueltan.

2)
Ezkutatu ote zen
ordenagailuan (bis)
katua bere bila
bidali nuan.
Gailuan
bidali nuan.
Ezkutatu ote zen
ordenagailuan

3)
Sagua ote zen ala
sator horia (bis)
hortzetan ekarri du
twitter txoria.
Txoria
sator horia.
Sagua ote zen ala
twitter txoria.

4)
Ez, oi, Mixino maite!
Sagua behar dut! (bis)
Ekarri bera edo
zabortuko zaitut.
Behar dut
zabortuko zaitut.
Ez, oi, Mixino maite!
Sagua behar dut!

5)
Murgildu da katua
softwarrean da (bis)
panda gizen bat dakar
virusak janda.
Bai janda
softwarrean da.
Panda gizen bat dakar
virusak janda.

6)
Hori ez zen, Mixino,
nire enkargua! (bis)
Zoaz ta ekar niri
bizirik sagua.
Enkargua
bizirik sagua.
Hori ez zen, Mixino,
nire enkargua!

7)
Albistea ekarri du
miau sarkorrean (bis)
sagua sartu dela
disco gogorrean.
Gogorrean
miau sarkorrean.
Sagua sartu dela
disco gogorrean.

8)
Ai, ama! Ez! Hori ez!
Hau izorratu da! (bis)
Argia moztu eta
banoa portura.
Portura.
Hau izorratu da!
Ez, mesedez! Hori ez!
Banoa portura.

LANKUREN 10. URTEA

2013-10-25. Itziarko hostalean egin zen afari-jaialdi handi batean, sorta hauxe eta ondorengo agur-sorta kantatu nituen.

1)
Gabon, Itziar maite
halaber Hostala
neuri egokitu zait
gaurko diosala.
Gau sorgintsu bat gerta
baledi, oxala!
Goizean bidaltzeko
norbaiti postala
ospakizun bat izan
zela kolosala.

2)
Itsasoak Andutzi
“zer moduz?” diotsa.
Erdian herri noble
baten kanpai hotsa.
Udal izateko ere
baluke bihotza.
Gutxienez eskaini
deiogun aitortza
ez duela merezi
inoren laiotza.

3)
Arriola, Egia
Itxaspe, Mardari
Elorrixak beiratzin
dio Endoiari.
Arbizkuak Lasturri:
“Non haiz gordea hi?”
Zortzi izen herri bat
auzo-lantzen ari
Itziarrek badauka
zer eman Debari.

4)
Industrigune batek
handian bakanak
baditu hainbat urte
baikor iraganak.
Orain erdiak hutsik
edo larri danak.
Berpiztuko ahal ditu
Itziarko Amak
infernuko norbaitek
zulora emanak.

5)
Eskerrak ziklismoan
pasio emale
Itziarren ez diren
ibili logale.
Bertso kontuan berriz
lari edo zale
harripe bakoitzean
dituzu bi ale
Uztapideren sena
bizi den sinale.

6)
Itziarren hautatu
dute kokapena
Lankuren hamargarren
urtemugarena.
Bertsoa zen lehenago
berezko ahalmena
gero gehitu zitzaion
lantzeko nahimena.
Orain antolakuntza
ez da gutxiena.

7)
Hamar urteok dira
nola hamar tontor
esanez: “Hemen gaude
sendo ta iraunkor”.
Segurantzaz horrekin
lankizuna betor
baina lehenik aitortuz
zenbat diegun zor
lana eta gogoa
jartzen dutenei hor.

8)
Amaitzeko, ez baitut
neuk dena beteko
goza zaitezte denok
Lankuren meneko.
Desio dizkiegu
hamar hamarreko
bai denbora gisara
mende bat hartzeko
edo nota gisara
urte bakoitzeko.

Agurra

1)
Pello Josepe tabernan dala
haurra jaio da Larraunen.
Guri ez ahal zaigu berdin gertako
gehiegi luzatuz hemen.
Etxera joanda ezin esango:
“Ez genekien non geunden”.
Baina bai, noski, esango dugu:
“Penaz aldegin genuen”

2)
Penaz amaitzen zaizkigu gaurko
lagunarteko murgilak
ez goraiatu gabe berriro
Lankuko neska-mutilak.
Aurrera-martxa segur da nahizta
eraso krisi hurbilak
bertsoa eta bertsozalea
baitira gure gurpilak.

3)
Agur, Itziar! Gabon, entzule!
Mila esker ta bat gehiago
hamar urtera berriz hementxe
edo nahi bada lehenago.
Elkar gintezke gaur bezain sano
ta agian gazteago.
Zergatik ez, ba, gaztetasuna
buruan baldin badago?

BERRIZKO KANTU-AFARIA

Berrizko Ganekoetxe jatetxean, kantu-afari bat egin genuen, eta hainbeste kantaren artean, koplak batzuk kantatu nituen. Kopletan aipatzen diren Ismael artzaina eta Iñaki inkonbustiblea lagunarteko adintsuenak izango ziren. “Alfa”, herriko pertsonaia popular bat. Olakueta, Berrizko kale-inguru nagusia.

- | | |
|--|--|
| 1)
Miru zuriak eroan ei dau
oilandatxoa airean.
Haren lumatxo batzuk topauko
zenduezan platerean. | 8)
Honelakoxe ikastaroak
behar litzakez danean
azterketarik bakoak eta
saritxoa azkenean. |
| 2)
Aramotzetik Oizera eta
Ganekoetxera Oizetik.
Gaur txitak eurak etorri dira
miru zurian atzetik. | 9)
Hauxe bai koru afanosoan
ganera koru mistoa!
Baina kontatzen hasi ezkeron
gehiengoan andrazkoa. |
| 3)
Geuk be bakigu ederto zen dan
kantuagaz hegaztea.
Hego bata da umore ta
lagunartea bestea. | 10)
Nork pentsauko eban Ganekoetxe
holan beterik lehenago!
Andrak izango zirana bertan
gehiago ta martxosago. |
| 4)
Esakera da on egin janak
eta edanak gatzik ez.
Eingo baleu be ez bildurtu ze
pastillak atara leikez. | 11)
Koru mistoa esan dot eta
hoberik ezin lei euki
bertan solista nonbrau ezkeron
Ismael edo Iñaki. |
| 5)
Pastillek hutsik eingo balebe
edo jausi atakean
ez bildurtu ze mediku on bat
badago gure artean | 12)
“Alfa” be inoiz topau izan dot
kantari Olakuetan.
Igartzen jako noiz dan Eibartik
edo Ondarrutik bueltan. |
| 6)
Esakera da kantuz dakien
herri bat ez dala hiltzen.
Hori egia bada ez gara
hain txarto bizi Berrizen. | 13)
Esan dot andra hain martxosarik
ez nebala hemen usteko.
Inoiz izan dot pentsamentua
neska-laguntzen hasteko. |
| 7)
Hamabost euro ordaindu eta
hogeina eurokoa jan!
Udaletxeai eskertu behar
mirari hori zelan dan. | 14)
Igual gaur bertan gagoz hortako
komentzi ederrean
baina ezingo naz lorrinzen hasi
neure andrearen aurrean. |

SAN MARTIN, AI SAN MARTIN

Plentziako eskola batera ipuin kontari joan nintzen. Sanmartinak gainean baitziren, hiru koplak eskatu zizkidaten txerrien destinoarekin lotzen den santu horretaz.

1)
“San Martin, ai San Martin!”
txarria negarrez.
Gizen-gizen eginda
orain hil beharrez.

2)
“Ai San Martin!” txarriak
kurrinka ta negar.
Hain ondo bizi eta
hain txarto hil behar!

3)
“Zergaitik hiltzen nabe?”
txarriak tristerik.
“Zer egin dot, ba, txarrik
janda lo besterik?”.

GOAZEN MENDIRIK MENDI

Bertso hauek hauteskunde kanpaina baterako eskatuak eta eginak izan ziren. Euren tonua ere argi dago berotasun bat sortzekoa dela. Uste dut “goazen mendirik mendiri” hori lema edo esaldi programatu bat izan zela.

1)
“Goazen mendirik mendiri”
dei egiten dute.
Arranoek herri bat
airean dakarte.
Euskadi askatzeko
beste zenbat urte?
Zutik eta aurrera
irabazi arte.

2)
Herri honen gogoa
mendeen alaba
egunaren zuloatik
altxa begirada.
Noiz iritsiko garen
azken helmugara
noiz ez dakigu baina
iritsiko gara.

3)
Bidean erorien
odol sakratua
aurrera doa gure
zainetan sartua.
Bizirik hartu dugun
herri zanpatua
utz dezagun bizirik
eta askatua.

BABESTU NINTZAN ANBOTON

1999ko Elorrioko Ibilaldiaren diskoan, Durangaldeko musikarien lanean, Berrizko Eneritz Gorrotxategi trikitilariarentzat egindako koplak dira hauek.

1)
Babestu nintzan Anboton
ez dakit seguru nagon.
Sorgin danak erretzeko
agindu dabe Durangon.

2)
Oizen dabil nire dama
bizirik libratu dana.
Sorgin fama daukanetik
gehiago maite dodana.

3)
Erdella eta Besaide
txintxibirin aidez aide.
Elorriok egin gaitu
lora barrien partaide

4)
Errebonbillo bonbillo
Ibilaldia barriro.
Arinago egin balei
zetan ibili astiro?

5)
Mugarrako hatxa altu
berak ezkutatu gaitu.
Sutatik libratu eta
amodioan trabatu.

Eneritzek berak, 2022an, eskatu zidan ea bazegoen sorta horri aldakuntza batzuk egiterik, kanta orokor bat izateko moduan. Honelaxe egokitu nuen sorta.

1)
Babestu nintzan Anboton
ez dakit seguru nagon.
Sorgin danak erretzeko
agindu dabe Durangon.

2)
Oizen dabil nire dama
bizirik libratu dana.
Sorgin fama daukanetik
gehiago maite dodana.

3)
Erdella eta Besaide
txintxibirin aidez aide.
Dantza-plazak egin gaitu
lora (esku) barrien partaide

4)
Errebonbillo bonbillo
gogotsu gatoz barriro.
Arinago egin balei
zetan ibili astiro?

5)
Mugarrako hatxa altu
berak ezkutatu gaitu.
Sutatik libratu eta
amodioan trabatu.

AMAIA ETA ZORION

2013ko udazkena. Itziarko Saralegi jatetxean, Amaia eta Zorionen eztei-bazkaria. Mutila “kotxezalea” afizioz, eta neska, dentista ofizioz. Ezkonberriak berriatuarrak, eta bazkaltiar gehienak ere bai. Mutilaren izeba-osaba batzuen aldetik (Amaia eta Gaizka), ezuste gogoangarri bat emateko proposamena iritsi zitzaidan. Bazkaria amaitu eta erromeriaren tarte batean, ezustean irtengo nintzen. Ez ezkonberriek, ez inork ez zekien ezer, aipatu osaba-izebez eta jatetxeko pare bat zerbitzari konplizez bestek. Guztien ezustean, erromeria gelditzea kostata lortu zenean, bertso hauexek kantatu nituen. Azkenekoa hamarreko handian, okasioari maila solomneago bat eransteagatik.

1)

Arratsalde on, Berritxu eta
ezkonbarriok zelan ez!
Ta zorionak ez dakit zenbat
burkada bat gitxienez.
Beti esaten dana izan arren
ez nator rutina soilez
hartu eizue sekula beste
inork entzun ez baleu lez.

2)

Amaia eta Zorion, a zer
izen pare dotorea!
Miragarria dala dinue
maitasunaren lorea.
Erdi banatzen jakin ezker
osoa baino hobea
ta zergaitik ez zuen kasuan
bakotxarentzat doblea?

3)

Erdi bana edo doblean izan
berezia da gaurkoa
zuen izenek eurek emoten
dabe nun jarri kakoa.
Desio handi bat hau da Zorion
eta Amaiantzakoa:
Izan daitela bai zorion bat
eta amai ... rik bakoa.

4)

Orain, Zorion, gauza bat esan
barik geratu ezin nok.
Entzun dodanez, kotxe kontuan
ez hau menperatzen inok.
Gaur barriz hemen beste erronka bat
berbatu dozue biok
karrera horretan bestien baino
mantsuau ibili bik'ok.

5)

Entzunda jaukat Berritxu dala
abiadura zalie.
Baita entzun juat hik daukakela
inok ez lako mailie.
Jarraitzeko be orain badaukek
bentaja edo abantailie:
jo ta hagin batzuk apurtu arren
etxien konpontzailie.

6)

Orain, Amaia, zuri zer esan
edo zetatik eragin?
Ofizioa ez dozu txarra
nahizta emon batzutan min.
Alde hortatik egon trankil ze
haginen aliketakin
komeni bada heldu zeinkio
beste edonundik bardin.

7)

Hau da azkena ta agurtzen dot
Berriatuko herria.
Agur, Amaia, bardin Zorion
bikote maitagarria.
Lehendik be zuek badakizue
bizitza horren barria.
Opa deusue mejoatzea
orain arteko neurria
ta familia handitzen bada
gaurtik ondo etorria.

GAZTEAK HAN ETA HEMEN

Xabier Berasaluze “Leturia” pandero-joleak bere kopla-sorta baten zirriborroa utzi zidan, “pixka bat konpontzeko”. Honelaxe gelditu ziren.

1)
Gazteak han eta hemen
sasoia beti aurrenen.
Adin batekoak ere
horrek pozten ditu gehien.

2)
Banaiz ere kantorea
ez naiz oso dotorea.
Baina bai atsegin ditut
parranda ta umorea.

3)
Beti festarikan festa
gauz ederragorik ezta.
Alaitu begiok eta
ekin, mutil eta neska!

4)
Gure droga baita broma
osasuna ere ona
etxean geratu bedi
hau gustatzen ez zaiona.

5)
Beste gauza bat ez ahaztu
gauean ez inoiz hoztu.
Ondo egindako lanak
lotsatu beharrik eztu.

6)
Txoriak goizean goizik
gazteak gauean pozik.
Sasoiak ez du balio
gozatzen asmatu ezik.

GURE HUGO MAITEA

2018. urtean, Ermuko Anaitasuna ikastolan zebilen bost urteko haur bat hiltzeko zoritxarra gertatu zen. Bere gelakoentzat koplak batzuk eskatu zizkidaten, eta seiko hauxe bidali nuen. Koplak xumeak dira berariaz, bost urteko haurrek kantatzeko baitziren.

1)
Gure Hugo maitea!
Nora joan zara?
Esaiguzu non zauden
gu joateko hara.

2)
Zeuk ezingo bazenu
gugana etorri
ikusiko zaitugu
ametsetan sarri.

3)
Gelako lanean zein
atsedenaldian
tokitxo bat gordeko
dizugu beti han.

4)
Karrotxoak kalean
txoriak arbolan.
Zuk jarraituko duzu
gure Ikastolan.

5)
Lagun kutun bat dugu
samin handiz galdu.
Ordainez aingeru bat
gu zaintzen daukagu.

6)
Gure irakasleak
direla lekuko
beti-beti izango
zara gure Hugo.

JOSUNE OYARBIDE

2014-04-04. Idiazabalgo Josune Oyarbide. Ararteko langile urte luzeetan. Lantokiz aldatzea erabaki zuenean, lagunek jai bat antolatu. Lankideek bertso batzuk eskatu zizkidaten, egunean bertan ezuste gogoangarri bat emateko, denen artean kantatuz. Josuneri buruzko xehetsun batzuk jasorik, sorta hauxe bidali nuen. Bertsoak ulertzeko, xehetasun batzuk jakin behar dira:

- Idiazabalgoen goitizena “azeriak” edo “axariak” da.
- Behin, Urkiolan, Josunek zapata baten takoia galdu. Eszena ahanztezina sortu zen.
- Franbuesak eta gozokiak izugarri gustatzen zaizkio.
- Beste behin, bazkaltzen jantoki batean, bionboa gainera erori zitzaion, eta beste aldean “kamisoi bat” agertu. Hau ametsean. Tokian bertan, bionboaren beste aldean, nor eta Rikardo Gatzagaetxebarria sailburua agertu zitzaion, beste batzuen artean.

1) Agurtzen dugu norbait kutuna
lankide eta laguna
bizia eta alaitasuna
sentiarazi diguna.
Bere irrifar hutsik gabeak
gozatzen zigun eguna
eta maitatu dugu bihotz bat
osoa ta euskalduna.

2) Agur, Josune, harrotzen gara
hain kastako emakumez
gizon-gizarte batean nortu
baitzinen hain lehia duinez.
Garatu zinen, osatu zinen
ia zaren dena zeurez
eta osoa eskaini duzu
behartsuen maitasunez.

3) Zure bizitzan puska bitxiak
ere badira tarteka.
San Antoniok oraindik ere
han jarraitzen du barreka.
Ikusi zuen pago artean
“azeritxo” bat herrenka.
Zerbaiten bila aztertu zuten
Urkiolako erreka.

4) “Azeri” haren jaioterrian
hain ospetsu baitzen gazta
pentsatu zuten zapatak ere
gamtaz egin eta “ya’sta!”.
Gero takoia erraz galdu ta
bilatzen hain erraz ezta
beste azeri batzuei ere
gazta gustatzen zaie-ta.

5) “Azeri” horrek bazuen gazta
ospetsuaren laineza
batik bat bere gainean bazen
masusta edo franbuesa.
Bere ondoan esertzen denak
gozokirik nahi baleza
sukaldean jan dezala edo
mahaian paso egin beza.

6) Amets polit bat nahi baduzue
pentsa zer izan liteken:
bionbo bat zapla gainera erori
eta kamisoi bat irten!
Nahizta gehienek transparentzian
nor zegoen bazekiten
sailburu batek geroztik ez du
bakezko lorik egiten.

7) Agur, Josune maitagarria!
Segi islatzen nor zaren.
Eta hainbeste eman ondoren
egizu zerbait atsedean.
Lasaitasun bat opa dizugu
azken lan-koskan bederen
ta badakizu zure lagunak
betiko gaudela hemen.

AINTZALDU DAIGUN ENKARNI

Enkarni izeneko emakume batek hirurogei urte egingo zituen, eta aldi berean, jubilatu egingo zen. Lagun eta lankideek ezuste gozo bat prestatu nahi zioten, eta beste zenbat gauzaren artean, koplak batzuk kantatu, Enkarniri berari asko gustatzen zaion santaeskeko doinu batean. Sorta hauxe egin nuen okasiorako. Aipatzen den Karmelo bere senarra da.

*Aintzalduta daigun Enkarni eta
bere hirurogei urte.
Etxe honetan zorion hutsa
beti eukiko al dute.*

1)

Zure eguna ospatzen gatoz
aurten be lagun maiteak.
Beti lez hartu gagizuz eta
zabalduta zeure atek.

2)

Gaztedi honen ardurea da
jubilazio ordua.
Esan zelan dan geuk ere hori
ondo lortzeko modua.

3)

Opa deusuguz osasuna ta
bide luze jubilarra
zure bitartez ez daigun izan
eskean segi beharra.

4)

Orain bagatoz etxe barrura
bihotz-zabala zarenez.
Bihotz-zabala zarenez eta
noski, Karmelon baimenez.

MARTIN ORBE

Hiru aldiz izan dut Martin Orberi kantatzeko atsegina. Errigoitiarra semez, abade egin zen, eta Bizkaiko hainbat herri zerbitu zituen bere jardun luzean, 1016an jubilatuz zen arte, 80 urterekin. Sasoi bateko *Gogor* taldeko partaideetako bat, kartzelan ere urte batzuk egin zituen. Elkarrekin egon ginen Zamoran. Geroztik, apaizgoan, irakaskuntzan eta beste hainbat arlotan, ekintzaile aspergaitza izan da, eta ibili den toki guztietan bereziki estimatua. UEUko arduradun nagusia izan zen urte batzuetan. Azken urteak Mungialdeko herri mordo bat zerbituz emana zen. Hain zuzen, erretiroa laster hartuko zuela susmaturik edo, Gamiz-Fikako jatetxe batean, lagunarteko omenaldi-bazkari bat antolatu zuten, eta neu ere gonbidatu ninduten. Hiru bertso hauexek kantatu nituen orduan:

1)
Maite dozu herria
maite zaitu berak.
Zenbat eta zenbatek
ez daki norberak.
Sarri esango zendun:
“Bai, anai-arrebak!”
Hemen gagoz gaur batzuk
lagun sentiberak
esker onez goratzen
zure ibilerak.

2)
Errigoititik zoaz
seminariora
abade lez Bizkaian
ia edonora.
Zenbat herri ta auzo
datozen gogora!
Zenbat une gozo ta
baita aldasgora!
Zamora be ondino
hantxe egongo da.

3)
Zenbat kargu handi ta
zenbat kargu-orde!
Bizimodua lantsu
baina ez kolorge.
Lagunarterik bada
beti gertu hor be
Euskal Herriak inor
behar badau gorde
bat behintzat argi dago:
Gure Martin Orbe.

MARTIN ORBERI GATIKAN

Gatikan ere antolatu zuten herrialdeko omenaldi bat, eta beste hiru bertso hauexek kantatu nituen, Gatikako elizpeko ekitaldian.

1)

Mungialdeko herri maiteok!
Besarkada eder bana
beso batean guztiok heldu
gaiten omenduagana.
Esan lei bertan alkartu dala
bibliako tribu dana
gure Martini kantatu guran
bihotzez: “Gora zu, Jauna!”.

2)

Hainbeste herri alkartu jatzuz
Gatikako eleizara!
Hor zagoz gaur be erakutsiaz
zeure betiko patxada.
Lehen-lehen Don Martin, gerora Martin
gaur geure Martintxu zara.
Errespetua ona da baina
onena maitasuna da.

3)

Larogei urte eginda agur
esatea daukat ontzat.
Pentsatu eizu pasatu dala
bizitzaren zatitxo bat.
Urte barriak bidean datoz
geuk be ez dakigu zenbat.
Dakiguna da bazkari eder bat
prest-prest dagola danontzat.

MARTIN ORBERI ZEANURIN

2014-12-19. Egun horretan, omenaldi hunkigarri bat egin zitzaion Martin Orberi, bere lehenengo destinoa izan zen Zeanurin. Herriko korralaren kontzertu handi baten barruan, hamabiko bertso-sorta bat osatu nuen. Bertso hain lokal hauek urrunagotik ulertu ahal izateko, hona jakingarri batzuk:

- *Kantin*: Martin (“Don Martin”) ostatatu zen lehenengo etxea. Bertakoa Nikasi eta Bitoriano, eta Juanita eta Txarito alabak. Bizenta, etxeko negozio txikian lanean aritzen zen emakumea.

- *Zulaibar*: Izen bereko gunean sortu zen lanbide-eskola berria, Arratia osoko ikasleak hartuko zituen.

- *Otzemendi, Uribe. San Migel, San Lontzo*: auzoak eta auzoetako santu zaindaria.

- *Baltseoa*: Zeanuri izan zen azkena, erromerietan dantza soltea zilegitu zena.

- *Zeani*: Zeanuri.

- *“Doctor Pinto”*: Zeanuri errimea izan zen herri-antzerkian, eta hartan darrai. Aktorerik popularrena, eta bestela ere, herrian popularrenetakoa, “Doctor Pinto” izan zen, mundu guztiak esaten zion bezala.

- *Hotel Nervionen*: herriaren gomutan historikoa izan zen Zeanuriko antzerki-taldea Bilbon antzeztera eta ondoren Nervion hotelera joan zena.

- *Zamoran, adibidez*: Zamorako kartzelan, tunel bat osorik amaitu genuen, baina iheserako egun batzuen faltan, harrapatua izan zen. Martin Orbe izan zen, langintza hartan, egunari azken errepaso “zehatza” ematen ziona, lorratz susmagarririk aidean geratu ez zedin.

1)

Kantatu behar doguz
lau-bost historitxo
merezimentuentzat
arean gitxitxo.
Gizon bat esker-ondu
gure geunke zintzo
Don Martin edo Martin
askontzat Martintxo.

2)

Kantinen emon eutsan
ostatu Nikasik
Juanita ta Txarito
arreba bi kasik.
Bitoriano aita
harro eta pozik
Bizentak lapikoa
lar gazitu ezik.

3)

Parroki-eskolatik
abiatu behar
gero hain entzutetsu
egin zan Zulaibar.
Maisu ta zuzendari
urteetan zehar
zenbat behar handi ta
zenbat ames edar!

4)

Otzemendi, Uribe
San Migel, San Lontzo
honek hari: “Don Martin
badator” dinotso.
Ziur berau ez dala
ez sugoi, ez otso.
Paraje guztiari
ondrea damotso.

5)
Parrokian be hantxe
fede baten hargin
herri gauzetan barriz
zintzo ta behargin.
Berba suabeakaz
egiak be bardin
danentzat ez zan beti
izango “On Martin”.

6)
Mogimentu handi bat
Herri Gaztedi zan
aro garrantzitsua
Martinen bizitzan.
Buruak gogoetan
gogoak ekintzan
asko ikasi gendun
zer egin, zer izan.

7)
Baltseoa Zeanin
galazota egoan
Martin tipleak lantzen
eta solfeoan.
Txistulariena be
sortu zan geroan
beitu gaur be zelako
martxea daroan.

8)
Ezkontza ospetsu bat
A ze antzez-lana!
Hainbat herritar bertan
aktore zirana.
Guztiei ezin emon
hemen izen bana
“Doctor Pinto” esanda
aituko da dana.

9)
Herriko adin eta
ofizio danen
erakusketa eder bat
ibili zan hemen.
Bilboraino heldu ziren
arte eta sormen
arteak majo hartuz
Hotel Nervionen.

10)
Su ganean dingiliz
laratzu bal-baltza.
Hauspeko memoria
hain da aberatsa!
Joten badogu urte
batzuk atzerantza
danean agertzen da
Martinen lorratza.

11)
Lan guztiek ez eutsen
ondo-ondo urten.
Zamoran, adibidez
argi lotu daiten.
Han ekin eutsan fin-fin
ia urte biten
tunel luze-luze bat
alperrik egiten.

12)
Egun honegaz Martin
ondrau gura gendun
lehengo gure abade
eta gaurko lagun.
Baia ez dogu esan
eta esan daigun:
Zenbatek zenbat maite
gendun eta dogun!!

AGUR, RESU!

Aurreko sortetan aipatu dugun Martin Orberen arrebarik gazteena zen Resu. Euskaltzaindian lan egiten zuen. Gaixo txar batek gazteegi eraman zuen. Hileta egunean, Errigoitiko elizpean, hiru bertso hauexek kantatu nizkion.

1)

Ai, Resu, Resu! Hain izan zara
maite eta maitagarri!
Famili eder bat izan baidozu
dohain guztien oinarri.
Lanean beste familia bat
izan zendun bizigarri.
Bietan zenbat emonda zoazen
ezin da kantuan jarri.

2)

Ahalegin danak eginagaitik
ezin izan da garaitu.
Azkenean be erruki bako
destinoak jaso zaitu.
Guk bardin-bardin pentsetan dogu:
zeugaz bizitzen jarraitu.
Izan deutsugun maitasun dana
ezin lei hemen amaitu.

3)

Sentitzen dogu malko ta guzti
esatea: "Agur, Resu!".
Eternidade guztian agur
berbera entzun daikezu.
Eta batez be gure eskerrik
onena hau daroazu:
Zeure irribarre freskoa hemen
itxita joan zarela zu.

IRATXE AMAMBAY

2021ko ekaina. Mezu bitxi eta hunkigarri horietako bat jaso nuen, honela zioena, batura moldaturik:

“Gabon, Xabier! Hemen natorkizu behartxu bat ematen, baina erruduna zure andrea da, ze berak eman zidan baimena. Kar kar kar! Ba, bertso batzuk nahi ditut, nire lagun min baten alaba erditu berri izan denarentzat, niretzat neskato berezia eta maitagarria izan delako txiki-txikitatik. Bere ama, beste lagun bi eta neu orain dela 23 urte ezagutu ginen, talde terapia batean, eta lan horretan eman genituen urte batzuk. Eta ordutik gaur arte, lagun minak izaten jarraitzen dugu. Guk, beste hirurok, ez dugu izan umerik, eta Nerea izan da ia denon alaba, eta orain bera egin zaigu ama, eta gu egin gaitu bere umearen ordeko amumak.

Orain berari buruzko datu batzuk:

Nerea santurtziarra da, munduan zehar asko ibilia gazte-gaztetatik, Irlandan, Frantzian, Suedian, Japonian, Jordanian... 23 urterekin, beka batekin, Paraguayra heldu zen eta bertako jendearekin harremanetan, Justu ezagutu zuen. Mutil jatorra, abeslari ona, eta gitarra-jotzaile ere, oso ona. Maitemindu ziren eta bost urte pasatu ondoren, hona itzuli dira erditzeko, eta Iratxe Amambay jaio da, ume euskaldun-guarania. Datorren hilean itzuliko dira Paraguayra. Eurek egindako adobezko etxea daukate zain, eta lurra lantzen arituko dira.

Eta besterik ez. Eskerrik asko, eta mosu bat!”.

1)

Talde-terapia baten
zenbat gauza bikain!
Hasi ginela hogeita
hiru urte orain.
Zer poza hainbeste on
zigulako egin!
Onena da ordutik
garela lagun min.

2)

Lauretariko baten
umea, Nerea
guztion alabatzat
sortu zen lorea.
Probatu zuen gero
munduko airea
ta Paraguayn aurkitu
bere amorea.

3)

Izena Justu eta
kantuan azkarra
ahoa hitzak eta
eskuan gitarra.
Maitemindu ziren da
zer sor-lan edarra
negarrez eta barrez
hazten doan haurra.

4)

Fusio magikoa
Iratxe Amambay
irribarre egiten
bere «Lau Amumai».
Euskaldun guarania
miraria ere bai
bere odol ditula
Euskadi-Paraguay.

5)

Zer gehitu historia
zoragarri honi?
Ba, jarraitu dezala
hasi bezain ongi.
Nerea, Justu, Amambay!
Zorte on bat tori!
«Lau Amumen» desio
zintzoa da hori.

BIDAIA HANDIAK

Legazpiko Elustondo anaia-arreba trikitilariak izenburu horretako diskorako koplak batzuk eskatu zizkidaten, eta hauexek izan ziren.

Begi bat ireki da

1) Begi bat ireki da.
Jaikiko al gara?
Bestea itxita dago
ta bego hortara
itzuli behar balitz
berriro lotara.

2) Zer ikusi nahi duzu
begi inozente?
“Ikusi nahiko nuke
tren luze bat tente”.
Makinista lo dago.
Beraz, itxi zaite.

3) Zer ez dun ikusi nahi
begitxo itxia?
“Ez diat nahi zerrien
ahoa bitxia”.
Ba, ken bitxia eta
emaian txitxia.

4) Zer ikusi nahi duzu
begi nonzeberri?
“Ikusi nahi nituzke
bunkerrak hilerri”.
Zeu begira zaudela
ez bada, gaitzerdi.

5) Neure begi biokin
goizero borrokan
ez dakit zeini kasu
egin nahi diotan.
Polita da hastea
eguna erronkan!

Itzali dira argiak

1) Itzali dira argiak
ixtera doaz begiak.
Orain abiatzen dira
nire bidaia handiak.

2) Izan naiz iraganean
gazteago nintzenean.
Uste dut kasik hobeto
nagola oroimenean.

3) Haragoko haurtzaroa
oraindik ez igaroa.
Nire baitan dator bera
pixka bat handiagoa.

4) Izan nahi nuen geroan
gaurdanik bertara joan.
Iristear nintzenean
juxtu erori naiz loan.

5) Iritsi naiz ametsera
azken bidaia da bera.
Topo egiten badugu
musu bat eta aurrera.

OIHANE ETA ENDIKA

Mañariko nire lehengusu Eusebio Jaiok proposatu zidan bertso batzuk kantatzea bere seme Endikaren eta Oihaneren ezkontzan. Oihane Igorreko Urkuzu auzokoa da. Ezustean izan behar zuen nire ekitaldiak. Ezkonberriek ez zekiten ezer, eta ezteiliarrek ere ez. Oste batetik irten nintzen jendarte alaira, eta ondorengo lau bertsoak kantatu nituen. Iurretako Betixu jatetxean izan zen ospakizuna.

- *Trini eta Jose Luis*. Oihaneren gurasoak.
- *Garbiñe eta Eusebio*. Endikaren gurasoak.
- “*Batak makila*”. Endika Mañariko alkatea zen orduan.

1)
Txaloak eta mila zorion
Oihane ta Endikari
edo zorion bakarra eta
bera luze ta ugari.
Bardin Garbiñe, Trini, Jose Luis
ta Jaio lehengusuari.
Gaur Mugarrako egunsentia
hain zan benetan mirari!
Ostadar batek lotzen zituen
Urkuzu eta Mañari.

2)
Zorionak, bai! Baina zetako
atara berba panpoxak?
Ez dogu eskatzen zerurik edo
arantza bako larrosak.
Batzutan pixkat ernegau arren
edo estu behar hortzak
bakar-bakarririk desio dogu
bultza deizuen bihotzak
toperik barik jarraitu daian
gaur batu zaituen pozak.

3)
Krisia dala, paroa dala
bartzarrak larri dabilta.
Zuena ez dot uste izango
danik hain kontu bortitza.
Batak herriko makila eta
bestek etxeko giltza
garantizauta dago ordenan
joatea zuen bizitza.
Eta zelan ez, ume-negar bat
laster entzungo balitza!

4)
Gauzak ez dira errezeziak
mundu honen gazi-gezan
baina zuekin fiatzen gara
eta ezetzik ez esan.
Jakingo dogu Oihane eta
Endika zelan dabizan
hemendik urte askotara be
testigu izan gaitez
gaur zelebratu dogun eguna
ez zala guzurra izan.

ZORIONAK, BIKOTE

2007-09-17. Arantza Garate azpeitiarra eta Joseba Ziarsolo mallabiarra zilar-ezteiak ospatzera zihoazen. Bi alaba zituzten, Nora eta Ariane. Bertso batzuk eskatu zizkidaten, ospakizunean omenduei kantatzeko, eta hauexek bidali nituen.

1)
Zorionak, bikote
Arantza-Joseba!
Unea da jartzeko
denok bihozbera.
Heldu dira urteak
hogeita bostera
berriak ere hortxe
badatoz ostera
zilarrean urrezko
botoiak jostera.

2)
Zilarra ta urrea
bi izate garden
zuen alaba biak
halako bi idem.
Denoï bihotzez opa
dizuegu hemen
arorik ederrena
bizi dezazuen
zorion hau handituz
joan dakizuen.

3)
Betoz urte berriak
zuen oinetara
berriak eta noski
hobeak ahal bada.
Agurturik hogeita
bosteko ilara
zilarrezko ezteion
gailurretik hara
urrezkoetan berriz
elkartuko gara.

MIREN GOIKOURIA

Kepa Junkerak eskaturik, Miren Goikouriarentzat kopla hauek egin nituen, bere urte-egunerako. Maren, Sunne eta Kerman bien seme-alaba haurrak ziren. Baserri bat baitzuten Busturiako San Migelen, inguru hartako erreferentziak ageri dira kopletan, Mirenen pasadizo batzuei lotuak.

1)

Hogei ta hogei udabarri
dira berrogei mugarri.
Joan direnen edergarri ta
datozenen bizigarri.

2)

Hogei ta hogei taupada
“Txuria” heldu Laidara.
Arraunka doan lamia horrentzat
itsas oso bat falta da.

3)

San Antoniok bere gain
begiraleku Ondargain.
Busturia ta Sukarrietak
bere ninfa zaitu orain.

4)

Ninfak izena du Miren
grazia eta adimen.
“Miss Pedernales” harekin denak
bertiko erotu ziren.

5)

Elantxoben Madalenak
elkartzen dira onenak.
Laranja baten delirioan
datoz “laranjero” denak.

6)

Berrogei zorion eman
nahi genizkizun hamarnan.
Zu adoratzeko bizi garenok:
Kepa, Maren, Sunne, Kerman.

JABI AGIRRE LUPIOLA

Semez Elorrikoa, 1966an abade eginik, *Gogor* taldeko partaide aktiboa izan zen. Abadetza utzirik, Lezamako Garbiñerekin ezkondu zen eta bertan bizi da. Bi alaba eta seme bat ditu, eta ilobak ere bai, jakina. Arlo guztietan ekintzaile agorgaitz eta nekagaitza. Abadetzatik gehiago, Txorierrin daroa bere bizi guztia, bai herriko eta bai eskualde guztiko erreferentzia nagusietakoa izanez. Lezaman egin zitzaion omenaldi hunkigarrian, bertso hauexek eskaini nizkion.

1)

Galartzabarrenako
argiak goiz-goizik
ez dauka atarte bat
zabaltzea baizik.
Elorrion Zenita
Edentxo bat kasik
hantxe hazi zen Jabi
sortua bilozik
amamaren berbetan
“pobre baina pozik”.

2)

Hasi zen Derioko
Humanitatean
karrera egin eban
takada batean.
Isilik eta zintzo
fintasun betean
ezagutu genduen
hamahiru urtean
ume joanda abade
etorri artean.

3)

Goierriko Santutxun
hasi zan abade
herritarrek kariñoz
gogoratzen dabe.
Herri Gaztedi edo LAB
AEKn sortzaile
Zamudion langile
subertea han be
bihotza jausi jakon
Garbiñeren alde.

4)

Azkenik esan geinke Lezaman
ez dagola mogidarik
aurretik edo atzetik bera
arima izan ez danik.
Errespetotik esker onera
dana merezi dau Jabik
eta horixe autortu gura
geuntsan bihotza zabalik
jakinik hortxe egongo dala
gerora be hutsik barik.

KARLOS ORUE REKARTE

2009-02-03. Bertso hauexek izango dira nire tristura iraunkorretako bat irabiatzen dutenetakoak. Australiatik, Amaia Urberuaga izeneko emakume bat nirekin harremanean jarri zen, esanez euren Txoko edo, nolabait, Euskal Etxeko lehendakariari omenaldi bat egin nahi ziotela, kargua uztera zihoala eta. Hain zuzen, omentzera zihoazen Karlos Orue neure herkidea zen, Zornotzakoa, nahiz eta elkar ez genuen ezagutzen, oso aspaldi joana baitzen Australiara. Bermeoko Miren izeneko neska batekin ezkondurik, gure antipodetan zeramaten ia bizitza gehiena, eta hantxe zuten familia ere egina. Bertsoak bidali nituen, eta eskerrak ere jaso nituen, oso omenaldi hunkigarria izan zela esanez.

Handik denbora ez luzera, Karlosen bere deia jasotzen dut, esanez Euskal Herrian dabilzala, eta asko eskertuko lukeela ni eta nire emaztea eurekin elkartzea bazkari batean. Halaxe egin genuen. Euren familiako sei-zortzi bat lagun, eta gu biok. Esan beharrik ez dago bazkari bikaina, alaia, hunkigarria izan zela. Handik beste denbora oso labur batera, Bermeoko saio batean, haren emazte Mirenen senide batzuegandik harriturik dantzut Karlos Orue zendua zela.

Jakin nuena laburturik, nire bertsoak Australian kantatu zizkiotenean, nire herkideak bazekien zer gaitz zeukan. Euskal Herrira etorri zen, hain zuzen, jakinik azken bidaia egiten ari zela. Emazteak-eta jakingo zuten, noski, baina hemen ez zioten inori ezer esan. Guri ez, behintzat. Ez genion ezer igarri, baina gaitza nahiko aurreratua zuen. Dударik gabe, beren beregi etorri zen, bere sorterria eta hemengo senide eta lagunak azken aldiz ikustera. Nire emaztea eta ni, lehen eta azken aldiz. Hori jakinik, saiatu izango nintzen bertsoei beste aire ezkutu bat ematen.

1)
Mila zorion eta esker on
Karlos Orue RekarTE
Gure Txokoko lehendakari lez
egina hainbeste urte.
Aurrerantzean opa deusugu
osasan eta suberte
zugandik hartu dogun guztia
geuk zuri bueltatu arte.

2)
Zorionean zinen zu hemen
egun batean agertu
zure besoak edonorentzat
zabaltzeko beti gertu.
Zu izan zara euskaldun danon
alkartzaile, helduleku
inork ezingo zaitu bardindu
ta gitxiago hobetu.

3)
Zeure emazte Mirenentzat be
gure egizko aitortza.
Biori zenbat zor deusuegun
esaten ez gara lotsa.
Euskera eta euskal kultura
Bermio eta Zornotza.
Jarraitu eizue izaten gure
jatorriaren bihotza.

JESUS MARI ETXEBARRIA, “PATXO”

Larrabetzuko semez, 1966an abade egin zen. Lehenik Bolibarren, gero Munitibarren, eta azkenik, Gatican eta Laukizen eman zuen bere mundu-bizitza guztia. Abade eskuzabal, alai eta ingeniosoaz gainera, oso popularra eta estimatua izan zen pasatu zen toki guztietan. Gaitz izendaezinak, ordea, ez zuen salbuespenik egin gure “Patxo” maitearekin. Bertso bi hauexek egin nituen bere oroigarriko.

1)
Bizitza maite heuan
eta maiteazo.
Ez heuan onik moztu
ez pozik galazo.
Emoten jok hementxe
henbilela atzo.
Agertuko ez bahintz
gaur iluntzerako
eskerrik asko eta
bihar arte, “Patxo”.

2)
Ez malezi bakoa
bai guzur bagea
hire barre sana
gure ondarea.
Danentzat izan hintzan
“gure abadea”
batez ere herritar
xumeen zalea
Euskal Herria sointzat
daroan fedea.

GIZABURUAGA

Herri hizkeran, *Gizaburu*. 1965ean apaiztu nintzenean, Lea Ibarreko Gizaburuaga izan zen nire lehen destinoa. Esan daiteke herri txiki horretantxe “munduratu” nintzela. Munduratze zoragarria izan zen, diktadura baten bihotzean bazen ere. Herriaren izenaren jatorriaz, bazen -eta bada- ipuinezko legenda bat: Gizaburuaga dela «Gizaburubaga». Alegia, «gizaburubako» edo «gizaburugabe». Horixe da aspaldiko kopla-sorta honetan kontatzen dena. Zirkunstantziak ez dauzkat zehazki gogoan, baina aldizkari lokalen baterako izango zen.

- | | |
|---|---|
| 1)
Gizaburutxu, Gizaburutxu!
Arren esan bat eidazu.
Zure izena nundik datorren
berba bitan esaidazu. | 7)
Ekarten dabez idi pare bi
herriko indartsuenak
punta banatan loturik gogor
tiratuko eutsienak. |
| 2)
Harro dinozu zure izena
«Gizaburuaga» dala
zalako herri jakitun edo
«giza buruen» udala. | 8)
Zeregin hatan ziharduela
han datoz lekeitiar bi.
Mirariren bat ete zan-edo
jarten dira adi-adi. |
| 3)
Jakiturian sartu ezkerro
izan leike beharbada
baina kondairak kontixu dino
dala «Gizaburubaga». | 9)
“Zetan zabize?” itaundu eta
hartzen dabe erantzuna:
“Ia tiraka luzatzen dogun
laburtxo ebai doguna”. |
| 4)
Behinola hasi ziran egiten
bertan eliza barria.
Ate nausian goiko habea
nahi eben ikusgarria. | 10)
Lekeitiarrak hots egin eben:
“Baina, «gizaburubagak»!!
Nok erakutsi deusue holan
luzatzen dirala hagak?”. |
| 5)
Herri-basotik ekarri eben
pago luze ta sendoa
ate buruan alderik alde
euskarri ipintekoa. | 11)
Horra hor nundik hartuko eban
herriak izen barria.
Kontsonante bat jan eutsen baina
igarten da jatorria. |
| 6)
Ipini eben eta... ha zan ha!
Laburtxo geratu jaken.
“Orain hau zelan luzatu geinkek?”
hasi ziran marmar baten. | |

AGUR, MADARI

Jose Maria Madariaga, “Madari”. Apaiz izana eta Zamorako espetxe konkordatarioran bi urte egina. Apaiztu zenetik, bai apaiz, bai apaiz ohi, bere bizi guztia Bakion egin zuen. Bertso hauexek kantatu nituen eliza aurrean, bere hileta jendetsuaren egunean.

1)

Agur, Madari, bizitzan indar
nekaezin bat izana!
Geroak hortxe biziko zaitu
aztertzean iragana.
“Gogor” sasoia, kartzela eta
ondorengo bide dana.
Hori guztia hemen lotzen da
nahizta zu izan joana.
Zure atsedanak gorde daiala
bizitzak emon ebana.

2)

Mende erdi bat joanagaitik
ez da aldatzen neurria.
Ederra izan zan olatua ta
biztu zan Euskal Herria.
Zu zintugun bat ur bizi eta
zabal haien haitz-harria.
Eta itsasoan zelan bardin dan
joana zein etorria
marea hura goratu zan lez
gaur be badator barria.

3)

Areatzako Gorbeiapen
odola hartu zenduna
zure izenera batu zan gero
Bakiok emon deutsuna.
Azken urteek gogor penatu
dabe zure osasuna
baina inguru bat hor izan dozu
hain ondo zaindu zaituna.
Agur zuri ta eurentzat gure
esker eta maitasuna!

LEKE

Gatikako *Gogoz* taldekoek bertso batzuk eskatu zizkidaten “Leke” deitzen dioten herritar batentzat.

1)
Hamazortzi urteko
aldia da bete
herritik falta dala
gure lagun Leke.
Bere omenez hemen
batu da Gatike
alkartasun eder bat
lortu baleitike.

2)
Mahaian paseurik ordu
larri ta zorrotzak
taupaka jarraitzen dau
Lekeren bihotzak.
Ezer balio badau
gatikarron pozak
gure bihotzak, Leke,
hireaz dekozak.

3)
Begi bat ikusirik
beste mundueri
barrero martxan habil.
Zorionak hiri!
Karua izan arren
buelta guzti hori
lagunduko deugu
trankil egon hadi.

4)
Alkartasun hau eta
guztion omena
dana dok biztuteko
hire itxaropena.
Laster ikusiko dok
egunik onena
Gatiken aureskua
egingo dokena.

AUPA, JOANE!

Berrizko Juan Mari Uribezubia “Katarra”, bere garaian txirrindulari ospetsua izana, bertozale handia ere bazen, beste gauza askoren artean. Bilbon, txirrindularitzaren ospakizun handi batean, Joane Somarribari bertso batzuk kantatu nahi zizkion, eta zirriborro bat ekarri zidan, nik konpondu, osatu eta gero berak han kantatzeko. Pozik eta harro itzuli zen, “erratu barik” kantatu zituela eta. Hauexek izan ziren bertsoak:

1)

Aupa, Joane! Gazte, heldu ta
zaharren ezpain ertzean.
Haurtxoek ere: Aupa, Joane!
Hitz egitera heltzean.
Kirolak sarri sortu dituen
mito hauskorren antzean
zure izenik ez da ahaztuko
txirrinda eskegitzean
behin betirako sartu baitzinen
euskaldunon bihotzean.

2)

Tourmaleteko garaitza baino
gizalegea nahiago
gaur eguneko kirol munduan
harrigarria zeharo.
Denon bihotza ukitu duzun
erdi-ninfa, erdi-mago
zure herrian maite zaituzte
edonor baino gehiago.
Gain hori bezain altu dagoen
podiumik ba al dago?

3)

Zenbat une on gorde ditugun
oroitzapenen maletan
zeure ostadar maillotarekin
Hamiltoneko berdetan!
Hiru Tour, hiru Bira, bi Giro
hango-hemengo maldetan
edo irratiz zein telebistaz
beti hain jator berbetan
zer gozaturik eman diguzu.
Eskerrik asko benetan!

JOANE MAITE

Hurrengo batean, gorago aipatu Juan Mari Uribezubia “Katarra”-k beste testu bat ekarri zidan, Joane Somarribari Benito Lertxundiren *Bizkaia maite* izeneko doinuan kantatu nahi ziola eta. Honelaxe gelditu zen emaitza.

Joane maite!
Hamiltonen ikusi zintugun
ostadar argiz jantzia
buruan orlegi
bihotzean poza
gure gogoaren
ertzetik pasatzen
zure usain gozoa, kirol
amodioa, itsasoa
gure baitan sartzen.
Atzo Biran entzun genuen
zure berbaren oihartzuna
bizikletaren dizdira
bihotzean kilika
eta oihartzunaren
handitasunean
podiuma lortu
zenuen hegaka.

Bart arratsean
arbasoen baratzaren gainean
txirrindaz lotu zinen
munduko txapeldun
lirain, sendo, eder
bihotz emankor.

Joane maite!
Atzo Parisen ikusi zintugun
maillot horia jantzia
buruan orlegi
bihotzean poza
zu zaitugu
zaleon gozo eta atsegina
baita Lisboako mina
zure berba leun
zure gatzaren bizia
zure pedalkada
gozoa dira gaur
guretzat mirespen.

MAITE ETA SABIN

Maite Bautista eta Sabin Barajuen. Berriztar senar-emazteok elkarrengandik hur joan ziren biak, oraindik gazterik, Naiara alaba utzita. Maite minbiziak eraman zuen. Handik denbora ez luzera, Sabinekin -musikari eta ekintzaile entregatua izanak- azkenaldi gogorra jasan behar izan zuen, arnasa arazoengatik. Hortik doa bertsoan aipatzen den “arnasaren amaiera”.

Maiterentzat

Gugaz egongo zara
beti, Maite, bardin
zugaz egongo gara
Naiara ta Sabin.
Famili guztiaren
partez agur orain
jakinik beste izar bat
dagola gure gain
izango gara zure
duin izateko lain.

Sabinentzat

Joan jaku Sabin bizitza honen
handiko lur isilera.
Musika batek esango deusku:
“Oraindik hor dabil bera”.
Minez jarraitu dogunok zure
arnasaren amaiera
opa deusugu samur heltzea
atsedenezko bidera.

SORGINAK BADABILTZA

Kopla-sorta honen xehetasunik ezin dut eman. Ez daukat gogoan norentzat, ez zer motiboz egin nituen.

1)
Errekan ikusi nuen
Gorbeiapeko lamina
kristalezko azala ta
urregorrizko mamina.
Alabatxo bat badauka
bere amaren bardina.

2)
Gero Urkiolan behera
Durangalde zabalera
jaitsi ziren biak zelan
bizi ginen jakitera.

3)
Jaizkibeldik Aizkorrira
dabil Aiako sorgina
orain atso zimeldua
baina gaztetan gordina.
Sututa dabilenean
erreko luke burdina.

4)
Gure Ernioko atso
barau egunetan mantso
edanda uhu ta zantzo
Txindokin zebilen atzo.

5)
Ilargi betez Arantzan
sorginak zelaian dantzan
akerraren adarretan
zebiltzan jaiki ta etzan.
Aralarren galdu eta
Urbasan agertu nintzan.

6)
Itsas piratak Larrundik
guez ikusten ditut nik.
Eskerrak eskaintzen didan
Jaun Gorri bat Auñamendik!

IRAITZ ETA GARIKOITZ

Mikel Zuazabeitiak, nire lagun maitatu eta presokide izanak, telefonoz deitu eta diost:

- Aupa hi! Mikel nauk. Bazakiat, honelako gauza bat eskatzeko, beranduegi nabilela, baina oraintxe bururatu zaidak. Lotsagabe-lotsagabe, hik kapritxo bat egingo hidakeela pentsatu diat. Bihar goizean gure alaba bat ezkontzen duk.

- Bihar goizean?

- Bai, bihar goizean. Eta bertso batzuk nahi nizkikek, neuk kantatzeko modukoak. Hik bazakiat, hartara jarriz gero, berehala egingo hituzkeela.

- Egingo dizkiat, Mikel, pozik ere, nolakoak ez zakiat baina.

Eta halaxe sortu ziren bertsook, Mikelek, Iraitzen aitak, denentzako ezuste moduan kantatu zituenak.

1)

Ez dut gaur baino hunkituago
inoiz kantatu bizitzan
Garikoitz eta Iraitz ikusiz
bat bestearen gerizan.
Ez nator aita bezela, baizik
ordezkari baten gisan
desiatuaz gaurko poz honek
ez dezan amairik izan.

2)

Gutxitan jartzen gaitu bizitzak
bidegurutze berrian.
Iraitz-Garikoitz, Garikoitz-Iraitz
zer gozoak belarrian!
Desio dugu konpon zaitezten
etxean eta herrian
gutxienean zuen izenek
rimatzen duten neurrian.

3)

Betikoa da, betiko unean
eta betiko moduan
baina neurtzerik ez den sendi ta
lagunen sentimenduan.
Bihotza izan bedi zuentzat
urre gorena munduan
berdin zailean eta nola ez
zorionaren orduan.

ARETXA I.a ETA MARI KRUZ

Idoia Aretxabaleta zela esanez, telefonoz deitu zidan, ea mesede handi bat egingo nion. Bere gurasoak urre-ezteiak ospatzera zihoazen, eta ilusio itzela egingo liekeela bertso batzuk entzuteak, nire ahotsean. Ea egingo niekeen sorpresazko opari hori. Datu batzuk jaso, eguna jarri, Loiuko Lauroeta auzoko San Migel ermitan grabatu, eta horrelaxe joan ziren lau bertso hauek.

1)
Berango aldean gertatuko zan
erromeri polit baten
edo “La Momia” ikusten gero
zinean izan zeiteken.
Lehen eta orain urteak dira
banan baina bizkor joaten.
Denpora luze batek egin dau
mende erdi bete daiten.
Urre gorria bera be oso
harro da zuekin aurten.

2)
Euskereari gazterik heldu
zeuntsan gogoz eta argi
eta Navalen isuri zendun
izerdi eder ugari.
Harriei barriz zenbat igurtzi
eta zenbat jasoaldi!
Orain eskura hor dozu etxe
bete kopa eta sari
danentzat izan zarealako
benetan Aretxa handi.

3)
Loiuko Errotan jaiio ta gero
Armintzan zuzterrak bota
neskame gazte Negurin eta
bertan senargaia topa.
Puntuan trebe, artean zoli
mendiak barriz zientoka
lobatxo bi be zaindu ta hazten
badaukazu non zer konta
dana luzaro gozau daizula
bihotzez deusugu opa.

4)
Berrogeitamar esker, Mari Kruz
beste hainbat, Jose Ramon!
Mende erdian zenbat gauza on
dozuen hartu ta emon!
Ondino asko falta da eta
badozue zer itxaron
maite zaituen guztien partez
biok alkar ondo jagon
bizitzak zuen izateari
poz guztia emon daion.

OLAIZ ETA FERNAN

2012-08-04. Berrizen bada jatetxe bat, Ereña izena duena, orain bizi naizen Andikoa auzoaren azpian. Ia auzoak gara, beraz. Bertako alaba Olaiz ezkontzera zihoan Zornotzako Fernanekin. Olaizen gurasoekin plana eginik, bazkal aurreko “sarrera ekitaldian”, ez ezkonberriek, ez gonbidatuek ezer ez zekitela, han agertu nintzen bazter batetik, ondorengo bertso hauek kantatzera.

- 1)
San Antonio-Mari Anboto
testigutzat Urkiolan
bikote batek habia egin dau
maitasunaren arbolan.
Txoria bardin saiatzen bada
librean edo kaiolan
gaurko eguna ondo kantatzen
izan behar dau nahiko lan.
- 2)
Olaizen esku bata Fernanen
eskura zabalik dago
gero Fernanen beste eskua
Olaizi etorri jako.
Mila eta bat zorion bioi
eta beste bi gehiago
eta bihartik egunean bat
eta bizi guztirako.
- 3)
Gaurko eguna zuendako da
urduri egotekoa
bihartik gora zabalduko da
ezkontza benetakoa.
Seguru gagoz izango dala
zeuek amestutakoa
ta zergaitik ez amestu baino
oraindik ederragoa?
- 4)
Lehen Olaiz edo Fernan izanak
orain biok hiru berban
izen bakar bat legez izango
zarie “Olaiz ta Fernan”.
Barrero hasten zarienean
jattetxe edo tabernan
zuen aurpeiak agertuko dau
bizitza barria zer dan.
- 5)
Aro barrian sartu zarie
airoso eta airoso
nahiz jakin dana ez dala izango
arantza bako larrosa.
Baina arantza bera be atsegin
moduan daizuen goza
erremedio hutsezina da
alkarrenganako poza.
- 6)
Zorte on bioi, Olaiz ta Fernan!
Eta graziak hamalau!
Gaur zoriona tokatzen da ta
gozau bera eta olgau.
Besteontzat be seinale eder bat
izan daitela egun hau
zuek ikusi ta esan daigun:
“Ezkontzeak merezi dau!”.

ITXASNE ETA OIER

Aurreko sortan aipatutako Ereña jatetxeko seme Oier eta Elantxobeko Itxasne ezkontza ospatzera zihoazen, artean urteak eramanik elkarrekin bizitzen. Hala ulertzen da bigarren bertsokoa: “Hiru umetxo etorri dira gurasoen ezkontzara”. Iker, Oihan eta Amets. Amets hau, txikiena, hiletakoa oraindik, egun hartan bertan bataiatu zuten, ezkontzaren ondoren. Hortik ulertu behar da bigarren bertsokoa: “Bai hunkigarri gaurko bidaia udaletik elizara!”. Bertsoetan zehar, beste hainbat erreferentzia dagoz, etxeok eta inguru hurbilekoek bakarrik ulertzeko modukoak.

Elantxobeko udaletxean izan zen ezkontza, eta han ere, ezkonberriek eta ezteiliar gehienek ezer ez zekitela, bertso hauek kantatzera irten nintzen, ezkon zeremonia amaituz batera.

1)

Oizen azpian Ereña tinko
Elantxobe beti eder
biak lotzera esku binagaz
datoz Itxasne ta Oier.
Badozue, bai, zegaz zoriondu
baita zeri emon esker
ez bekizue bizitzan falta
merezi dozuen ezer.

2)

Oiz mendiaren babeseta
itsasoaren bultzada
bai hunkigarri gaurko bidaia
udaletik elizara!
Gauzak aldatu direla baina
gaur be holako zenbat da?
Hiru umetxo etorri dira
gurasoen ezkontzara!

3)

Iker, etxeko prakaduntxoa
gaur egongo da pentsetan
eguna zelan guztiz osotu
Elantxobeko uretan.
Igerizale trebea eta
dantzan be fina benetan
dominaren bat seguru dago
hurrengo olinpiadetan.

4)

Oihanendako gaur izan leike
baloi bat opari edar
eta zelan ez, animaliak
bere ohapean zehar.
Txoria edo txakurra bada
ez litzake endredu lar
elefantea eskatzen badau
erregeri deitu behar.

5)

Amets txikia, etxe onean
jaio zen kutun bizia
ezjakinean izango zara
gaurko izar nagusia.
Sentitu orduan bataioko ura
burutik behera jausia
zure negarra izan daitela
olatuen garrasia.

6)

Zorte on zuei, Oier artista
ta Itxasne andereño!
Ondo egindako lanen testigu
hor gelditzen da Ogoño.
Ez daukazue beste egiterik
behin iritsita honaino
martxa onean doan bidea
ospatu ta segi baino.

MIREN ETA JUANITO

2012-10-06. Gizaburuagako Miren Lurdes Gabiola eta Lezoko Juanito Trecet. Hau hogeita bost urte preso egina, eta Miren, sei urte. Despedida-afaria Oletako Klaudio jatetxean izan zen. Bertso hauexek kantatu nituen.

1)

Bizitzak egun asko baditu
bat izan leike gaurkoa
berezi edo espeziala
inongo duda bakoa.
Motiboa be, bistan dagonez
ez da edozelakoa.
gitxienean esan leiteke
normaletik gorakoa.
Ipuin polit bat esango neuke
ez balitz benetakoa.

2)

Larrosa batek jantzi dau gaurko
jardin edo baratzea.
Bertan nor ete dogu orria
nor ete da arantzea?
Zelan pensatu bizitza baten
holakorik gertatzea?
Lehenengo Jauna neuk emondako
bateri -hau da trantzea!-
berrogei eta bost urtera gaur
despedida kantatzea!

3)

Bestetik horra gure mutiko
bizia eta braboa
hain bizkorra ze bardin esan lei
“badator” edo “badoa”.
Gizaburura ailegatuta
uso polita daroa.
Bera ehiztari trebea izanik
ez da izan be arraroa
ez bada dana Lezoko Santo
Kristoaren milagroa.

4)

Pixkat atzera begiraturik
zer dago zuen buruan?
Bion artean bizitza erdi bat
espetxeko lurzoruan.
Hori guztia gogoratu ta
barriz neurtzeko orduan
suberte on bat ere merezi
zenduen noizbait munduan.
horixe opa deusuegu gaur
sentitzen dogun moduan.

Ondorengo habanera hau
Miren eta Juanitoren ezkontzaren
oroigarritzat egina izan zen.

Ba ete da zorionik
bere berbatik harago?
Ez dakigu ziur baina
zuentzat behintzat badago.
Baleike ez izatea
ipuin bat baino gehiago
edo agian oraintxe
izatea ipuin-aro.
Kartzela egi-egia
gertatu bazen lehenago
zergaitik alderantzia
ez da bardina izango?
Ba, guk opa deusuegu
ezer baino egiago
bizi guztia daizuen
ipuin horretan igaro.

MAIDER UNDA

2012-08-15. Maider Undak joko olinpikoetako brontzezko domina irabazi zuenean, esan nuen: *Neska horri harrera-jairik edo zerbait egiten bazaio, joan behar dut, ba!* Miresten bainuen nola zeramatzan batera kirola eta artzaintza. Aramaioko bere auzo Oletan egin zitzaion omenaldia, eta joan nintzen, beste bat gehiago bezala. Han nengoela, antolatzaileek zerbait kantatzeko eskatu zidaten. Pentsatzeko asti apur bat izan nuen, eta hiru bertso hauexek kantatu nituen, etxean gero, gutxi gorabehera (eta seguruenik, apur bat hobetzen saiatuz), ordenagailura pasatu nituenak, okasioak merezi izan zuela eta. Ez dira, beraz, ez bertso jarriak, ez guztiz bat-batekoak.

1)

Eguerdi on, Oleta maite
gaur dana beterik jendez.
Bizitzan sarri ez dot kantatu
honen motibo ederrez.
Ez naz etorri inork deituta
etorri naz guztiz neurez
erakusteko zer hunkiturik
gabilzan danok Maiderrez.
Londres nun dagon eta zergaitik
ez jaku ahaztuko errez.

2)

Ondino ez da guztiz amaitu
joko handien burruna
danok saltoka hasi ginena
Maiderren barri entzunda.
Ardiak ere alteraturik
dabilz arran eta dunba.
Galdetzen bada: “Olinpiadon
izar maiteena nun da?”
ez joan Rusia edo Txinara.
Hemen dago Maider Unda.

3)

Danok hainbeste poztu baginen
gitxiagorako ezta.
Agertu dozu kemen mundiala
eta aparteko kasta.
Kosta bakoa ez da izan eta
gozau eizu arrakasta.
Eta domina domina dala
eskerrak benetan, neska
mundu guztira zabaltzearren
ikurrina eta gazta.

4)

Esakera da: “Aurre on batek
dakar halako atzea”.
Atara dozu azkenik orain
lau urteko arantzea.
Izan zaiteze suberte oneko
bai zeu ta zeure etxea.
Eta suberte horren barruan
gurako geunke sartzea
egiteko gai zarien baino
gazta gehiago saltzea.

MIGEL ALBERDIRI AGURRA

2009-01-18. Migel Alberdi gizon estimatua eta popularra zen Berrizen. Bere omenezko agur-ekitaldian bertso hauexek kantatu nituen. Bertsoetan aipatzen den *Iremiñe* Berrizko dantza talde bat da.

Hasieran

Egun on danoi! Alkartu gara
maitasun baten indarrez
etxeko eta lagun maite bat
agurtzeko gorazarrez.
Nahiz batzuentzat malkoei eusten
ez dan izango hain errez
ekin deiogun haren gomutak
bera berton baleuka lez.
Ta zergaitik ez hain berea zan
aurpegi osoko irribarrez?

Dantza ondoren

1)
Iremiñeren sortzaile eta
arima izanik lehenen
landare baten forman izango
zaitugu gogoan hemen.
Famili eder bat eta lagunak
danean itxi ondoren
zeure ta danon baso maitean
hartu egizu atsedean.

2)
Aita ta aititita bandereruak
ondoren semea bera
zuk hartu zendun tradizioa
indartsu doa aurrera.
Landara baten espirituan
buelatu zara lurrera
arbola baten forman zabaldu
zaitezane aire librerera.

3)
Errautsak bere ongarri diren
arbolaren hazkunderan
herria hemendik ederto zaindu
zeinke eternidatean.
Dantza-talde bat lurtean eta
bandera eder bat aidean
halan ikusten zaitugu, Migel
amaitzen ez dan bidean.

NAPARRA ETA MARI JESUS

2013-05-04. Juanito Gisasola “Naparra” neure eskola-lagun izan nuen. Etxanoko Epaltze auzokoa, Muxikako Mari Jesusekin ezkondu zen bere jaiotetxera. Euron urre-ezteietako jaietan parte hartu nuen Etxanon, bertso hauek kantatuz, ezer ez zekiten omenduei sorpresa handi bat emanez.

1)

Berrogeta hamar urte joan dira
atzo izan balitz lez kasi.
Urrea esaten da baina hori
ezin da urrez erosi.
Mari Jesusek Naparrari ta
Naparrak Mari Jesusi
emon eutsien baietza ez zan
zulodun zakuan jausi.
Orain behar da urte bakotxa
banan-banan irabazi.

2)

Larogeirako martxan bakotxa
bien arte ehun meritu
kukua kantuz zala egun hau
ez da alperrik argitu.
Katuak zazpi bizi badaukaz
Naparrak zortzi baditu.
Lau bat gastatu dirala jota
beste hiru-lau gelditu.
Zu, Mari Jesus, trankil egon ze
badozu nori segitu.

3)

Nik Etxanoko barri badakit
Muxikakoa ez hain ondo
baina neskato honek ez eban
gerra handirik emongo.
Naparra be ez zan okerra baina
gogorrean puntarengo.
Baten bat sartzen bazan beragaz
ez eban sano urtengo.
Horreri lurra jo eraiteko
gaur be ez da asko egongo.

4)

Zeuen famili eta senide
ta lagunekin batean
urrean sartu zarie eta
hurrengoan diamantean.
Lehengoak lehengo, datorrenagaz
bizi behar da bakean.
Lartxo eskatzea balitz “jarraitu
beste hainbeste urtean”
izan daitela gaurko antzera
zeuek gogaitu artean.

“TAKET”-EN BIZITZA

Asier Legarreta mungiarrek bertso-sorta bat bidali zidan, *Taketen bizitza zortziko nagusian* izenez. Juan Ormaetxe Uribarri (1896-1983), “Taket” ezizenez ezagutua, Meñakako bertsolari bat izan zen, bere sasoiari, Bizkaian fama handian ibili zena. Orain, Mungian, *Taket Lehiaketa* egin ohi da, eta bertso-eskolak ere bere izena darama. Asierrek eskatu zidan bere bertso haiek apur bat konpontzeko, eta horixe egin nuen. Neu ere, beraz, nolabait egile sentitzen naizelako, eta batez ere, “Taket” pertsonaia interesgarria iruditzen zaidalako, hemen doa sorta.

- | | |
|--|--|
| 1)
Ehunda hogeitau urte oraintxe dira
munduratu nintzenetik.
Amak umetan abesten eustan
etxeko su baztarretik.
Bertsotarako afezinoa
baneban txikerretatik
“mutil makarra” izanez hasi
nintzen jiran plazetatik. | 4)
Gero bertsotan ikasi guran
Muxikako “eskolara”
Enbeitarrak, Iturri, Sardui
ta Lopategi hor gara.
Fuenterrabia tabernan kantuz
sarri joaten jakun gaba
bertsolari lez daukadan sena
zati on bat hangoa da. |
| 2)
Ezizenetan ezagunenak
“Sollubepe” edo “Taket”.
Beragaz zenbat ikasi neban
esan lei Enbeitatek.
“Sasoi batean oso ona zan”
dino nigaitik hainbatek.
Txapelik bako txapelduna naz
hori harro esan daiket. | 5)
Bertso-finala bere jokatu
gendun Bilboko Areatzan
zortzi onenen artean hantxe
bigarren geratu nintzan.
Berrogei eta hamazortziko
gabonilean izan zan
hainbeste jente ez dot egundo
entzuten ikusi plazan. |
| 3)
Gerra zantar bat danba sortu zan
hasi gintzezan tiroka.
“Herrian alde egizu behar!”
barrua neukan orroka.
<i>Zeruko Argia</i> -n eta <i>Euzkadi</i> -n
burutu neban erronka
hitz neurtuetan faxisten berbak
izteko bertan lur jota. | 6)
Larogeta hiru urte gaz hil naz
banoa leku barrira
omenaldi bat egin deustie
Mungian handik gitxira.
Azken agurra neuri emoten
onenak etorri dira.
Bertso-eskola neu lez deitzen da.
“Taket” zuekaz bizi da. |

SAN SALBADORE-GEREDIAGA

Abadiñoko San Salbadore edo Gerediaga auzoan, udabarriko jaira eta auzo-bazkari eta erromeriara urte askotan deitu zidaten, koplari eta bertsolari bakar moduan. Gerediagako plazaren ezaugarri dira “hamabi harriak”. Gorantz estutzen doazen metro erdi inguruko harri karratuak, mugarri antzekoak. Nire zeregina eguerdian, ermita aurrean, bertso edo koplak batzuk kantatzea zen, dantzarien ondoren, eta beste hainbeste gero, bazkal ostean. Zerbaitegatik interesgarri iruditu zitzaizkidan bertso batzuk, gero, idatziz jasotzeko buruera izan nuen, eta hemen daude. Zoritxarrez, urte guztietakoak ez.

Hasierakoa

San Salbadore-Gerediaga
osatzen hamabi harrik
harri bakotxa lantzen dabela
hamabina esku barrik.
Ez geunke gura galduz joana
bizibarritu bakarrik
baizik auzoa alkartu eta
iraun eragin itzarrik
sortzen dogunak ez daien izan
eusten ibili beharrik.

Amaierakoa

Historia zaharra
auzo-harriena
eguzkirantz barritu
guran dabilena.
Harrian zin eginda
dator ekimena
Elkarte honek izan
daien jarraipena
gitxienez harriak
irauten dauena.

Bazkariaren hasieran, denen artean kantatzeko bertso bat eskatzen zidaten, menuaren diptikoan sartzeko. Urterik ez daukat, jaso, baina haxe da bat:

Beste urte bat gehiago

Beste urte bat gehiago eta
beste egun eder baten
ermitan hasi doguna ia
nun hobeto segi leiken.
On egin janak, bardin edanak
hasi tresnoi eragiten
harmoni eder bat gozatu daigun
beti legez baita aurten
urterik urte gure auzoa
indartuaz joan daiten.

Gerediaga 2012

Hamabi harri, beste urte bat
bi mila eta hamabi
barriro hemen gagoz auzo bat
dantzari eta kantari.
On egin janak eta patxo bat
ez ukatu edanari
harri bakotxak emon deigula
danoi umore ugari
eurak hamabi diran moduan
eutsi alkartasunari.

Gerediaga 2010

Hamabi harrik zaintzen gaitue
Gerediagako plazan
euren arimak sakatzen deusku
hamabi hileko martxan.
Auzo-egun bat zelebratzea
asmo ederra izan zan
gozatu daigun bazkariaren
harmonian eta saltsan
hurrengo urtean barriri bertan
juntatzeko esparantzan.

Egutegiak badau urtean
egun bat ondo jaso
bertan batzeko hamabi harrik
gordetzen daben auzoa.
On egin janak eta edanari
egin trankil eraso
gozau bazkari kontulari ta
bazkaloste eroso
egunak itxi daian lar arin
joanaren pena gozoa.

Gerediaga 2011

Gerediaga 2014. Urte honetan, lau auzotar omendu nahi izan zituzten, auzo-bizitzaren antolakuntzan lan handia egin zutelako. Lehenengoaren kasuan, Guadalupe andreak jaso zuen berari eta bere neba zenduari eskaintzen zitzaien aitormena.

Juan eta Guadalupe

Hasi gaitezen gure artetik
falta dogun bategandik
Guadaluperen abizenean
geugaz dagona oraindik.
Juan Agirrebeitia
ta arreba maitia
harro gagoz zuekaitik
halan ondratu nahi zaituegu
Hamabi Harrietatik.

Jabier Bizkarra

Martxan doazen gauza danetan
hasikera bat han dago
eta zelako hasikera zan
jarraipena be halako.
Auzo-bazkari honi izen bat
aurkitu behar bajako
gure txalorik bihozkorrenak
Jabier Bizkarrarendako
auzoa batzen dauen egun hau
abiatu ebalako.

Karlos Zubizarreta

Auzoan bertan jaio ez arren
izan lei auzotar handi
etorreratik bertakotu ta
auzo-lanerako adi.
Guk holako bat badaukagu ta
pozarren gatoz kantari
esker onena erakutsiaz
Karlos Zubizarretari
auzoagaitik edozetako
beti prest egon danari.

NI BANAIZ ZU

2009ko martxoan egin nituen porrusalda-kopla hauek, Jon Elustondo legazpiarraren eskari bati erantzunez.

1)

Ni banaiz zuk diozun
ispiluko hori.
Ni banaiz zuk diozun
ispiluko hori
zu puskatu ta nola
nago ni osorik?
Ai, oi, ene!
Nago ni osorik
ni banaiz zuk diozun
ispiluko hori?
Osorik.

2)

Ni banaiz zuk diozun
errekako hori.
Ni banaiz zuk diozun
errekako hori
nola urak agortu
ta berriz nator ni?
Ai, oi, ene!
Ta berriz nator ni.
Ni banaiz zuk diozun
errekako hori.
Nator ni.

3)

Ni banaiz banku-beiran
islatzen den hori.
Ni banaiz banku-beiran
islatzen den hori
nola zu hautsi eta
berdina nago ni?
Ai, oi, ene!
Berdina nago ni.
Ni banaiz banku-beiran
islatzen den hori?
Nago ni.

4)

Itzalarekin nabil
borrokan «nor da nor».
Itzalarekin nabil
borrokan «nor da nor».
Ni puskatzean ere
bera beti da hor.
Ai, oi, ene!
Bera beti da hor.
Itzalarekin nabil
borrokan «nor da nor».
Bera hor.

BAGOAZ

2019-03-10. Jon Elustondoren eskari bati erantzunez. Albert E. Brumleyren *I'll fly away* kantaren bertzio baterako. Kanta originala gospel bat da. Eduki espiritualekoa, beraz. Alegia, oso itxaropen positiboa, transzendentzia dohatsua barne.

Nire hitzen bertzioan ez dago transzendentziarik, mundu honetako gordintasunak baizik. Baina “bagoaz, agur”. Alegia, ez gaude konpromisorako. Bagoaz munduz mundu, ihesi, ikustera, ezkutatzera, bizitzera. Espiritu turistikoa ironizatzeke era bat. Baita entzuleenganako ironia bat ere. “Hor daukazue fardela. Bagoaz, baina jakinean uzten zaituztegu”. Kantari eta entzule, denok aurkitzen gara seinalaturik, munduko miserien eta hondamenen gainetik hegan gabiltzanean.

1)
Milesker uzteagatik gu joaten
urruti!
Oroituko ditugu zuen
penak beti.

Bai!
Bagoaz, agur, zerbait
tamalez.
Itzuliko gara, agian bai
agian ez.

2)
Nahi duguna toki lasai bat gerra
gabea
zuen esku borroka-garra
ta bakea.

Bai!...

3)
Ez dugu nahi ibili herri pobre
hoietan
saia zuek miseriaren
konponketan.

Bai!...

4)
Ez dugu nahi amets gehiago egin
bidean
segi zuek ezinarekin
e - kinean.

Bai!...

BERTSO BIKO SORTAK

ANTONIO BARAJUEN, “MATXIN”

2011-06-05. Berrizko Andikoa auzoko jai egunean kantatu nituen bertso hauek, Antonio Barajuen “Matxin”-en omenez, jai-batzordearen izenean. Auzoko sakristau etxekoa eta Berrizko alkate izana. Pertsonaia popularra eta geldigaitza, bai herrian, bai inguruetan.

Antonio Barajuen
guretako “Matxin”
isilegi joan zinen
tamalez lar arin.
Auzoko ordezkari
Sakristau be bardin
eliza zelan zaindu
jaiak zelan egin
zugandik hartutako
martxan gabiz orain.

Gogoratzen zaitugu
betiko berbera
bizkor eta berbaldun
gora eta behera.
Jai-batzordean ezin
gendun jo aurrera
zuri agertu barik
geure sentikera
jarraituko dauena
urtetik urtera.

BADAKIT, EZ NAIZ BIZIKO

2006-11-01. Bertso hauek badute historia bitxi bat. Egun horretan, *50 URTE* izeneko ekitaldi bakarlarria neukan Usurbilen. Kopla eta bertso berritan, mende erdi baten kondaira. Bezperan, doinu berri bat amets egin nuen. Itzartu nintzenean, doinua bazebilen nire gogoan, eta ahaztu aurretik -ametsen hondakinak, gehienetan, berehala ezabatzen dira-, paperera transkribatu nuen. Doinuak ez dauka baliorik, ametsetan asmatua izanaz besterik. Eta huraxe baliatuz, bi bertso hauexek osatzea pentsatu nuen, Usurbilgo arratseko ekitaldiaren bukaera izango zirenak.

Badakit, ez naiz biziko, ez
beste berrogeita hamar urtez
bizi naiz iragana gordez
zueri kantatzeko zortez.
Zorte horrexen esker onez
opa dizuet bihotz doblez
bizi zaitezela umorez
eta ahal bada zorionez.

Orain gazteei azken hitzak
geroaren aitzindaritzat
opa dizue Amuritzak
lagun deizuela bizitzak.
Mende erdi barru bakoitzak
biltzen dituzuen oroitzak
izan daitezela emaitzak
edo lorpen hurbilak behintzat.

BILL DOUGLASS

William Anthony Douglass, "Bill". Kaliforniar antropologo eta idazle entzutetsua, Euskal Herriarekin lotura zuzena eta sakona duena. Apaiz nintzela ezagutu nuen -eta adiskide handi egin ginen-, Aulestin *Muerte en Murélag*a izeneko ikerketa ospetsua burutzen ari zela. 2013-12-06an, Durangoko Azokako argizaiola berari eskaini zitzaion, eta San Agustin aretoko ekitaldi hunkigarri baten barruan, bertso hauexek kantatu nizkion.

Gaztea zinen, "geure Bill" zinen
gizon luze ta lerdena
zorte dohatsu bat izan zen zu
Aulestira heldu zinena.
Gaztetasuna joan zaigu baina
gelditu da beste dena.
Ederra izan zen adiskidantza
zugaz izan genuena
eta ederrago zutaz betiko
gorde dugun oroimena.

Urte ederrak izan ziren, bai,
sasoi ta gogoz mukuru
geroztik inoiz harreman hura
berritu ahal izan dugu.
Ikerkuntza ez den beste zerbaitek
ere gaur Bill-du gaitu gu
ba, aitorpen bat egin nahi dizut
argi eta buruz buru
maite zintugun, maite zaitugu
eta maiteko zaitugu.

FERMIN BARCELÓ

2012-05-18. Gure auzorik hurrena den Sagasti etxeko Fermin. Gizon maitatua eta maitagarria, inor izatekotan. Jubilatu zenean, bere lankideek ospakizun handi bat antolatu zuten, Durangoko Kurutziaga hotelean, non senideez eta lankideez gainera, auzokoak, herrikoak eta era guztietako hainbat ezagun bildu baikiñen. Beste partaide askoren artean, nire ekarpena ondorengo bertso hauxe kantatzea izan zen.

Sarritan ez naz hain pozik egon
omenaldi baten jaian
ze gure Fermin hain da bakarra
munduan eta Bizkaian.
Jubilau zan da hor dabil baztar
guztiak konpondu nahian
egunaz hasi eta gauean
ezin jesarrita mahaian
topaiozue postu bat hortik
apur bat deskantsau daian.

Gero, egun horretako eta bere bizitzako hainbeste kontakizun, argazki eta partaideren omen-liburu bat osatzea pentsatu zen, eta nire ekarpena honako bertsoa izan zen:

Solozarretik Sagasti dugu
etxerik hurrekoena
non batzen diren Lemoizko sena
ta gizon baten sormena.
Guretzat Fermin ez da bakarrik
munduko auzo onena
baizik izadi posibleetan
hoberik ez legokena.

GAZTEZULO

2011-10-25. Zirkunstantziak ez dauzkat gogoan. Aldizkari horretarako kolaborazio txikiren bat eskatu izango zidaten. Bertsoek erreferentzia batzuk iradokitzen dituzte, baina ahaztuak dauzkat zeintzuk, eta testutik ateratzea ere zaila da. Izan litezke argazki edo marrazki batzuen lagungarri. Politikariren batzuen kontuak, nolana ere.

“Bakea behar dugu”
ez zen beste hitzik.
Heldu delarik ez da
aitzakia baizik.
Nola ibil litezke
hipnosian ezik
garaileak haserre
galtzaileak pozik?

Bata estoikoki
krisi-lekak jaten
bestea kakaginan
Amerika Park-en.
Zaila izan behar du
hastea azken baten
maletak bildu eta
agurrak ematen.

JUAN GORRITI GOLDAZARENA

Ohore handitzat daukat artista bitxi eta agortezin honi (Oderitz-Arribe) bi poema txiki eskaini izana. Errima berdintsuak izatea bilatu gabeko -eta ohartu gabeko- kointzidentzia da, bi aldi oso ezberdin izan baitziren.

Sustraietatik enbor sendora
enborretik adajera
aldaska eta hosto artean
erlea dator lorera.
Horiek denek osatzen dute
arte baten izaera
formak berrituz haizeen eta
gogoeten arabera.
Zer edo nor den izaki hori?
Gorriti duzue bera
zuhaitza gizon, gizona zuhaitz
bihurtu zuen kimera.

“Laster hi txori bihurtuko haiz”
esan nionaz batera
“ni txoria nauk!” erantzun zidan
eta bazuen tankera.
Hurren bisitan luma urdin bat
irten zitzaidan atera.
Txoria nondik ote da?
Ez naiz joango lurpera.
Hegatu nintzen airera
eta haizeak txistu egin zuen:
“Goazen Aralar aldera!
Ikusi, ez da ikusten baina
sentituko duzu bera”.

ISMAEL ALDEKOA

Berrizko Andikoa auzoko gizon bat, arrazoieta beti originala. Bere lan-bizitza fabrika batean egin zuen. Erretiratu zenetik, urte luzeak egin zituen artzain, ia hil zen arte. Bere oroigarriko, bertso bat eskatu zidan familiak, eta hauxe egin nuen:

“Nun da gure Ismael?”
inork galdetzean
esan: “han doa bere
ardiak atzean”.
Bai, Ismael, haizeak
txistua jotzean
ikusiko zaitugu
ardi bakoitzean
eta egongo zara
danon bihotzean.

Hileta egunean, Miren alabak eta biok kantatu genion, Berrizko Elizondo plazan. Nik hauxe kantatu nuen:

Ardiak dabiz hara ta hona
gure Ismael nun dagoan.
Txakurrak dino: “Etorriko da
kortara sartzerakoan”.
Guk badakigu zelan dan hori
ta zelan zan lehenagoan.
Segiko dogu bera ikusten
artalde baten ondoan
landa baztarren baten ez bada
bai behintzat geure gogoan.

KAS TXIRRINDULARI TALDEA

Gorago ere aipatua dudan Juan Mari Uribezubia, “Katarra”, KAS izeneko talde ospetsuan korritua zen. Talde horren omenezko ekitaldi bat antolatu zen Bilboko Euskaldunan, eta “Katarra”-k kantuan agurtu eta eskertu nahi zuen publikoa, eta pare bat bertso eskatu zizkidan, berak han kantatzeko.

Ongi etorri Euskaldunara
gizalege zuzenean!
Eskerrik asko lagun guztien
eta neure izenean.
Txirrindu-talde historiko bat
oroituz gatozenean
nork pentsatuko zuen orduan
KAS hura sortu zenean
hainbeste egun handi utziko
zituenean azkenean?

Alde batetik txirrindulari
bestetik edariena
KAS izan ei da Euskal Herriko
izenik nabariena.
Harrokerian erori gabe
hartu nahi nuke baimena
adierazteko zenbat eskertzen
dugun gaurko ekimena
non batzen diren orain garena
eta lehen izan ginena.

LARRAITZ ALONSO AMEZUA

Emakume gazte-gaztea. Aitak haurtxoa haurtzaindegira eraman zuen. Larraitz etxean gelditu zen, laster lanera irteteko. Ez zen lantokira azaltzen. Bila joan ziren, eta hilotz aurkitu zuten. Berriz eta inguru guztiak zauskaturik gelditu ginen. Bere omenezko ekitaldi samintsuan bertso hauexek kantatu nituen:

Hain krudela da aldi batzutan
heriotzaren ahoa!
Bizientzako uzten dauena
izan lei krudelagoa.
Eta halan be kantatu behar
“bizitza aurrera doa!”.
Poetak dinon moduan urak
dakarrena urak daroa.
Eta halan be kantatu behar
“bizitza aurrera doa!”
Baina zu barik dana izango da
hutsune buelta bakoa.

Denpora baten negarra izango
dogu defentsa bakarra
eta iraungarri zeure umearen
inozentziko indarra.
Espero dogu bera izanik
hartua zure bularra
jarraitu daien biak txandatzen
irriparra ta negarra.
Espero dogu bera izanik
hartua zure bularra
astiro-astiro danera zabal
daiten bere irriparra.

LAUDIOKO KIKE

2013-07-11. Abadiñoako Azterlan enpresan, Laudioko “Kike maitearen” memoria omendu nahi zuten. Enpresako ekitaldi hunkigarri batean parte hartzea proposatu zidaten, eta bertso hauexek kantatu nituen, Kikereren sendi, lankide eta langile guztien izenean.

Agur, hainbeste ondasun eman
diguzun Kike maitea!
Kostako zaigu gure geletan
ez zaudela sinistea.
Ez da erraza holako agur
mingarri bat abestea
baina minean agian poz bat
izan liteke bestea:
zenbat lagun ta zer maitatua
izan zaren ikustea.

Sendi ta lagun eta lankide
denak, nola ez, minbera.
Agur bihotzez, ondo joan, Kike
izarren beste aldera.
Zauden lekutik zeuk lagunduko
diguzu beti aurrera
eguneroko lanak bilduko
baitzaitu gure artera.
Altzairuak arimarik badu
zu izango zara bera.

BILBO, 2016-04-17

Preso eta iheslarien aldeko egun internazionala. Huraxe izan zen nire azken bertsoaldi politikoa. Hurrengo maiatzaren 3an bat-bateko bertsogintzatik erretiratuko nintzen.

Eguerdi on! Jendetza hauek
ez zaizkigu ezusteko
herri bat martxan daukagulako
gauzak bertan ez uzteko.
Ez gatoz hemen ezinezkoen
kantari edo eskeko
kantatzen dugu zer den bidezko
eta zer den nahitaezko
aro bat ondo itxi behar da
berri bat ondo hasteko.

Hautsi nahi dute alferrik gure
historiaren katea.
Eskerrak behar denean hortxe
daukagula gizartea.
Batetik eutsi, bestetik bultza
zabala da bitartea.
Zabala onar liteke baina
ez hain luze joatea
atzera-aurrerak laburtu eta
behar da errematea.

OHOREZKO EUSKALTZAIN

Bederatzi lagun ohorezko euskaltzain egin gintuztenean, nik Orixeren *Euskaldunak* poemaren hasierako bertsoa kantatu nuen, eta jarraian habanera bat.

Zatozkida, goi Arnas!
Eizu nerekin lan
Herri baten arnasa
mamitu dezadan.
Geroak esan beza
Herri bat izan zan
edota hats emaiogun
hontan iraun dezan.

Hala bazan, hala ez bazan
sar dadila kalabazan
ipuin on bati nahi nion
atzez aurrera erasan.
Ohorezko euskaltzain bat
daroat orain arnasan
asko eskertzen dudala
besterik ezin dut esan.
Orixek bere poema
abiatu zuen gisan
hitz bi aldatuz nahi nuke
hots egin Bilboko plazan
geroak esan dezala
Euskaltzaindi bat izan zan
edota hats emaiogun
indarrean iraun dezan.

PAGAIGOIKOA

Muxikako Gorozikako Pagaigoikoako lehengusu-lehengusinek euren baserri itzela (gure aitaren jaiotetxea) nekazal-turismo moduan berritu zuten. Ikusgarrizko obra eta emaitza monumentalak. Bertso bat edo bi eskatu zizkidaten, neuk sinatuak, bezeroek ikus zezaten nora zetozen. Biak antzekoak, nahi zutena hauta zezaten. Azkenean, biak jarri zituzten toki diferenteetan.

Egun osoko eguzkia ta
gauean izarrak altu
laino balego, buelta guztiko
naturak zainduko zaitu.
Pagaigoikoak, harri eta zur
kolore eta taulatu
arteen biltze amesgarrian
eskaintzen deutsu ostatu
museo baten lokartu eta
museo baten itzartu.

Gure aitaren jaiotetxean
eguzkiak maite zaitu
buelta guztiko natura eta
gauean izarrak altu.
Pagaigoikoak, harri eta zur
kolore eta taulatu
arteen biltze amesgarrian
eskaintzen dizu ostatu
museo baten lokartu eta
museo baten itzartu.

BIBA NAFARROA

Felipe Gorriti Otsanbela. Uharte Arakil, 1839-Tolosa, 1896. Musikari honen omenez, eta bere doinu batekin kantatzeko, Xabier Berasaluze “Leturiak” *Biba Nafarroa* deituko zen kanta baten hitz zirriborro bat bidali zidan, azalpen batzuekin batera. Honela erantzun nion, eta horrela utzi nuen testua:

Kaixo, Xabier:

Hemen duk hire eskaria, ondo ez zekiat, baina karinoz egina. Ohar batzuk:

- 1) *Biba Nafarroa* horrelaxe uztea ondo iruditu zaidak lelo edo estribilloan.
- 2) Leloan, ahapaldia errepikatzea hobeto iruditzen zaidak. Leloek, neure ustez, laburrak izan behar diate. Hitz garrantzitsuak eta kito. Zaleek ikasteko eta kantatzeko ere, errazago. Doblea nahi izanez gero, esan eta egingo diat.
- 3) Bigarren koplari, Gorritiren ibilbidea sartzen diat: Arakil-Iruña-Tafalla-Tolosa. Ibilbide egiazkoaz gainera, bidaia baten eta herrien arteko lotura baten xarma lortzen duk.
- 4) *Euskal Herrien*: Horrelaxe, pluralean. Esanguratsua eta politago iruditzen zaidak.
- 5) Koplaren azken puntuaren errepikapena, ondo dakian moduan, nahi den modura egin zitezke. Nik bi era jarri dizkiat, baina izan zitezke gehiago, lehen puntuarekin ere jokatuz. Grabaketa batean era bakarra behar dik, baina jende aurrean aldaera ezberdinak egin zitezke.

*Biba Nafarroa,
jota beroa!
Lehengoa, gaurkoa
ta betikoa!
Biba Nafarroa
zoru braboa
non gure gogoa
jotan baidoa!*

Freskura eta indarra
Freskura eta indarra
kobazuloen bizkarra.
Ortzadar batek zaintzen du
gure erresuma zaharra.
Ortzadar batek zaintzen du
gure erresuma zaharra.

Arakildik Iruñara
Arakildik Iruñara
Tafallatik Tolosara.
Gorritiren ondarea
Euskal Herrien poza da.
Gorritiren ondarea
Euskal Herrien poza da.

Azkena honela errepikatuz:

Freskura eta indarra
Freskura eta indarra
kobazuloen bizkarra.
Ortzadar batek zaintzen du
gure erresuma zaharra.
Gure erresuma zaharra
kobazuloen bizkarra.

Edo: *Kobazuloen bizkarra
gure erresuma zaharra.*

Arakildik Iruñara
Arakildik Iruñara
Tafallatik Tolosara.
Gorritiren ondarea
Euskal Herrien poza da.
Tafallatik Tolosara
Euskal Herrien poza da.

Edo: *Euskal Herrien poza da
Tafallatik Tolosara.*

SEGUNDO URIEN

2013-05-24. Berrizko Andikoa auzoko Zugatza baserriko Segungo Urien. Gaixotasunak gazteegi eremana hau ere. Paseak pasa, Segundok bazekien, hala ere, joatear zegoena, eta bidaia batzuk eskatu zituen bere ibiltokietatik, munduari azken begirada bat emateko. Ezkongabea izanik, bi neba-arreba eta ilobekin bizi zen, bere jaiotetxean.

Zugatztatik zubi bat
urrinera dago.
Agur, gure Segundo!
Ondo joan harago!
Arreba-anai-koinatu
eta danendako
izan zara etxeko
beso ta abaro.
Zeure lobakin, barriz
aita bat gehiago.

Jaio eta hazia
teilape honetan
ia bizi guztia
egin dozu bertan.
Ibili izan zara
baita Ameriketean.
Zoaz gaba edertzen
daben izarretan
edo zure agurra
daroan errekan.

HONDAMENEN JAINKOA

Suzko infernua izuzko ipuin bat zela sinesten hasita geundenean, hondamenak iritsi ziren: Biescas (ura), Ondarroa (amoniakoa), Zaldibar (zaborra) ... Hondamen infernalak, ipuinak izateko ere lar beldurgarriak. Saiatu ginen hitz egokien bila, eta ez genituen aurkitu. Lehenengoan, apaizak «Jainkoaren burubide misteriotsuak» aipatu zituen. Plazan, koplariak ebidentzia bat kantatzea erabaki zuen, labur, soil.

Ez dago ezer esplikatzetik
hitz minberenak esanda.
Kantuz biltzeko baino hondamen
handiagoa izan da.

Itxaroten ez zituen txalo batzuk entzun zituen. Bigarreanean, apaizak «Jaunaren probidentzia ezkutua» aipatu zuen. Plazan, koplariak kantatu zuen:

Baldin Jaunaren probidentzia
bada hain adimentsua
berak azaldu beharko digu
zorigaitz honen zentzua.

Hirugarrenean, apaizak gogoratu zuen Jainkoak oso era ezberdinak dituela bere seme-alabei «aitaren etxera deitzeko». Koplariak, plazan, kantatu zuen:

Fedeak dio joan direla
Jainkoak berak deituta.
Ez al zezaken deitzeko era
xuabeago bat hauta?

Zenbat eta hondamen handiagoa izan, hainbat argiago gelditzen da bizitza dela arazoa, ez heriotza. Horretan ez da auzia askorik aldatu, lehen gizakia arrazonatzen hasi zenetik. Artzain bat ospakizun samingarri haietako batera jaitzia zen. Elizkizuna amaitzean, apaizak, bera ere gertaerek zanpaturik sentitzen zenak, artzainari goibelki esan zion:

- Dohatsua hi, ia zerua jotzen bizi haizen hori!
 - Ez dut, ba, gorago joan nahi, jauna -erantzun zuen artzainak-. Nahiago nuke berorren parean ibili.
 - Behe honetan ez zagok lainoa eta samina besterik. Hik, goiera horietan, Jainkoa garbiago nabaritu behar duk.
 - Fedea gutxitzen ari da orduan, jauna! -irribarre egin zuen artzainak-. Goietara datozenak berehala itzultzen dira.
- Eguneko irribarre bakarra izan zen.

SU-HILTZAILEAK GERNIKAN

Ekimen bat. Su-hiltzaileak. Mikel Labauria, Gernika erre zuteneko alkatearen oroimena, eta abar. Nik bertso biok kantatu nituen.

Emoidazue Labauriaren
makila edo bando bat!
Hau ez da behar gozoa baina
mangera eskuan daukat.
Zelan amatau behar dot sua
ura bera sutzen bajat?
Giza kearen usaina eta
haragi erreen zartak.
Lurra bera be hain dago bero
urtu behar jataz hankak!

Neure beroan, neure zoroan
hau da arnasa ketsua!
Bonben usainak barrero dakar
heriotzaren izua.
Badira baita koloreak be
magia baten mezua.
Bafada berde batek emon deust
bihozkada indartsua
su-hiltzaileon hauspetik sortu
dala izar baten sua.

TXINPAS

Berrizko “Txinpas” popularra (Eduardo Albizuri) trenak harrapaturik hil zen, sasoi onean. Hutsik gabea zen enkartelada eta manifestazioetan. Kantua ere oso maite zuen eta oso ondo kantatzen zuen.

Destino zital batek eroan hau
trenbide baten ertzean
beti segiko haugu ikusten
Fondako bidekurtzean.
Ez dok erreza berbak asmatzen
hi lako bat agurtzean
guretzat hortxe geldituko haz
pankarta baten atzean
pankarta baten atzean eta
berriztarron bihotzean.

Ahots zolia ta bibrantea
lagunarte zein afari
nork emon behar deutso grazia
orain gure herriari?
Egunsentian entzun orduan
txori guztiak kantari
esango dogu: “Hor dabil bera
goitik jarraituz danari”.
Bai, Txinpas, holan ikusten haugu
eta holan izan hadi.

UXUE MORENO SOLABARRIA

Periko Solabarriak pare bat bertso eskatu zizkidan, jaioberri zen bere biloba Uxueri kantatzeko. Ideiak ere berak eman zizkidan, guztiak ezin izan nituen sartu baina.

Ondo etorri, Uxue laztan,
mundu lantsu honetara!
Zure jaiotza borroka luze
baten katebegia da.
Txiroen eta herri zapaldu
baten elkartzetik hara
zure lurrean iraultza mota
hainbat bultzatuak gara.
Horien denen emaitza eta
itxaropena zu zara.

Esplotaturik Langile gisan
zapaldurik Herri gisan
Ezker Aldea borrokatu zen
burdin-zuhaitzen gerizan.
Gaur ere dema haiek darraite
gurutzaturik bizitzan.
Egizu negar, egizu barre
hartu indar, gogo izan
zure sustraiak zugar adarrik
sendoenak zabal ditzan.

LETURIAREN AGURRA

Xabier Berazaluze “Leturia” pandero-jole ospetsuak pare bat bertso eskatu zizkidan, lanetik jubilaziorako despedidan, lagunartean berak kantatu ahal izateko.

Donostiako Kutxan bat
sartu zen gazte erabat
neu nintzen bera ta Billabona
muinean daramat.
Geroztik tokiak hainbat
sortu zenean Kutxabank.
Denei eskerrak emanez nator
baina ez dakit zenbat.

Adio, lagun nireak
betiko adiskideak!
Araba, Bizkai, Gipuzkoako
ia senideak!
Utzi dudan lanbideak
ireki zaidan bideak
gogotik ezin kenduko dizkit
Kutxabankideak.

XOSE ESTEVEZ

Egin-en batera kolaboratzen genuen garai hartan. Xose Estevez galziarrari, gero Euskal Herrian kokatu zenari, omenezko edo aitormenezko ekitaldi bat egin zitzaion. Haren artikuluak gustura irakurtzen nituen, eta askos gusturago egin nituen haren omenez eskatu zizkidaten bi bertso hauek.

Nahi dut Xose Estevez
bertsotan goratu
eta gure txerarik
onena opatu.
Galego jator honek
erakutsi baitu
nola leizken bi herri
batera maitatu.

Galizian sustraiak
adarrak Euskadin
zuhaitz bikainagorik
ez ziteken egin.
Desiatzen dizugu
indar guztiekin
zuhaitz hori bietan
indartuz joan dedin.

JUAN LEGORBURU

Antonia Zamalloaren senarra. 2021-06-07. Antonia hau, Etxanoko Epaltza auzokoa. Gure etxe Torreburutik oso hurrekoa eta neure eskola-laguna. Ezkondu eta Abadiñoako Matienan bizi da. Bere senarra zen Juan Legorbururentzat, pare bat bertso eskatu zizkidan, familiako batek haren hiletan kanta zitzaiz. Pozik bete nuen eskaria, zendua ere oso ondo ezagutzen bainuen.

Larogei eta hamar urtean
zenbat egun, hainbat lagun.
Zapaldu zendun harri bakotxak
egiten deutsu orain mun.
Zenbat bosteko, zenbat maitasun
hartu eta emon zendun!
Irribarrezko gozotasun bat
itxi deuskuzu edonun
Juan Legorburu zelakoa zan
inoiz ahaztu ezin daigun.

Kanpoan hori eta etxean
zer aita eta zer gizon!
Umorea ta lagunartea
zirala zure zorion.
Beste munduan entzuten bozu
erromeri bat nun dagon
joan trankil, aita, eta gozatu,
guri begira ez egon!
Halan agurtzen jatzuz maiteki
Antonia, Izazkun, Jon.

BERTSO BAKARREKOAK

GUK OIARTZUNEN

2020-11-25. Lurdes Esnaola lezoarrak, Joxe Juan Ugalde lezoarrarekin hiru urtez jarraian Euskal Herriko Dantza Solteko txapeldun izan zenak (1981-2-3an), eta gero hainbat talderekin dantza irakasle dabilenak, beheko lelo ezagun horrekin kantatzeko moduko bertso bat eskatu zidan, pandemiaren altxagarri.

Pandemiaren zorigaizto hau
pairatu behar munduak!
Oiartzun ere jo digu utziz
gaixoak eta zenduak.
Minak biltzen du herri bat eta
elkartzen sentimenduak.
Hala izanik, irtengo gara
-zergatik ez?- kemenduak!

Ez negar egin
Gu elkarrekin

Guk Oiartzunen
Ez huts eginen!

MARI OLETA

Amorotoko Oleta auzunea jabetxeen gunea da. Bat *Klaudio Jatetxea* izenekoa, bertako Klaudio izeneko gizonaren izena. Mari Gizaburuagakoa da, hango sakristaua izan zenaren eta nik, lehen destinoan abade hara joanik, jada ohean ezagutu nuenaren alaba. Mari Klaudiorekin ezkondu zen Oletara, eta harrezkero “Mari Oleta” izan da guztientzat. Idazten ari naizen unean, 101 urte eginak ditu, eta argitasun osoan eta aktiba bizi da. Ehun urte egin zituen eguneko ospakizunerako, bertso bat eskatu zidan berarekin harreman handia duen Pedro Mari Goikoetxeak, eta hauxe bidali nuen:

Ezagunena, popularrena,
inguruan inor bada.
Maitagarria ta maitatua,
horretan danok bat gara.
Hori guztia zara zu, Mari,
beste nor izango da, ba?
Ehun urte josi dozuz ilaran!
Lau gizaldi sorbaldara!
Orain hemendik aurrerakoak
banan-banan nahikoa da.

AUPA, JUANKAR!

Juan Karlos Arriaga, “Juankar”. Berriztar popularra, soinu-teknikari aparta eta beti edonon laguntzeko prest. Tartean, neu bizi naizen Andikoa auzoan. Gaixotasun bat zela eta, ingresaturik luzaro zegoen batean, bertso hauxe bidali genion.

Aupa, Juan Karlos! Nun habil, Juankar?
Nun ezkutaturik hago?
Denpora lartxo ez al dok hori
heuk nahi baino urrinago?
Urteik lehenbailen zulotik eta
hator apur bat honago.
Hi barik Berriz ez dok ezer da
Andikoa gitxiago.

MARUX SASIAIN

Zumaian kotxea aparkaturik neukan. Irteeran, beste kotxe bati kolpe bat eman nion. Nolako amorrua ematen duten hain era ergelean gertatzen diren ezbehar horiek! Galdetu nuen kalean nor izan zitekeen jabea, eta han agertu zen emakume bat irribarrez, mesede bat egin banio bezala. Ezetz, ez zela ezer eta joateko lasai. Orduan, Euskadi Irratiko Faktoria programan parte hartzen nuen, eta neure “gustuko gaian”, kasua kontatu eta habanera hauxe kantatu nuen.

“Karta bat idatziko dut
norbaitek erantzun dezan”.
Norbait hori Marux dela
nahi nuke mundura esan.
Kotxe bat jo nun Zumaian
bizkaitar baten lainezan
larri nengoen jabea
zein azalduko ote zan.
Eta hara emakume
amable bat non nekusan.
“O! Hau ez da ezer!”, eta nik:
“Baina nola leike izan!”.
Bakarrik falta da orain
kolpearen ordain gisan
Getarian txakolin bat
hartzera bildu gaitezan.

Gonbidapen hori bere ideia izan zen, Getarian lan egiten zuela eta.

ALBE, 35 URTE

Algortako ALBE bertso-eskolak 35. urtea egitean, ospakizun handi bat antolatu zuen. Gonbidatua izan nintzen, baina ez nuen joaterik izan. Bertso bat grabatzea proposatu zidaten, nire ahotsa ez zedin bilera hartan falta izan. Jai hartan, eskolaren sortzaile eta bizkarrezur nagusietakoa izan den Trino Azkoitia bereziki aipatua izan zedin nahi zuten.

Albebideak etenik bako
altxor bat dakar gordea.
Diferentea izan daiteke
baina zaila da hobea.
Neugan balego, hartuko neuke
banatzeko ohorea
kide guztiei urre bana ta
Trinori txapel doblea
aurrerantz bere ez daiten falta
Bizkaian albelorea.

JOSE ALBERDI “TXO”

Mañariarra semez, “Txo” ezizenez, herrira bertara ezkondu zen. Gero, hiru seme-alabarekin, Durangora aldatu zen. Gizon eta bertsolari langilea eta alegrea izan zen beti. Bizkaiko txapelketak abiatu zirenean (1958), entzute handia izan zuen.

Agur, Jose Alberdi!
Hau ez da antsia
baizik “Txo” maiteari
azken goraintzia.
Gerra ta gerraoste
baltzak iruntsia
miraritzat gordeko
dogu herentzia:
purutxo baten kea
ta alegrantzia.

ASTOLAKO KARTZELAN

Bere urte-egunean sorpresa bat eman nahi zioten Alberto kulturazale eta bertsozale sutsuari. “Astolako kartzelan”, dio bertsoak. Hantxe jaio izana harro kontatzen baitu beti.

Astolako kartzelan
jaio zen Alberto.
Bai leku berezia
mundura etorteko!
Munduak, nunbait, hartu
zinduzen ederto
eta bertsoak barriz
askozaz hobeto.
Urte barriak orain
grazirik badeko
betor zure zorion
eta suberteko.

AMETSETAKO BERTSO BAT

2019/08/28. Ametsetan maiz aritu naiz bertsoan, baina itzarkeran, ideia orokorra edo ahapaldiaren hari-mutur bat oroitzu batera, osotasuna erabat ezabatu ohi zait gogo kontzientetik. Zerbaitek grazia handia egin badit, eta nahiz eta konbikzio horrekin itzartzen hasi, gero, konorte osora iritsi ahala, denak zozokeriak iruditzen zaizkit. Ametsetako grazia-sena eta kontzientzia itzartuarena oso ezberdinak dira. Gutxitan gertatu zait ametsetako bertso bat, itzartutakoan, osorik gogoratzea. Oraintxe kontatzera noana da kasu bat. Bertsoak ez dauka inolako baliorik, amets bat izatearena besterik. Maite dut jokia, baina gutxitan lortzen dut gogoratzea. Kasu honetan bai. Beharbada protagonisten eta zirkunstantziengatik, barreka itzartu nintzelako. Bertso gogoratu berriz kantatu eta goiz berean transkribatu ez banu, goiz erdirako galdua izango zen.

Hauxe da ametsa. Jon Lopategi “Baltza”, bere seme Aritz Lopategi eta ni kantuan ari ginen Muxikako Ariatzan, hango lagunarte mardul baten aurrean, zutik, sagardotegi antzera. Mutil gazte ikaslea (Aritz) tartean baitzen, ikasketez ari ginen, eta “Baltzak” semeari bertso zorrotz bat bota zion, entzuleei grazia handia egin ziena. Bere semeari buruzko susmo gaiztoren bat jaurti zuen, ikas-denbora alferrik galtzen ari zela edo. Neuri ere grazia egin zidan ametsean, baina, itzartutakoan, hitz bat ere ez zitzaidan gelditu gogoan. Bertso hura botata, Lopategik alde egin zuen bazterren batera, “orain zeuek konpondu” esanez bezala. Aritz Lopategi gaztea harri eta zur gelditu zen, aitarengandik halako eztenkada jasotzean. Bere noraezean, bertso polit bat osatu zuen, baina gero ez zitzaidan gelditu gogoan. Lopategi ez zela itzultzen ikustean, jendea bila abiatu zen, eta ni, besoekin *egon, egon!* aginduz, bertso bat kantatzen hasi nintzen, itzartzean ere gogoratu ahal izan nuena.

Esan aitari derrepentean
etor daitela, mesedez.
Hamaika sasi-eskola egina
da hori bera be berez.
Ariatzatik Oka ta beste
ta bertara sekula bez.
Horrelakoak frailetzan egon
diranek egiten dabez.

Oka: Ariatzatik hurreko auzo bat. Eskolarik ez dakit bazen, baina bai izaten zen meza, garai batean, hango basilizan. Inguruko herrietan, “Okako meza” esaten zitzaion meza huts eginari. *Gaur ez zaitut mezatan ikusi!* -kontu hartzen bazuen apaizak edo etxeko norbaitek, erantzuna zen: *Okan entzun dut.* Egia izan zitekeen, baina gehienetan, ez han, ez hemen, ez inon. Bertso hori kantaturik -ametsetan ari gara-, errepidera irten ginen gau ilun-ilunean. Lopategiren gerizarik ez zen inon ageri, eta nik esan nuen: *Ba, ni bere kotxean etorri nok!* Horrek larritzen ninduen, baina halako grazia egin zidan “Baltza” hala desagertzeak, ezen neure barreek itzartu baininduten, larritasunetik askatuz. Gogoan daukat, laugarren puntua hastera nindoanean, susto galanta hartu nuela, azkena pentsatu gabe baintorren. Eta danba, “dabez” bururatu. Hitz oportuno horrexek salbatu ninduen barregarri gelditzetik. Sentsazio horiek guztiak, jakina, ametsetakoak dira. Maite dut horrelako amets pozgarriak gogoratzea, nire ametsak, gehienetan, amesgaitzak izaten baitira, eta onenean, zentzugabekeria negargarriak.

ANEREN LEHEN JAUNARTZEA

Nire lehengusu batzuen neskatxo Anek lehenengo jaunartzea egin zuenean, bertso bat eskatu zidaten, bazkaritan irekiko ziren botila-ardoetan erantsita irakurriko zena.

Aneren partez, eskerrik asko!
Jaia umorez igaro!
Niretzat egun handia da ta
jo gitxienez bi trago.
Deskuidatuko balitz baten bat
neurritik pixkat gorago
gaur ez deusue gaxik eingo ze
bere bitsean neu nago.

ANJE, EIDER, IBAI

2019-08-21. Eskari hauxe jaso nuen gutunez: “Nire izena Larra da eta Mungiakoa naiz. Aurten euskaltegi batean klaseak jaso ditut. Ibai irakaslea eta Eider bere emaztea guraso izango dira hil honetan. Semea Anje deituko da. Posible baduzu, guraso hauentzat bertso bat idaztea gustatuko litzaidake”. Bertso hauxe bidali nion.

Haur-kotxe bati bultzaka edo
sehaskari erainean
ikusten ditut Ibai ta Eider
zorion baten gainean.
Opa dizuet goza daizuen
sentipen horren muinean
Anjek oraindik ezjakinean
eta zuek jakinean.

ANTXON EZEIZA

Gure zinegile eta lagun handiari bertso hauxe eskani nion, oroigarri moduan joango zena.

Bizi-eztanda etengabea
oldar bat ukoen aurka
hitza turrustan, irria gainez
irudimena borborka.
Esku batean sentimenduen
bestean ideien sorta
haize ta uren marra ebakiz
Antxon deritzan arroka.
Hi haiz herri bat, hi haiz arte bat
bihotz bat eta borroka.

ALFREDO ELORTZA

Eibartar botikaria, aspaldian Berrizen bizi dena. Beste gauza askoren artean, ibilzale eta mendizale porrokatua. Jubilatu zenean, etxekoek bertso bat eskatu zidaten, makila batean grabatzeko.

Makila hau ez duzu
behar oinetara
baizik seinatzeko:
“Goazen orain hara”.
Heldurik bizi-gailur
eder horretara
botikarik onena
zeu izango zara
zu gozatzen ikusiz
gozatuko gara.

ARGI-ILUNA

Bertso hau argi dago eskari eta helburu jakin batez egina dagoela, baina ez daukat gogoan nola izan zen.

Zer uste zenuen, ba
zela adimena
ez bazen osatze bat
argi-ilunena?
Hauta noiz den zuretzat
gaitz emankorrena:
argi bat bere muina
zulo beltza dena
ala ilun bat argiak
zultatzen duena.

BERRIZKO KULTUR ETXEA

Berrizko Kultur Etxe berria ireki zenean, bertso txiki bat eskatu zidaten, promozio gisan.

Herriarena eta
herriarendako
atea zabal dozu
Kultur Etxerako.
Jaso eizu kultura
plazer bat dalako
eta beragaz Berriz
gora altzetako.

BERRIZKO SUKALDARIAK

Sukaldariak irakasle zirela, ekimen bat antolatu zen Berrizko udaletxetik. Ikastaroa amaitu zenean, esker oneko bertso bat eskatu zidaten, bakoitzari bidaltzeko. Goiburuak pertsonala izan behar baitzuen, hona ekimenean parte hartu zutenen zerrenda, bertsoaren lehen lerro bezala:

Ganekoetxeko Iñaki, zuri
Juliantxuneko Josu, zuretzat
Toki Onako Begoña, zuri
Zu, Mari Jesus batzokikoa
Pedro Juaneko Kepa Imazi

Beraz, honela gelditzen da lehenengoaren bertsoa, eta hala beste guztiena, izenak aldatuz:

Ganekoetxeko Iñaki, zuri
bihotzez eskerrik asko
hain zabal eta gainera doan
parte hartu dozulako.
Zure jakintza eta giroa
jarriz danen aukerako
egina dozun lan bikain hori
gure herriarendako
Berrizko Udalak gogo-gogoan
izango dau sekulako.

DIONISIO AMUNDARAIN

Lazkaoko fraide eta euskal eragile ezin argiago eta langileago honi zigor gisako debeku bat iritsi zitzaion bere ordena barrutik, eta bertso bat eskatu zidaten.

Komentu baterako
bai dela tristea
gizon baten hitzari
ahoa ixtea!
Nola nahi dute, bada
hola sinistea
gizondu zen “Hitzetik”
dugula piztea?

EDURNERI BIHOTZEZ

2015-11-09. Sondikakoa sortzez, Aramaioko Untzilla auzoko Uxarten osatu zuen familia. Orduan Barajuen auzoan bizi zen, bere alaba batekin. Ehun urte ez zituen urrun, eta halako urte-egun batean, bertso hauxe eraman genion, postal batean idatzia.

Amama, birramama
ama eta aube
ia zeure sendiko
egin gara geu be.
Mendiek lekuetan
irauten badeude
zeure ona besterik
guk ez geuke gure.

EGUTEGIA-BERRIZ 2010

Berrizen bizitzea
subertetzat dago
mundu barruan eta
mundutik harago.
Urteari beste zer
eskatu leiako?
Txarretik gitxiago
onetik gehiago.

EIBAR-ATHLETIC

2015-3-1. Eibar lehen mailara iristen bazen, zin egina nuen partidu bat ikustera joango nintzela Ipuruara. Athleticen aurka jokatzeko zuenerako lortu zidaten sarrera, hain zuzen, lagun Asier eta Ander Garitanori esker. Goizean, Euskadi Irratiko Faktoria saioan, bertso hauxe kantatu nuen.

Bizkaitar lez izanik
beti athleticar
gaur Ipuruan daukat
gogo eta indar.
Euskal talde guztiak
nahi nituzke izar
baina bat hartzekotan
maiteen dut Eibar
mirari bat delako
mundu hortan zehar.
Baina bat hartzekotan
maiteen dut Eibar
arrazoitzerik ere
ia ez da behar.

IZAZKUN ETA TXEMARI

Neure koinata-koinatuon zilar-ezteiak. Oparitzat ekilore batean grabatutako hitzak.

Alkarren maitale dira
lorea ta eguzkia.
Halan opa deusuegu
hurrengo aldi guztia.

ELORRI

2019ko urtarrilean, neure karikatura bat iritsi zitzaidan Mallabiko eskolatik, Elorri Mugartza izeneko 10 urteko ikasleak egina. Ni marrazketan baldarra izanik, bertso xume hauxe eskuz idatzitako papiro batekin eskertu nuen mutikoaren detaile xarmagarria.

Belarri biak jarri
zaizkit gorri-gorri
begiratzuz marrazki
xarmagarri horri.
Hain polita al naiz ni?
Nondik da etorri?
Eskerrik asko eta
aupa hi, Elorri!

“EL VIEJO”

Berrizko Bekorrotako Jon Barcenak “El viejo” ezizenez deitzen zuten lagun batentzat bertso bat eskatu zidan. Neure abizena ere bertsoan sartua izatea nahi zuen, hartzailea ohoratuago senti zedin.

Aupa, zu, “El Viejo”
elektrikaria!
Herrian zein kuadrillan
hain maitagarria.
Onar ezazu bertso
honen oparia
Amurizak egina
Jonen eskaria
adiskidantza sendo
baten emaria.

FELIPE ALBERDI

Txirrindularia eta geure auzo hurbila Etxanon, Katia auzoan. Berari ere “Katia Alberdi” esaten zioten. Nire txikitako idoloa. Espainiako itzuli batean lehen etapa irabazi zuenean, mundua geurea zela uste nuen. Zornotzako eta inguruko txirrindulariak omentzeko jaialdi bat egin zenean, niri Felipe Albedirentzat bertso bat eskatu zidaten.

Gure etxetik bistan
Katian alde bi.
Ni baterantz begira
hantxe geldi-geldi.
Esaten neban harro
ia harroegi:
“Geure auzoa dogu
Felipe Alberdi!”.
Gomuta hareik gaur be
hunkitzen nabe ni.

GURE GOTZON

2013-10-13. Nire emazte Arantzaren neba Gotzon Miamin bizi da. Berrogeita hamar urte egitera zihoala, Euskal Herrira etorri zen, eta Muxikako Astei jatetxean egin genuen ospakizun-bazkaria. Hantxe kantatu nion bertso hau.

Zorionak, gure Gotzon
bakarra ta bat bera!
Horren guapo heltzearren
bost gehi zero nabera!
Begiratu zeinke bardin
atzera zein aurrera
behin itsasoz haruntz eta
behin hemengo aldera.
Bizi zaitetz beti zeure
asmoen arabera
eta ahal bada suberte
guztiagaz batera.

GURE ANA MARI

Ana Mari Isasi Amuriza. Nire lehengusin maitagarria eta maitatua. Sortzezko atzerapen batekin jaio zen (down sindromea), eta halaxe hil zen gaizoa, halakoen kasurako nahiko bizi luzea izanda. Artista sena zeukan, eta kantatzea izugarri maite zuen.

Agur ta joan pozik
gure Ana Mari
danon kutuna zinen
aingeru kantari.
Hasarretxoetan be
beti maitagarri.
Zenbat berba ta zenbat
uste bako hari!
Emon mosutxo bana
aita ta amari.
Orain izango zara
guztion zaindari.

GURE ESKU

Hirurehun mila esku
mendate eta lau.
Esker eta zorion!
Itzela izan da hau!
Gure Esku egonak
gure esku dirau.
Hasiara besterik
ez da izan berau.
Olatu honek ertza
urrun jo behar dau.

GURE MARIA LUISA

Maria Luisa Asumendi, donostiarra sortzez eta Bilbora ezkondua. Ramon Barreiro pintore handiaren alarguna. Berarekin harreman handia daukagun emakume honi, bisita batean, bertso hauxe eraman genion, paper dotore batean idatzia.

Gure Maria Luisa
hain andre bakana
burua bihotzakin
batera daukana.
Geu be bihotzak gaitu
agintzen zugana.
Bardin zure Ramon hain
maite genduana.
Orain zeugan maitatu
behar dogu dana.

HODEI EGILUZ

2014-03-13. Galdakaotar mutil dohakabeki desagertu zen. Beronen aldeko kanpaina baterako bertso bat eskatu zidaten, eta hauxe da.

Hain gazte eta hain bizi-gogoz!
Hau zelan irunsi daike?
Desagerpen bat oihartzun barik
ez inon lorratzik bape.
Itxaropena galtzea, barriz
zeu galtzea bailitzake
badogu orain egunez egun
zer bilatu ta nor maite
Galdakaoko zero ganean
hodei bat dabilen arte.

30 HAMAR URTE

Bizkaiko Bertsozale Elkartek 30 urte egin zituenekoa.

Zein eder den korritzea
gazteen aurrelari
euskararen eta bertso
zaleen ordezkari!
Zein eder den jarraitzea
aurretik doanari!
Elkargintzak egiten dau
lan arrunta mirari.
Hori dana lortzen bada
herri bati kantari
asko gehiago eskatzerik
ez dago bizitzari.

HONDARRABIA ARRAUN ELKARTEA

Segundo Urizarbarrenak egin zidan eskaria. Orain ez daukat gogoan, baina elkartean nonbait ipintzeko edo aldizkariren batean argitaratzeko izango zen.

Ohora bedi Hondarribia
Arraun Elkarte gailena
ia bi mende boga-aparren
erpinean dabilena.
Hori da giza talde argia
neska eta mutilena!
Uren urdina berde alaian
miraritzen abilena.

HORI, HORI!

Izen hori daraman itzulpen-enpresak berso bat eskatu zidan, “aditu eta adierazi”
lemaren garapen gisan.

Aditu, adierazi
dana kalidadez.
Konpromiso horixe
daukagu lan-taldez.
Hori-Hori hautatzen
dabenak tresna lez
zerbitzurik onenak
aurkituko dabez.

IBANE

2018ko urria. Zornotzako San Antonio auzoko Kimera baserriko gure lagun handi Maitek bere lagun handi Ibaneren oroigarritzko bertso bat eskatu zidan. Ibane San Mamesera joaten zalea ei zen.

Txikitan gure olgetak ezin
ziren Kimeran amaitu.
Joan zara, Ibane, baina nahi nuke
zurekin berdin jarraitu.
Oraindik udaberri zinena
udazkenak eroan zaitu.
San Mames edo zerbaitek igual
berriz elkartuko gaitu.

IÑAKI ARREGI

UEMAko arduradun eta beste arlo askotako ekintzaile entregatua izan zena. Mallabian egin zitzaion omenaldian kantatu nuen bertsoa.

O, heriotza! Parkagaitza dok
inoiz dagikan kaltea
beharren diren lagun onenak
onenean eroatea.
Baina ezingo deuskuk galazo
bihotz osoz esatea
“Adimen argi, ekile sendo
agur, Iñaki maitea!
Ez jakuk hilko hire ondare
etorkizunez betea”.

NORA JOAN ZARA, JABI?

2019ko ekaina. Berrizko Jabi Larrinaga bat-batean joan zen, 63 urterekin. Bertsoan aipatzen denez, azken urteetan taxista ari zen, bere lan-bizitzarik gehiena farmazeutiko egin ondoren. Perretxikozale handia eta pilotaren jarraitzaile sutsua.

Nora joan zara, Jabi,
hain kolpez, hain arin?
Noiz etorriko zara
perretxikoakin?
Ezin balitz, daukazu
lur zabal bat orain
nun taxista ibili
nun pelotan egin.
Eta dan-dana gure
maitasunarekin.

JON URRETXA

2002-10-07an, heriotza lazgarri bat izan Berrizen. Ibaian hilda aurkitu zuten, guardia zibilarengandik ihes egiten saiatu ondoren. Oraindik argitu ez den bilakaera bat dela bide, susmorik probableena da ez zela berez hil.

Agur, betiko gure
Jon Urretxa maite
hire lagunok penaz
gaituana bete!
Hi bueltan etortzerik
ezin baleiteke
gordeik bihotz on hori
geu horra joan arte.

IÑAKI URIBE

Berrizko gizon abertzale eta euskaltzale sutsu eta gizaseme zintzoenetako bat.

Agur, gudari zintzo
Iñaki Uribe!
Euskaldun sutsu eta
buruz beti libre.
Jo dituk hainbat bide
eta azpibide.
Orain beste bide bat
izango haz hi be.

MARIANO ETA BOK

Bertso honen bitxitasuna da ametsetan sortua dela. Mariano Rajoy eta bok ari ginen kantuan. Hitz bat zikin samarra dago, baina ametsetan ari gara.

Aizu, Mariano, bertotan ere
benetan harritzen nizu.
Aipatu duzu Trajano baina
ez gaituzu jartzen izu.
Guk bi gaitz handi ditugu eta
zuk bi on handi daukizu
hizketan pixkat badakizu ta
irakurtzen... kakazaharra!

Oker nabil! -hots egin nuen ametsean bertan. “Ez dakizu” kantatzera nindoan, baina potoa zela konturatu nintzen. Konturatu edo! Ze gero gertatu baitzen ez zegoela potorik. Amorruez eta sustoz erdi-itzartu nintzen eta honela amaitu nuen, oraindik ametsetan:

Azkena gaizki eman dut baina
zuri bost izango dizu.

Orain bertso osoa nola lotu beharko litzatekeen ez dago erraz itzarririk ere. “Nizu” hori ametsaren emaitza da. “Daukizu” ere, zuzena izan arren, nik ez dut horrela inoiz erabili itzarrarian. Kontua da bertso moduko hori ametsetik itzarrira gogoan iritsi zela eta idaztea pentsatu nuela, ahaztu baino lehen. Bizitza bateko “ameskeriak”.

JABIRI AGURRA

Zornotzako Politenako Jabirentzat bertso bat eskatu zidaten, oroigarri moduan. *Maumeko Maiora*: Muxikako Mauma auzoko Maiora baserria. Berau omen zen Jabiren entretenigarri eta amestoki etengabea.

Txilen mutil polit bat
amaren altzora
Zorrontzan ‘politena’
bera izango da.
Lagunen lagunzale
joan jatzu denpora.
Baztar bat amesturik
Maumeko Maiora
handik be joan gura
izan dozu gora.
Agur, Jabi, etxeke
lotik betikora!

JON GOIKOLEA

Aretxabaletako Jon Goikoleak Japonian urte mordo egin zuen. Japoniar neska batekin ezkonduarik, Euskal Herrian bizi dira, eta itzulpen, ikus-entzun eta arlo horietako enpresatxo bat daramate. Izan genuen grabazio-harreman baten ondoren, opari bat bidali zidan. Ez daukat zehazki gogoan zer, baina bertsoak dionetik, ideograma japoniarrak edo horrelako zerbait izango zen.

Bai poza nitaz hi oroitzea!
Hunkigarri oparia
eta hirekin pasa izana
Japonia, Australia.
Ideograma amaigabeen
unibertso jostaria
ideiena ez, baina gramena
gozatua diat ia.
Hauxe izango duk nire marrazki
bizidunen miraria!

JOSE MUJICA PRESIDENTE OHIA

2015-05-17. Uruguako presidente ohia Muxikako Ariatza aukoko txokora ekarri zuten bazkaltzera. Aldi berean, bazen bertso inguruko beste bazkari bat. Eta Pepe Mujica ezagutzeko aukera izan nuen. Bertso bat ere eskatu zidaten, eta hauxe kantatu nion.

Itsaso handia ez duzu handik
hona alferrik igaro
Montevideo baitzen hemengo
zure asaben abaro.
Hiri horretan milaka euskaldun
sustraitu ziren lehenago.
Garai batean bera zen Bilbo
baino garrantzitsuago.
Amerikako presidente ohirik
maiteena hemen dago.

JOXE AZURMENDI

Beasaingo Joxe Azurmendiren oroigarritzat eskatu zidaten bertsoa da hau.

Merezi zendun gehiago ere
nahizta ez joan hain gazte.
Utzi dituzu zurekin harro
bost senide ta emazte.
Maite zintuzten lagunak ere
zeruan izar hainbeste.
Gorputzez bezain bihotzez handi
lasai atsedean zaitetzke.
Bizi zenitun sentimenduek
beti zainduko zaituzte.

JUAN MARI ZULOAGA

Zornotzako neure herkide popular eta ekintzaile nekagaitz honen oroigarritzat eskatu zidaten bertsoa.

Juan Mari, denen lagun
eta lagunzale
zornotzar oso eta
munduko biztanle.
Ideiaz sendo, une
gogorretan ere
ez zaitugu ikusi
irribarre gabe
maitatu zaitugunok
zugaz harro gaude.

JULIAN UNANUE BEREZIARTUA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendi eta Baso Saileko langile talde batekin harremana edukitzeko zortea izan nuen, Ataungo Bixente Dorronsororen bitartez. Taldearen buru egiten zuen Julian jubilatu zenean, Bixentek bertso bat eskatu zidan, despedidako lagunartean Juliani kantatzeko. Habanera hauxe bidali nuen, non Julianen zaletasun itsu batzuk ere aipatzen baitira: mahatsa eta perretxikoak.

Endaizpeko seme eta
hiru umeren guraso
heure ume dituk baita
hainbat mendi eta baso.
Ardura handien buru
ez beti-beti eroso
politikan ere sutsu
eta abertzale oso.
Iritsi zaik atsedena
behar duk ordaina jaso.
Jan dezakek lasai mahatsa.
Ito gabe, kurioso!
Perretxikoak ere bai
lagunekin gozo-gozo.
Eta segi bizipozez
beti bezain animoso.

KARMELO BALDA

Ez daukat zehatz gogoan zer helburuz eskatu zitzaidan bertso bat, pilotaleku horretaz zer oroitzapen daukadan azaltzeko.

Bitan sarturik, bietan lehian
bietan txapeldun irten.
Zorte onaren izen batentzat
beste zer eska ziteken?
Karmelo Balda hain oroitzen dut
zorionezko sentipen!
Duda ere bai izan ote zen
sukar baten irudipen.
Orduan deitzen diet txapelei
kontatzera zer dakiten
ni hilda ere jarrai dezaten
norbaiti itzal egiten.

KEPA ENBEITARI ARRAZOLAN

Kepa Enbeita, Muxikako Ariatza auzokoa eta aspaldiko urteetan Arabako Abornikanon bizi dena. Sutearoko ordezkari ibili ohi zen herriz herri. Jubilatzeraz zihoanean, Arrazolan agur-afari bat antolatu zioten, eta niri bertso bat eskatu, bertan Kepari kantatu eta idatzita entregatzeko.

Zenbat urte, zenbat bide!
Zenbat berba, zenbat tema!
Zenbat batzar hara-hona
eta zenbat gai-ordena!
Fede sendoa behar zen
ez gitxiago kemena
baserriak izan daien
babes eta iraupena.
Lelengoa gaur balitz lez
ospatzen dogu azkena.
Hau da danon izenean
zinez opa jatzuena:
Sutearori osasuna
zuri, Kepa, atsedena
lan handi baten gomutak
atseginduko dauena.

LANDER GARRORENTZAT

Miren alabaren eta bion ETBko grabaketa batean, Landerrek bertso bat eskatu zidan alabarengan nekusan jarraipenari buruz.

Zorion eta penen artean
zorte bat izan dut argi:
Ume bat eta bera alaba
eta bera bertsolari.
Zuhaitz bat nola bere landare
gaztean berritzen ari
aita batentzat zer izan leike
zerbait hoberik opari?
Oraintxe ezin diot nahita ere
ihes egin bertsoari.

LOURDES GABIOLA

Gizaburuagako Laiz baserriko Lourdes mojarantzat, bere lanbide luzetik erretiratu zenean.

Santa Marinan eta
leku guztietan
danen aingeru izan
zara zu benetan.
Zenbat milaka lagun
zeure eskuetan
zaindu dozuz berrogei
ta hamar urtetan?
Izan eizu atsedean
beste hainbestetan.

LUISI ASTIAZARAN

2012-06-21. Ilazki Euskaltegitik ezagutu nuen Luisiri bertso txiki hauxe bidali nion.

Bertsoaren bitartez
bizitza nola dan
ezagutu zaitut gaur
Luisi Astiazaran.
Merezi zenituen
lau puntu ilaran
zuk ni bezala nik zu
oroitu zaitzadan

LURDEIA

Landetxeaz gainera, baserri ekoizpen handi bat eta talde-bizitza luze bat daramate Bermeon, izen honekin ezagutzen den etxalde zoragarrian.

Lur baten goialdea
ortzi baten sena
itsasoaren usain
eta ikuspena.
Elkargune izarren
eta ametsena.
Hemen duzu Lurdeia
egizko eszena
Urdaibai ninfa bertan
anderetu zena.

LURRETIK LURRERA

2011-06-01. Haritz Mayorak, Mallabiatik, bertso bat eskatu zidan *Ekolurra* aldizkarirako.

Lurretik gatoz, lurrera goaz
lurra da gure janari.
Nola daiteke horrenbestean
erasotzea lurrari?
Baserritarra dela jakinik
lurraren goren zaindari
nola ez zaio askoz gehiago
sakatzen baserriari?
Ez nostalgia moduan baizik
Planetaren bizigarri!

MANUEL LASARTE

2012-02-14. Orioko hilerrian kantatu niona.

Agur, hainbeste plaza edertu
zenuen Lasarte maite!
Zeure bertsoen elegantzian
paregabea nonbaite.
Bildu zenuen itzala berriz
inor gutxik izan daike
lurraren eta zeure izenaren
magalean etzan zaite
geu joan arte edo agian
zeu berriz itzuli arte.

MARI KARMEN RUBIO

Berrizko Besoita auzoko Orue baserrikoa. San Kristobal Txiki, Mari Karmenen eta auzoaren baseliza maitea.

Malkorik laztanena
penaren handitik
zuretzat, Mari Karmen
guztion begitik.
Orueko etxeak
darraike bizirik.
“Ondo joan!” dinotsu
bere tximinitik.
Ondo hartuko zaitu
San Kristobal Txikik.

MARI NIEVES

Jubilatzera zihoan emakumea. Lankideek bertso bat eskatu zidaten, oroigarri moduan eskaintzeko.

Danen laguna, danok maitea
beti onena emonez.
Ai, Mari Nieves! Nor topatuko
dogu orain zure ordezt?
Ibili zaitez munduan zehar.
Bizi zaitez zorionez!
Gozau daizula datorren dana
azalez eta sakonez
zeure lankide emakumeon
desiorik beroenez.

MARITXU LARRINAGA

Zornotzako lagun eta ekintzaile fin bat. Familiak bertso bat eskatu zidan, oroigarriko.

Maritxu, nora zoaz
lagun maite hori?
Eroan biderako
gure pa bero bi.
Betiko zoazenik
ez esan inori.
Nahi dozunean gure
gogora etorri.

MARKELIÑE

2011-10-13. Euskadi Irratiko Faktoria saioan kantatu nuena. *Markeliñe*: orduan neukan astoaren izena, programan ospea hartu zuena. *Karlos*: programako partaide laguna. *Manu*: programaren gidaria.

Madrilen Karlos eta
Manu Miramonen
gure Markeliñentzat
biak izar goren.
Ni ere festan nola
barne naizen hemen
bertso saio bat ez da
baina zer gozamen!
Egun on, entzuleok!
Absenteei amen!
Bertso saio bat ez da
baina zer gozamen!
Amaituko ez balitz
ia hasi baino lehen!

MARTIN ARRIAGA

Berrizko Besoita auzoko Atxa baserriko Martin. Gazteegi joan zen, berak azkenera arte ezetz uste bazuen ere. Martinen Matienako ferreteria, bera gabe, arima husturik gelditu zen. Beretzat hain maitea zen San Kristobal Txiki ermitako jaietan omenaldi bat egin zitzaion. Nik bertso bat kantatu nuen, gero oroigarrian joango zena.

Atxa zu barik, denda zu barik
San Kristobal Txiki bardin.
“Hau hutsik dago! Erratu gara!”
dinosku bihotzak samin.
Gertau barritan holan zan baina
aldatuko gara arin
dana lehen baino ederrago ta
maiteago izan dadin,
pentsatuz: “Hemen bizi zen bera.
Hemen ibiltzen zen Martin”.

MIGEL AJURIA

Neure eskola-lagun izana, Etxanoko auzo eskolan. Gorozikako Goirizarra baserrian, bere andrearen etxean, zuhaitz bat landatu zuten bere gomutan. Bertso bat eskatu zidaten, plaka batean grabaturik geldituko zena. *Epaltze*: bere auzoa, Etxanon. *Biskotxe*: bere jaiotetxea.

Epaltzen eta Etxanon amets
egin heuana txikitan
gaztetan bila urtenda laster
topau heuan Gorozikan.
Goirizarra ta Biskotxe lotu
dozakena hain sarritan
zuhaitz honexek babestuko hau
euritan zein eguzkitan
geugaz bizirik, hainbeste maite
haugun begion argitan.

AGUR, ITZIAR

Itziar Isasi Amuriza, Felix Mendibilen alarguna. Gazte-gazterik alargundurik, Miren eta Jon umeak berak bakarrik hazi behar izan zituen. Neure lehengusina, Gueñesko San Martin auzoan, Apercibite baserrian. 2021eko azaroaren 14an hil zen. Zenbat barre egiten genuen berarekin!

Agur, Itziar! Bidaia luze
hori pozik egin zeinke.
Zu noiz helduko begira hantxe
dago zeure Felix maite.
Goian Eretza, behean San Martin
ondoan Apercibite.
Zure izakera, zure barrea
gure indar izan beite.
Halan maiteko zaitugu beti.
Orain bakez etzan zaite.

MAREA LARANJA

Natura da mirari
ahalguztiduna
bardin gaixotzen eta
sendatzen gaituna.
Gure miragarria
da elkertasuna
gaitzean areago
indartzen zaiguna.
Eman kemena eta
zaindu daukazuna!

OIZPE

Bizkaiko Munitibarren, zaharren egoitza bat eraiki zuten, *Oizpe* izenekoa. Bertso bat eskatu zidaten, hara datozen guztiei ongi-etorri bat bezala izatekoa. Niretzat ohore handi bat da egoitzaren sarreran irakurri ahal izatea bera, neure eskuz idatzia eta sinatua. Egunen batean bertara banoa -edo banaramate-, ez dakit neure hitzak eta sinadura ikusteak bizia luzatuko ala laburtuko didan. Poztu, ziur baietz.

Oizen altzoan Oizpe
inguru entzuna
Lea ibarra eta
itsas oihartzuna.
Hau da gure etxea
zeurea dozuna
bake gozoan zaindu
daizun osasuna
eta hartu merezi
dozun maitasuna.

PATXI ANGIOZAR

Berrizko Andikoa auzoan bizi izatea bertako Patxiri zor diogula esan nezake, berak egin baitzuen bitarteko, gauza garrantzitsu askotan, lurra saltzetik hasita. Gizon ezaguna bazter guztietan, eta lagunartekoa burutik oineraino.

Oizko abere eta harriak
adimendunak balitzez
entzungo geunke: “Nun zagoz, Patxi?
Zelan ez zatoz gaur goizez?”
Zuk beste lagun itxita joaten
ez da errez mundutik, ez!
Zuk izan zendun bizi-gogoa
gorderik maitasun-giltzez
ahaleginduko gara erabiltzen
dana zeuretzat balitz lez.

PELLO MUGARZA “ELGETZU”

Kotxe istripu larri baten ondorioz, makuluekin doi-doi mugitzeko moduan gelditu zen. Handik urteetara, aurrerapen handi bat ekarriko zion ebakuntza eta tratamendu garesti bat egiten laguntzeko, kanpaina bat egin zen Mallabia inguruan. Nik bertso batekin kolaboratu nuen kanpainan.

O, gure Pello, ezbehar batek
zoritarrez jo ebana!
Bai-behar batek egingo ahal dau
oraintxe zorion-lana!
Animo, Pello! Laster dok jaurti
makuluen iragana.
Itxaropen bat zabalik jagok
mirari antza daukana.
Halantxe izan daiten hor joiak
guztion bultzada bana.

ROSA ETA JOSE LUIS

Izen horietako gurasoen zilar-ezteietarako eskatu zidatena.

Loratu zaizkizue
Rosa ta Jose Luis
hogeita bost larrosa
beste hainbat liliz.
Zilar horrek osatu
duzuen familiz
eraman zaitzatela
maitatuz, ibiliz
urreak ere berdin
egin arte dizdiz.

SUSANA

Bergarako Susana Iza izango da mundua karinorik handiena hartu diegunetako bat. Bere bizitza luzean, galera handiak gertatu zaizkio familian. Bat, Iñaki semea hil zitzaionean. Bertso hauxe eraman nion, eskuz idatzia.

Zenbat sentitzen dogun
Susana maitia
zure seme Iñaki
horrela juatia!
Ez dakigu zer esan
hain da min fuertia!
Gure desiua da
karinoz betia:
bizitzen segitzeko
gogua izatia.
Maite zaitugu eta
osatu zaitia.

Bere urte-egun bat zoriontzeko, bertso hauxe eraman nion:

Zuri, Susana, gure esker on
bihotz eta maitasuna
zeuk danentzako daukazuna ta
dana merezi dozuna.
Guri zurekin egotea da
zinez atsegin zaiguna
urte berriak gorde deizula
oraingo argitasuna
eta zeu zaren lorea izaten
jarraitzeko osasuna.

TERESA

Gure lagun handi bat. Juan Mari Arregi gure beste lagun handi eta borrokalari handiago baten bizi-lagun urteetan izana, gaixo txar batek eraman zuen azkenean.

Joan zena ta gelditu dena
biak zara zu, Teresa.
Zein den gehiago uneak edo
oroimenak hauta beza.
Biak zara zu, eta izango
egia eta amesa
non samin eta abailgarri den
zure agerpenik eza
non baita egun berri bakoitzak
dakarren bizi promesa.

UNAI ELORRIAGA

Ander Egiluzek, Deia egukarirako, Unairi eta bioi banaka egindako elkarrizketekin erreportaje bat egitea proposatu zigun. Eta bakoitzak besteagatik zerbait idazteko eskatu zigun. Baietz esan genuen, eta ni bertso hauxe egin nuen Unai Elorriagaz.

SPrako tranbian
Londres kartoizko leran
Van't Hoffen ilea eta
Vredaman ere bertan.
Unai Elorriagaren
xarma bikoitza zer dan?
Hain 'mutiko' apal eta
maitagarri batengan
halako ingenioa
nola daiteke eman?

XABIER ABAUNZARI

Bertso-afari batean, preso zegoen mutil honi bidaltzeko bertso bat eskatu zidaten, eta hauxe idatzi nuen paper batean.

Aupa, Xabier, gure Xabier
gogoratua hain sarri!
Urte barri on, benetan on-on
eta itxaropengarri.
Zuk badaukazun kemenak zerbait
behar baleu indargarri
mosu handi bat, bi, hiru ta lau
bihotzetik urten barri
bat zeuretzako eta besteak
hor banatzeko alkarri.

YOLANDARI ZIORTZAK

Ziortza izeneko emakume batek bere lagun Yolanda zoriontzeko eskatu zidan. Yolanda, nonbait, Pablo Milanesen zale itsua da.

Urteak zenbat, hainbat zorion
hainbeste musu, Yolanda!
Mende erdi bat gaur hasten zaizu
erdia bakarrik joanda.
Onena opa dizu Ziortzak
pentsatuz "lagun bat han da!"
eta entzunez zeure omenez
Pablo Milanesen kanta.

ZEURE LURRAREN EDERTASUN BAT

Txakolinaren omenez eta promozioz eskatu zidaten kolaborazio bat.

Lerroak zuzen, aihenak oker
hostoen berde trinkoa
etxe zuri bat, teilatu gorri
begirada argikoa.
Txakolina da paisaia horren
kondentsapen magikoa
zeure lurraren edertasun bat
zapora artistikoa.
Orain hainbeste pentsatu gabe
edan ezazu nahikoa.

AMAIA - ANAITASUNA IKASTOLA

2021-03-09. Ermuko Anaitasuna Ikastolako emakume langile batek bere buruaz beste egin zuen, bere etxeko leihotik jauzian. Amaia zuen izena, eta bazuen familia bat. Beste xehetasunik ez nuen eskatu hain kasu dohakabe hartaz.

Saminez eta minez beterik
negarrez eta ezinez
zauri bat utzi diguzu, Amaia
sendatzen zaila zin-zinez.
Ahaleginduko gara biguntzen
maitasunaren dohainez
Ikastolari eman diozun
bizitza baten ordainez.

BURUDUN MAKILA BAT

2019-03-25. Zumaiako Fernando Arranzekin hitzordua jarri nuen, Idoia kafetegian. Lagun bati nire argazki bat eskaturik, “burudun makila bat” egin eta bidali zidan, nire langelan betiko bistan geldituko dena. Nire hainbat ofizioen hitzak daramatzen makilak, heldulekutzat, nire irudi edo “buru” zizelkatua dauka. Esker ona adierazteko, nik zizelkatzen dakidan bakarra egin nuen: ondorengo bertso hauxe eskaini, pergamino-paper batean neure eskuz idatzia.

Mila esker, Fernando
nahi dizkizut eman
neure burua baitut
makilan hauteman.
Orain utzi gaituzu
gaitzeko dileman
zeren hasten bagara
ibiltzeko teman
ezingo dugu jakin
zeinek zein daraman.

PELLO JOSEPE ESKORIATZARANTZ

2017-04-23. Eskoriatzarantz ekitaldi batera, ahotsa berotu nahian nindoan, ekin eta ekin kotxean. Halako batean, gogaiturik, baina berotzen jarraitu nahi, hitzak aldatzen hasi nintzen, eta pellokeria hauxe atera zen, gordetzea merezi zuela iruditu zitzaidana. Lehen puntua amaiturik, parentesiko pentsamendu horixe etorri zitzaidan.

Pello Josepe, neure-neuria
hartu ezazu popatik.
 (“Orain zelan jarrai nezakek?”)
Eta popatik ezin bazenu
saiatu zaitez bertatik.
Pello Josepe, neure-neuria
zarela ongi badakit.
Bizia ere emango nuke
zu ez ikusteagatik.

BAT-BATEKO BATZUK

NIRE DEBUTA

“Zirkulu” honetan bat-batekoak sartzea ez zen nire asmoa, baina ezin naiz gelditu salbuespen batzuk egin gabe, nire bertsolari-bizitzan, zerbaitegatik, sentimendu berezi bat utzi dutenak hona ekarriz. Bat da “nire debuta” deituko diodana.

Apaizgaitan eta apaiz garaian, saio batzuk egina nintzen Bizkaian (Gipuzkoan bat bakarra, Aizarnan), baina esan daiteke nire benetako debuta, bertsolari bezala, kartzelatik bueltan izan zela. Hain zuzen, Gernikako Jai-Alai pilotalekuan, 1976ko udaberrian. Gernikako ikastolak antolatutako jaialdi batean, Abel Muniategi gai-emaile zela, sei bertsolari ginen: Azpillaga, Lopategi, Jose Lizaso, Lazkano, Agirre eta ni neu. Askoren artean bazen ikusmin bat (morbo bat ere bai), zer diskurtso modu ekarriko ote nuen, kartzelatik bueltan.

Bertsolarien ondoren, Oskorri taldearen kantaldia zetorren. Pilotalekua mukuru betea zen. Oskorrik, handik laster, nire bakarkako saioa (hiru hamarreko handi) disko batean atera zuen, *Huelgan daudenei* izenez. Nire debutarentzat bultzada handia izan zen hori.

Hara, ordea -eta hau da aipamen honen motibo nagusia-, berrogei urte geroago, oraintsu, beraz, Durangoko *Kaixo* kafetegiko nagusiak non diostan:

- Zure debuteko agurra gogoan daukat nik.
- A, bai? Zelan hori?
- Entzule egon nintzen eta gogoan jaso neban.
- Eta berrogei urtean gogoan darabilzu?
- Bai, eta kantatu be bai inoiz, lagun artean.

Kaixo-ko nagusia Iñaki Gorostola da, “Kakatza” ezizenez deitua, Berriatuko Kakatza

baserrikoa delako. Orduan zestalari zebilen, eta bertsozale ere izanik, saio hartan entzule egon zen. Andrea eta biok kafetegira sartu ginen batean, horixe esan zigun, eta zurturik gelditu nintzen. Batetik hark bezeroak atenditu behar, bestetik niri erreakzionatzeko erreflexurik iritsi ez, beste gabe alde egin genuen kafetegitik. Denbora batera pentsatu nuen: *Zergatik ez diot bertso hura idatziz jasotzen?* Eta halaxe joan nintzen Kaixora, 1916-2-23an. Eta kantatu zidan:

Frontoian gagoz, frontoian, jaunak
ez Erromako eleizan.
Buru ta besoz prest jokatzeko
pelotari finen gisan.
Nahizta egun baten partidu dana
irabaztea gaitz izan
ia behin baten hiru-lau tantu
txokora sartzen doguzan
irabazleak eurak be galtzen
ikasten joan daitezcan.

Bertso honek ez dauka beste munduko baliorik, baina pentsa nolako ustekabea niretzat, berrogei urte geroago! Eta jarraian diost:

- Nik saio haretako zure beste bertso batzuk be gogoan daukadaz oraindik.
- Ez da izango!
- Ba, bai. Gaia gitxi gorabehera izan zen: “Amuriza kartzelatik urten barri, eta Lopategi kanpoko barri emoten”. Zeu hasi zinen, holan:

Hik badakik, Jon, Zamora non dan
Ebrotik askoz beherago.
Sei urte ta erdi han euki nabe
kate zahar hotzen esklabo.
Orain kanpoan, baina esaidak:
Benetan libre al nago?
Ala hau ere kaiola bat dok
nahizta pixkat zabalago?

Lopategik hurrengo bertsoa amaitu eban:

Egon lasai ze oraintxe laster
badator demokrazia.

Eta zuk jarraitu zenduan:

Hainbeste urte pasau ondoren
zerbait ikasi gurarik
hik dinoana egia badok
nik ezin hartu penarik.
Demokrazia maiteko joat
ez bada beste hobarik
baina ez lehengo zapaltzaileai
kontuak eskatu barik.

Harrituta eta hunkituta nengoela esanik, jarraitzen du esaten:

- Zure bakarkako bertsoak be atarako neukez igual. Huelgan dagozenai kantatu zeuntsen. Hareek bere gogoan erabili nebazen, baina aspaldion ez ditut errepasatu, eta apur bat tiratu egin berako neuskie.

- Ez ahalegindu tiratzen. Ez dakit badakizun, baina Oskorrik kantatu zituen disko batean, neuk Gernikan atara neban doinu barri berean, hain zuzen.

Kontua da gizon hau, oraintxe ere, saio hartako nire dozena erditik gora bertso kantatzeko gai dela, erantsi zidanetik:

- Egun hartatik, zure bertso gehiago be jaso eta kantatzen nituen, baina batzuk ahaztuz joan naiz.

- Ez da gitxi gorde dozuna! Egon zaitez ziur bertsolaritzan gertatu jatan pasarterik hunkigarrietako bat biziarazi deustazula.

Ez nuen gezurrik esan. Halakoxe sentimendua sortu zidan eta sortzen jarraitzen dit jakiteak gizon batek nire debuteko bertso batzuk zuzenean jaso zituela, eta hainbeste urtean gordetzen jarraitzen duela.

HAUR JAIO BERRIAREN ESKELA

Duela urte mordo bat, gutun bat hartu nuen, hitzez hitz zioena:

“Santo Tomas egun bat zan. Donostin egunpasa eginda, Azpetira joan ginen, han bertso saioa baitzan. Bertsolariak, gutxi gorabehera, hauek: Joxe Lizaso, Joxe Agirre, Imanol Lazkano, Lazkao Txiki, Jon Lopategi eta Xabier Amuriza. Gai-jartzailea, Xebastian Lizaso.

Garai hortan, bertsolari tartean halako ez adostasun bat zegon, txapelketa bai, txapelketa ez, eta Lizaso aita-seeek izan zuten halako tirabira txiki bat. Bertsotan, noski. Oso alai zihoan saioa, eta non Xebastianek ematen diken eskura eskela bat. “Haur jaio berri bat, hilda”. Han bukatu ziran alaitasunak. Begira zer hiru bertso kantatu zenituen:

1) Lehen broman ginen eta
orain mina gailen.
Oi, haurtxo maitea, zu
falta zera hemen.
Galdez nago Jainkoa
non ote dagoen.
Malko batzuk botata
lurpera ondoren
norbait zinala ere
ohartu baino lehen.

2) Eskela klase hauek
ez dira gozoak
gaziak bai ordea
mingarri osoak.
Zer da nola aldegin
digu gaur haurtxoak?
Pena ematen dit neri
gaur zure kasoak
eta ez gutxiago
zure gurasoak.

3) Hemen zure eskela
Ez da naturala.
Jendea parrez zegon.
Hoi kolpe mortala!
Jakinik zu hiltzea
hain tristea dala
alde bakar bat dauka
nola edo hala
mundu trixte hontatik
libratu zerala.

Hauek izan ziran, gutxi gora-behera, neronek buruz hartu eta gero idatzi eta gorde nituen bersoak. Eutsi goiari eta beste bat arte”.

Esan beharrik ez dago gutun horrek, bertsoak barruan zirela, nolako bihotz-kolpea eman zidan. Bertsoek zenbateko balioa duten alde batera utzita, berriz ere zirraratu ninduen nola entzule batek bakar-saio oso bat horrela, zuzenean, jaso zezakeen, eta gogoan eduki urteetan. Eta, noski, gutun batean bidaltzeko adeia izatea. Gutuna gorde nuen, bidaltzailea banekien (eta badakit) nor zen, baina ez nuen idatzita gorde. Geroztik urte mordoia baita joana, ez nago ziur izen-abizenak zuzen emango nituzkeen, gutuna ere ez baitut aurkitzen. Ziur nagoena da Iruñean bizi zen araztar bat izan zela.

AGUR, GORBEIA MAITEA

2001-09-08. Arteako pilotalekua. Iraileko Andra Mari gaua. Sebas Angoitia gai-jartzaileak hauxe jarri zidan:

“Gorbeiako azkenengo artzaina zara, eta zeu be bazoaz. Egiozu agur Gorbeiari”.

1)

Despedidea heldu da eta
agur, Gorbeia maitea!
Parkatu eistazu, baia banoa
bihotza penaz betea.
Eta penarik handiena da
neu azkena izatea.
Pentsatu gura neuke izango
dozula nire faltea.
Nik bai zurea izan neike ta
emoistazu subertea.

2)

Parke natural egin zaitue
baia ez naturalago.
Izango zara animala ta
pizti askoren abaro.
Mendizale ta turistak barriz
gero ta ugariago.
Artzainen txistu ta karinorik
ez dozu izango gehiago
baia gurea hain zan gogorra
total kontra be ez nago.

3)

Ia umetatik pauso guztiak
zeure bueltan egin dodaz
azkenerako kantsau egin naz
hainbeste behera ta goraz.
Agur, Gorbeia, barriz dinotsut
zukanako esker onaz.
Inoz txakurra joango jatzu
nire barriak emonaz.
Zuri begira biziko naz ta
zuri begira hilko naz.

Plazan bertan, pozik geratu nintzen. Entzuleek ere halaxe hartu zuten. Etxeranzkoan, bertso horiei bueltaka nindoan kotxean, eta bertara iristean, transkribatzea pentsatu nuen, buruan fresko zeuden bitartean. Beharbada, hori egitera bultzatu ninduena izan zen Gorbeia aldeari nion eta diodan sentimendua, nire lehen abizena (aitita Leon Amuriza) Gorbeia azpitik baitator.

LAUROETA

2012-09-28. Loiuko Lauroeta auzoa da nire bizitzako erreferentzia handi eta samurretako bat. Apaizgai ginela, hiru urtetan joan izan ginen Derioko seminariotik Luzio Aurrekoetxea ikaskidea eta biok auzo txiki horretara, igande arratsaldeetan umeei doktrina ematera eta nagusientzat arrosaria errezatza. Praktikak egitea bezalako zerbait. Sotana eta guzti, oraindik gazte mukizuak baizik ez izan arren. Eta bai pozik joaten ginela! Apaiz egin nintzenean, San Migel ermitan ospakizun berezi bat egin genuen. Geroztik, preso eginiko urteetan izan ezik, urtero-urtero deitu izan naute Lauroetara, erretiratzea erabaki nuen arte.

2012-09-29an, San Migel eguneko saioa. Hain zuzen, urte horretan, 50 urte bete ziren, seminariotik Lauroetara joaten hasi nintzela. Iñaki Beitia gai-jartzaileari esan nion gustatuko litzaidakeela zerbait kantatzea horretaz, bakarkako lanean, eta halaxe egin zuen, askok bestela ere bazekiten motiboa azalduz. Bertso hauek ez dira “jarriak”, baina ezta guztiz bat-batekoak ere, minutu batzuk lehenago hartu bainuen gaia.

1)

Hamar urtegaz maletatxo bat
ein eusten Deriorako
ta gero hango urte luzeak
ez ziran errez pasako.
Hogeita bataz hemen agertu
ginan gu bi gazte zapo
eta benetan destinoari
esker oneko najako
nire lehenengo munduratzea
Laurotan izan zalako.

2)

Ez da erreza hainbeste urteko
gorabeheren kronikea.
Denpora oso bizkor joan da
hori da kontu sinplea.
Alde batetik pena da holan
izan dala jakitea
baina bestetik zer ederra dan,
neure Laurota maitea,
berrogeita hamar urte pasata
ondino hemen ibiltea!

3)

Sentimenturik indartsuenak
hartzen dira gaztetarik.
Nik behintzat hemen izan nendun bat
eta ez dauka bueltarik.
Beste hainbeste urte munduan
gatx izango da, badakit.
Baina hondatzen ez jatan arte
bururik edo hankarik
ez neuke gura urterik pasa
auzo hau zapaldu barik.

XALBADORREN EPAILE

1999-01-02. Beasaingo jaialdi batean, honako gaia jarri zidaten: "Xalbadorren txistu-egunean epaile izan zinen". Ondorengo bertsoak kantatu nituen. Ez dira guztiz bat-batekoak, minutu batzuk lehenago jakinarazi baitzidaten gaia, baina ez dira bertso jarriak ere, neuk egingo nituzkeen erakoak, behintzat.

1) Epaile nintzen, harro nengoen
oraindik gazte samarra.
Ikusi nuen koadroa ez da
gogoratzeko edarra.
Gizon bat tente, begiak gorantz
txapela nahiko zeharra
ezin ulertuz bere aurrean
eztandatu zen liskarra.
Txaloak behar ziren unean
txistuak entzun beharra!

2) Gizon bat tente, apalmenaren
plataformara igoa
nahiago nuke ikusi ez banu
pairatu zuen laidoa.
Baina badaukat han egotea
eskertzeko motiboa
txistu ondoren egin baitzuen
saio antologikoa
jenio mindu batek bakarrik
sor lezaken neurrikoa.

3) Sei minututan gora zihoan
txistu, oihu ta garraisi.
Gizonak tente jarraitzen zuen
urguiluaren harresi.
"Anai-arrebak, ez otoi pentsa"
noizbait kantuan zen hasi.
"Maite zaituztet orainik" hura
gogoan zitzaidan josi
elegantziaz esan baitzigun
ez genuela merezi.

4) "Haurrak zergatik jaiotzan negar
egiten du" gaia zela
kantatu zuen hiruko sortak
zirrartzen du sabela.
Gure mundua triste eta
zinez negargarri dela
bertso bat gero hala amaitu
zuen esanez bezela
egun hartako zeukan negarra
jaiotzan egin zuela.

5) Epaile nintzen eta behar dut
gaur eman erabakia
distira handi bat gera ez dadin
anekdotan estalia.
Gizon bat tente, txapela zehar,
jenio bertsolaria
nola izar batek agertu zuen
sortze bat miragarria
txistu haiexek markatu zuten
Xalbadorren miraria.

ACAPULCO

Zaldibia, 1990-12-15. Zaldibiako lagunarte batek bertso-bazkari bat bereziki antolatu zuen, “Lizaso eta Amuriza eramateko”. Bazkaria eta bazkalondoa mendiko borda-txoko batean izan ziren. Halako parajea delako, toki eta txoko hari *Acapulco* deitzen diote, berez beste izen bat badu ere. Bazkal aurretik, plater-tiroa antolatu zuten. Egun hartan, inguruak zuri zeuden elurrez, baina barruan bazen behe-su eder bat martxan.

Bazkariko jaki nagusia oilaskoa izan zen. Ondoren, bertsolariak. Hiru saio egin genituen. Lehenengoa, 35 minutukoa. 46 bertso, zortziko txikian. Bigarrena, ordubetekoa. 62 bertso, zortziko handian. Hirugarrena, beste ordu erdi eta zerbait. Zortziko handian 15 bertso, eta puntuka, 15. Guztira, 138 bertso. Bakoitzak 69. Trikitilariak ere baziren tartean.

Saioan zeharreko beste erreferentzia batzuk:

Sadam Husein: Irakeko presidentea, Kuwait inbaditu berri zuena, baina Estatu Batuen eta nazioarteko beste indar batzuen erasoagatik, berriz utzi behar izan zuena.

Jose Luis Corcuera: barne ministroa, Felipe Gonzalezen gobernuan.

Sendero Luminoso: Peruko erakunde gerrilari bat, une hartan indar handian zebilena.

Artxanberri: zaldibitar bertsolari eta ditxolari entzutetsua.

Patxi: Patxi Iraola, Zaldibiko bertsolaria.

Arkakusoak: zaldibitarren ezizena.

Txangroa, txangurroa: ospetsu bihurtu zen pasadizo bat. Telebistako programa batean, “txangurroa” zer zen galdeturik, azpeitiar batek erantzun zuen: *Txori bat!* Hortik, “txangurro hegalaria”.

Saioari buruz, harritzen naiz nola zortziko txikian hasi genuen bertso-bazkari bat. Eta nola lehen atal osoa (35 minutu) zortziko txikian eta doinu berean egin genuen. Eta nola bigarren osoa (ordubete) zortziko handian eta doinu berean joan zen. Hirugarrena ere zortziko handian, nahiz beste doinu batean, azkena puntuka emanez. Gaurtik begiratuta, monotonoa dirudi, baina ez daukat gogoan, saioko atal bakoitzean, inolako kezkarik edo premiarik sentitu genuenik aldatzeko, ez neurririk, ez doinurik. Inork ez zuen eskatu, behintzat, ezta iradoki ere.

Bai entzuleei, bai bertsolarioi, hain oroitzapen ona gelditu zitzaigun, ezen, grabaketa bidali zidatenean, transkribatzea pentsatu bainuen. Audioa ez da kalitate onekoa, baina ondo ulertzen da.

Eta hementxe neukanez gero, “zirkulua ixteko” era esanguratsua iruditu zait.

LEHEN SAIOA

Amuriza

Aizak, orain kantuan
hasteko ziotek
botila joka hori
eskatzen dik batek.
Hemen jaten ederki
eman bazigutek
ondotik zer nahi duten
antzman zitekek.

Lizaso

Beraz, iritxia da
guretzako txanda
berehalaxe zala
negon antzemandan.
Pentsatutzen jarrita
gauza normala da
kukurrukua hasi
oilaskoa janda.

A.
Isilik egoteak
ez baitu balio
gu ere lan hontako
nola ginan jaio.
Kukurruku kantua
euskaldunak nahio
jandako oilaskoak
ez dik ingo gehio.

L.
Arrazoi hori bota
al dek hik gogotik?
Ez niok ados eta
ez zidak inportik.
Zarata egin leikek
harek jan ondotik
ateratzen danean
atzeko leihotik.

A.
Badauka bere txanda
makina bat leihok
hik hori heure burutik
nunbait hemen diok.
Hilda gero kantatu
ez dik egin inork
mokoka hasten bazaik
igarriko diok.

L.
Zer motibo dadukak
hortaz kezkatzeko?
Jakinduria badit
neurriak hartzeko.
Ohitura oilaskoa
txanpain bultzatzeko
ito egiten diat
bi aldiz hiltzeko.

A.
Oraintxe ere bota dek
arrazoi galanta
bi aldiz akatzea
hiltzaile aparta.
Kukurrukua hasteko
ez dek hori falta
jan gabe ere atzeak
bazeukak zarata.

L.
Edozer esaten du
alboko lagunak
barka, hizpide hauek
ez dira txukunak.
Kurruzkak izan arren
sarri hor lehen junak
puzkarrikan ez dik ohi
aurrez jan ez dunak.

A.
Hemen jan diagu ta
hots hori normala
tiroka ibilita
ez al da legala?
Zaldibitarrak hona
traza naturala
guri begira zeudek
zakurrak bezala.

L.
Itxura danez, lagun
hi hortaz harritu
baina hik ez zakela
bide txarrik hartu.
Nahizta hemen zakurrak
hiri iruditu
ez dituk hozkariak
ez hadi bildurtu.

A.
Beraz, ez omen dira
hauek hozkariak
animalien traza
hik atera diak.
Azpeitin famatuak
zezen ta ahariak
berdinak omen dituk
han bertsolariak.

L.
Garaia bahun da
heuk aldatu dek gaiz
nahizta neri ziriak
sartzen dizkaken maiz.
Ahari edo zezena
neri deika ari haiz
beraz, akabo haiz hi
haserratzen banaiz.

A.
Honek ere hartu du
erasoen txanda
animali artean
beti da demanda.
Bainan ez nauk izutzen
“banitxok!” esanda
laster mantsotuko haut
pentsua emanda.

L.
Aurretik izan diat
nik jateko beta
hargatikan ez diat
beztuko kopeta.
Bizirik irauteko
bazeukat arreta
txerria hiltzen ere
ez dakizue-ta.

A.
Bizkai aldean nonbait
badek hainbat gradu
azpeitiar alproja
batek esana du.
Guk txerria hiltzen ez
omen zekiagu
etorri hadi eta
probauko diagu.

L.
Itxura danez hau're
hain dago ezjakin
Bizkaira juaten nauk
ni inoiz edo behin.
Lagunak bisitatu
ta bertsoetan egin
ondo kobratu eta
bizirik aldegin.

A.
Azpeitiarrak beti
ijito antzeko
lana eginda kobratu
nonahi ibiltzeko.
Bizkaian gertu gaude
txerria hiltzeko
baina ez zegok lastorik
Lizaso erretzeko.

L.
Bista gutxi daduka
alboko lagunak
edo pentsamentuak
daduzka ilunak.
Ez ditu ezagutzen
matantza jardunak
lasto gutxi behar dik
zerri bizardunak.

A.
Bizirik aldeginda
han puzkarrak tira
hala izango omen da
honen jirabira.
Ondoren jua hadi
aldare nausira
esango ditek: “Gure
patroia hori da”.

L.
Azpeitiarran kontra
hainbat borondate
baina arrazoirikan
ez daduka bate.
Loiolako kojoa
guk ez degu maite
baina Bizkaian ere
jai egiten dute.

A.
Hala izan da nunbait
han dagon ohitura
jaia egiten baita
datorren modura.
Hor zegok baita ere
Santio-n kultura
jaia beti izaten dek
aluen kontura.

L.
Edozer esanda ere
ez al zaik kupira?
Pentsatu gabe ez zak
enbidorik tira.
Begira! Ordaintzaileak
hor dauzkak begira
beraz, lagun hauek e
aluak al dira?

A.
Hik hori esan arren
gelditzen nauk lasai
Zaldibin maiz egon nauk
ziri zorrotzen zai.
Aurrekorik mintzerik
nik gaur ez nitek nahi
aluak ez badira
alu ta erdi bai.

L.
Lehen Azpeiti ta orain
Zaldibikin teman.
Saltsa jarri nahi dula
zenek ez antzeman?
Nahi badek bat hartu ta
Bizkaira eraman
hemen dudako dana
gizona baidek han.

A.
Ez nauk ni izutuko
hik hori esan arren
begira arrazoiak
bueltan zer dakarren.
Ba al dakik Bizkaian
zenbat gipuzkoar den?
Beraz, hainbat dudako
gizon badek hemen.

L.
Astun ustekoa zan
erantzun arina
han hemengotar asko
hori gauz jakina.
Txarrak bidaltzen beti
gure ahalegina
gipuzkuar ta gizon
ez baidek berdina.

A.
Gizontasuna gauz bat
duna bere sona
Lizasok dion hori
ez da izan broma.
Han eta hemen, beraz
berdintsu dagona
han ere prakan-prakan
ez zegok gizona.

L.
Erabaki beharko
behin hontan hasita
geuk egin beharkoiau
haruntza bisita.
Asko duda antxean
hor galtza jantzita
hori nabaritzen dek
denak erantzita.

A.
Arrazoi horrek orain
eiten zidak ja-jai.
Harritu nauk, Lizaso.
Nola diok hik, ai?
Praka denak erantzi
ta jartzen diranai
gizonik ez da agertzen
animalia bai.

L.
Horri nola erantzun
pentsatzen egona
ez dakit benetan zan
edo zuen broma.
Erabakia ez dek
ez horren sakona
jazkeran gorabeheran
ez zegok gizona.

A.
Gizontasuna ez dek
noski, soinekoa
hortan hik arrazoia
dek benetako.
Baina gizonen kaxkar
zegok Gipuzkoa
Azpeitik jeisten baitu
bataz-bestekoa.

L.
Zergatikan ilundu
lagunai kopeta?
Jakiteko nik egin
behar azterketa.
Azpeiti ote dago
kaxkarrez beteta?
Eskerrak ezberdina
daukagun Landeta.

A.
Aspaldi egin nian
nik hara bisita
ez dit hori sinisten
hura ikusita.
Azpeitik daukan fama
bulla ta musika
dena zabaldu huan
Landetan hasita.

L.
Alperrik zertan hemen
ari eta ari?
Bainan ezin barkatu
nere lagunari.
Hik hurrena hobeto
beitu Landetari
hiru-lau etxe zeudek
ta bost bertsolari.

A.
Bertsolariak dituk
nunahiko moduan
Landetan omen zeuden
mahai-buelta onduan.
Baina aukeratu huen
ezkontza orduan
gauza finaren bila
Elosura juan.

L.
Aizak, aukeraketa
nian nere esku
batekin maitemindu
ninun estu-estu.
Uztartu ta probatu
egina apustu
baina neure kabirik
ez nian zapuztu.

A.
Pozik joaten omen da
Elosu alderantza
aldapa gogorra ta
kotxeak zalantza.
Nola egin berri dun
oain elurte latza
batek esan omen zin:
“Hor zetorrek hartza”.

L.
Elurtea Elosun
haundia izan da
neguan sarri ohi da
horelako txanda.
Ni neuk ez nuen entzun
“han hartza!” esanda
berak entzungo zuen
ni ez naiz juan-da.

A.
Arrazoi pixkat hortan
igual du atera
nik hori pentsatu det
harturik tankera.
Baina hau nola dabilen
seguru antzera
udaran juaten da
baztarrak jatera.

L.
Zer arrazoitan hamen
jarri nire etsai?
Tentatutzen ari da
ni halare lasai.
Ez dio antzematen
baserriko gauzai
udaran jan gutxi dek
udazkenean bai.

A.
Etsai kontua ez al dek
izango hor broma?
Ni ere ez nauk hemen
alperrik egona.
Giputz denen artean
bakarrik nagona
kuadrilla hontan sartzeko
ni banauk gizona.

L.
Xuabe hasi eta
bukatu ujuan.
Baina urrutiegi
ez ote da juan?
Entzun degu beretzat
lehen zer esan duan
gehio balio zian
nik esan banuan.

A.
Egiak izaten du
tokatzen dan txanda
ez nauk ni harrotuko
apala izanda.
Berdin balioko dik
neronek esanda
hik sekula egirik
ez dek esaten-da.

L.
Berriro ere honek
sua nahi du piztu
baina zergatik hemen
gauz danak bereiztu?
Gezurak beti ditu
gertu bi arrisku:
norberak esan eta
norberak sinistu.

A.
Haria ez dek amaitzen
pasa eta pasa
eztarria hausteko
badiagu traza.
Gero segiko diau
oraingo jolasa.
tragoxka bat edanda
Har zagun arnasa.

L.
Kantuz hasi gerala
da nahiko denbora
baina berotuz goaz
gu biok gerora.
Trago bat sartu nahi du
hor bere kolkora.
Astirik ez al daukak
bertsotik bertsoa?

BIGARREN SAIOA

Amuriza

Trikitixa ta pandero hotsa
zer gauza zoragarria!
Sua ere horra tximinin gora
hau da bero pozgarria!
Kostatu zaigu lortzea baina
behin hortaraino jarria
ia pixka bat osatzen degun
hauen bertso egarria.

Lizaso

Berriro ere hastera doa
gure kantuzko jokoa
zuek ez dakit, geuk behintzat oindik
ez degu egin nahikoa.
Bazkal ondoa izan dezagun
behar dun bezelakoa
lehen postre ondokoa genduan
orain kafe ondokoa.

A.
Gaizki esanda ez dago hori
ez zen arrazoi gaiztoa
Azpeitin ere noizbait sortzen da
intelligentzi listoa.
Baina Lizasok esan duena
ez da guztiz egizkoa
entremesetan erre dik honek
kristoren montecristoa.

L.
Zer arraiotan berriro hasi
laguna tentatu nahian?
Gaurko honetan etorri ote
zirikatzeke usaian?
Ezer askorik ez zun ikasi
fraile egon zan tokian
montecristorik ez zan izaten
Jesukristoren garaian.

A.
Berriro ere oker hagola
behar diat hortan esan
orduan ere sua izaten zan
ta kea ere behar izan.
Montecristorik ez ote zegon
hik esan dekanan gisan
Kalbarioa zer “monte” zuan
Jesukristona ez bazan?

L.
Itxura danez, eleiz kontuan
zerbait ikasita dago
puru kontuan oain nire kontra
eta Xabier akabo.
Kuba ta tabako onak ere
ezagutu geroago
inun umerik ez dek jaiotzen
bere ama baino lehenago.

A.
Arrazoi horri zail izango det
zerbait kontra esatea
zeozergatik zeramak honek
puruan sua ta kea.
Hautatu zian noizbaiten kotxe
saltzailea izatea
hargatik honek beti ahoan
zeukak “tubo de eskape”-a.

L.
Zer arraiotan alkarrentzako
guk orain kopetak beztu?
Hemengo giroa aitatzea
ez al dago gure esku?
Mejikon dagon Acapulco horrek
famatu beharrik eztu
hemen dagoen giroa ezetz
egingo nuke apustu.

A.
Giro ederra suan ondoan
hori da gauza gozoa
ta mendi honek Acapulco du
izena kurioa.
Nundik datorren arrastorikan
oaindik ez daukat jaso
esango dute hemen ote dan
“Sendero Luminosa”.

L.
Hemen argia, kanpoan noiznahi
egun argiz dagoela
eta gauean moldatu behar
bakoitzak ahal dun bezela.
Ikusirikan hainbeste lagun
orain pozikan daudela
honelakotan sinisten det nik
bertsolaria naizela.

A.
Gure Lizasok laguna inoiz
hartzen daki oso estu
baina laguntzen ere badaki
hargatik naiz bere esku.
Baina gehiegi sinisteko ere
ez hadi egon horren prestu
hainbeste inork ez dik esan da
ez zak gehiegi sinestu.

L.
Nire ustetan ondo esanda
hik ez zak hartu aldrebes
deskuidatuta egon nintekek
bainan ez dek horren errez.
Gu ez bagina, bertso giro hau
hemen ez zegoan berez
hitzez gezurra esan zitekek
bainan begiratuaz ez.

A.
Egian bila jarri haiz, beraz
begietara begira
kuadrilla honek neroni ere
sortzen baizidak pilpira.
Bazkal aurreko tiroetatik
bertso eta trikitira
komando ederra bilauko dute
bila etortzen badira.

L.
Tiro-platoa denborapasan
goizean zuten jarriko
armakin eta muniziotan
bakoitza bere neurriko.
Tiro hotsera hemen gaudela
nahiz ziguten igarriko
gu armatuta gaudela eta
ez dirade etorriko.

A.
Etortzea ere euki lezakek
horren gogo daukanak
harrigarriak zituan hemen
bazkal aurreko afanak.
Eskupetari gogor helduta
ai ehiztari hauen lanak!
Errezagoa ez dek bilatzen
osorik jua diranak.

L.
Makinak tira platera eta
tiratzaileak aukera
ez det ikusi, bainan guziak
juango ziran lurrera.
Honek esan du oso guziak
zail dala biltzen batera
eta puskatu diraden haiek
hortik kontuak atera.

A.
Izango da, bai, horretarako
hemen egundoko lana
nik ere zerbait ikusia det
hurbildurik hauengana.
Hura sua ta danbada hotsa
Acapulco honek zeukana!
Eskerrak plater botatzailea
burusoila izan dana!

L.
Sarri askotan ez zan pasako
hemen hamaika holako
ez det ikusi baina jakin det
hortan jardun dala Pako.
Eta hemendik gero aldegin
eta zer egin beharko?
Hura kontentu jua da hemendik
bera jo ez dutelako.

A.

Beraz, norabait alde egin du
tiro hartu aurretik garaiz
badaezpada ni ere pixkat
apartean ibili naiz.
Apunteria zorrotza zuten
plater jotzea ez zen gaitz
ez haiz bizirik apartatuko
hi aurrean jartzen bahaiz.

L.

Jarriko banintz, beraz, bizitza
nuke epe laburrean
pena dadukat berandu heldu
gaurkoz halabeharrea.
Neronek ere badut arma bat
aizu, neure baldarrean
jakin nahi nuke ia nor kristo
jartzen dan nire aurrean.

A.

Bere aurrean nor jarriko dan
desafiauta zaudete
badaezpadan ni makurtzen naiz
nahi duena jarri tente.
Honek aldean daraman arma
pizten bada derrepente
platerik ez du hautsiko baina
igual platera bete.

L.

Nik horrelako afiziorik
baneuka, neure kalteko
eta aldean dedana ez det
inoiz arrai emateko.
Eskarmentua nunbait badauka
neri hori esateko
ni komentuan ez nintzan egon
atzelari izateko.

L.

Gure Lizaso nunbait ez dago
komentuko gauzen jabe
handik kanpora ere holako
gauzak ikasten dirade.
Komentuetan ez haizela izan
hala egin duk hik galde
ni badaezpada ez nauk fiatzen
hirekin atzetik ere.

L.

Inori ezer atzetik esan
ez zidak egiten grazi
baizik guziak aurrera esan
gauz polit edo itsusi.
Eta, Xabier, hi ez hai joan
nere ondotik igesi
nahi dekan dana esan zak baina
neri kolpeka ez hasi.

A.

Hemen tiroak entzun dizkigu
ez dituk izango azken
harriturikan egon nauk eta
ez nian ia sinesten.
Gure Corcuerak hemengo berri
nunbait ez zian ikusten
gaur jakin diat gure mutilak
non entrenatu litezken.

L.

Beharrik balitz hartarako ere
lekurikan onenean
tiroan faltarik Acapulcon
ez zan gaurko egunean.
Goizean hainbat izango ziran
bazkari ondorenean
baldin gaztainak jan baginuzen
oilaskoaren gainean.

A.

Oilaskoaren gainetik hori
izan liteke hainbeste
gaztaina janda, tiroak noski
erruz atera litezke.
Eskari hori izan zeikenik
nik hemen ez nian uste
baina eguna buka baino lehen
igual jarriko dituzte.

L.

Barruan haize txarrikan bada
zertako utzi gordean?
Bota beharra izaten baita
goizean edo gauean.
Behar duenak bota dezala
uzten det libertadean
trumoiak ez du inor beldurtzen
ozkarbi dagoenean.

A.
Ozkarbi hori zeru aldean
beti gauza atsegina
hemen ozkarbi izan zitekek
ahaleginduko bagina.
Tiro-platoa, gero gaztainak
zer konbinazio fina!
Corcuerak ere ez dik izango
horrelako polborina.

L.
Harek polbora aukeran dauka
hori zertarako konta?
Zenbat dadukan eta zeinentzat
oraintxe ez zait inporta.
Harekin behintzat zertan gastatu
ni ezetxean nago-ta?
Gizon kaxkarrak botatzen dira
belarri ertzean jota.

A.
Gizon kaxkarra jo ta botatzen
indartsu baten ohitura
Sebastianek hitz egin digu
sendo gisako modura.
Honek kaxkarrik ez du maite ta
nunbait iruditu hura
Sebastianek ez al daduka
Sadam Huseinen itxura?

A.
Nahiago nuke lekua nola
bete banuke jakingo
Irak aldera bueltaren bat
egin beharko noiz behingo.
Pakean bila joango naizenik
kolpetik ez det esango
baina Bush jaunak neri ez zidan
hainbeste parre egingo.

A.
Amerikako presidentea
honek gogotan hartua
aizak, laguna, toki onean
ez hago orain sartua.
Egon liteke gure Lizaso
hemen oso indartua
hau Pertsikora joaten bada
hondatuko da barkua.

L.
Lehen ere esan det horrelakorik
nik ez nuela espero
eta gainera ez det izan nahi
gerra txar horren bezero.
“Haundia haiz ta hondatuko haiz”
esaten dek egunero
berdintsu zaidak hondatzen bada
haruntz iritsi ta gero.

A.
Aspaldi hontan paraje hortan
bazegok nahiko algara
soldaduak e bidaltzen hasi
bete ziten andapara.
Euskal Herrian gure lurrean
nahiko lanpeturik gara
buka dezagun hemengo gerra
gero juango gaituk hara.

L.
Haien ustetan mutiko baina
gerade zentzuz helduak
elkarrizketak eta tratuak
egonagatik zailduak.
Sobre dirade ejertzitoko
karguak eta manduak.
Trajerik gabe dabilta hemen
benetako soldaduak.

A.
Euskal Herria oraindik ez dek
igual kontuan jausi
herri txikia nola geraden
gauzak zeuzkagu itsusi.
Mundu zabala hortxe zebilek
euren misil eta guzi.
Mundu guztian jarri behar al dik
amerikarrak nagusi?

L.
Une batean egin dezagun
guk historian atzera
Alemanitik etorri ziran
lehen Frankoi laguntzera.
Orain Felipek hartu lezake
amerikarren tankera
nora goazen badakigu ta
noizbait iritsiko gera.

A.
Nora iritsi badakigu ta
noizbait iristea maite
mundu zabala istilu haunditan
nahastuta dabil nunbait'e.
Pertsiko hortara jua beharra
ia ontzat nitek nik e
pilotu jua baldin balira
Juan Carlos eta Felipe.

L.
Xeobre xamar ez ote leike
bikote horren arreta
karguagatik ibili arren
txoro-haizeak beteta?
Berehalaxe ezin iritxi
inor e Golfo aldetâ
itsasontzira igotzeko ere
laguntza behar dute-ta.

A.
Zalantza haundiak sortu dituzte
Irak-a dela medio
Juan Carlos eta Felipek nunbait
ez dute hortako balio.
Hainbeste saltsa sortua baita
gasa edo petrolio
hori bukatzen baldin badute
hire kotxeak adio.

L.
Ez zak pentsatu ez dauzkatetik
eginda geroko planak
nik bazekiat, beltzak litzazkek
ofizio ondorenak.
Bainan, halare, saltzaile onak
beti dizkik bere lanak
kotxe batzuek izaten dituk
bultzata ibiltzen diranak.

A.
Xebastianek beti baitauka
zerbait bueltako gomuta
entrenatuta badago nonbait
irabazteko burruka.
Izan liteke ez mugitzea
nahizta ondo bultzatuta
kea gutxinez aterako dik
montecristo bat sartuta.

L.
Ez zak pentsatu tonto naizenik
nahizta naizen kankailua
zer arraiotan jarri nahi didak
balio ezan seilua?
Errekai denak gastatu eta
Amurizan istilua
Zaldibin hau da puska batean
merke dan apopilua.

A.
Apopiloa merkea eta
Lizaso haren farola
neronek hantxe esango diot
ikasi nuen eskola.
Konbustiblerik ezak alperrik
ez dik sendatzen inola
honek bultzaka jarriko gaitu
bera barruan dagola.

L.
Asmo hori det, honelakorik
ez nun esango bestela
nere aurretik nere lagunak
horra puskatu pastela.
Zuek bultzaka jarri beharko
neu barruan nagoela
ia orduan esaten dekan
mutil tontoa naizela.

A.
Horrek bazeukak aldamenetik
beste hainbeste histori
“mutil tontua” entzuterikan
ez zaiok gozo inori.
Baina hi barruan jarri ezkeror
ez haiz kontuan erori
norbaitek hantxe hots egingo dik:
“Zertan hago tonto hori?”.

L.
Ez zak pentsatu ni egoterik
aizak, hire laguntzan zai
alde aurretik neurria ondo
hartuta zedukat gauzai.
Goitikan behera kotxea ohi dek
bultza gabe juateko gai
Zaldibiraino kotxez juango nauk
ta hi oinez etorri hai.

A.
Oinak nekatu zitezkeek bapo
honuntz oinez joatean
beste biderik ez baldin bada
etorriko nauk pakean.
Baina alperrik diok hik: “errez
juango nauk kotxe batean”.
Ez dek urruti juango tonto bat
barruan den bitartean.

L.
Zer arraiotan hartu dek hemen
hainbat haize eta lainez?
Zer arraiotan ari haiz beti
lagunai burla eginez?
Tonto batekin behera joatea
ez badegu horren errez
biok batera sartzen bagera
ezta abitu ere ez.

A.
Sebastianek esan duenak
ematen dit ohorea
kotxe gaixoak hartuko luke
orduak jipoi doblea.
Baina halare biok sartuta
a ze koadru dotorea!
Esango dute: “hor zijoaztek
tontoa ta tutorea”.

L.
Ez zak pentsatu nahikoa danik
nere bidea galtzeko
aukera nola heuk jartzen dekan
heuri lepotik heltzeko.
Eta hurrena denbora gehitxo
har zak zerbait pentsatzeko
herori ere ez haiz bizkorra
nere tutore jartzeko.

A.
Garai batean izaten ziren
pobrearen erretirak
etxera joanda gaztain zimelak
eta arbolan mizpirak.
Ez ote naizen oso argia
hik dauzkak heure distirak
nola ez jarri hire tutore
aitak ordaintzen bazidak?

L.
Beraz, aitari kobratu eta
semea nahi du zerbitza
ia berrogei urtera arte
ikasten pasa bizitza.
Nik irakurtzen juxtuan dakit
alkarren pare gabiltza
hortik pentsatu zer pasako zan
karreraduna banintza.

A.
Aizak, hi, hori hola esanda
txalogarria dek bapo
baina aukera hik ere izan dek
eta argitu beharko.
Irakurtzen e ez omen daki
bada arrazoa franko
horixe ere ez zun ikasi
tonto samarra zalako.

L.
Liburuaren aurrean zertan
hartuko nun hainbat neke?
Piper eginez eta jolastuz
pasa nuen zenbait aste.
Baina halare ni horren gaizki
nabilenikan ez uste
bizimodutik ikasi diat
hik karreratik hainbeste.

A.
Karrera edo karrera gabe
hemen mokoka gabiltza
ez zaidak bate gustatu, aizak
eman berri dekan giltza.
Asko kostata karreraduna
egin huen Amuritza
hi ez hintzan, ez, ezer izango
aita izan ez balitza.

L.
Itxura danez bizitza behar
karrera bati lotua
nere ustetan ez da horrela
bizimoduko kontua.
Nei esan arren, ez dakit bera
ez dan ni bezin tontua
hau bakarrikan daukagu nunbait
aitarik gabe sortua.

A.

Neroni ere hi bezelaxe
aitak ekarri ninduan
baina neronen burutik martxan
hasi ninduan munduan.
Lizaso, berriz, hortxe henbilen
“hijo de papá”-n moduan
montecristoak erretzen behintzat
ederki ikasi huan.

L.

Aitarengatik zerbait naizela
esan du horren zelebren
arrazoi dauka, harengatik naiz
bizio txar honen jabe.
Seme guziak nere ustetan
aita bat-dunak dirade
bainan aitarik ez dek izaten
semerikan izan gabe.

A.

Aita-semeak izaten dituk
nunahi alkarren ondoren
bazekiagu mahai buelta hontan
orain zer giro dagoen.
Nahikoa luze jardun diagu
txanda honetan bederen
hartuko al degu beste arnasa bat
hostika hasi baino lehen?

L.

Umorearen sua piztu da
eta zergatik itzaldurik?
Segi kantuan isiltzekorik
ez baitu inork agindu.
Eta hostika hasteko ere
sekula ez da berandu
lehen partitutzen ikasi zuen
hartzten ikasi behar du.

HIRUGARREN ATALA

Amuriza

Hastera goaz berriro ere
kantuan hirugarrenez
hala agindu digute eta
goaz borondate onez.
Sariketa bat, entzun dudanez
hemen urtero badenez
gaurko eguna dedikatzen det
Artxamendiren omenez.

Lizaso

Jakin dedanez hura omen zan
hemen lehenbiziko itzai
gero besteak jarraitu behar
harek hasitako gauzai.
Zaldibi degun bezelakorik
ez degu aurkitzen nunahi
bertsolaritza bizirik dago
zaletasuna ere bai.

A.
Zaletasuna sortzeko eskola
izaten degu aprapos
sariketa bat hemen urtero
omen da lilura askoz.
Artxamendiren saio horrexek
sortuko du hainbeste poz
semerik izan zuen ez dakit
baina ilobak badatoz.

L.
Bi urtean behin uste det dela
ez da izaten urtero
bainan geroztik zaletasunak
hemen irauten du bero.
Ta Altzo Txikin eskolatik e
frutu berriak espero
helbururikan nahizta lortu ez
haseran etsi ezkerero.

A.
Bertsoetako tradizioa
bazekarrek Zaldibiak
hemen txar eta onak zein diren
antzematen dik jendiak.
Eskolatxo bat ere badela
hementxe entzuten diat
jakin dedanez, Altzo Txikiak
sortzen ditu hauts haundiak.

L.
Erakustea, ikaste ezkeroz
beharrezkoa bizitzan
landare batzuk sortuak dira
hemengo bertsolaritzan.
Ta, Altzo Txiki, zaindu itzazu
orain behar duten gisan
landare hoiek negu bateko
izotzak galdu ez ditzan.

A.
Izotza ere etortzen baita
negu denetan seguru
oraindik zuri egongo dituk
atzoko hainbat inguru.
Eskola hortan ume txikiak
pozik ikusten ditugu
baina gehiegi ez erakutsi
bestela zertan gaituk gu?

L.
Lehen Artxanberri genduen eta
gero etorri zan Patxi
ta orain berriz Altzo Txikiak
umetxoai erakutsi.
Frutuak hortik helduko dira
hemen bihar edo etzi
bide bakarra horixe da ta
ahal degun artean eutsi.

A.
Atzean dago Txindoki eta
haruntz dago itsasoa
mendi artean herri polit bat
izerdi-lanez jasoa.
Bertsozalea gainera bera
kasikan jende osoa
Patxi horrekin omentzen degu
Zaldibiko herri gozoa.

L.
Umearekin hartu beharra
irakasleak patxada
eta gaingitu inoiz edo behin
hezialdien bolada.
Landu ta gero egunen baten
irtengo dute plazara
entzulerikan ez da faltako
Zaldibi aldatzen ez bada.

A.
Herri honetan bertsolaritzak
eman du fruitu nahikoa
hain aberatsa gertatua da
pertzta edo lapikoa.
Etxean bertso senik badago
hantxe adi mutikoa
Lizasorenak kantatze'omen du
bederatzi puntukoa.

L.
Horretan ez da oraindik hasi
aita akabo bestela
baina uste det Altzo Txikikin
gu zuzen ari ginela.
Zuk etsi gabe bete ezazu
maisuu onaren papela
pixkana baina beti aurrera
"arkakosuak" bezela.

A.
Arkakosuak bezela horrek
heltzen omen die lanai
goitizena ere hori omen da
eta ez nuke ahaztu nahi.
Hemen badago bertso giroa
Altzo Txikik eingo dik jai
erakutsiko die bertsoa
alprojeria ere bai.

L.
Horretan nik zer pentsatzen dudan
neuretzat ez dut gordeko
behar duenai erakustea
ez da izaten kalteko.
Txorora ez bada, torero lanik
ez luke inork beteko
eta alproja puxkat behar du
bertsolari izateko.

A.
Tradizioa hala omen da
ta ez dago zertan galdu
jenero hori nonahi lekutan
aisa omen dute saldu.
Sebastianek esan duenak
arrazoi pixkat ez al du?
Alprojeria ikas dezaten
Azpeitiara bialdu.

PUNTUKA

- L. Beraz, Azpeitiraino
hemendik kuadrila
- A. Igual juango nauk
ni ere haren bila.
- L. Maisu faltarik ez du
etorri dadila
- A. Lizaso behintzat dago
morrosko abila.
- A. Azpeitian maisuak
ikasleentzako
- L. hori ez da kalteko
gaztearentzako.
- A. Igual esango dio:
“hoa tomar por sacco”.
- L. Hori gordetzen degu
bizkaitarrentzako.
- L. Umil datorrenikan
ez degu bidaltzen
- A. sinestu behar diat
ez banauk nekatzen.
- L. Zapuzkeririk ez dek
sekulan azaltzen
- A. gizon umilen bila
Azpeitira goazen.
- A. Azpeitian badago
halako tankera
- L. beraz, nahi duenantzat
joateko aukera.
- A. Kontuz pasatzen dira
Azkoitian behera
- L. bestela astoakin
Mondragoi aldera.
- L. Auzoak gera baina
orain behintzat lagun
- A. hori esan du eta
sinistu dezagun.
- L. Neronek ere andrea
handik ekarri nun
- A. olagarro bat ere
han ikusi gendun.
- A. Olagarroak badik
bere historia
- L. hik ere jakiteko
ez al dek premia?
- A. Azpeitiarrak zion:
“Hau al da txoria?”.
- L. Olagarroa ez zan,
txangro hegalaria.
- L. Kontuak kontu baina
moldatutzen gera
- A. hortako ematen du
Lizasok aukera.
- L. Alkarri adar jotzen
goizetik gauera
- A. adiskidatzen gera
hurren goizaldera.
- A. Acapulco honetan
bazegok tokia
- L. beraz, zergatik jarri
honi aitzakia?
- A. Baina ikusten ari nauk
sua eta kia
- L. bertatik ez joatea
dut erabakia.
- L. Patxaran etorri ta
azkar zertan jua?
- A. Nik ere pentsatzen det
Lizason moduan.
- L. Egotea onena
gustoko lekuan
- A. toki bakarragorik
bai al da munduan?
- A. Gustora dagoela
bere aitormena
- L. baina jua beharrak
ematen dit pena.
- A. Hau prestatzen ari da
noiz eman azkena
- L. bi eguneko festa
ipini hurrena.

L. Nahizta ekarri degun
zenbait borondate

A. hemen ibili gaituk
biok atez ate.

L. Gure zintzurak ere
badu zenbait neke

A. bukaera eder bat
merezia dute.

A. Beraz, bukauko al degu
halako batian?

L. Horretarako prestu
dago Sebastian.

A. Gu gaur saiatu gera
danon subertian

L. ta gurekin kontatu
behar dan guztian.

L. Itxura danez, ez da
azkenan baimenik

A. isilik daude eta
hori uste det nik.

L. Inoiz ez degu entzun
ezetz nabarmenik

A. lana ez da amaitzen
inoiz inorenik.

A. Norberak behar balu
lan hori egina

L. hain luzea ez zala
da gauza jakina.

A. Nahikoa jardun degu
ai, ama birjina!

L. Eta okerrena geu
isildu ezina.

L. Zergatik buka gabe
luzaroan jardun?

A. Hemen zai daudelako
hainbeste euskaldun.

L. Baina hauen gosea
ase behar gendun

A. beraz, isildu eta
bukatu dezagun.

KOPLARIAK

Koplariak izeneko Korrontziren diskoa 2020ko Azaroaren 20an kaleratu zen. Disko horretako hitz guztiak neuk egiteko zortea eta ohorea izan nuen. Aurkezpen edo hitzaurre bat ere egin nion disko-liburuari, eta hona bera:

Gure amama-izeba batek pandero hutsez antolatzen zuen erromeria, berak koplak kantatuz. Bide batez, ogia eta ardoa eta baserri-jaki batzuk saltzen zituen. Bizimodu bat. Alaba bere ez-gustuko mutilekin dantzari ari bazen, berehala amaitzen zuen pieza. Mutila bere gustukoa bazen («etxerako modukoa»), ez zuen sekula amaitzen, dantzarien desesperaziorako.

Kopla ahapaldi laburra da. Ez dago diskurtsorik, bertsolaritzan bezala. Oraindik badirau koplaren logika misteriosoari buruzko ikuskera oker enfokatu batek. “*Eta lehen zatiaren funtzioa bigarrena indartzea da, kontraste baten bidez, itxuraz zerikusi zuzenik ez badu ere bigarrenarekin. Hortik, sarri, lotura falta hori; itxuraz soilik, ordea, zeren loturaren bat izaten baita*”. (Wikipedia euskaraz, *Kopla zaharrak* sarreran). Interpretazio zerbait konfuso horrek gauditua behar luke. Elementuak hortxe daude, pintura batean bezala. «Errekaldean lizarra, hari begira izarra». «Hor goian goian goldea, haren ganean belea». Ondoren, mezu bat. Logika bisuala da, azalpen hitzezkorik behar ez duena, ahapaldiaren koherentzia orokorra argi atzemateko. Generoa barrutik ulertzea bakarrik behar da, non pentsamena ikusmenaren gainean doan, eta ez diskurtsu baten mende.

Koplaren estetika bizi eta politaren erabilera modernoa ala tradizionala kontzeptuen eta edukien gorabeheran dago. Nik neuk, disko honetan bezala, kopla baliatzen dut, bere mugekin, nahi dudana edo eskatzen zaidana edozein mezu kantatzeko. Hori bai, beti ere, hain estetika xarmagarri bati bihurtura mingarririk ez eragiten saiatuz.

Hona, orain, aipatu KOPLARIAK diskoan sartu ziren kanta hitzak.

BIZITZEKO JAIO

Bizitzaren alarguna
heriotzaren laguna.
Bekoki beltza jarrita
ez da argitzen iluna.

Etxe bete demonio
ihuti eta txilio.
Bihotz errea daukanak
ez du hortako balio.

Etorriko da eguna
gogorra edo biguna
kanpai tristeak entzunda
barre egingo duguna.

Hilotzari berdin dio
esne, ardo nahiz olio.
Behin hilko eta ez ginen
penaz bizitzeko jaio.

Kopla hauek nire *Mendian gora haritza* poematik ateratako zatiak dira. Lehenik Imanol Larzabalek eta gero Mikel Urdangarinek kantatutako poema bat. Mezua argia da: bizitzeko jaio gara, ez, hiltzeko. Bukaerak ez dauka aurreko izatea zapuztu beharrik. Heriotzaren utilitate bakarra da kontzientzia indartzea ezen bizitzak ez duela oharkabea igaro behar.

URTAROAK

Udaberri, udaberri
zoroak ere igerri.
Zuhaitzak hostatu eta
odolak gora etorri
gorago ikusten ditut
Gorbeia eta Aizkorri.

Uda gori, uda gori
eltxoak ere erori.
Zein labetan errea da
eguzki biribil hori
izerdia dariona
Orhi eta Anbotori?

Udazkena, udazkena
kolorez aberatsena
orbelak airean eta
urak bueltan datozena.
Hego-haizeak badaki
nire maiteen izena.

Negu beltza, negu beltza
haserre da leiho ertza.
Elurrez eta txingorrez
hain beltza ere ez pentsa.
Olentzerok beteko du
otso txikien ametsa.

MERIDIANO GREENWICHEN

2004-01-24. Urteko bertso-eguna. Arratsaldeko saio bereziaren ondoren, afaria, Zubietako Erretegi Sagardotegian. Afalondoko saioen artean, koplak batzuk kantatzea proposatu zidaten antolakuntzatik, eta hauexek kantatu nituen, gero Korrontziren disko honetan sartu zirenak.

1)
Meridianoa Greenwich
hortxe nonbait sortu nintzen.
Lepoa nahi nuen eta
ez dut sokarik aurkitzen.

2)
Oraintxe trenari neure
burua emanda ere!
Behin animatuko eta
bertan trenak greban daude.

3)
Zubi altuan behera
saltatu dut uholdera.
Ibai ankerrak bizirik
okatu nau hegalerara.

4)
Heriotzak ez nau maite
lurpean behar ez naute.
Derrigora denez gero
biziko naiz elegante.

5)
Ahazturik zubi altuaz
bizi naiz neure patuaz.
Kopla txarrak kantatuaz
eta onak barkatuaz.

6)
Ez garela bagarela
dudan hil zen koronela.
Duda dagon bitartean
badago itxarongela.

7)
Kamuts samarra naizenez
Zzorrotz samarren baimenez.
Egun sano bat badaukat
urtean behin gutxienez.

8)
Agur orain eta gabon
amaitzear zelan nagon.
Beste urtebeterako
badaukagu zer itxaron.

Kopla hauetan erakutsi nahi nuen genero tradizionalak, modernoa izateko, kontzeptuak eta ideiak aldatzea besterik ez duela behar. Testuingurua, urtean behingo ospakizun bat. Edukia, ironiko-korrosibo-baikorra. «Heriotzak ez nau maite, lurpean behar ez naute». Orain arte, behintzat. «Biziko naiz elegante, urtean behin gutxienez». Zergatik ez urte osoan?

EDERREGIA ZELAKO

1)
Ederregia zelako
sasoian irri ta farra.
Azkenik asto batekin
tratua egin beharra.
Tratua egin beharra
sasoian irri ta farra.
Alargundu zen ta hortxe
dauka suerte bakarra.

2)
Ederra baina mizkea
ai zer pekatu tristea!
Pekaturik tristeena
sasoia joaten uztea!

3)
Txakurrak zaunka ta zaunka
gauean ilargiari.
Haren zaunkak gorabehera
ilargiak beti argi.
Ilargiak beti argi
gauean ilargiari.
Maitearen begietan
ikusten ditut izar bi.

4) Izarrik ez bada ere
bi leiho eder dirade.
Zeinetatik sartuko naiz
maiteak igarri gabe?

5) Ilargiak beti argi
gauean maiteak ilargiari.
Maiteak begiak beti argi
ikusten ditut bertan izar bi.

Sorta honetan satira eta lirismoa kateatzen dira. «Ederregia» izateak begira zer ekarri zuen. Azkenean, zorionez, «suerte» lagun izan zuen. Hirugarrena esaera dotore batetik abiatzen da: «Txakurrak zaunka ilargiari, ilargiak beti argi». Neurrira egokitu, beste irudi bat erantsi, eta hurrengoan, izarrak leiho bihurtu. Zeinetatik sartu, maiteak igarri gabe?

ENE IZAR MAITEA

1)
Ene izar maitea
maite ederrena
ez bazina gugandik
hain urrun zaudena.
Maite ederrena
hain urrun zaudena.
Hurbiltzen ez bazara
alferrik da dena

2)
Ilargia islatzen
ibai barrenean.
Zertako dut izarra
zeru gorenean?
Ibai barrenean
zeru gorenean
ez badut iristerik
betiraun denean?

3)
Eskatzen dut izarrak
ezkuta daitezen
zeren nekatu bainaiz
etsita hain zuzen
ezkuta daitezen
etsita hain zuzen
itxaropena beti
hain urrun ikusten.

4)
Ederrak distantzia
behar du aldare.
Belaunikatzekotan
ez naiz ederzale.
Behar du aldare
ez naiz ederzale
edo, banaiz, behar dut
aski dohakabe.

5)
Gauden gu hemen eta
izarrak beude han
sar bedi baimen gabe
lainoa tartean.
Izarrak beude han
lainoa tartean.
Zatoz berriz, maitea
bihar goizaldean.

6)
Ene izar maitea
hain urrun zaudena
hurbiltzen ez bazara
alferrik da dena.

Eraso lirikoa izarren sinbologiari. Hain urrun baitaude! Izar maiteak hurbilean ere izar badirau, sinets dezakezu edertasunean. Edo maitasunean. Biek, ordea, maizegi, distantzia behar izaten dute ez hausteko. Nekatu naiz «itxaropena beti hain urrun ikusten». Ezustean, itxaropena ere jokoan. Baina dantzan ari gara! «Gauden gu hemen eta izarrak beude han».

PORRU GAZIA

1)
Bihar hiltzen direnak
etzi ehortzi
etzidamu ahazturik
zazpitik zortzi.
Sekula sekulorun
hortzak igurtzi
ehortzi
zazpitik zortzi.

2)
Deabruak ekarri
berak eraman
etsaiekin ez ibil
hartu eta eman.
Hobe duzu zor batzuk
egin tabernan
eraman
hartu eta eman.

3)
Akerra izan arren
arras okerra
ahuntzarentzat bera da
galai ederra.
Ez bada lar mizkina
edo alferra
okerra
galai ederra.

4)
Kanpoan uso eta
etxean otso
eskerrak lurperatu
zutela atzo.
Oraintxe egongo da
isil ta mantso
bai otso
zutela atzo.

Sorta hau ironiatik sarkasmora mugitzen da. Dantza gogotsuan ari denari jaulkitzen zaizkion arrazoi filtro gabeak, non kontzeptu eta ideiarik ezberdinenak nahasten baitira. Eta non, bide batez, giza sentimenduak ere ustezko nobletasunetik biluzten baitira. Azken batez, txantxetan esaten denetik benetan esango litzatekeenera ez dago hainbesteko alderik.

EZKONDU NINTZANEAN

1)
Ezkondu nintzanean
bost gona nituen
bi prendan ipinita
bi saldu nituen.

2)
Saldu ahal balitza
saldu ezin dana
salduko neukela
nik neure senarra.

3)
Seintxu bat sabelean
beste bat besoan
gizona tabernan da
artoa auzoan.

4)
Hiru ilinti ketsu
suaren ondoan.
Handik datorrenean
hirurak lepoan.

5)
Horrako gizon hori
dot neure senarra
sarritan ekarten deust
begira negarra.

6)
Ezkondu nintzala
ia dira urte bi
ez diot kontsejurik
emoten inori.

Historia triste bat. Anonimoa. Bertsio osoan hamahiru koplak dira. Esaterako: «Soinean daukadana txito daukat zaharra, barriak egiteko, esperantza txarra». Eta azkena: «Gazteak, entzun dozu neure kontsejua, laster damutu jatan niri ezkondua». *Dozu* = dozue. Antzinatasunaren seinale.

LAJA BADOA

Trikitiaren mirari
dantza lotuen magoa
oraindik hor dabil bere
irribarrezko haloa.
Hastean zein amaitzean
zabaltzen da barbaroa:
“Hau poza, Laja badator!
Hau pena, Laja badoa!”.

Zelai bat valsean nola
olatu finak Kariben.
Gerriak zinbeltzen dira
eta ni, soinua, gehien.
Hain gozo jotzen nau ezen
sentitzen bainaiz non nahi den
Laja-Strauss baten esku
Vienako Musikvereinen.

Laja. Trikitilari jada mitikoa izateaz gainera, dantza lotua jotzen dohain berezia zuela diote, batez ere valsak eta halako erritmo zinbelgarriak. Pieza honetan ahapaldi bakarra kantatzen da, baina bigarrena ere egin nuen, non soinua baita Lajaz mintzo dena. Idatziz behintzat, biak gelditzea nahi nuke. Ezin diot iruditzeari utzi «Laja-Strauss bat», bere «irribarrezko haloan», erromeria jotzen «Vienako Musikvereinen».

MARINEL EMAZTEA

1)
Marinel emaztea
goizean senardun
arratsaldean haurdun
gauean alargun.
Senardun
gauean alargun
itsasoko haitzari
eman behar mun.

2)
Itsasoa sortu zen
gozo, gozaro.
Jainkoen negarretan
gazitu zen gero.
Gaur nire malkoekin
erretzen dago.

3)
Nor mendeka dezaket,
itsaso zurbil,
zure uretan gure
odola badabil?
Eskatzen dut zeu, behintzat,
ez zaitzatela hil.

4)
Haurraz erdituko naiz
bitsezko uretan.
Irakatsiko diot
oinez ere bertan
mundua korri dezan
olatu gainetan.

5)
Marinel emazteon
zain egote hutsa!
Zoazte ontzilari
portuez haruntza
senarrak jakin dezan
zer den alarguntza.

Lehen lau lerroak kopla zahar anonimo bat dira. Zirrargarria! Abiapuntu horretatik, saiatu naiz gai aktualak sartzan, ahalik eta erarik delikatuen, baina sendoan. Genero eta estetika zahar batean edozein eduki berri eman daiteke, haustura formal traketsik burutu gabe. Ahalegina ez da erraza, baina sorta honetan merezi izan duela uste dut.

«KOPLARIAK» KONTZERTUAK

Diskoaren aurkezpen ondoren, Korrontziren hainbat kontzertutan parte hartu nuen talde osoarekin. Zer eginez? Kontzertuaren erdi aldera, taldearen azpi-musika batekin, honako testua deklamatzeko nuen, diskoaren sintesi bat izan zitekeena:

“Korrontziren musika zoragarrian jantzita, testuen edukian gurutzatzen dira: ironia, lirismoa, satira, dramatismoa, surrealismoa, tragedia... Eta denen gainetik, bizia. Eta bizitza.

Hilotzari berdin dio
esne, ardo nahiz olio.
Behin hilko eta ez ginen
penaz bizitzeko jaio.

Heriotzaren onua bakarra da kontzientzia piztea ezen bizitzak ez duela oharkabean igaro behar.

Udaberri, udaberri
zoroak ere igerri.
Uda gori, uda gori
eltxoak ere erori.

Udazkena, udazkena
kolorez aberatsena
hego-haizeak badaki
nire maiteen izena.

Negu beltza, negu beltza
haserre da leiho ertza.
Olentzerok beteko du
otso txikien ametsa.

Geure izate ezkutuan, denok gara «otso txikiak».

Ederregia zelako
sasoian irri ta farra.
Azkenik asto batekin
tratua egin beharra.
Alargundu zen ta hortxe
dauka suerte bakarra.

Satiratik lirismora.

Txakurrak zaunka ta zaunka ilargiari
ilargiak beti argi.
Maitearen begietan ikusten ditut izar bi.

Eta izarrak leiho bihurtu! Zeinetatik sartuko naiz maiteak igarri gabe? O, izarrak!

Ene izar maitea
maite ederrena
ez bazina gugandik
hain urrun zaudena!

Zertako dut izarra
zeru gorenean
ez badut iristerik
betiraun denean?

Eta kexa birao bihurtzen.

Eskatzen dut izarrak
ezkuta daitezen
nekatu bainaiz itxaropena
hain urrun ikusten.

Porrua. Porru gazia.

Kanpoan uso, etxean otso
Eskerrak lurperatu zutela atzo.

Dantza gogotsuan ari denari filtro gabeko arrazoiak jaulkitzen zaizkio. Giza sentimenduak ere ustezko noblezasunaz gabetzen dira.

Akerra izan arren
arras okerra
ahuntzarentzat bera da
galai ederra.

Gizakien edertasunak, sarritan, hiltzaile baitira.

Saldu ahal balitza
saldu ezin dana
salduko neukela
nik neure senarra.

Historia gogorrak.

Seintxu bat sabelean
beste bat besoan
gizona tabernan da
artoa auzoan.
Hiru ilinti ketsu
suaren ondoan
handik datorrenean
hirurak lepoan.

Historia tragikoak.

Marinel emaztea
goizean senardun
arratsaldean haurdun
gauean alargun.

Marinel emazteon
zain egote hutsa!
Zoazte ontzilari
portuez haruntza
senarrak jakin dezan
zer den alarguntza.

Eta erromeria bizigarriak. Lajarekin oraingoan.

Trikitiaren mirari
dantza lotuen magoa,
oraindik hor dabil bere
irribarrezko haloa.
Hastean zein amaitzean
zabaltzen da berbaroa:
“Hau poza, Laja badator!
Hau pena, Laja badoa!”.

Genero tradizionalak, modernoa izateko, ideia batzuk aldatzea besterik ez du behar.

Meridianoa Greenwich
hortxe nonbait sortu nintzen.

Heriotzak ez nau maite
lurpean behar ez naute.
Derrigorra denez gero
biziko naiz elegante.

Hil behar bada, hilko gara, baina azken bat aurreikusteak ez dauka zertan zapuztu aurreko izate egiazko hau. Bizitzeko jaio ginen, ez hiltzeko. Bizi bizitza nola balitza jaiotze etengabe bat”.

Kontzertu bakoitza neure interbentzio batekin hasten zen. Emanaldiari sarrera bat egiten nion a capella, zegokion hiri, herri edo tokiaren erreferentziekin. Ondoren datozenak nik parte hartu nuen kontzertuetako sarrera-koplak dira. Kopla hauek - batzuetan porru-koplak, beste batzuetan porru-koplen eta jota-koplen konbinazioak- ez dute beti neurri berbera. Silaba baten labur-luzea ager daiteke. Gorabehera hori erabilitako doinuen arabera gertatzen da. Bestalde, koplak batzuk maiz errepikatzen dira, edozein sarreratarara egokitzen baitira. Errepika horiek ez ditut kendu, bestela kontzertu bakoitzaren sarrera osotasun zentzuzko bat gabe geratuko bailitzateke. Azkenik, koplak kantatzean, puntuak errepikatu egiten dira, era jakin batean eta doinuen arabera. Joko horren berri badaki irakurleak, eta ez ditut hala idatzi, behin edo behin izan ezik.

CAMPOS ANTZOKIA

1)
Ederra zaude, Kanpos!
Gabon, gure Bilbo!
Zin dagizut bi orduz
ez zarela hilgo.

2)
Ongi etorri zuek
hutsuneak barne.
Hoiiek dira harreman
iraunkorren berme.

3)
Ez nabil bat-batean
baizik bat-bikoan.
Hirukoa bizi da
zeru betikoan.

4)
Hirutik gorakoak
dauzkat paperean.
Nire sena baitabil
zereko zerean.

5)
Asperten dena izan
gaberik ergela
talentua dutenek
goza dezatela.

6)
Erromeri klase hau
ez da derrigorra.
Ateak noranahiko
zabalgarrri horra.

7)
Ez dago zertan hankak
arin-arin bota.
Egon lasai, hau ere
amaituko da ta.

8)
Askatasun osoa
eskaintzen dizuet.
Ni neu laster banoa
ta hor konpon zuek.

9)
Barka! Askatasunak
badu mugarik hor.
Korrontzi entzun behar
duzue derrigor.

10)
Derrigorra gutxitan
ohi da askatzaile.
Gaur bai gertatuko da
mirari hori ere.

11)
Hiru eta hiru sei
bat eta bat zortzi
bederatzigarrena
badator Korrontzi!

12) Diskoaren izena
dela «Koplariak».
Olatu baten datoz
«Korrontzilariak».
«Koplariak»
«Korrontzilariak».
Diskoaren izena
dela «Koplariak».

GASTEIZ

1)
Gau on, Gasteiz zabala
edo Bitoria!
Bata bezain bestea
gure historia.

2)
Zuk, Andre Mari Zuri
edo zuk, Zeledon!
Emaiozue urte
txar honi azken on!

3)
Arabako lautada
dagonean laino
arnasa sentitzen da
belaunetaraino.

4)
Jasmin bat ezpainean
liana bat gerrian
Babazorroak dantzan
pataten erdian.

5)
Ongi etorri denok
hutsuneak barne.
Hoiek dira harreman
iraunkorren berme.

6)
Erromeri klase hau
ez da derrigorra.
Ateak noranahiko
zabalgarrri horra.

7)
Ez dago zertan hankak
arin-arin bota.
Egon lasai, hau ere
amaituko da ta.

8)
Askatasun osoa
eskaintzen dizuet.
Ni neu laster banoa
ta hor konpon zuek.

9)
Barka! Askatasunak
badu mugarik hor.
Korrontzi entzun behar
duzue derrigor.

10)
Nahiz derrigorra nekez
izan askatzaile
gaur bai gertatuko da
mirari hori ere.

11)
Hiru eta hiru sei
baga biga zortzi.
Disko berriarekin
dator gaur Korrontzi!

12)
Diskoaren izena
dela «Koplariak»,
olatu baten datoz
«Korrontzilariak».
«Koplariak»
«Korrontzilariak».
Diskoaren izena
dela «Koplariak».

MADRIL

1)
Gau on, Madrilgo lagun
lehengo ta oraingo!
Izan gabeak ere
gaurtik bai izango.

2)
Erronka hau nahi dugu
sakonkien goza.
Erronka bat da, baina
batez ere poza.

3)
Ongi etorri zuek
hutsuneak barne.
Hoiiek dira harreman
iraunkorren berme.

4)
Ez dut aurreratu nahi
zer datorkizuen
dena bukatu arte
iraun dezazuen.

5)
Gero ez bazaudete
txalotzeko oldez
jotzen ahal gaituzue
distantzia gordez.

6)
Bost eta lau bederatzi
bikoiztu ta hamazortzi.
Bere lan berriarekin
indartsu dator Korrontzi!

EIBAR

1)
Gabon, Eibar ta zure
inguru noblea!
Famaz onena eta
izatez hobea.

2)
Zu zara aurrerapen
ugarien ikur
beti ibili dena
berrikuntzatik hur.

3)
Euskal Herrian zu beste
gutxi harrotu daitezke.
Gipuzkoa-Bizkaiaren
gerria izan zintezke.

4)
Futbolean be milagro
bat zarela argi dago.
Munduko handien pare
eta batzutan gehiago.

5)
Ongi etorri zuek
hutsuneak barne.
Hoiiek dira harreman
iraunkorren berme.

6)
Herri bat bizi dadin
osoki ta aske
bere musikak ezin
huts egin dezake.

7)
Arraten gora zozoa
Untzaga plazan usoa.
Alegrantziaz gainezka
dator gaurko gau osoa.

8)
Ezin dizuet esan
zer datorkizuen
azkenera arte hortxe
iraun dezazuen.

9)
Gero ez bazaudete
txalotzeko oldez
jotzen ahal gaituzue
distantzia gordez.

10)
Bost eta lau bederatzi
bikoiztu ta hamazortzi.
Bere lan berriarekin
hemen duzue Korrontzi.

HONDARRIBIA

1)
Gabon, Hondarribia!
Zer moduz, Hondarbi?
Jaizkibelen oskarbi
Txingudin zohargi.

2)
Munduak zauzka herri
parerik gabetzat.
Zer ote zara bertan
bizi direnentzat!

3)
Ongi etorri zuen
hutsuneak barne.
Hoiek dira harreman
iraunkorren berme.

4)
Ez nabil bat-batean
baizik bat-bikoan.
Hirukoa bizi da
zeru betikoan.

5)
Aspertzeko aukera
ere libre dela
talentua dutenek
goza dezatela.

6)
Herri bat bizi dadin
osoki ta aske
herri-musikak ezin
huts egin dezake.

7)
Ez dut aurreratu nahi
zer menu duzuen
dena bukatu arte
iraun dezazuen.

8)
Gero ez bazaudete
txalotzeko oldez
jotzen ahal gaituzue
distantzia gordez.

9)
Hiru eta hiru sei
baga biga zortzi.
Disko berriarekin
dator gaur Korrontzi!

10)
Diskoaren izena
dela «Koplariak»
olatu baten datoz
«Korrontzilariak».
«Koplariak»
«Korrontzilariak».
Diskoaren izena
dela «Koplariak».

ATARRABIA

- 1) Gabon Atarrabia
nahi bada, Villaba!
Aldea ere ez baita
baizik bi silaba.
- 2) Fusio bat eginik
Gabon, Billabia!
Zu zara gure gaurko
lehen miraria.
- 3) Bigarren miraria
da Iruñerria
bihurtu nahi duguna
gaur Iruin-Irria.
- 4) Hor iruditzen ditut
entzule lagunak
ziur bainaiz direla
asko ezagunak.
- 5) Beste mirari bat egun
zeinen bitxia daukagun!
Kilometro koadro baten
hamar mila bizilagun.
- 6) Hemen mirari nausiak
dira herriko graziak
nola salbatzen dituzten
covidaren distantziak.
- 7) Ongi etorri zuek
hutsuneak barne.
Hoiek dira harreman
iraunkorren berme.
- 8) Herri bat bizi dadin
osoki ta aske
bere musikak ezin
huts egin dezake.
- 9) Nahiz agian atera
nola hala gauzak
gaur dena salbatzen du
“gorritxoek” pozak.

(Ordu batzuk lehenago,
Osasunak irabazi zuen).
- 9) Nafarroa, Nafarroa!
Arranoen abarrea.
Biba bere jota eta
bere izate braboa.
- 10) Aralar edo Irati
gure olinpoak izaki.
Haien itzaletik gatoz
apalki, baina basaki.
- 11) Bost eta lau bederatzi
bikoiztu ta hamazortzi.
Bere lan berriarekin
hemen duzue Korrontzi.

ANDOAIN

1)
Errespetuan gabon!
Zer moduz, Andoain?
Izango ote gara
zu gozatzeko lain?

2)
Izena hain daukazu
gozo eta ozen
non bera ahoskatuz
nekatzen ez naizen.

3)
Izenetik izana
urrun ez dabilke
biak bat izatea
ere eska leike.

4)
Banaka ikustea
da hautu askea
gure lana da biak
sentiaraztea.

5)
Izen-izanen dohain bik
zer duten dudan oraindik?
Guztia argitu arte
ez goazke Andoaindik.

6)
Nola goitik erorian
Leitzaran sartzen Orian
hala sartu ohi da gure
etorria memorian.

7)
Ongi etorri zuek
hutsuneak barne.
Hoiiek dira harreman
iraunkorren berme.

8)
Ez dut aurreratu nahi
zer datorkizuen
bukatu arte hortxe
segi dezazuen.

9)
Gero ez bazaudete
txalotzeko oldez
jotzen ahal gaituzue
distantzia gordez.

10)
Adarrak dio onbera:
“Zatoz pixka bat honera”.
Buruntzak dio: “Geldi hor!
Non hobeki egongo zera?”.

11)
Bost eta lau bederatzi
bikoiztu ta hamazortzi.
Bere lan berriarekin
indartsu dator Korrontzi!

ARETXABALETAKO

1)
Gabon, errespetuan
Aretxabaleta
edozeinen gogoko
plaza zara eta.

2)
Izen kontudentea
daukazu benetan
altzairuzko xafla bat
bezala oinetan.

3)
Zorionez baduzu
baita Atxabalta
gozotasun ozen bat
ez zaiona falta.

4)
Izen xarmagarria
malgu ta biguna
herri baten izana
islatzen diguna.

5)
Goian-goian Kurtzebarri
behian-behian batzuk larri.
Bitartean sartzen gara
nahi dutenen bizigarri.

6)
Urkuluko ur joria
Elgeatik eroria.
Han batzen dira askoren
goibela ta euforia.

7)
Auzoak bederatzi
eta baserriak
Ehun da berrogeita hamar
nik irakurriak.

8)
Bertan bizilagunak
hirurehun pasatxo
batez beste bi lagun
etxe bakotzeko.

9)
Baserriko gizartea
badoa itxiz atea.
Argi da kalea dela
orain gure izatea?

10)
Ongi etorri denok
hutsuneak barne.
Hoiiek dira harreman
iraunkorren berme.

11)
Ez dut aurreratu nahi
zer datorkizuen
bukatu arte hortxe
segi dezazuen.

12)
Gero ez bazaudete
txalotzeko oldez
jotzen ahal gaituzue
distantzia gordez.

13)
Bost eta lau bederatzi
bikoiztu ta hamazortzi.
Bere lan berriarekin
hemen duzue Korrontzi.

GETXO

1)
Gabon, errespetuan
Getxo handi honi!
Aretoan islatzen
handitasun hori.

2)
Musikaldi handiak
Getxon izan dira.
Guk apal jo nahi dugu
txikitik handira.

3)
Hain herri handia ta
silaba bikoa
bigarrena gainera
diminutiboa.

4)
Guk lehenengo silaba
behar dugu egun
Getxoren G puntua
lekuan jo daigun.

5)
Kontuz! Gure puntua
ez da ohiko ezein
baizik G musikala
adibidez, Gerswin.

6)
Pentsaturik hain egoki
edo ekitatiboki
Getxok zazpi auzo ditu
ta zazpi metro-geltoki.

7)
Hurrengo berritze lana
litzake obra andana
zazpi auzoetan nola
banatu geltoki bana.

8)
Eskerrak hor doala
Gobela ibaia
badakiena nondik
burutu bidaia.

9)
Badaki baita inoiz
kaleak itotzen
mendekatzeko zenbat
lohi sartzen dioten.

10)
Getxoren kanpo soslaian
oso zabal da Bizkaian
hemengo bazterren baten
beti dagozela jaiian.

11)
Kiroi-portu bat kai hortan
bada bitxia Algortan
ibiltzeko bizikletan
futbolean da pilotan.

12)
Ezin dizuet esan
zer datorkizuen
azkenera arte hortxe
iraun dezazuen.

13)
Gero ez bazaudete
txalotzeko oldez
jotzen ahal gaituzue
distantzia gordez.

14)
Bost eta lau bederatz
bikoiztu ta hamazortzi.
Bere lan berriarekin
indartsu dator Korrontzi.

LEGORRETA

1)
Gabon, Legorretako
herri maitagarri!
Azintzioek lotu
gaituzte elkarri.

2)
Errepide ta ibai
mendi eta kale
behar den guztiakin
osaturik zaude.

3)
Mendietan baduzu
hainbat izen haundi
Igetagain edota
Astolokomendi.

4)
Izenok letu ditut
gaur internetean
baita ere sinistu
begiak betean.

5)
Iritsi naiz honera
ta esan didate:
hik dioken izenik
ez dut hemen bate.

6)
Hau marka!, pentsatu dut
argibide nahian.
Beste Legorreta bat
ote da Bizkaian?

7)
Hala esan didate:
Gure Legorretan
beste izen batzuk zeudek
mendi tontorretan.

8)
Bilkoimendi, adibidez
edo Itzaieta.
Zertako esan gehiago
ahaztuko zaik eta.

9)
Ba, orduan, faborez
egizue era
zuzentzeko interneta
edo herria bera.

10)
Legorreta izena
ezin dut ulertu
atzean Itsasondo
egonik hain gertu.

11)
Izenek esanahi bat
badakarte lehendik
itsasoa airean
pasa zen hemendik.

12)
Ba, gaur gorago gatoz
musika ta dantza
Azintzioei eman
nahirik beren antza.

13)
Hiru eta hiru sei
baga biga zortzi.
Maiatzak gaur hamasei
zuekin Korrontzi!

URDULIZ

- 1) Gabon, Urduliz eta entzulego maite!
Gozamen baterako preparatu zaite.
- 2) Nahizta virusak asko kendu zoritxarrez gaurko gaua ez digu kenduko hain errez.
- 3) Musikan gatozenez badut gomuta bat aipatu gabe ezin utzia baitaukat.
- 4) Izen mitiko bat zen Mixel Labeguerie jarri gintuna bere kantez gori-gori.
- 5) Haren diskoa izan zen astindu osoa apurtzailea eta baita ere gozoa.
- 6) Frankismo gordinean lan hura sortzean eztanda bat izan zen gure bihotzean.
- 7) Disko debekatua ta pertsegitua entzute hutsa ere baitzen delitua.
- 8) Eta lehenengo aldiz gaztea bainintzen non entzungo ta entzun nuen Urdulizen.
- 9) Urdulizko elizan meza barri bat zan eta kanpandorretik disko hura martxan.
- 10) Inguruan guardia zibilak ugari ezin fede eman ez entzuten zenari.
- 11) Meza barria elizan kanpoan diskoa emozio bikoitza izugarrizkoa.
- 12) Eguen hontan, hain zuzen izan da betea Labeguerie jaio zen ehungarren urtea.
- 13) Abadea zen Gotzon Garitaonaindia Urdulizko seme ta figura handia.
- 14) Euskaltzale sutsua kantari ozena gaixo txar batek jota gazterik hil zena.
- 15) Ez neukan gaur patxadarik ez eta alai-gurarik sentimendu hauek denak zuei hemen jaurti barik.
- 16) Saio hau, beraz, zilegi bada, omentzeko bedi Gotzon Garitaonaindia eta Mixel Labeguerie.
- 17) Lau eta bost bederlatzi bikoiztu ta hamazortzi. Bere lan berriarekin indartsu dator Korrontzi!

ATAUN

1)
Agauntza ibaiaren
ezker ta eskubi
zazpi zubi eginez
kaixo, Ataun, zuri!

2)
Ez gentozen noranahi
baizik Ataunera
Gipuzkoako herri
luzeena bera.

3)
Pentsatzen jarritz gero
normala hori da
«otsoak» ibiltari
handiak baitira.

4)
Ondo moldatzen dira
urterik erdian
otsoak kalean da
ardiak mendian.

5)
Gero ardiak neguan
herrira jeistean
kontuak zailtzen dira
baina ez hainbestean.

6)
Kalkulatua dute
guztia neurrira
otsoak negurako
jentil bihurtzen dira.

7)
Argi ez dagona da
santuen atala
Martin ala Gregorio
zein den printzipala.

8)
Lehenago nola nintzen
ni apaiz ibili
kariño gehio diot
Santa Ixabeli.

9)
Aiatik hor egon naiz
gaur ere ikusmiran
otsoak jentilekin
nola nahasten diran.

10)
Hemen halako zerbait
dator ondorena
ikuskitun mistoa
jentil otsoena.

11)
Otsoak dantzan eta
jentilak musikan
pentsa dezakezue
Basajauna zein dan.

12)
Hiru eta hiru sei
baga biga zortzi
Harri Arotik bueltan
hemen da Korrontzi.

«Otsoak»: ataundarren goitizena

BERRIZ

1)
Arratsalde on, Berriz
maite dogun herri!
Ondo etorri zuek
jente maitagarri!

2)
Dana ez da kontua
pandemiarena.
Gaur tokatzen da martxa
eta gozamina.

3)
Pixkat urduri nago
edo nerbioso
garbiago esanda
pixkat oso-oso.

4)
Neure buruagaitik
ez da hainbesterik
taldeagaitik nago
arduraz beterik.

5)
Esan neutsen: “Berrizen
ez dago bromarik.
Hemendik ezin joan lei
odola emon barik”.

Eta eurek:

6)
“Zer dago, ba, Berrizen
hain espezialik?”.

Eta nik:

“Geldituko zarie
agoa zabalik”.

Ba, ENTZUN!!

7)
“Musikariak doguz
perretxikoak lez.
Dantzan ez dakienik
barriz bat bera b’ez.

8)
Onenak izatea
ez dogu nahikoa.
Beste zerbait behar da
hortik gorakoa”.

9)
Ikara sartu jaken
gauza horrek entzuten.
Animatzeko esan
behar izan neutsen:

10)
“Etorri lasai! Eztok
horrenbesterako!
Egur pixkat bakarrik
espabilletako.

11)
Zenbat artista hemendik
pasatu diranak!
Orain arte bizirik
itxi doguz danak.

12)
Bildurtu ziran, baina
atrebitu dira
hor dagoz noiz urtengo
albotik begira.

13)
Hiru eta hiru sei
baga biga zortzi.
Kantu, musika, dantza
hemen da Korrontzi.

EUSKALDUNA B

1)
Arratsalde on, Bilbo
eta Euskalduna
bat zein beste indarrez
bete ohi gaituna.

2)
Bilbo eta Euskalduna
agurtu ditugu.
Ba, gaur bien batura
gozatuko dugu.

3)
Zuk zara, Euskalduna
mito bat izana.
Gaur justifikatuko
dizugu izena.

4)
Ongi etorri denok
hutsuneak barne.
Hoiek dira harreman
iraunkorren berme.

5)
Erromeri klase hau
ez da derrigorra.
Ateak noranahiko
zabalik horra.

7)
Ez dago zertan hankak
arin-arin bota.
Egon lasai, hau ere
amaituko da ta.

8)
Gaur da domeka gardena
baina bihar astelehena.
Eskerrak katean hortxe
datorrela martitzena.

9)
Dohatsu aske batetik
egun jarraien katetik.
Ni horrelaxe bizi naiz
zuen berririk ez dakit.

0)
Hemen askatasun oro
zuentzat ere hor bego.
Gura duenak jo txalo
eta gura duenak lo.

11)
Barka! Askatasunak
badu mugarik hor.
Korrontzi entzun behar
duzue derrigor.

12)
Nahiz derrigorra nekez
izan askatzaile
gaur hemen jazoko da
mirari hori ere.

13)
Hiru eta hiru sei
baga biga zortzi
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!
Korrontzi
baga biga zortzi!
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!

BILLABONA

1)
Amasa-Villabona
edo alderantziz.
Gau on biei gogoa
doblean erantsiz.

2)
Tolosa izan omen zen
Villabona noizbait.
Noiz ere esan didate
baina ahaztu egin zait.

3)
Kontua da gaur hemen
herri nahiz erbeste
festak bildu gaitula
bestek ez hainbeste.

4)
Atzo atzo zelako
bezperak gaur dio
bezperak dio bihar
dala Santio.
Ai, oi, ai!
Bezperak dio.
Atzo atzo zelako
bihar da Santio.

5)
Zeloak zabaltzera
ez naiz etorri ni
Agur eta ohore.
baita San Martini. Ai, oi, ai!

6)
Ai, gure Villabona!
Lehenago zer bitxi!
Zioten “Le petit Paris”
edo Paris Txiki. Ai, oi, ai!

7)
Lerdena edo guapoa
norbait bazen halakoa.
Esaera bat zen: “Berez
behar Billabonakoa”.
Lerdena edo guapoa
“Berez Billabonakoa”.

8)
Udaberri, azal berri
Elegantziaren herri.
Sosa ere beharko zen
Paristik edo ekarri.

9)
Agian elegantzia
ez baita gure jantzia.
Ordainez ekarri dugu
Bizkaiko alegrantzia.

10)
Zubi baten izena
hor Zubimusu da.
Gaur hurbilduko gara
musutik musura.

11)
Zubi baten izena
bada Zubimusu
agian esan nahi du
zuri bi musu. Ai, oi, ai!

12)
Hemen ere aukera
bikoitza dago
nahi duenak jo txalo
nahi duenak lo. Ai, oi, ai!

13)
Hiru eta hiru sei
baga biga zortzi
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!
Ai, oi, ai!
Baga biga zortzi!
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!

SORALUZE

1)
Bai poza Soraluze
zapaltzea berriz
beti luze-luzea
umore egarriz.

2)
Hemen miraria da
gauza normalena.
Atzo domekia zan
ta gaur astelehena.

3)
Hemen eskura dute
miraria beti.
Sorluzen eseri
ta Plaentxin jeiki.

4)
Detaile baten dauka
oraindik faltia
luzia dan tamainan
zabala izatia.

5)
Jarlekuak, dantzariak
hortxe bizi-bizi.
Lasai, ze huts ein arren
ez da nora jausi.

6)
Txurruka ta San Andres
Ezoz, Irure.
Lau izen maitagarri
nire, zure, gure. Ai, oi, ai!

7)
Lau izen maite eta
goian Karakate
Aginduz: "Segi hortxe
neuk esan arte". Ai, oi, ai!

8)
Arma-herri ospetsuena
izana da lehen zuena.
Gure arma bakarra da
tristura hiltzen duena.

9)
Ibai batek ondo daki
herria nola ebaki.
Edo garbiago esanda
nola elkartu bi zati.

10)
Orain bi mendeko eran
berdin ur-goran zein beheran
zubitik Plaentxin salto
ta bainatzen ziren Deban.

11)
Ibaira salto eta
han bizi-bizirik
gero sikatzen ziren
zubitik zintzilik.

12)
Arazo bakarra zen
ez zela igartzen
nor zegoen sikatzen
eta nor urkatzen. Ai, oi, ai!

13)
Hemen ere aukera
bat bider bi dago.
Nahi duenak jo txalo
ta nahi duenak lo. Ai, oi, ai!

14)
Hiru eta hiru sei
baga biga zortzi.
musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!
Ai, oi, ai!
Baga biga zortzi!
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!

BERASTEGI

1)
Kaixo, Berastegi ta
berastegiarrak!
Hemen uztera gatoz
gaur gure giharrak.

2)
Herri honen izena
ezta huskeria
Berastegia edo
aberastegia.

3)
Herria sortu bazen
aberatsen kargu
oraindik ere zerbait
geratu behar du.

4)
Auzoak bat, bi, hiru
hamahiru iritxi.
Arrautzak izateko
ere ez dira gutxi.

5)
Zenbakiak fraideen
dozena irudi du
emateko hamaika
hartzeko hamahiru.

6)
Berastegik ba omen
ditu mila urte.
Ba, nik askoz gehiago
esango nuke.

7)
Jesukristo testigu
daukagu kasuan.
Goizuetara bidean
hemen lo egin zuan.

8)
Misterio batek nakar
orain intrigatu samar
nola dagoen eliza
hain aparte eta bakar.

9)
Hontatik edo hartatik
zein urrundu zen ez dakit
eliza bera herritik
ala herria elizatik.

10)
Badaukat hipotesia
lau edo bost alegia
izan daiteke bat ere
ez izatea egia.

11)
Nahiz zuek egia jakin
niri argirik ez egin.
Nahiago dut jarritzea
neure hipotesiekin.

12)
Hemen ere aukera
bat bider bi dago.
Nahi duenak jo txalo
ta nahi duenak lo. Ai, oi, ai!

13)
Hiru eta hiru sei
baga biga zortzi
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!
Ai, oi, ai!
Baga biga zortzi!
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!

LIZARRA

1)
Zer nola Lizarrako
entzule mardula?
Uste dut gaur fortuna
alde daukagula.

2)
Ez dugu maiz aurrean
honenbeste jende
ia jartzen gaituna
beldurraren mende.

3)
Zer nongo beldur eta
zer pandemonio!
Egunak azken ona
emateko dio.

4)
Ongi etorri denok
hutsuneak barne.
Hoiek dira harreman
iraunkorren berme.

5)
Duela milaka urte
milioika izan liteke
lizar eder bat hor bazen, ai!
haran hau zuena bete.

6)
Lizarraren lodiera
zabaldua zen airera.
Tokia jango ziola
beldurtu zen ibai Ega.

7)
Gerri bat biltzen uztaiak, ai!
halaxe Ega ibaiak.
Inguratzen du lizarra, ai!
libre utzirik sustraiak.

8)
Noiz dator Harri Aroa
ibaia geldi badoa?
Lizarra etzan zen eta
geratu zen meandroa.

9)
Ibai aldean lizarra, ai!
hari begira izarra.
Ortziak bakarrik daki, ai!
noiz sortu zen hiri zaharra.

10)
Sortu zen, sortu bazen
sakon eta zabal
hain monumental eta
ez baita neurtzen ahal.

11)
Urbasaren ederrak
utzi gaitu harri.
Lizarra zapaltzean
hau bai harrigarri!

12)
Ez dut aurreratuko
zer datorkizuen
amaitu arte hortxe
iraun dezazuen.

13)
Gero ez bazaudete
txalotzeko oldez,
jotzen ahal gaituzue
distantzia gordez.

14)
Hiru eta hiru sei
baga biga zortzi.
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi.
Ai, oi, ai!
Baga biga zortzi.
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi.

ARTEA

1)
Goren-goren Gorbeia
ondoan Lekanda.
Arteako asaben
gogo bertan da.

2)
Murga, Bikotzgane ta
pareko izenak
apalagoan bardin
maite doguzenak.

3)
Barrean Artea
gaur gure arrazoi
Arratia banantzen
ezker eta eskoi.
Arrasti on, Artea
gaur gure arrazoi!

4)
Orozko, Zeberio
hara edo handik
pasau beharra dago
derrigor hemendik.

5)
Dan-danak be eztire
pasetan-pasetan.
Baten bat beti jagok
hemen terrazetan.

6)
Artea ezpal handiko
bateko, lauko zein biko.
Errespetoz gaur kantatu
behar geunke belauniko.

7)
Maurizia, Maurizia!
Ahots grabe, biluzia.
Munduari itxi zeuntsan
garen arteko grazia.

8)
Karakolen albokea
Leon Bilbaoren jotea.
Maurizia ta Fasio
Ha zoan ha laukotea!

9)
Astoa belarri-tente.
Gu be hementxe presente.
Zer nor garen ikusiko
gaituzue derrepente.

10)
Zuentzako aukera
bikotxa dago.
Gura dauenak txalo
gura dauenak lo.
Ai, oi, ai!
Bikotxa dago.
Gura dauenak txalo
gura dauenak lo.

11)
Hiru eta hiru sei
baga, biga zortzi.
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi.
Ai, oi, ai!
Baga, biga zortzi.
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi.

LEMOA

1)
Gabon, Lemoa eta
bere ingurua
inguru hori izan
leiteke mundua.

2)
Mundu hortan leku bat
badagola dinot
beteko ez dauena
geuk ez beste inok.

3)
Lekua inok kentzea
litzake tristea
tristeena halan be
norberak iztea.

4)
Leku hori, hain zuzen
gaur dogu Lemoa.
mundu bat sortu barik
hemendik enoa.
Berton hilten ez bada
asto berenoa.

5)
Izan bertoko edo
izan mundutarrak
bietarako dira
soinu ta gitarrak.
Dudea dagonean
gora gu ta gutarrak!

6)
Arratian sartueran
eta bardin urtekeran
pentsatu ohi dot Lemoa
Manhattan bat ez ete dan.

7)
Herriaz jabetu naiten
hasi naz oinez ibilten.
Kostatu jat Lemoari
buelta oso bat emoten.

8)
Luzean Gran Via beste
zabalean beste hainbeste.
Hasi zeinkeze metroa
honaino ekarteko eske.

9)
Hemendik Manhatta(ne)raino
ez dago salto bat baino.
Eskerrak hor dagozela
Lemoatx eta Arraño.

10)
Zuentzako aukera
bikotxa hemen dago.
Gura dauenak txalo
gura dauenak lo.
Ai, oi, ai!
Bikotxa hemen dago.
Gura dauenak txalo
gura dauenak lo.

11)
Hiru eta hiru sei
baga, biga zortzi.
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi.
Ai, oi, ai!
Baga, biga zortzi.
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi.

BALMASEDA

1)
Gabon, Enkarterriak!
Gabon, Balmaseda!
Arrunta bada ere
hauxe da hasera.

2)
Altzarien herria
ospetsu zuena.
Gure denda guztia
da musika tresna.

3)
Salgai daukagu dena
prezio justuan.
Justua da pare bat
milioi eskuan.

4)
Aurretik utzi baina
kontzertua jotzen
zeren horretarako
asmoz baigetozen.

5)
Antzokiak eliza
elizak antzoki
infernuko hauspoagaz
dena da egoki.

(Klaret eliza izan zen)

6)
Gustatzen bazaizue
gure oparia
gero geure kontura
barau-afaria.

7)
Kontuz! «Barau» esan dut
ez dut «bare» esan.
Dena dela, bakoitzak
hautatu zein izan.

8)
Ez ederra, ez zitala
bihotzak eman dit hala
belauniko korritzea
hain hiri monumentala.

9)
Kolitza gain-biribila
Edertasun baten bila.
Oinetan duzu munduko
zortzigarren marabila.

10)
Hemen badira erosi
ezin litezken bi grazi:
Pasio Santuan hazi
ta paradisuan bizi.

11)
Pozik gagoz Balmasedan
etorriak nola segan.
Lasai, ze joango gara
nahizta ez dakidan zelan.

12)
Zuentzako aukera
bikotxa hemen dago.
Gura dauenak txalo
gura dauenak lo.
Ai, oi, ai!
Bikotxa hemen dago.
Gura dauenak txalo
gura dauenak lo.

13)
Hiru eta hiru sei
baga, biga zortzi.
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi.
Ai, oi, ai!
Baga, biga zortzi.
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi.

ORIO

1)
Gau on, Orio eta
Orio inguru!
Gaur atsegin on batez
aseko zaitugu.

2)
Musikan gatoz zuek
atxiki beharrik
kosterra hau ez baita
arrauna bakarrik.

3)
Horrekin, noski, ez dut
esan nahi izan nik
arrauna herri honen
ikurra ez danik.

4)
Arraun gabe Orion
zertaz behar da hitz?
Zer litzake arrauna
Orio ez balitz?

5)
Eskuak arraunean
arrauna uretan
ura nagusitzen da
munduaren bueltan
zikinkeriak hiltzen
ez badigu bertan.

6)
Aita Mari, Aita Mari
Zure zelaia Kantauri.
Kantari gatoz bai zuri
bai Orioko baleari.

7)
Gero balearen faltan
nondik bizi ta nolatan
handitik txikira juaz
hasi ziran angulatan.

8)
Anguleruen jarduna
balitza urritzen juna
badaezpada jarri zuten
bixiguaren eguna.

9)
Nahiz altuan, nahiz baju
arrantzan noranahi jua.
Gauza da Orion beti
bizi dirala lujuan.

10)
Ekitaldi hau ere
dator luxu handiz
ikuskitzen anitzez
arte alaigarriz.

11)
Aukera ere bertan
luxuzkoa dago
nahi duenak jo txalo
ta nahi duenak lo. Ai, oi, ai!

12)
Hiru eta hiru sei
baga biga zortzi
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!
Ai, oi, ai!
Baga biga zortzi!
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!

LEIOA

1)
Gabon, Leioa eta
auditoriuma
gaur atseginez bete
gura zaituguna.

2)
Atsegin horixe da
musikaren funtsa
Leioan dana ez da
gela ta campusa.

3)
Halan bere uste dogu
osmosien legez
herri honek kultura
behar dau nahitaez.

4)
Gure kultura ez da
nor azken, nor lehena
baizik dibertsinoa
eta gozamina.

5)
Herri bat ezagutu
herritarrak maite.
Dibertsino hobarik
guretzat zer laite?

6)
Leioa ezagutzea
bada nahiko galga
auzorik auzo hasi
ta galdu ein gara.

7)
Ondiz, Artetxe, Artatza ...
Hogeta hamarreen altza!
Banan ez zan erreza ta
dozenaka bere gatxa.

8)
Hain da izan be hau herri
zer handi ezin igerri!
Gaur jakin dugu Leioan
dagoala Txorierri.

9)
Ez dakit zer mirari zan
herrian edo elizan.
Txorierri bertan euki
ta Uribe Kosta izan.

10)
Hori nahikoa ez eta
hor dator bigarren buelta.
Lehenago ba ei zan hemen
baita Aretxabaleta.

11)
Bai dala horixe izen
luzea polita baizen!
Ez larregi harrotu ze
beste bat dago Gasteizen.

12)
Gure harrotasuna
orain datorrena
ziur maitakorrena
igual jatorrena.

13)
Ganera hemen aukera
eroso bat dago
gura dauenak txalo
gura dauenak lo.

14)
Hiru eta hiru sei
baga biga zortzi
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!
Ai, oi, ai!
baga biga zortzi!
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!

SOPELA

1)
Gabon, Sopela eta
inguruko jente!
Martxea jari behar
dogu derrepente.

2)
Musikan animoso
gatoz gaur jo ta ke.
Txopel sari bategaz
bueltau gura geunke.

3)
Zer dala Txopela ta
ez dala txapela!
Txopela dala esan
deuskue Sopela.

4)
Beraz, ondo etorri
gaur txopeloztarrak.
Zuen txaloak dira
guretzat oscararak.

5)
Historia bat kontau barik
ezin dot joan hemendik.
Zer dan bera azaldu ezik
errementauko neuke nik.

6)
Frankismo latzaren denporan
herri honen itsasgoran
abadeentzat kartzela bat
zabaldu zeurien Zamoran.

7)
Nor izan bat haietakoa
zeuen hurre-hurrekoa.
Don Nikola Telleria
Sopelako parrokoa.

8)
Ikastolaren sortzaile
langile ta abertzale.
Bere bustoa han dago
Ander Deunaren zaintzaile.

9)
Gaixotu zan espetxean
euki zeurien sei urtean.
Azkenetan libratu ta
hor hil zan bere etxean.

10)
Sutera adi ikoa
esanda dago nahikoa.
Danok daukagu hemen geure
memoria historikoa.

11)
Gatozen orain barriz
erromeriara
musika ta kantura
etorri baigara.

12)
Gure aukerea da
izerditan blaitu
ta gero lasterketa
nudistan amaitu.

13)
Zuentzat bere aukera
bikotxa hemen dago
gura dauenak txalo
gura dauenak lo. Ai, oi, ai!

14)
Hiru eta hiru sei
baga biga zortzi
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!
Ai, oi, ai!
Baga biga zortzi!
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!

MUNGIA

1)
Gabon, Mungia eta
inguruko jente!
Olalde sutu behar
dogu derrepente.

2)
Musikan gogoz gatoz
gaur bere jo ta ke.
Zuek pozik itxita
bueltau gura geunke.

3)
Lelengo ta behin danoi
bihotzez eskerrak.
Zuen txaloak dira
guretzat oscarak.

4)
Mungiako kaleak
larogei ta zazpi
kontateko hartu dot
behar beste asti.

5)
Kale bakotxa bada
bostehunen bat lagun
Herri osoa zer dan
kontu egin daigun.

6)
Wikipedian txarto
badago jarria
badakizu zer egin:
Idatzi barria.

7)
Zozoak eta usoak
badira aldra osoak.
Pentsau al dozue zenbat
diran Mungiko auzoak?

8)
Atxuri edo Belako
eta beste ganerako
sei baino ez dira falta
pare bat dozenarako.

9)
Auzoetan hamazortzi
halan badogu ebatzi.
Mungialdeko herriak
berau eta bederatzi.

10)
Joaten banaz herriz herri
lotuko naz barregarri.
Ez naz hasiko zueri
erakusten zeuen barri.

11)
Zerutik errespetotsu
San Pedrok berak dinotsu:
«Neuk bere ni baino ia
gurago dot San Antontxu».

12)
San Pedro eta San Pablo
San Antontxu bertan dago.
Santurik gozatsuenak
San Lukainka ta San Talo.

13)
Gatozen orain barriz
erromeriara.
Musika ta kantura
etorriak gara.

14)
Zuentzat bere aukera
bikotxa hemen dago
gura dauenak txalo
gura dauenak lo. Ai, oi, ai!

15)
Hiru eta hiru sei
baga biga zortzi
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!
Ai, oi, ai!
Baga biga zortzi!
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!

ZUMARRAGA

- 1) Gabon, Zumarraga ta inguruko jende!
Atsegin osoz jartzen gara zuen mende.
- 2) Inguru hori zerbait zabal ba daiteke urretxuarren batzuk hemen behar dute.
- 3) Antzuola, Azkoiti Urretxu, Azpeiti Ezkio-Itsaso ta Gabiri, Legazpi. Horiek zuen muga ta gainera zazpi.
- 4) Bakoitzetik etorri baldin bada norbait besteek ere egon behar dute nonbait. Niri bide motxa ta ona komeni zait.
- 5) Maitagarriak gure hiri ta bazterrak. Gure aldetik denei bihotzez eskerrak. Zuen txaloak dira guretzat oscarrek.
- 6) Zumarragaren itzala Zergatik den hain zabala nik beti entzun dut Santa Luzia feria dala.
- 7) Zergatik Santa Luzia feriak daukan grazia? Astoa delako bertan ezaugarri nagusia.
- 8) Nik ez dakit hemen bertan ados zaudeten horretan ze hori beti entzun dut inguruko herrietan.
- 9) Astoa berez daukezu egoskor baina baketsu. Horrela konpontzen dira Zumarraga ta Urretxu.
- 10) Kanpaiak bere mingaina Izazpi mendi bikaina! Lastima da Zumarragan ez dagola bere gaina.
- 11) Izazpira bazoazte ez hasi gain horren eske. Urretxu ere ez da ta beraz, kontsola zaitzte.
- 12) Gatozen orain berriz erromeriara musika ta kantura etorriak gara.
- 13) Zuentzako aukera aproposa dago. Nahi duzuenak txalo nahi duzuenak lo. Ai, oi, ai!
- 14) Hiru eta hiru sei hiru bederatzi Musika, kantu, dantza hemen da Korrontzi! Ai, oi, ai! Hiru bederatzi! Musika, kantu, dantza hemen da Korrontzi!

BAKIO

- 1) Gabon, Bakio eta inguruko jente!
Herri hau sutu behar dogu derrepente.
- 2) Bakioaren inguru itsasoa dogu.
Igual bixiguren bat entzule daukagu.
- 3) Halan balitz duda bat daukat honakoa:
bixigu batek zelan jo leiken txaloa.
- 4) Zuek zelan txalotu ez egon zalantzan.
Berez urtengo'tsue sortuko dan martxan.
- 5) Gure aldetik danoi bihotzez eskerrak.
Eskuak min badira zaplatu izterrak.
- 6) Bakio ez da munduan entzute bakoa gaurkoa ez da izango edozelakoa.
- 7) Artza, Basigo, Bentalde Goitisol, Elexalde.
Zenbat dira Bakioko auzoak alderik alde?
- 8) Zubiaurretik begira ondino bi falta dira.
Urkitzaur, Gibelorratza ta heldu gara zortzira.
- 9) Antxinako San Pelaio orain doguna Bakio.
Sasoi baten ez zan oso gustora lotu Bermio.
- 10) Auzoen jira egina litzake parkaezina ez baneu hemen zelanbait aitatu txakolina.
- 11) Herrian eta kanpoan dabil guztien gogoan nahiz beharbada ez egon turista danen agoan.
- 12) Kantaurik txoko bat deko izatez bakardadeko.
Gero sarritan berau da Bizkaiaren epizentro.
- 13) Orain bai zuzen goazen erromeriara musika ta kantura etorriak gara.
- 14) Zuentzat hor aukera gustoko bat dago.
Gura dauenak txalo gura dauenak lo. Ai, oi, ai!
- 15) Halan be dinotsuet gaur dala kasue hemen lo egitea kostako jatzue. Ai, oi, ai!
- 15) Hiru eta hiru sei hiru bederatzi Musika, kantu, dantza hemen da Korrontzi!
Ai, oi, ai!
Hiru bederatzi!
Musika, kantu, dantza hemen da Korrontzi!

ANOETA

1)
Kaixo, Anoeta ta
inguruko jende!
Atsegin osoz jartzen
gara zuen mende.

2)
Inguru hori zerbait
zabal badaiteke
tolosar batzuk ere
hemen behar dute.

3)
Ingurua denboraz
ere atzeraturik
basagaindarrak hortxe
ikusten ditut nik.

4)
Billabona, Zizurkil
eta Asteasu.
Alkiza, Tolosa ta
Irura daukazu.
Baten bat falta al da?
Hernialde, aizu!

5)
Apirila martxan da
erleak loretan.
Kukurik ez dut entzun
oraindik etxe bueltan
sartu naiz hemen eta
dana «kukua» bertan.

(Anoetarren goitizena)

6)
Haurtzaroa eman nuen
txorien peskisan
bilatzen edo bizi
nahirik beren gisan.
Ez nuke nahi hementxe
txantxangorri izan.

7)
Pozik entzungo nuke
zuen kantu era
atseginez ematen
dizuet aukera.
Ba, pentsa ze bestela
ez goaz aurrera.

8)
Eskerrik asko zuen
borondate ona.
Bistan da goitizena
egoki dagona.
Pixkat entrenatuta
kukuen kanona.

9)
Anoetar kukuak
direla mutuak
horrek ere baditu
kontrako puntuak.
Ezin al dira izan
neguko kukuak?

(Inork ez zuen «kuku» kantatu)

10)
Orain zazpi mila urte
Gorosmendi, Belauriate.
Hemen jendea bizi zen
ahal zen eran, ahal zen arte.

11)
Zazpi mila urte eta
zuzen bada kontaketa
hiru urtez behin lagun bat
ugaldu da Anoeta.

12)
Kristo aurreko bostehunen
garaian berriz gu hemen.
Burnizko tresneria ere
zernahi egiten genuen.

13)

Bitarteko mendeetan
hutsunea Anoetan.
Iguale itzuliko ziren
Californiatik bueltan.

14)

Kontua da orain hemen
bi mila biztanle omen.
Hil arte bizitzeko ez da
behar hainbeste eromen.

15) Zazpi herrik, -zer suerte!-
Anoeta muga dute.
Zabiltzate kontuz zeren
inguraturik zaudete.

16)

Gatozen orain geure
erromeriara
musika ta kantura
etorriak gara.

16)

Zuentzako aukera
bipolarra dago.
Nahi duzuenak txalo
nahi duzuenak lo. Ai, oi, ai!

17) Hiru eta hiru sei

hiru bederatzi
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!
Ai, oi, ai!
Hiru bederatzi!
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!

ZIZURKIL

1)
Kaixo, Zizurkil eta
inguruko jende!
Atsegin osoz jartzen
gara zuen mende.

2)
Inguru hori zerbait
zabal baliteke
mugakide batzuek
hor behar lukete.

3)
Asteasu, Anoeta
Zubieta, Aduna
Usurbil, Andoaindik
harago dagona
guztira sei, o, barka!
Baita Villabona.

4)
Bakoitzetik pare bat
lagun hor badaude
bai zubi atsegina
beren eta gure!
Nolanahi, mila esker
nonahiko entzule!

5)
Deigarri Zizurkilen
Fraisoro eskola
Atxulondo izena
duen burdinola.
Itzal handiko beste
zenbat izen hola!

6)
Adibide ozen bat
Donemiliaga
Irizibar karobi
berritua hara.
Oria ibaiaren
zaintzaileak gara.

7)
Baserriko Argia
denon argi-begi
Otañoren izena
goian izan bedi.
Ahaztu gabe, noski
Joseba Arregi.

8)
Ezkeltzutik Zarateko
Haitzera doan hegada
bai gozoa laino gabe
Zizurkil ikusten bada.
Urkamendi ere, baina
ez naiz atrebitzen hara.

9)
Datu bitxi batek dizkit
bost zentzumenak zukutu
biztanleak zaretela
hiru mila ta BAT justu.
Bat hori hemen balego
nahi genuke ezagutu.

10)
Beste datu bat ere da
hemen oso deigarria
hogeit eta bederatzi
elkarte diren herria.
Hogeita hamargarrenak
laster du lehen harria.

11)
Villabona ta Zizurkil
Zubimusuk gaitu biltzen.
Urgain magiko horretan
maitemin zorian nintzen.
Musutik musura ez da
bitarterik ametitzen.

12)

Baina ez berotu zeren
nahiz herriok elkar maita
izen bereko zubi bat
Zestoan ere bai baita.
Orain pentsa zein zubi den
zuen ama edo aita.

13)

Baina iso, Donostiak
ere bai baitu partea.
Han ere ospetsua da
Zubimusuko parkea.
Hemen, nonbait, musua da
ugaria ta merkea.

14)

Gatozen orain geure
erromeriara
musika ta kantura
etorriak gara.

15)

Hemen aukera on bat
guztientzat dago.
Nahi duenak jo txalo
ta nahi duenak lo. Ai, oi, ai!

16)

Hiru eta hiru sei
hiru bederatzi
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!
Ai, oi, ai!
Hiru bederatzi!
Musika, kantu, dantza
hemen da Korrontzi!

KOPLARIAK KOPLARI

Korrontzi musika taldeko buru den Agus Barandiaranekin, *Koplariak koplari* izeneko emankizun bat egiten hasi ginen, 2020an. Bertan, kantaldi-hitzaldi bat garatzen dugu, non koplariaren edukiaren eta estetikaren sintesi zabal bat ematen dugun, sorta bakoitzari azalpen txiki bat erantsiz. Eta bion arteko dialektika umorezko bat sortzen saiatuz. Bi kantari eta trikiti bat izanik, esan beharrik ez dago formatu txikia eta entzuleen hurbil-hurbila dela.

Kantatzen ditugun koplak «zaharren» sortak Bizkaikoak dira, batez ere, eta koplak berriak ere sartzen ditugu. Berri hauen artean daude, hain zuzen, tokian tokirako sortutako koplak. *Sarrera* neuk bakarrik kantatzekoa, a capella, eta *Eguen zuri* eta *Marijeseak* izeneko piezak, bion artean txandan, trikitiarekin. Hauetan, *Eguen zuri* koplak tradizionalekin hasi, koplak berriekin jarraitu eta tradizionalekin amaitzen dugu. *Marijeseak* koplak tradizionalekin hasi eta berriekin jarraitzen eta amaitzen dugu.

Ekitaldiaren amaiera *Banangoan* izaten da beti, aurretik sorta batean erabilia berau, koplak tradizionalekin. Marijeseak amaitzean, Banangora jauzi egiten dugu, koplak berri komun batzuk tokian tokira egokituz. Nahiz eta amaiera horren markoa berdina izan, saio guztietan uztea erabaki dut, herri bakoitzera nola egokitzen diren ikusteko, eta batez ere, herri bakoitzeko irakurle posibleek ikus dezaten euren herriko ekitaldia nola amaitu zen.

ZALDIBAR

Sarrera

1)
Bai bitxi “Hitzaldia”
deritzon batetan
berbaz baino lehenago
hastea kantetan.

2)
Gure amak holan hartu
zuen lasaitua
beldur baitzen izango
nintzela mutua.

3)
Barka, oraindik ez dut
gabon ere esan.
Gabon, ba, marmarrean
hasi ez zaitez.

4)
Ondo etorri ere
esan beharko zan.
Barka, dena batera
ezin baitut esan.

5)
Zaldibar, Mendilibar
Zanzibar, Landibar
Bolibar, Ezteribar
Laskibar, Iribar.

6)
Izen horiek denak
daude hain edertzat!
Denetan gozoena
Zaldibar guretzat.

7)
Kantuan berdintzea
izen horren maila
gura genuke, baina
izango da zaila.

8)
Portatzen ez bagara
txistuak jo ordez
jo gaitzazue lasai
distantziak gordez.

(pandemiaren aipamena)

9)
Beste jotzaile on bat
badaukat gaur lagun.
Ikusezina ez bada
ia agertzen zaigun.

10)
Hemen duzue bera
irribarre malguz.
Mundurako Korrontzi
zuendako Agus.

EGUEN ZURI

Kopla tradizionalak

1)
Eguen zuri eguna
Jainkuak berak egiña
eskola-umeak ibilteko
limosna on baten billa.

2)
Horra hor goiko sabaijjen
estuen edo nasaijjen
oillotxuren bat egongo dala
arrautzatxuekin habijjen.

3)
Hor goijjen goijjen goldie
haren ganien belie
etxe honetako nagusi jaune
nekazari langillie.

4)
Sibirijje ta Granada
urdei-azpijje ona da.
Urdei-azpijje ona da baina
hiru lukainkaz hoba da.

Kopla berriak

1)
Zaldibar baten hasteko eskean
behar da ausartegia
bistatik ezin kenduz oraindik
dagola zabortegia.

2)
Mingarria da zergatik fama
hartu duzuen munduan.
Zer pena herri hau gelditzea
Chernobil baten moduan!

3)
Hilak pizterik tamalez ezin
zaie eskatu bizia.
Hori ezin da tamalez baina
gainerako guztia bai.

4)
Zuen protestak errepikatzen
ez gara hasiko hemen.
Eskatzen dugu zuen eskeak
bete daitezen lehenbailehen.

5)
Hondamendia argi da zelan
ez zan izan naturala.
Ba, erantzule bakotzak bere
izena jaso daiala.

6)
Arlo baltz hori utzita orain
Eguen Zurira gatoz.
Emoten dakienik balego
hartzen ikasita gagoz.

Kopla tradizionalak

5) Emongo bozu, emoixu
bestela ezetz esaixu.
Ate onduen hotzak hartzera
amak bialdu eskaittu.

6)
Erbi txikia azatzen
erbi nausia babatzen.
Etxe hontako uzaba jauna
bera beteko kakatzen.

7)
Etxekoandre mondrongo
hik ezton asko emongo.
Hik emotunan limosniaittik
etxunau asko edango.

Bat / bi / eeeup!!

MARIJESEAK

Kopla tradizionalak

1)
Abendu santu honetan
Kristoren jaiotzian
kontentuaren haundiz
guztiok poz gaitian.

2)
Hogeta laugarrena
dogu abenduan
desio genduen
logradu genduan.

3)
Belengo portalian
estalpe batian
jaio da Jesus ona
ganadu artian.

4)
Astuak arrantzia
idiak arnasia
halantxe berotzen zan
Jesus infantia.

6)
Dontzella galant hori
orbanik gabia
zeure izena dozu
Birjina Maria.

7)
Gabeko hamabiak
jo daben orduan
gure salbadoria
jaio da munduan.

Kopla berriak

1)
Zaldibarren baginan
aurreko kopletan
derrigor egon behar
dogu ondino bertan.

2)
Neu berriztar izanik
zuen auzo-herri
ezingo dot Zaldibar
famatu larregi.

3)
Ezingo ditut zuen
on guztiak esan
baten batzuk zeloso
jarri ez daitezán.

4)
Bai esan neike trankil
herrion zortea
dala biak alkarren
mugan egotea.

5)
Laster dira ehun urte
herri bien artean
abioi bat ein zala
Karnabal batean.

6)
Aparatua egiten
urte bian lana
hortan gastatu eben
euren diru dana.

6)
Ibili ziran Kuban
eta Polo Nortén
da hemen danak larri
ez ziralako etorten.

7)
Orduan bai egin zan
benetan alkar-lan.
Gaur ez dakit zelan dan
baina hoba halan.

8)
Inoiz hasarrerén bat
sortzen badozue
ni martzianoa naz
ta konpondu zeuek.

BANANGOAN AMAITU

*Kopla berri komunak,
tokian tokira egokituak*

1)
Hara Belengo estalpetxoan
Jesus, Maria ta Jose.
Hango abere otzanan gisan
zaudete edo zagoze.

2)
Amaitu daigun hasi baino lehen
ezabatzen publikoa.
Eta zelan ez, onartu gure
agur pandemonikoa.

3)
Beraz, argi da zer dagokigun:
Hauxe da despedidea!
Nahi bada utzi, nahi bada segi
hor gelditzen da bidea.

4)
Agur, Zaldibar eta bertako
herrigorak eta beherak!
Bizi bizi nola balitza
jaiotza etengabe bat.

ZIZURKIL

Kopla berriak

1)
Gabon, Zizurkil maite
maitatua zinez!
Zure oroitzapenek
hartzen naute gainez.

2)
Oroitzapen ugari
denak atseginak
motiboz ere sakon
eta ezberdinak.

3)
Gaurkoa ere gorde
nahi nuke bikaintzat.
Onena ez dakit, baina
on-ona bai behintzat.

4)
Autobian ezin naiz
sekula igaro
pentsatu gabe: «Hara!
Zizurkil han dago».

5)
Zorionez, eliza
prestatu digute.
Zeruan ere hori
eskertuko dute.

6)
Bide batez horrela
harrapa daitezke
bestela ez direnak
hurbiltzen hainbeste.

5)
Ezin dut garbi esan
zer asmoz gatozten
dena bukatu arte
hor egon zaitezten.

6)
Gero nahi baduzue
txaloak jo orde
jotzen ahal gaituzue
distantzia gordez.

7)
Koplariak koplari
bakarrik ez nator
Korrontzi deritzana
bada beste bat hor.

8)
Hemen duzue bera
irribarre malguz
mundurako Korrontzi
zuendako Agus.

EGUEN ZURI

4 kopla tradizional

Kopla berriak:

1)
Nik Zizurkilen ezin dut hasi
gehiegi eskatzen zeren
eskatu baino gehiago lehendik
hartuta bainago hemen.

2)
Zerbait eskatu beharrik bada
eskatzen dut barkamena
erretiroa iragarri ta
berriz etortzearena.

3)
Gogoan daukat oroitarria
Joseba Arregirena
plazan eraitsi bazuten ere
memorian zutik dena.

4)
Eskatzen dugu baita Otaño
handiaren proiektua
buka dadila, eduki dezan
bere mailako lekua.

5)
Han goian Baserriko Argia
emakumeen figura
arte eder bat izateaz gain
sar bedi bizimodura.

6)
Orain gatozen berriro geure
Eguen Zuriko airera
borondaterik balego hemen
hartzaile onak baigera.

3 koplak tradizional

Bat, bi, hiru! Eeeup!!

MARIJESEAK

7 koplak tradizional

Kopla berriak:

1)
Goialde airoso bat
eta egutera
behian kale-herria
gehiengoa bera.

2)
Kale, baserri, mendi
herri anizkoitza
zizurkildar arimaz
bizi da bakoitza.

3)
Hainbat urtez izana
bainaiz Zizurkilen
hementxe aurkitu naiz
onenetik hurbilen.

4)
Aldi bakoitzean dut
zerbait sakon senti
berriz itzuli nahia
gelditu zait beti.

5)
Ba, bai zeren hemen bat
sentitzen delako
beti aurrerago ta
beti aurrerako.

6)
Zalantza min bat ere
badaramat hor beheran
gaurkoa azken aldia
izango ote dan.

BANANGOAN AMAITU

1)
Hara Belengo estalpetxoan
Jesus, Maria ta Jose.
Hango abere otzanen gisan
zaudete edo zagoze.

2)
Buka dezagun hasi baino lehen
ezabatzen publikoa.
Milesker eta onartu gure
agur pandemonikoa.

3)
Beraz, argi da zer dagokigun:
Hauxe da despedidea!
Nahi bada utzi, nahi bada segi
hor gelditzen da bidea.

4)
Agur, Zizurkil, eta bertako
herrigorak eta beherak!
Bizi bizitza nola balitza
jaiotza etengabe bat.

MARURI-JATABE

SARRERA

1)
Gabon, Jatabe eta
entzule lagunak!
Gaur alkarrentzat danok
gara lagun onak.

2)
Hau poza barriz bere
hemen egotea!
Niretzat halan da, ze
baneukan faltea.

3)
Hainbat akordu eder
daukat lur honetan!
Barriz etortea da
itzela benetan.

4)
Laguna bere ona
daukat gaurko hemen.
Ez dakit bera ondo
ezautzen dozuen.

5)
Ez naz hasiko esaten
zer mutil modu dan.
Baten batek esan lei:
“Hori eztok holan!”.

6)
Batzutan dino bera
dala Jatabeko
hurrengoan, ostera
dino Maruriko.

7)
Nik inoz esan deusat:
“Baia, txotxo, ene!”.
Zelan izango haz, ba
herri biko seme?

8) Berak orduan dinost:
“Izen doblea da”.
Halantxe jakin nendun
biak bat dirala.

9) Holan bada, ederto!
Maruri-Jatabe.
Biek bata besteaz
ondo emoten dabe.

10) Gaur azaina polita
behar dogu egin
Jataben hasi eta
amaitu Marurin.

EGUEN ZURI

4 koplak tradizional

Kopla berriak

1) Nik hemen ezer eskatuteko
koplarik ezin dot bota
neuk merezidu baino gehiago
lehendik hartuta nago ta.

2) Neu bere zelan hasiko naz, ba
ezer eskatuten hemen
berton jaiota, nazen guztia
hartua naz-ta Jataben.

3) Herri honetan hainbat jatordu
gozo egin dot bertso truke.
Gaur bere igual solomotxo bat
gustura hartuko neuke.

4) Argi ibili ze sasoi baten
abadea izan zan hau.
Solomo bat emoten bajako
txarria eskatuko dau.

3 koplak tradizional / Eeeup!!

MARIJESEAK

Kopla tradizionalak

Jesus, Maria ta Jose!
Baina zer da hau edo non gagoz?

Kopla berriak.

- 1)
Itxosoa paraje
eta Jata ganean.
Mungia bere hortxe
komeni danean.
- 2)
Paraje suabea
begi betekoa
zuena bai benetan
leku selektoa!
- 3)
Derrigor egon behar
hemen dana konpleto
Bilboko jenteari
hainbeste gustateko.
- 4)
Neu bere hona pozik
etorko naiatzue
baia lelengo Agus
bota behar dozue.
- 5)
Mesedez, holakorik
ez agindu inok!
Hau etorteko bada
neuk alde eging'ot.
- 6)
Tira, ba! Hasarrerik
ez dogu zertan izan.
Marijeseak bakez
amaitu daiguzan.

BANANGOAN AMAITU

Kopla tradizionalak

- 1)
Hara Belengo estalpetxoan
Jesus, Maria ta Jose.
Hango abere mantsoak legez
zeuok bere hor zagoze.
 - 2)
Orain argi da zer dagokigun:
Hauxe da despedidea!
Nahi bada itxi, nahi bada segi
hor gelditzen da bidea.
 - 3)
Agur Jatabe! Agur, Maruri!
Goialde eta behekoa!
Bizi bizitza zelan balitza
jaiotza etenbakoa.
 - 4)
Etxon apur bat, ze orain dator
gaurko zati politena
herria eta auzo guztiak
harrotuko zaituena.
 - 5)
Jatabe lehendik oso entzuna
bazan Bizkai inguruan
kanta honegaz zuen famea
zabalduko da munduan.
- (Hemen MARURI-JATABE
izeneko nire 11 koplarekin,
Agus Barandiaranek egindako
kanta baten bideoa aurkeztu
zen, bere jaioterriari eskainia.
Sorta hori bere lekuan dago.).

ARRIAGA

MARIJESEAK

Kopla tradizionalak

Kopla berriak

1)
Honek kantau daijala
antxinako kondaira
nik iritsi gura dot
bi mila ta hogeira.

2)
Txit egun ditxosua
dogu Eguberri
zegaitikan Jesus dan
gugana etorri.

3)
Jesus Jainkoa zala
Jainkorik bazan inon
harrigarri da zelan
ez zan jaio Bilbon.

4)
Karguan jarri dira
Jose ta Maria
anparatzeko Seme
estimagarria.

5)
Ba, nik beste izen bat
daukat Arriaga
Jesus haurtxoa baizen
harrigarria da.

6)
Jesus, Jose, Maria!
Ekiozu zeurean
ez nozu harrapauko
modernidadean.

7)
Hau da libertadea
arantza bakoa!
Kokotetik sasi bat
kentzea lakoa.

8)
Arriaga hil zala
hogei urtetxogaz
lau bider zaharragoak
hemen aurrera goaz.

9)
Asko ezin bada be
eskean gatoz gu
zeuen arreta baino
eskatzen ez dogu.

10)
Lortu dogun ezkerro
eskatzen genduna
agur ta ondo gastau
zeuen osasuna.

TXIRAIN ELKARTEA

(Donostiako Antiguoa auzoan)

MARIJESEAK

7 koplak tradizional

Kopla berriak:

1)
Bilbo astindu eta
sartu gara Txirainen
Gabon gaua ospatzeko
inoizko lirainen.

2)
Txirainera iristen
ez zaigu kosta bate.
Egon lasai, ez gara
jardungo hil arte.

3)
Hurrengo hitzordua
daukagu Gasteizen
babazorroak zakuz
aldatu daitezten.

4)
Zorrotik urtendako
babak zer gozoak!
Gustura dabiltz bertan
arabazozoak.

5)
Gasteizkoa eginda
Iruñera goaz
bidean Altsasuko
ate guztiak joaz.

6)
Iruñean galdetu
beharko da aurrenen
euskaraz kantatzea
zilegi ote den.

7)
Iruñetik Baionara
goaz barku baten
elurteak emanda
geratu ez gaiten.

8)
Baionan afaldu ta
lo egin Zuberoan
ia aurkitzen dogun
Jesus non jaio dan.

9)
Agur orain guztioi
hurren urtera arte.
Hemen izango gara
bizi bazerate.

10)
Gu biziko garela
zin dagizuegu
zeren orain artean
beti asmatu degu.

11)
Biziko gara, noski,
bai gu eta bai zuek
hala izango dela
agintzen dizuet.

IRUÑEKO BERTSOAROA

SARRERA

1)
Gauza batzuk aldatu
ziran Iruñean
Bizkaitik kanpai batzuk
entzunak giñean.

2)
Gasteiztik honanzkoan
zalantzan gentozan
Iruñean euskera
zilegi ete zan.

3)
Hona, beraz, zer barri
emon behar dogun
Bizkaian zelan doan
lingua navarrorum.

4)
Nahiz eta modernoan
ez egon hain ados
kopla zaharrak ondino
gainaren gain dagoz.

5)
Ezin dot guztiz esan
zer asmoz gatozen
dana amaitu arte
hor egon zaitez.

6)
Gero nahi badozue
txaloak jo orde
jotzen ahal gaituzue
distantzia gordez.

7)
Koplariak koplari
bakarrik ez nator
Korrontzi deritzana
bada bertze bat hor.

8)
Hemen duzue bera
irribarre malguz
mundurako Korrontzi
zuendako Agus.

EGUEN ZURI

4 kopla tradizional

Kopla berriak:

1)
Eskean gatoz, baina baita ere
eskertzen dugu erabat
Bertsoaroan koplari nola
eman zaion aukera bat.

2)
Eskean sartuz, nahiko genuke
minimo bat iradoki:
bertsoa eta kopla zer diren
bereiztea minimoki.

3)
Eskatzen dugu ez ibiltzeko
gauzak bereizten erdika
ez baita soilik luzera baizik
bakoitzaren estetika.

4)
Ez dugu eskatzen gaur zuengandik
arreta paranoiko bat.
Badakigu lo-kuluxkak ere
direla arrunt ohikoak.

5)
Ez aztoratu gauzak aldrebes
ulertzen dituzuenak.
Limosna on batek estaltzen ditu
beste gabezia denak.

3 kopla tradizional

Bat, bi, hiru! Eeeup!!

MARIJESEAK

Kopla tradizionalak

Kopla berriak

1)
Zapaltzen duguna da
gure Erresuma zaharra
berritzea merezi
lezaken bakarra.

2)
Iruñeak badauka
dohain berezia
ez baitu erakusten
deusen gabezia.

3)
Etortzea da poza
joatea atsegina
gelditzen baita berriz
itzultzeko grina.

4)
Baleike gaur azkena
izatea enetako.
Lasai, zeren Korrontzi
ez zaizue faltako.

BANANGOAN AMAITU

Kopla berri komunak
tokian tokira egokituak

1)
Hara Belengo estalpetxoan
Jesus, Maria ta Jose.
Hango abere otzanan gisan
zaudete edo zagoze.

2)
Buka dezagun gerta baino lehen
besta oso erdi besta.
Beldur naiz laster batzuk hastea
disimuluan iheska.

3)
Beraz, argi da zer dagokigun:
Hauxe da despedidea!
Nahi bada utzi, nahi bada segi
hor gelditzen da bidea.

4)
Adio, nafar mendi ta zelai
zikoina ta hegaberak!
Bizi bizitza nola balitza
jaiotza etengabe bat.

EUSKARALDIA-BASAURI

EGUEN ZURI

Kopla tradizionalak

Kopla berriak

1)
Euskaraldiak aldi bat dauka
aldiak zentzu bikoitza
zeren aldi bat izan daiteke
bai luzea ta bai motza.

2)
Gure eskea ez da aldi bat
luzea edo handia.
Simple-sinpleki eskatzen dugu
amai gabeko aldia.

3)
Amai gabeko aldi horixe
gura genuke gaurdanik
ez eukitzeko aurrerantzean
kanpainen beharrianik.

4)
Gure hizkuntzak izango badu
osasun amaigabea
hitz bat da giltza: Borondatea!
Hor dago denen klabea.

5)
Borondatea, borondatea
edo: «Hiztunen nahimena!».
Batetik gauza errazena ta
bestetik bera zailena.

6)
Zailegi bada gure esanak
plazara eramatea
limosnatxo bat jaregin eta
eginda dago bakea.

7)
Ez da derrigor limosnatxo
izatea diruzkoa.
Izan daiteke solomo erdi bat
edo lukainka osoa.

3 kopla tradizional:

Bat / bi / eeeup!!

BIBA ZUEK I

EGUEN ZURI

2 koplak tradizional

2 koplak berri:

ETBn ere gaur bide batez
atea jo dogu pozik.
Ez dogu eskatzen limosnatxo bat
dozenerdi txalo baizik.

Piku fresko zein lehorrak gozo
malko onak beti gazi.
Txalok baino nahiago geunke
saio batzuk irabazi.

2 koplak tradizional

Bat / bi / eeeup!!

BIBA ZUEK II

MARIJESEAK

3 koplak tradizional

Kopla berriak

1)
Hemen audientzia
altu omen dago
gaur igo behar dugu
lau puntu gorago.

2)
Zer diozu, Xabier?
Zer haizek jo zaitu zu?
Telebistan puntu bat
zer dela uste duzu?

3)
Gehiegi igotzerik
ez zaigu komeni
erotuko ginake
Sukia eta ni.

4)
Ba, gorantz ezin bada
jarri buruz behera.
Ni ez naiz gaur etorri
gauzak berdin uztera.

5)
Niretzat jaistea da
plazer soinuakoa.
Hantxe aurkitu nuen
infernuko hauspoa.

6)
Gauden kotan gaudela
zuek hemen erantsiz
infernua da zeru
eta alderantziz.

7)
Biba gu! Biba zuek!
Biba ikusleak!
Poztuko gaitu berriz
elkar ikusteak.

BIDEBARRIETA

(Abenduak 3. Euskararen eguna)

SARRERA

1)
Luze ta eder zaude
Bidebarrieta.
Hala biz gure kantu
eta barriketa.

2)
Ongi etorri denok
hutsuneak barne.
Hoiak dira harreman
iraunkorren berme.

3)
Aretoa erdizka
Alde Zaharra geldu
kaleak hutsik eta
izugarri handi.

4)
Non da demonioa?
Manikomioan.
Zer utzi du kanpoan?
Pandemonioa.

5)
Ez dut garbi esango
zer asmoz gatozen
dena amaitu arte
hor egon zaitez.

6)
Gero nahi baduzue
txaloak jo ordez
jotzen ahal gaituzue
distantzia gordez.

7)
Koplariak koplari
bakarrik ez nator
Korrontzi deritzana
bada beste bat hor.

8)
Hemen duzue bera
irribarre malguz
mundurako Korrontzi
zuentzako Agus.

EGUEN ZURI

Kopla tradizionalak

1)
O, Xabierko Frantzisko, gure
zaintza daroazuna zuk
jaso itzazu gaurko egunak
dakartzan eskari batzuk.

2)
Eskatzen dugu Euskaltzaindia
hasi dadila noizbaiten
arauemale baino gehiago
efektiboa izaten.

3)
Efektiboa dela sinesten
hasi gaitezen egian.
Gutxienean hitz hori, behintzat
sar bezate hiztegian.

4)
Beste milaka hitz ere oraindik
zerrendan falta baitira
ekar, Xabier, zuk nonbaitetik
euskararen barrutira.

5)
Onean pasa ezin badira
kontrako beto sakonak
agian zure lagun Iñigok
baditu metodo onak.

6)
Eskatzen dugu zorioneko
aditzak ez gaitzan ito.
Baldin erraztu ezin baledi
suprimitu eta kito.

7)
Barka, Xabier, lar zorrotz ekin
badiot inoren aurka.
Hemen euskara gura duenak
egin ezinik ez dauka.

8)
Borondatea, hori da hitza
datorrena gaur gakora.
Nahi badugu iraungo du eta
nahi badugu galduko da.

9)
Borondatean gaudenez gero
barkatu gaurko geziak!
Limosna on bat ez da txarrena
leuntzeko diferentziak.

Kopla tradizionalak / Eeeup!!

MARIJESEAK.

Kopla tradizionalak

Jesus, Maria ta Jose! Zer da
hau baina, edo non gaude?

Kopla berriak.

1)
Bidebarrieta edo
bide barri asko.
Halan galdu zen gure
aitita Belasko.

2)
Zer ote da hobe?
Zer ona, zer txarra?
Bide barri on asko
ala on bakarra?

3)
Niretzako Bilboko
esperientzia
ibaia izan da beti
erreferentzia.

4)
Galtzen banaiz bera da
gidari zehatza
urbeheran mundurantz
urgoran etxerantz.

5)
Nahiz galtzeak ez izan
alde onik ezein
Bilbon salbuespenak
badira noizik behin.

6)
Bat da Alde Zaharrea
bustita ibiliz
San Antongo zubian
lehortu dingiliz.

7)
Gaurkoak ere ditu
bi kontrako zati
kopla zaharrak kantatzen
jende moderno bati.

8)
Saio honi Korrontzik
metxa piztu zion.
Hau bai ez dela galtzen
ez Bilbon, ez inon.

9)
Orain berriz neu ere
bere arrimura
igual iritsiko naiz
baita infernura.

BANANGOAN AMAITU

*Kopla berri komunak
tokian tokira egokituak*

1)

Hara Belengo estalpetxoan
Jesus, Maria ta Jose.
Hango abere otzanen gisan
zaudete edo zagoze.

2)

Amaitu daigun hasi baino lehen
ezabatzen publikoa.
Milesker eta zuentzat gure
agur pandemonikoa.

3)

Beraz, argi da zer dagokigun:
Hauxe da despedidea!
Nahi bada utzi, nahi bada segi
hor gelditzen da bidea.

4)

Agur, Bilboko kaioak eta
erbesteko hegaberak!
Bizi bizitza nola balitza
jaiotza etengabe bat.

ALTZO

SARRERA

- 1)
Altzoa da magala
magala babesa.
Gogor jo nahi duenak
harria jan beza.
- 2)
Altzon zuhaitz ugari
txiki eta haundi
zein bere sustraietan
bizi dira ongi.
- 3)
Gizonik handiena
sortu baitzen bertan
ez gara ibiliko
txikikerietan.
- 4)
Edo agian hobe
litzake akaso
handi bakarra baino
txiki onak asko.
- 5)
Ezin dizuet esan
zertara gatozten
dena bukatu arte
zain egon zaitezten.
- 6)
Gero ez bazaudete
txalotzeko oldez
jotzen ahal gaituzue
distantzia gordez.
- 7)
Beste jotzaile on bat
bildu zaigu egun.
Betor bistara zein den
ikusi dezagun.

- 8)
Hona Agus Korrontzi
dioten ehize bat.
Ni zein naizen, nahi badu
konta beza berak.

EGUEN ZURI

Kopla tradizionalak

Kopla berriak

- 1)
Eskean gatoz, baina nik Altzon
ezin dut eskatu zeren
eskatu baino gehiago lehendik
hartuta bainago hemen.
- 2)
Zerbait eskatu beharrik bada
eskatzen dut barkamena
hemen betiko agurtu eta
berriz etortzearena.
- 3)
Ba, ni oraindik erretirotik
oso urruti nago-ta
argi ta garbi eskatuko dut
daukazuena dana bota.
- 4)
Daukazuena honi ematen
badiozue, milesker!
Orain badakit lehen zergatikan
ez dudan eskatu ezer.

3 kopla tradizional

Bat / bi / eeeup!!

MARIJESEAK

Kopla tradizionalak

Jesus, Maria ta Jose!
Baina non gaude edo zer da hau?

Kopla berriak

- 1)
Herri airoso bat da
Altzo deritzona
galduta azaltzeko
ere hagitz ona.
- 2)
Galdetzen badigute:
“Altzon zer berri da?”.
Gabonak aurreratu
ditugu urrira.
- 3)
Ba, bai, zeren bat Altzon
sentitzen delako
beti aurrerago ta
beti aurrerako.

BANANGOAN AMAITU

Kopla berri komunak tokian tokira egokituak

- 1)
Hara Belengo estalpetxoan
Jesus, Maria ta Jose.
Hango abere otzanen gisan
zaudete edo zagoze.
- 2)
Buka dezagun utzi baino lehen
entzuleak jo ta seko.
Beldur naiz laster ez ote diren
ebaporatzen hasiko.
- 3)
Beraz, argi da zer dagokigun:
Hauxe da despedidea!
Nahi bada utzi, nahi bada segi
hor gelditzen da bidea.
- 4)
Adio, Altzo! Ez du gehiago
ematen gure ganberak.
Bizi bizitza nola balitza
jaiotza etengabe bat.

AHOZ AHO.ETB

EGUEN ZURI

Kopla tradizionalak

Kopla berriak

1)

Eskerrik asko *Ahoz aho*-ri
Illazkiri beste hainbat.
Zuk hitz gozoak dakarzuz baina
guk nahiago limosna bat.

2)

Ez dogu eskatzen txarri osoa
ez erdia, ez laurena.
Gu pozik bialtzeko nahiko da
solomo koipetsu bana.

3)

Txitxiarik ez bada, txintxina
berdintsu da guretako.
Urrezko txintxinik ez balego
zilarra ez dago txarto.

3 kopla tradizional

Bat / bi / eeeup!!

AHOTSENEA

SARRERA

1)
Ahotsenea edo
aihotz bat Azokan.
Aurten dilindan gatoz
kulturaren sokan.

2)
Egoera txar batek
ehortziko ez gaitu
gure gogoak zoru
harrizkoa baitu.

3)
Zuri ezin berdin esan
oi, Plateruena!
Zu agurtzea baita
mintzen gaituena.

4)
Agur, noski, eskerrik
onenezko kantuz
beste aukera bat izan
dezazun opatuz.

5)
Ezin dut garbi esan
zer menu duzuen
dena bukatu arte
iraun dezazuen.

6)
Gero nahi baduzue
txaloak jo ordez
jotzen ahal gaituzue
distantzia gordez.

7)
Koplariak koplari
bakarrik ez nator
Korrontzi deritzana
bada beste bat hor.

8)
Hemen duzue bera
irribarre malguz
mundurako Korrontzi
zuentzako Agus.

EGUEN ZURI

Kopla tradizionalak

Kopla berriak

1)
Eskatzen dizut, Covid maitea
joateko noizbait bistatik
zeren jadanik nor zaren ondo
badakit ... edo ez dakit.

2)
Zientziak ere izan beza
gogo adina botere
Armagintzan lez aurreratzeko
gure onerako ere.

3)
Hiritarrei eskatzen diegu
behar adina elkar-sen
lagun dezagun gaitza bidaltzen
ta ez gehiago ekartzen.

3 kopla tradizional

MARIJESEAK

7 koplak tradizional

Kopla berriak

1) Ez al duzue entzun
artearen sormen
berritasuna dela
eragile goren.

2)
Aurten badaukagu, ba
berritasun ugari
hainbeste non artistak
ia itotzen ari.

3)
Berritasuna, beraz
argi da horrela
hoberako ez bada
amesgaitza dela.

4)
Berritasun bakarra
gure dinamoa
gaitzetik bihurtzea
gizadi sanoa.

5)
Azokan gagozela
zer da gozamina?
«Koplariak» diskoan
daukazue dena.

6)
Bat eroatera senak
bultzatu bazaitu
baietz gero beste lau
zerrendara gehitu.

7)
Gabonak ere nola
diren berehala
desiatu nahi dugu
zerbait erreala.

8)
Igaro itzazue
gauza nola dagoen
bizirik lehenbizi ta
gero ahalik ondoen.

LEGORRETA

SARRERA

1)
Gabon, Legorretako
herri maitagarri!
Kariño batek lotzen
gaitu gaur elkarri.

2)
Gurea grina bat da
zuena arreta
denok bizi baikara
elkar behar eta.

3)
Errepide ta ibai
mendi eta kale
behar den guztiakin
osaturik zaude.

4)
Itzaieta ta beste
zenbait izen haundi
Zazpiturrieta edo
baita Bilkoimendi.

4)
Baldin badira izen
luzeko bezain goi
ez dakit igotzeko
izango naizen gai.

5)
Bai naiz gai gozatzeko
zuekin ordubete
zuek gurekin berdin
eder litzateke.

6)
Ez dut aurreratu nahi
zer datorkizuen
bukatu arte hortxe
segi dezazuen.

7)
Gero nahi baduzue
txaloak jo orde
jotzen ahal gaituzue
distantzia gordez.

8)
Koplariak koplari
bakarrik ez nator
Korrontzi deritzana
bada beste bat hor.

9)
Hemen duzue bera
irribarre malguz
mundurako Korrontzi
zuendako Agus.

EGUEN ZURI

Kopla tradizionalak

Kopla berriak

1)
Eskatzen dugu erakusteko
bidea edo galtzara
Legorretatik atera gabe
joateko Bartzelonara.

2)
Zer ari zara esaten, aizu?
Zer bide ta nondik nora?
Hau berez ez da horren txoroa
edadea izango da.

3)
Ba, ez bakarrik Bartzelonara
joan daiteke Legorretan.
Katalunia zapaldu gabe
lo egin ere bai bertan.

4)
Hemen badabil deabru edo
aingeru txarren bat saltsan.
Argitu beza gakoa berak
apaiz ere izan baitzan.

5)
Ulertu ezin baduk azaldu
zaikana argi erabat
utzi limosnak eta eska zak
intelligentzi pixka bat.

6)
Nik badut nahiko intelligentzi
zer eskatu jakiteko
lukainka eder bat ondo legoke
solomo erdi bat hobeto.

Kopla tradizionalak

Bat / bi / eeeup!!

MARIJESEAK

Kopla tradizionalak

Kopla berriak

1)
Legorretan “Jainkoa”
zeritzan bat omen
zerura joan zena
sano hil ondoren.

2)
San Pedro harritu zen
hala, bat-batean
Jainkoa ikustean
zeruko atean.

3)
“Nola berori hemen?”
San Pedrok galdera
eta berak erantzun:
“Pikuak jatera”.

(“Pikuak”: legorretarren ezizena)

4)
Hortan emanik bere
lehenengo urtea
zeruan sortu zuen
Piku Elkarte.

5)
Beraz, legorretarrok
ez galdu fedea
egina dago zuen
eternidatea.

BANANGOIA

1)
Beste mundua utzi ondoren
betirako konpondua
gatozen berriz lurrera eta
aztertu geure mundua.

2)
Alde hontako herri-izenak
ez dira ulertzen ondo.
Nola daiteke hau Legorreta
ta gorago Itsasondo.

3)
Egia bada bi izen hoiek
zerbait nahi dutela esan
noizbait hemendik itsasoren bat
airean pasatuko zan.

4)
Buka dezagun publikoa ere
hasterako itsasbeheran.
Milesker eta pentsa zuekin
zer gustora egon geran.

5)
Orain argi da zer dagokigun:
Hauxe da despedidea!
Nahi bada utzi, nahi bada segi
hor gelditzen da bidea.

6)
Agur, bihotzez, Legorretako
herrigorak eta beherak!
Bizi bizitza nola balitza
jaiotza etengabe bat.

BILBO ZAHARRA

SARRERA

1)
Gau on, Bilbo Zaharreko
lagun berrienak!
Berri zaharrak edo
zahartzen ez direnak.

2)
Ez izan iristeko
bildurrik zahartzara.
Beldurgarri bakarra
ez berritzea da.

3)
Nik lortu dut zahartzea.
Zahartu naiz eta zer?
Orain libreago naiz
pentsatzeko edozer.

4)
Hizkuntza ere zaharra
daukat neure alde.
Hori nahikoa bada
horniturik gaude.

5)
Nahi duguna, ordea
ez da sekretua
hizkuntza berritua
eta gaztetua.

6)
Nola lortzen da hori?
Buf! A zer galdera.
Gaur ez gatoz inori
garunak jatera.

7)
Ez dut aurreratuko
zer datorkizuen
amaitu arte hortxe
iraun dezazuen.

8)
Gero ez bazaudete
txalotzeko oldez
jotzen ahal gaituzue
distantzia gordez.

9)
Koplariak koplari
bakarrik ez nator
Korrontzi deritzana
bada beste bat hor.

10)
Hemen duzue bera
irribarre malguz
mundurako Korrontzi
zuentzako Agus.

EGUEN ZURI

Kopla tradizionalak

Kopla berriak

1)
Bilbo Zaharrari guk zer eskatu?
Gauza bat bakar-bakarrik.
Segi dezala zaharra izaten
berritzea utzi barik.

2)
Eskatzen dugu Euskaltzaindia
hasi dadila noizbaiten
arauemaile baino gehiago
efektiboa izaten.

3)
Eskatzen dugu ez gaitzatela
aditz deabruan ito.
Sinplifikatu ezin baledi
suprimitu eta kito.

4)
Zailegi bada gure esanak
plazara eramatea
eman limosna gozo bat eta
eginda dago bakea.

5)
Ez da derrigor limosna hori
izatea diruzkoa.
Izan daiteke lukainka erdi
edo solomo osoa.

Kopla tradizionalak

Bat / bi / eeeup!!

MARIJESEAK

Kopla tradizionalak

Jesus, Maria ta Jose!
Baina non gaude
edo zer ikastaro da hau?

Kopla berriak

1)
Urtean autore bat
aurten Etxepare
hura lehen idazle
gu haren ondare.

2)
Bilboko Alde Zaharra
Korreo Zortzian
ate batek sartu nau
ametsen ontzian.

3)
Sarrerako ametsa:
“Ikasi patxadaz”.
Irteerako poza:
“Badakit euskaraz!”.

4)
Poz hori ez badator
uste bezain garaiz
orduak bihurtzen da
ametsa amesgaitz.

5)
Horixe da gertatu
behar duen azkena
eta Bilbo Zaharrean
gertatzen ez dena.

BANANGOAN AMAITU

*Kopla berri komunak
tokian tokira egokituak*

1)
Hara Belengo estalpetxoan
Jesus, Maria ta Jose.
Hango abere otzanean gisan
zaudete edo zagoze.

2)
Buka dezagun jendeak berak
egin ez dezaigun alde.
Ez, hala ere, Bilbo Zaharra
benetan eskertu gabe.

3)
Beraz, argi da zer dagokigun:
Hauxe da despedidea!
Nahi bada utzi, nahi bada segi
hor gelditzen da bidea.

4)
Agur, Bilboko kaioak eta
erbesteko hegaberak!
Bizi bizitza nola balitza
jaiotza etengabe bat.

GOLDARATZ

SARRERA

1)
Gau on, Goldaratz eta
mila esker, Imotz!
Gozatu nahi zaitugu
buru eta bihotz.

2)
Zer da, ordea, Imotz?
Kontzeju pila bat
baldin berria gaizki
jasoa ez badaukat.

3)
Zenbatek daki zenbat
kontzeju zeraten?
Zenbatek daki hoiek
zein diren esaten?

4)
Ba, entzun itzazue
orain zortzi izen
memoria astunak
arindu daitezen.

5)
Urritza, Muskitz, Oskotz
Latasa ta Zarrantz
Eraso, Etxaleku
ta hemen Goldaratz.

6)
Presta zaitezte ongi
ze gaur miaketa
egingo dugu denen
etxe, auzo eta.

7)
Lehenbizi nahi genuke
saio on bat egin
imoztarren gogoa
ongi ase dedin.

8)
Gero entzule denak
hemen lo utzita
lasai egingo dugu
etxeen bisita.

9)
“Dugu” esan dut zeren
bakarrik ez nator.
Korrontzi deritzana
bada beste bat hor.

10)
Hemen duzue bera
irribarre malguz
mundurako Korrontzi
zuentzako Agus.

EGUEN ZURI

4 koplak tradizionalak

Kopla berriak

1)
Bizkaian bada borondatea
baina gutxi zer emana.
Ea suerte pixkat gehiago
daukagun Imotzen barna.

2)
Oilo gorri ta zurien jabe
izan daiteke Urritza.
Bertan hasteko eskatzen dugu
dozenatxo bat arrautza.

3)
Latanan ere oilasko batzuk
egin nahiko dute kantu.
gizen-gizen bat ekarri eta
lumatzea geure kontu.

4)
Etxalekun seguru badela
urtean txerri bat, behintzat.
Solomo erdi guk aski dugu
beste erdia zuentzat.

- 5)
Erason ere txerri bat izan
daike urte guztikoa.
Bariazio pixkat dezagun
bota urdaiazpikoa.
- 6)
Zarrantzen bizilagunak gutxi
aziendak asko ta eder.
Guri txahaltxo bat emanagatik
ez da igarriko ezer.
- 7)
Dena haragi edo hegazti
nola ez baita egoki
Muskitzen bildu nahiko genuke
dozena bana gozoki.
- 8)
Gure zintzurak hasi baitira
larritzen edo lehortzen
edari fuerte batzuk hornitu
nahi genituzke Oskotzen.
- 9)
Azkenik hemen goldaraztarrei
zer eskatu argi daukat
jenero hoiek denak Bizkaira
eramateko asto bat.
- 10)
Entzun duzue gure eskaria
astorik hemen balego.
Astoa ez bada berdintsu zaigu
lukainka sorta bat edo.

Kopla tradizionalak

Bat / bi / eeeup!!

MARIJESEAK

7 kopla tradizional

Kopla berriak

- 1)
Lehen asto bat genion
zein da bere izena?
denek esaten zuten
Andres Astizena.
- 2)
Oraintxe jarri nauzu
galdetu beharrez:
Astiz al zen astoa
edo zein zen Andres?
- 3)
Fama handia bildu
zitzaion Andresi.
Seme-alabak ere
zitun hemeretzi.
- 4)
Burlatzen edo zertan
ari zara, lagun?
Hemeretzi azienda
esan nahiko zendun.
- 5)
Ez, ba, pertsonak ziren
ta Andresek oraindik
asto bat etxeratu
zuen Irurtzundik.
- 6)
Zer misterio dauka
asto batek benetan?
Orduan asto bat zen
etxe guztietan.
- 7)
Andresena, ordea
famatu bihurtu zen
hartatik hasi nintzen
Goldaratz ezagutzen.
- 8)
Jakin-min handiagoz
utzi nauzu orain.
Zer zuen asto horrek
bere arrantzez gain?

9)
Ijito batek zuen
ferian errifatu
Andres saiatu, baina
beste bati tokatu.

10)
Beste horri Andresek
astoa erosi.
Gero berak saldu ta
bost duro irabazi.

11)
Hori egia bada
a zer miraria!
Horrela ulertzen da
famili ugaria.

12)
Andres izan zen aita
hemeretzi umeren
jakin nahi nuke amak
zer pentsatzen zuen.

BANANGOAN AMAITU

*Kopla berri komunak
tokian tokira egokituak*

1)
Hara Belengo estalpetxoan
Jesus, Maria ta Jose.
Hango abere otzanen gisan
zaudete edo zagoze.

2)
Buka dezagun hasi baino lehen
ezabatzen publikoa.
Eta nola ez, onartu gure
agur pandemonikoa.

3)
Beraz, argi da zer dagokigun:
Hauxe da despedidea!
Nahi bada utzi, nahi bada segi
hor gelditzen da bidea.

4)
Agur, Goldaratz eta bertako
lurgorak eta lurbeherak!
Bizi bizitza nola balitza
jaiotza etengabe bat.

BOLIBAR

SARRERA

- 1)
Gau on errespetuzko
legean, Bolibar!
Gaur goatzera gatoz
ta hor konpon bihar!
- 2)
Zer da, baina, Bolibar?
Ba, auzo sorta bat
hemengo barri zuzen
jasota badaukat.
- 3)
Zenbat diran auzoak
lau bai, hamalau ez.
Ez da errez ze batzuk
izen bina daukez.
- 4)
Bolibartarrak inoiz
emon dabe nota
Markinan urten eta
Gontzogarain buelta.
- 5)
Hain laino zarratuan
ez eutsen igarri
Iruzubietari
ta ez Bolibarri.
- 6)
Guk halako lainorik
ustez ez dakargu
baina nork jakin gero
ordu batzuk barru.
- 7)
Gauza batek trankiltzen
dau gure gibela
herri hontan galtzeak
merezi dauela.

8)
Baina hemen galtzera
konformatzeko gu
lehenengo herria pixkat
alaitu behar dogu.

9)
“Dogu” dinot ze hemen
bakarrik ez nator.
Korrontzi deritxona
bada beste bat hor.

10)
Hemen dozue bera
irribarre malguz
mundurako Korrontzi
zuentzako Agus.

EGUEN ZURI

Kopla tradizionalak

Kopla berriak

1) Munduan zehar ibili gara
eta ez beti hain txarto.
Gogoia geunkan bolibartarren
bihotza aprobetako.

2) Oilo aberats batzuen jabe
izan daiteke Ziortza.
Bakar-bakarrik eskatzen dogu
dozenatxo bat arrautza.

3) Goierrian be oilasko batzuk
egin nahiko dabe kantu.
Gizen-gizen bat ekarri eta
lumatzea geure kontu.

4) Artan seguru nunbait badala
txarri koskorren bat behintzat.
Solomo erdi bat guri emonda
beste erdia zeuentzat.

5) Zeinkan jentea eskuzabala
ta hainbat ganadu eder.
Guri txahal erdi emonagaitik
ez da igarriko ezer.

6) Dana okela edo hegazti
ez da izaten egoki.
Zearregitik jaso nahi geunke
dozena bana gozoki.

7) Gure eztarriak lehortzen doaz
da kokotak izerditan
edari batzuk non eskuratu
ez bada Iruzubitan?

8) Jan-edanean jardun da gero
oinez joateko txarto gu.
Hemen txintxina franku dago ta
taxis bat beharko dogu.

Kopla tradizionalak

Bat / bi / eeeup!!

MARIJESEAK

Kopla tradizionalak

Jesus, Maria ta Jose!
Baina zer da hau edo non gagoz?

Kopla berriak

1)
Abendua kantetan
gabiz Bolibarren
kukua be kantuan
entzun dogun arren.

2)
Entzun eizuez orain
zazpi-zortzi izen
memoria astunak
arindu daitezen.

3)
Arta, Iruzubieta
Ziortza-Goierrri
Bolibar berau eta
Zeinka-Zearregi.

4)
Zazpi izen dotore
zazpi larrosa lez
Izenak zazpi eta
lau auzo baino ez.

5)
Txarto neurtuta edo
zelan da kontu hori?
Ala batzuek jaukek
doble kategori?

6)
Baita gehiago be ze
Bolibar sortzean
kategoria erein zan
etxe bakotxean.

7)
Ta halan Bolibarko
baztar bakotxak dino:
«Hobeto gaoz Markina
ginanean baino».

BANANGOAN AMAITU

*Kopla berri komunak
tokian tokira egokituak*

1) Hara Belengo estalpetxoan
Jesus, Maria ta Jose.
Hango abere otzanan gisan
zaudete edo zagoze.

2) Amaitu daigun hasi baino lehen
ezabatzen publikoa.
Eta zelan ez, onartu gure
agur pandemonikoa.

3) Beraz, argi da zer dagokigun:
Hauxe da despedidea!
Nahi bada itxi, nahi bada segi
hor gelditzen da bidea.

4) Agur, Bolibar eta bertako
herribeherak eta gorak!
Bizi bizitza zela balitza
jaiotza etenbako bat.

BASAURI

SARRERA

- 1)
Gau on errespetuzko
legean, Basauri!
Poz ematera gatoz
nori eta zeuri.
- 2)
Zer da, baina, Basauri?
Erantzun bat daukat.
Lehen basoko uri bat
gaur hiri handi bat.
- 3)
Zenbat dira auzoak?
Hogei bai, berrehun ez.
Zehaztasun batera
jotzen ez da errez.
- 4)
Erdal Wikipediak
dio hogeita zortzi.
Konforme bazaudete
hobe bertan utzi.
- 5)
Euskal Wikipediak
dio hogeita sei.
Hau marka, orain nola
fedea eman biei.
- 6)
Marka bada ere, hemen
berriz argi dago.
Euskaraz dena izan
behar gutxiago.
- 7)
Norbaitek gura balu
okerra zuzendu
gu kanpotarrak gara
ta zeuek konpondu.

- 8)
Gure gogoaz ez da
liskarrak sortzea
baizik asetu zuen
atsegin-gosea.
- 9)
“Gu” esan dut ze hemen
bakarrak ez nator.
Korrontzi deritxona
bada beste bat hor.
- 10)
Hemen duzue bera
irribarre malguz
mundurako Korrontzi
zuentzako Agus.

EGUEN ZURI

Kopla tradizionalak

Kopla berriak

- 1)
Bizkaian bada borondatea
eta jende eskuzabala.
Ea Basauri barruan ere
tratatzen gaituzten hala.
- 2) Oilo ederren jabea izan
daiteke Gaztañabaltza.
Gaztainak baino agian hobe
dozenatxo bat arrautza.
- 3)
Finagan ere oilasko batzuk
egin nahiko dute kantu.
Gizen-gizen bat ekarri eta
lumatzea geure kontu.
- 4)
Artunduagan seguru baietz
urtean txerri bat, behintzat.
Solomo erdi guk aski dugu
beste erdia zuentzat.

5)

Ibarren ere txerri bat izan
leike urte guztikoa.
Bariazio pixkat dezagun
bota urdaiazpikoa.

6)

San Migel goian ikusten dira
aziendak asko ta eder.
Guri txahaltxo bat emanagatik
ez da igarriko ezer.

7)

Dena haragi edo hegazti
nola ez baita egoki
Aritzen bildu nahiko genuke
dozena bana gozoki.

8)

Gure zintzurak hasi baitira
larritzen edo lehortzen
edari fuerteren bat hartuko
genuke Pozokoetxen.

9)

Udaletxean zilegi bada
zer eskatu argi daukat.
Jenero hoiek denak etxera
eramateko asto bat.

10)

Herri guztian halako asto
egokirik ez balego.
guretzat kasik hobe litzake
lukainka sorta bat edo.

11)

Auzo gehienak pasatu barik
geratu diren aldetik
norbaitek zer bait eman nahi balu
bialdu internetetik.

Kopla tradizionalak

Bat / bi / eeeup!!

MARIJESEAK

Kopla tradizionalak

Jesus, Maria ta Jose!
Baina zer da hau edo non gagoz?

Kopla berriak

1)

Abendua kantatzen
gabiltza Basaurin
Euskararen eguna
jai bat izan dadin.

2)

Euskararen egunek
eskatzen dutena
egunak betetzea
egutegi dena.

3)

Bitartean jarraitu
beharko eskean.
Nork egingo du hori
geuk egin ezean?

4)

Euskararen egunak
arrakasta luke
eskatzen duten denek
egingo balute.

5)

Basaurik baso-uri
esan gura badu
baso horrek ezin du
jatorria galdu.

6)

Nolanahi gu ez gatoz
predikatzen ezer
bakoitzak daki nola
nor nori eta zer.

7)

Zelan gu atrebitu
zuei agintzera?
Etorri bazarete
horregatixe da.

BANANGOAN AMAITU

*Kopla berri komunak
tokian tokira egokituak*

1)

Hara Belengo estalpetxoan
Jesus, Maria ta Jose.
Hango abere otzanen gisan
zaudete edo zagoze.

2)

Amaitu daigun hasi baino lehen
ezabatzen publikoa.
Eta zelan ez, onartu gure
agur pandemonikoa.

3)

Beraz, argi da zer dagokigun
Hauxe da despedidea!
Nahi bada utzi, nahi bada segi
hor gelditzen da bidea.

4)

Agur, Basauri eta bertako
herrigorak eta beherak!
Bizi bizitza nola balitza
jaiotza etengabe bat.

ZIGOITIA

SARRERA

- 1)
Gau on Zigoitia ta
jende Zigoitiko!
Poz bat uztera gatoz
ahal bada, betiko.
- 2)
Zer dela Zigoitia?
Erantzun bat daukat.
Hamazazpi herriren
lurralde zabal bat.
- 3)
Zerbait oker esaten
baldin banaiz ari
eskatu zuzenketa
Wikipediari.
- 4)
Badago hemen zerbait
ez zuzentzekoa:
lur honen edertasun
neurri gabekoa.
- 5)
Gorbeia oinetan
Zubialde erreka
miraria sakontzen
Mairulegorreta.
- 6)
Lur-azala izanik
hain miragarria
harpe hori bai dela
zinez miraria.
- 7)
Lur honek badu zerbait
atsegin edo gatz.
Zerbaitegatik doaz
biztanleak gorantz.

8)
Gure asmoa ez da
lausengu merkea
baizik gau bat zuekin
umorez betea.

9)
“Gure” diot ze hemen
bakarrik ez nator.
Korrontzi deritzona
bada beste bat hor.

10)
Hemen duzue bera
irribarre malguz
mundurako Korrontzi
zuentzako Agus.

EGUEN ZURI

Kopla tradizionalak

Kopla berriak

1)
Oilo zuri ta gorrien jabe
izango da Apodaka.
Dozenatxo bat arrautzarekin
gurea eginda dauka.

2)
Letonan ere oilasko batzuk
egin nahiko dute kantu.
Gizen-gizen bat ekarri eta
lumatzea geure kontu.

3)
Olanon ere baietz aurkitu
urtean txerri bat, behintzat.
Solomo erdi nahikoa dugu
beste erdia zeuentzat.

- 4)
Mendarozketan hazi daiteke
txerri urte guztikoa.
Bariazio pixkat sartzeko
bota urdaiazpikoa.
- 5)
Murua goian ikusten dira
aziendak asko ta eder.
Guri txahaltxo bat emanagatik
ez da igarriko ezer.
- 6)
Dena haragi edo hegazti
nola ez baita egoki
Zaitegin jaso nahiko genuke
dozena bana gozoki.
- 7)
Gure zintzurak lehortzen eta
urduritzen doaz hemen
edari fuerteren bat hartuko
genuke Etxaguenen.
- 8)
Udaletxean zilegi bada
zer eskatu argi daukat.
Jenero hoiek denak etxera
eramateko asto bat.
- 9)
Herri gehienak pasatu gabe
geratu diren aldetik
norbaitek zerbait eman nahi balu
bidali internetetik.

Kopla tradizionljalak

Bat / bi / eeeup!!

MARIJESEAK

Kopla tradizionalak

Jesus, Maria ta Jose!
Baina zer da hau edo non gagoz?

Kopla berriak

- 1)
Abendua kantatzen
gabiltza Zigoitian
Basajaunak nagusi
ziren barrutian.
- 2)
Euskararen eguna
igaro berri da.
Hargatik gatoz pozik
gaur zuen herrira.
- 3)
Herri askotan pena
euskara nola den
Zigoitian, ostera
goraka nabarmen.
- 4)
Hala ere, jarraitu
beharko eskean.
Nork egingo du, bada
geuk egin ezean?
- 4)
Euskarak arrakasta
berehala luke
alde dauden guztiek
egingo balute.
- 5)
Mairulegorretako
haitzak ura badu
alde honek ezin du
jatorria galdu.
- 6)
Nolanahi gu ez gatoz
predikatzen ezer.
Bakoitzak daki nola
nor nori eta zer.
- 7)
Nola gu atrebitu
zuei agintzera?
Etorri bazarete
horregatixe da.

BANANGOAN AMAITU

*Kopla berri komunak
tokian tokira egokituak*

1)

Hara Belengo estalpetxoan
Jesus, Maria ta Jose.
Hango abere otzanen gisan
zaudete edo zagoze.

2)

Amaitu daigun hasi baino lehen
ezabatzen publikoa.
Eta zelan ez, onartu gure
agur pandemonikoa.

3)

Beraz, argi da zer dagokigun:
Hauxe da despedidea!
Nahi bada utzi, nahi bada segi
hor gelditzen da bidea.

4)

Agur bihotzez, bai Zigoitiko
herrigorak eta beherak!
Bizi bizitza nola balitza
jaiotza etengabe bat.

ALTZA

SARRERA

1)
Gau on, benetan, gau on!
Altza ta altzatar!
Gau on batek atsegin
doblea baitakar.

2)
Nolakoa da Altza?
Erantzun bat daukat
Lehenago herri txiki bat
gaur hiri handi bat.

3)
Hiri handi bat eta
beraz, lehengorik ez.
Auzoak ere hainbat
Donosti adibidez.

4)
Zenbat auzo guztira?
Bederatzi nonbait.
Wikipedian behintzat
hori azaldu zait.

5)
Konforme bazaudete
jo zagun aurrera.
Buenavista, Larratxo
Molinao, Herrera.

6)
Izen horiek, nahizta
neuk ziur jakin ez
aipatu ditut nola
baitaude urdinez.

7)
Konforme ez dagoen
norbait hortik bada
jotzea dauka berriz
Wikipediara.

8)
Zuzenak zuzen eta
okerrak zuzendu
gu etorkinak gara
ta zeuek konpondu.

9)
Gure gogoia ez da
liskarra sortzea
baizik asetu zuen
atsegin-gosea.

10)
“Gu” esan dut ze hemen
bakarrik ez nator.
Korrontzi deritzana
bada beste bat hor.

11)
Hemen duzue bera
irribarre malguz
mundurako Korrontzi
zuentzako Agus.

EGUEN ZURI

4 koplak zahar

Kopla berriak

1)
Bizkai aldean guretzat jende
eskuzabala badago
Altzan nahitaez egon behar du
askoz ere zabalago.

2)
Oletan dozena bat arrautza
ongi letozke saskira.
Nahiz dendakoak izan berdin da
oiloarenak badira.

3)

Arrian ere oilasko batzuk
egin dezakete kantu.
Gizen-gizen bat ekarri eta
lumatzea geure kontu.

4)

Altza gain hortan txerri koxkor bat
nonbaiten balego, behintzat.
Solomo erdi guk nahiko dugu
beste erdia zuentzat.

5)

Larratxon ere izan daiteke
txerri bat ondo hazia.
Urdaiazpiko bat ongi dago
ez bada gazi-gazia.

6)

Auditx Akularren omen dira
aziendak asko ta eder.
Guri txekor bat emanagatik
ez da igarriko ezer.

7)

Dena haragi edo hegazti
nola ez baita egoki
Herreran bildu nahiko genuke
dozena bana gozoki.

8)

Gure zintzurrek ezin baitute
lur lehorretan lan egin
edari fuerteren bat hartuko
genuke Eskalantegin.

9)

Auzoren batzuk pasatu gabe
geratu diren aldetik
norbaitek zerbait eman nahi balu
bialdu internetetik.

Kopla tradizionalak

Bat, bi, eeeup!!

MARIJESEAK

Kopla tradizionalak

Jesus, Maria ta Jose!
Baina zer da hau edo non gagoz?

Kopla berriak

1)

Abendua kantatzen
ari gara Altzan
Noizbait Txirrita hemen
ibili ez al-tzan?

2)

Euskararen eguna
igaro berri da
Horren pozean gatoz
gaur zuen herrira.

3)

Ez dakit hemen nola
dabilen alorra
Susmatzen dugu dena
ez dela baikorra.

4)

Hargatik nahi genuen
jarraitu eskean.
Zeinek egingo du, ba
geuk egin ezean?

5)

Euskarak arrakasta
berehala luke
alde dauden guztiek
egingo balute.

6)

Batetik alde egon
bestetik ez egin.
Zer mirari gara gu
hori gerta dedin?

7)
Gu, noski, ez gabiltza
predikatzen ezer.
Bakoitzak dauka giltza
nor nori eta zer.

8)
Nola gu atrebitu
zuei agintzera?
Etorri bazarete
horregatixe da.

BANANGOAN AMAITU

*Kopla berri komunak
tokian tokira egokituak*

1)
Hara Belengo estalpetxoan
Jesus, Maria ta Jose.
Hango abere otzanen gisan
zaudete edo zagoze.

2)
Amaitu daigun hasi baino lehen
ezabatzen publikoa.
Eta zelan ez, onartu gure
agur pandemonikoa.

3)
Beraz, argi da zer dagokigun:
Hauxe da despedidea!
Nahi bada utzi, nahi bada segi
hor gelditzen da bidea.

4)
Adio, Altza eta bertako
herrigorak eta beherak!
Bizi bizitza nola balitza
jaiotza etengabe bat.

ZAMUDIO

SARRERA

1)
Gabon Zamudio ta
gabon, Txorierrri!
Nor nongoa dan hemen
ezin lei igerri.

2)
Guretzako bardin da
nor izan nongoa.
Bakarrik behar dogu
itxarrik gogoia.

3)
Beno, hori be ez da
horren derrigorpe.
Disimuluan bada
lo be egin leike.

4)
Herrian bost ermita
edo baseliza.
Euretan hartu dogu
behar dan geriza.

5)
Jakituria emon
deusku San Tomasek
Zamudion ez dauela
balio edozek.

6)
San Bartolomek jarri
gaitu bero-bero
San Migelek apur bat
freskau gaitu gero.

7)
Sandoni, Santimami
zer biko xarmanta
dantzan soltetako esku
gerri eta hanka.

8)
Izan be, gure asmoa
erromeria da.
Herri bat alaitzera
etorriak gara.

9)
“Gara” dinot ze hemen
bakarrik ez nator.
Korrontzi deritxona
bada beste bat hor.

10)
Hemen dozue bera
irribarre malguz
mundurako Korrontzi
zuentzako Agus.

EGUEN ZURI

4 koplak zahar

Kopla berriak

1)
Bizkaian zehar ibili gara
eskean hainbat aldetan.
Elexaldetik hasiko gara
zuen bihotzak tentetan.

2)
Oilo aberats batzuen jabe
izan leike Aranoltza.
Askok eskatzea ez da izango
dozenatxo bat arrautza.

3)
Arteagan be oilasko batzuk
egin guran dabiz kantu.
Gizen samar bat ekarri eta
lumatzera geure kontu.

4)
Geldotan ziur nonon badala
txarri koskorren bat behintzat.
Solomotxo bat guri emonda
beste lodia zeuentzat.

5)
Dañon jentea emonkor eta
hainbat ortuari eder.
Guri otzara bat emon arren
ez da igarriko ezer.

6)
Lekunbizen be seguru gagoz
baietz ganadu ederra.
Pernil txiki bat hartuko geunke
edo libra bat giherra.

7)
Dana okela edo hegazti
ez da izaten egoki.
Santimamitik jasoko geunke
dozena bana gozoki.

8)
Gure samak be lehortzen doaz
baina bai jarraituten jatun.
Txakolin gorri gozo-gozoak
ei dagoz Galbarriatun.

9)
Auzo bat oso eskuzabala
dakigu dala Oxiña.
Pernila baino kasik gurago
zekor on baten zeziña.

10)
Sandoni edo San Antolini
zer eskatu argi daukat
jenero danok eroateko
astotxo mantso-mantso bat.

Kopla tradizionalak

Bat / bi / eeeup!!

MARIJESEAK

Kopla tradizionalak

Jesus, Maria ta Jose!
Baina zer da hau edo non gagoz?

Kopla berriak

1)
Zamudion eskean
gabiz abenduan
nahizta kanpoan entzun
kukua kantuan.

2)
Teknologi parkea
hain da eskuzabala
lastimea gehienak
itxita egozala.

3)
Ospitalak jana ta
logela badauka
baina ondino ez gagoz
ondo preparauta.

4)
Julen Guerreron gero
hor bai jan-edana!
Udalaren kontura
itxi dogu dana.

5)
Handiena onartu
egin deuskuela
kotxean daroaguz
hiru kazuela.

6)
Izan be, goitik Lezama
bestetik Derio
erdi-erdian harro
dago Zamudio.

7)
Guri toketan jaku
apal ibiltea
eta eskertu gure
entzule maitea.

BANANGOAN AMAITU

*Kopla berri komunak
tokian tokira egokituak*

1)
Hara Belengo estalpetxoan
Jesus, Maria ta Jose.
Hango abere mantsoak legez
zarie edo zagoze.

2)
Amaitu daigun ito baino lehen
gure jente aurrekoa.
Onartu zuek gure esker on
Zamudiotorrekoa.

3)
Beraz, argi da zer dagokigun:
Hauxe da despedidea!
Nahi bada itxi, nahi bada segi
hor gelditzen da bidea.

4)
Agur bihotzez, Zamudioko
herribeherak eta gorak!
Bizi bizitza zelan balitza
jaiotza etenbako bat.

GAMIZ-FIKA

SARRERA

- 1)
Gabon Gamiz-Fika ta
bardin Mungialde!
Guretzat danak dira
bertoko entzule.
- 2)
Ez dogu galdetuko:
nor nongo ta nor da?
Gugaitik nahikoa da
itxarrik egonda.
- 3)
Lasai, hori be ez da
derrigorra bape.
Disimuluan bada
lo be egin leike.
- 4)
Laster ehun urte dira
aurkitu dodana
Gamiz ta Fika udal
bat egin zirana.
- 5)
Ia mende bat biak
zirala ezkondu.
Esan lei ez dirala
txarto be konpondu.
- 6)
Harrezkero entzun dot:
“Beitu horra Gamiz!
Karakolak be hemen
bizkorrago dabiz”.
- 7)
Baita entzun izan dot:
“Beitu horra Fika!
Bertan bareak dabiz
alkarri zirika.
- 8)
Ziri ta zoro gatoz
ganera eleizan
santuak be apur bat
asaskau daitezcan.
- 9)
Gure asmo santua
erromeria da.
Herri bat alaitzera
etorriak gara.
- 9)
Zenbatek dakizue
Gamizko eleizan
bandera españolagaz
zer kasu izan zan?
- 10)
Beharbada guztia
dakizue zuek.
Badaezpada gero
kontauko deuntsuet.
- 11)
“Gero” esan dot ze neu
bakarrik ez nator.
Korrontzi deritxona
bada beste bat hor.
- 12) Hemen dozue bera
irribarre malguz
mundurako Korrontzi
zuentzako Agus.

EGUEN ZURI

4 koplak zahar

Kopla berriak

1)

Bizkaian zehar ibili gara
eskean hainbat aldetan.
Etxe Santutik hasiko gara
zuen bihotzak tentetan.

(Saioa elizan izan zen)

2)

Entzunda gagoz Fikan dagola
nahiko jente aberatsa.
Lar eskatzea ez da izango
dozenatxo bat arrautza.

3)

Oilaskoak be ikusi doguz
plazan egin guran kantu.
Gizen samar bat ekarri eta
lumatzea geure kontu.

4)

Ibarran ziur egongo dala
txarritxu gizen-gizen bat.
Solomotxo bat guri emonda
beste koipeak zeuentzat.

5)

Mendozan ei da jente fina ta
hainbat ortuari eder.
Guri otzara bat emon arren
ez da igarriko ezer.

6)

Olagortan be seguru gagoz
baietz ganadu ederra.
Saiheski on bat hartuko geunke
edo libra bat giherra.

7)

Ergoien izen polit, ozena
hemendik hoge metrora.
Berton emoten baiaku dana
ez gara joango inora.

8)

Gamiz-Fikarrok izan zaiteze
eskuzabalak benetan
bestela dana kontauko dogu
Fruizen edo Arrietan.

Kopla tradizionalak

Bat / bi / eeeup!!

MARIJESEAK

Kopla tradizionalak

Jesus, Maria ta Jose!
Baina zer da hau edo non gagoz?

Kopla berriak

1)

Eleizako santuak
goiko aingeruak
zarata alegrea
dauka gaur zeruak.

2)

Lehenago abadeak
ginan aurrezean
orain ez da ikusten
nonor hil ezean.

3)

Bandera espainola
herriko jaietan
eleizan sartu ohi zan
meza nausietan.

4)

Barriz ez naz hasiko
orain bizten sua
lehen be kontau dogu ta
Gamizko kasua.

5)

Nozbehin bueltau behar da
kontu zaharretara.
Ez dira hain zaharrak be
batzuk bizi gara.

6)
Histori bat joan zan
beste baten gagoz.
Zaindu daigun geurea
kemen eta gogoz.

7)
Orain toketan jaku
apal ibiltea
eta eskertu geure
entzule maitea.

BANANGOAN AMAITU

*Kopla berri komunak
tokian tokira egokituak*

1)
Hara Belengo estalpetxoan
Jesus, Maria ta Jose.
Hango abere mantsoak legez
zarie edo zagoze.

2)
Amaitu daigun total nekatu
aurretik gure jentea.
Onartu gure esker ona ta
karinoz bete-betea.

3)
Beraz, argi da zer dagokigun:
Hauxe da despedidea!
Nahi bada itxi, nahi bada segi
hor gelditzen da bidea.

4)
Agur bihotzez, Gamiz-Fikako
herribeherak eta gorak!
Bizi bizitza zelan balitza
jaiotza etenbako bat.

ALBIZTUR

SARRERA

1)
Gabon, Albiztur eta
inguruko jende!
Atsegin osoz jartzen
gara zuen mende.

2)
Salubita harana
Albiztur sakona
eskerrak irtera bat
zabaltzen zaiona

3)
Sarrerako etxeak
harrizko ilaran
ai zer gustura doan
albotik Igaran.

4)
Altzerreka askoren
estimatuena
Albiztur Tolosatik
bereizten duena.

5)
Beondegin jaio ta
Bidanin bataiatu.
Nola leike Albiztur
berotzen saiatu?

6)
Eliza monumental
honek txunditzen nau
harlanduak baditu
sei mila eta lau.

(Saioa elizan izan zen).

7)
Bi konfesonario
hor lasai-lasairik.
Tamalez ez dut hartu
pekatu usairik.

8)
Organoa ere horra
horman atxikia
hori da Albizturko
soinu txikia.

9)
Albizturren badira bi
harrobi ta bertsolari
harrobiak nola-hala
besteak hor nonbait ari.

10)
Bertso-ikerleok erna!
Zeren denboretan barna
Azti baserrian bada
andrezko baten aztarna.

11)
Pulpituak ere halako
parea ta zertarako?
Bata predikatzeko ta
bestea usotarako.

12)
Iturriak ere zenbat!
Bat, bi, hiru edo lau bat.
Gehiegi ere arriskua
ez ote den kezka daukat.

13)
Tolosar bat hemen ehizan
ez zen suerteko izan.
Nondik edan erabaki
ezinda egarriz hil zan.

14)
Labaderoa kolpera
joan zen alde batera.
Eskerrak ez ziren hasi
mugitzen herria bera.

15)
Hurbilak eta urrunak
berdintzen ditu lurrunak.
Tolosan eskatzen ditut
Albizturko babarrunak.

16)
Goian Hernio, Intxurre
edo Mendikute
gozatzeko baimena
ematen digute.

17)
Putzuane, Txinkorta
ere hantxe daude
herria oinetan da
zeruaren jabe.

18)
Zeruko santu-santak
begira dauzkagu
San Gregoriok bidea
zapuzten ezpadu.

19)
“Dauzkagu” diot zeren
bakarrik ez nator.
Korrontzi deritzana
bada beste bat hor.

20)
Hemen duzue bera
irribarre malguz
mundurako Korrontzi
zuentzako Agus.

EGUEN ZURI

*4 kopla tradizional, gehi
ondorengo berriak.*

1)
Bizkai aldetik Albizturrera
gatoz Eguen Zuri dala.
Bai baitakigu hemen hain baino
emankorrango dirala.

2)
Benta Zaharrean atea jo ta
alai hasi gara kantuz.
Beraiek ere alai erantzun
eta gainera kantatuz:

3)
Tori, haurtxoak, musu bana ta
bina urdai-azal kizkur.
Gero faborez esan eskolan
gu ez garela Albiztur.

4)
Aizkorri Txikin oilo gorriak
zuriak baino gehiago.
Dozenatxo bat arrautzarekin
gurea eginda dago.

5)
Aizkorri Handin ere oilarrak
badira kantu ta kantu.
Gizen-gizen bat ekarri eta
lumatzea geure kontu.

6)
Ergonen berriz hor entzuten da
kurrinka txerri bat, behintzat.
Solomo erdi nahikoa dugu
beste erdia zuentzat.

7)
Urreta bailaran txerrixo bat
balitz koipe gutxikoa
lehendik badugu solomoa ta
orain urdaiazpikoa.

8)
Olateagan badago hainbat
sukalde goxo ta eder.
Lukainka bana guri eman arren
ez da igarriko ezer.

9)
Dena haragi edo hegazti
nola ez baita egoki
Santamañatik nahiko genuke
dozena bana gozoki.

10)
Oinak neke ta zintzurak lehor
justuan gatoz galtzaran.
Santxutxun sagardorik ez balitz
botilatxo bat patxaran.

11) Intxurbin zer poza uso-jan bat
prestatu digutenean!
Ez da mirari Gipuzkoako
etxerik altuenean.

12)
Urkizu goian, udalez dana
Tolosa hiri noblea.
Kategoria horrek merezi
luke limosna doblea.

13)
Plazako erloju bitxi horrentzat
eskari errez bat dakargu:
ondo agindu eguzkiari
noiz pasa ta zenbat gradu.

Kopla tradizionalak

Bat! Bi Hiru! Eeeup!!

MARIJESEAK

Kopla tradizionalak

Jesus, Maria ta Jose!
Baina zer da hau edo non gaude?

Kopla berriak

1) Belengo portaletik
hemen hurbil gara
bertara ezin bada
Babiloniara.

2)
Lasterbide on baten
beharrik balego
Madrildik pasa gabe
hor dago Toledo.

3)
Zamora ere uste dut
badala hor nonbait
ezagutzen dut eta
gustatu behar zait.

4)
Arbola biblikoa
zedroa Libanon
Albizturren pinua
nork ez dakina non.

5)
Pinurik altuena
izena izeia
kaletxetan neurturik
puntan hogeita seia.

BANANGOAN AMAITU

*Kopla berri komunak,
tokian tokira egokituak*

1)
Hara Belengo estalpetxoan
Jesus, Maria ta Jose.
Hango abere otzanan gisan
zaudete edo zagoze.

2)
Buka dezagun hasi baino lehen
ezabatzen publikoa.
Milesker eta onartu gure
agur bihotz begikoa.

3)
Beraz, argi da zer dagokigun:
Hauxe da despedidea!
Nahi bada utzi, nahi bada segi
hor gelditzen da bidea.

4)
Agur, Albiztur, eta bertako
herrigorak eta beherak!
Bizi bizitza nola balitza
jaiotza etengabe bat.

GASTEIZ

- 1) Gau on, Gasteiz zabala
edo Bitoria!
Bata bezain bestea
gure historia.
- 2) Gau on gasteiztar eta
inguruko jende
atsegin osoz jartzen
gara zuen mende
- 3) Zuk, Andre Mari Zuri
edo zuk, Zeledon!
Emaiozue urte
zail honi azken on!
- 4) Arabako lautada
dagonean laino
arnasa sentitzen da
belaunetaraino.
- 5) Jasmin bat ezpainean
liana bat soinean
Babazorroak dantzan
pataten gainean.
- 6) Ongi etorri denok
hutsuneak barne.
Hoiek dira harreman
iraunkorren berme.
- 7) Guztientzat aukera
librea hemen dago
nahi duenak jo txalo
nahi duenak lo
- 8) Ez dago zertan hankak
arin-arin bota.
Egon lasai, hau ere
amaituko da ta.
- 9) Askatasun osoa
eskaintzen dizuet.
adi ala gogaitu
erabaki zuek
- 10) Koplariak koplari
mezua dakargu
zer den ez dakienak
gozatu behar du.
- 11) “Dakargu” diot zeren
bakarrik ez nator
Korrontzi deritzana
bada beste bat hor.
- 12) Hemen duzue bera
irribarre malguz
mundurako Korrontzi
zuentzako Agus.

EGUEN ZURI

Kopla tradizionalak

Kopla berriak

- 1) Hasiko gara eskatzen gure / Hiriburu Berdeari
otzara bete barazki fresko / izenaren iraungarri.
- 2) Ausartzen gara apaltasunez / eskatzera Zeledoni
jaiez gainera, berdintasun bat / emateko Gasteiz honi.
- 3) Ajuriaeneko jardín hoietan / oiloren bat bizi bada
dozenatxo bat arrautzarekin / bakez-bakez joango gara.
- 4) Lakuan ere oilasko batzuk / ari dira kantuz kantu.
Gizen samar bat ekarri eta / lumatzea geure kontu.
- 5) Gamarran nonbait izan behar du/txarri koskorren bat behintzat.
Solomotxo bat guri emonda / beste lodia zeuentzat.

- 6) Betoño ere emonkor eta / hainbat ortuari eder.
Guri otzara bat bete arren / ez da igarriko ezer.

Instrumentala

- 7) Sansomendin bai ziur egongo / dela ganadu ederra.
hartuko geunke urdaiazpiko / edo txahal baten izterra.
- 8) Dana okela edo hegazti / ez da izaten egoki.
Mendizorrozan jasoko geunke / dozena bana gozoki.
- 9) Txagorritxun mediku, erizain / badugu beldur bat txarra
eurek gu zaintzetik gertatzea / guk eurak zaindu beharra.
- 10) Gure eztarriak lehortzen doaz / kantuan egun osoa.
Elorriagan hartuko geunke / txakolin gozo-gozoa.
- 11) Auzo gehienak pasa ezinik / utzi ditugun aldetik
borondaterik badaukazue / bialdu internetetik.

Kopla tradizionalak

Bat / bi / eeeup!!

MARIJESEAK

Jesus, Maria ta Jose! Baina zer da hau edo non gaude?

- 1) Andre Mari Zuria / Zuria bazara
Elur pixka bat, arren / Gasteizko plazara.
- 2) Kristauek zukanaino / joan nahia ondo dago
baina ez prezioak / zeu baino gorago
- 3) Euskaraldia ere / hor da bitartean
errepikatzen dena / urtean-urtean.
- 3) Noiz izango ote da / lan hauen azkena
kanpainetan ibili / beharko ez dena.
- 4) Aurkitu duten esku / enigmatikoa
Izango ahal da egiz / zorionekoa.
- 5) Artean gu kantuan / nahiz kezkaz beteta
negar ere umorez / egin daiteke ta.

BANANGOAN AMAITU

- 1) Hara Belengo estalpetxoan / Jesus, Maria ta Jose.
Hango abere otzanen gisan / zaudete edo zagoze.
- 2) Buka dezagun hasi baino lehen / ezabatzen publikoa.
Milesker eta onartu gure / esku Irulegikoa.

- 3) Orain argi da zer dagokigun: / Hauxe da despedidea!
Nahi bada utzi, nahi bada segi / hor gelditzen da bidea.

- 5) Agur, Araba, agur Gasteizko / Kalegorak eta beherak!
Bizi bizitza nola balitza / jaiotza etengabe bat.

LAUDIO

1) Gau on Laudio eta inguruko jende atsegin osoz jartzen gara zuen mende.

2) Milesker Faktoria ekintzen sorleku bat gurea izateak asko pozten gaitu.

3) Ongi etorri denok hutsuneak barne. Hoiek dira harreman iraunkorren berme.

4) Laua bada Araba izena laudada Laudio mendiarte laudagarria da.

5) Hor dagoz Kamaraka eta Goikogana Pagolar ta Mostatxa Elorritxugana.

6) Zenortagane bada urruntxo hemendik "etorri neuregana" dio Luxamendik.

7) Ez dakigu mendiek ikusten gaituzten baina hor daude beti goia erakusten.

8) Guk ere nahi genuke goiak goian utzi ta gozamen erraz bat zein den erakutsi.

9) Gainera hemen aukera ordaindu bat dago nahi duenak jo txalo ta nahi duenak lo

10) Koplariak koplari aukeran dakargu zer den ez dakienak behar du.

11) "Dakargu" diot zeren bakarrik ez nator Korrontzi deritzana bada beste bat hor.

12) Hemen duzue bera irribarre malguz mundurako Korrontzi zuentzako Agus.

EGUEN ZURI

Kopla tradizionalak

Kopla berriak

- 1) Lehenengo ta behin Nerbioi ibai / horri eskatzera goaz
Laudion behera pasa daitela / ur apur bat gehiagogaz.
- 2) Ugarte auzo maitagarrian / oilorik gelditzen bada
dozenatxo bat arrautzarekin / zorionsu joango gara.
- 3) Isusin ziur oilasko batzuk / egingo dutela kantu.
Gizen-gizen bat ekarri eta / lumatzea geure kontu.
- 4) Arrañon ere egon behar du/ txarri koskorren bat behintzat.
Solomotxo bat guri emonda / beste guztia zeuentzat.
- 5) Larrazabalen egon behar du / hainbat ortuari eder.
Guri otzara bat bete arren / ez da igarriko ezer.

Instrumentala

- 6) Galmakan ziur gagoz egongo / dela ganadu ederra.
hartuko geunke txahal txiki baten / sahieski edo izterra.
- 7) Dana okela edo hegazti / ez da izaten egoki.
Landaluzetik jasoko geunke / dozena bana gozoki.
- 8) Gure eztarriak lehortzen doaz / kantuan egun osoa.
Gamuz a hain da aberatsa ta / atera mama gozoa.
- 9) Latiarren ere borondatea / izango dela zenbanahi
Ez dugu sosoik eskatzen baina / eman ezker hartu bai.
- 10) Auzoren batzuk pasatu barik / utzi ditugun aldetik
borondaterik badaukazue / bialdu internetetik.

Kopla tradizionalak

Bat / bi / eeeup!!

MARIJESEAK

Jesus, Maria ta Jose! Baina zer da hau edo non gaude?

- 1) Zuentzat gure irudi / ta berdin audio
maitatzeko ahal bada / gehiago Laudio.
- 2) Laudio auzo asko / jaitsi eta igo
Handi batzk ere bai / Gasteiz edo Bilbo.
- 3) Euskaraldia ere / hor da bitartean
errepikatzen dena / urtean-urtean.
- 3) Noiz izango ote da / lan hauen azkena
kanpainetan ibili / beharko ez dena.
- 4) Aurkitu duten esku / enigmatikoa
Izango ahal da egiz / zorionekoa.
- 5) Artean gu kantuan / nahiz kezka beteta
negar ere umorez / egin daiteke ta.

BANANGOAN AMAITU

- 12) Hara Belengo estalpetxoan / Jesus, Maria ta Jose.
Hango abere otzaren gisan / zaudete edo zagoze.
- 13) Buka dezagun hasi baino lehen / ezabatzen publikoa.
Milesker eta onartu gure / esku Irulegikoa.
- 14) Orain argi da zer dagokigun: / Hauxe da despedidea!
Nahi bada utzi, nahi bada segi / hor gelditzen da bidea.
- 15) Agur, Laudio ta Laudioko / herri-gorak eta beherak!
Bizi bititza nola balitza / jaiotza etengabe bat.

BIBA ZUEK

2021-2022ko arialdian, ETBko *BIBA ZUEK* programaren bigarren zatian parte hartu nuen kolaboratzaile moduan, eguneko protagonista gonbidatuari kopla batzuk ere kantatuz. Sorta horiek dira hemen jarraian doazenak.

JULEN MARTIJA

1)
Haitzaren begitik ura
frontisean partitura.
Horra noraino heldu den
mutiko temati hura.

2)
Aralar eta Irati
bultzaka irrika bati.
Eskuinean Zabaleta
ezkerrean Scarlatti.

3)
Arteen eta kirolen
loturak itxi baino lehen
nire lehen sinadura
inbidiaz hiri, Julen.

IÑIGO ETA ALEX

1)

(Ai) Arraunez eta gesalez
besoak kargatzen ahalez.
Horizontea gaintuz
han doaz Iñigo eta Alex.

2)

Guadalupeko Amak argi
(Ai) arraun gailenen Honddarbi.
(Ai) Zenbat sari duten ere
ia ez dakite garbi.

3)

Zer da poza, zer da pena?
(AI) Segundo erdi bat dena.
Karmengo Amak darama
Guadalupeko Amarena.

4)

Sagarzazu eta Udabe
talde handi baten zutabe.
Segi berriz irabazle
(AI) segundorik galdu gabe.

AITOR MERINO

1)

Azafrai koloreko
musaren masaila.
Mugarriz betea da
Aitorren lur-saila.
Zailean eder eta
ederrean zaila.

2)

«Fantasia» bat martxan
inguratu zait hor.
Galdetu diot: Zertan
nola dabil Aitor?
Beti bezain lantsu ta
lantsu bezain baikor.

3)

Lau urrats aurrera ta
hona hemen bera!
Curriculuma ere
ez du ehundik behera.
Bideak markatzen du
berrehungarrenera.

4)

Familia da indar
unibersalena.
Zuk, Aitor, lortu duzu
emaiza zailena.
Biba zarena eta
izango zarena!

SONAKAY

1)

Urrea sutan, Sonakay
dirdiran erre ere bai.
Sentitzen dena indartzeko ta
indarra sentitzeko gai.

2)

Xarmatzen nauen mirari
bati kantuan ni ari!
Bilgune baten bi mutur eta
zentzu bat bera gidari.

3)

Elorri zuri, gain beltza
hosto bakoitzean ertza.
Ezin dizuet zortetik opa
ezina baita ezetza.

4)

Euskaldun eta ijito
herriko eta hiriko.
Esker on zuen ekarpenari
ta Biba Zuek betiko!

AINHOA LARRAÑAGA

1)
Urumean lainoa
Hernanin behera bainoa.
Ur-zirimol bat behar zuena
iruditu zait Ainhoa.

2)
«Goazen, goazen, bagoaz!».
Ur guztiak kantari doaz.
Kaiok ere airetik dena
Instagramera igoaz.

3)
Missouri, Orinoco
hemengo eta haragoko.
Horren gazte, horren ibilia!
Zer uzten duzu geroko?

4)
Arrakasta gaztea
zail da gehiago eranstea.
Besterik ezin dizugu opa:
daukazunari eustea.

ANDONI IRURETAGOIENA, IZETA VI.a

1)

Abizena Iru-tik hasi
gero Izeta 6an bizi.
5ekoak bana-binaka ai!
Zenbakien ontzi bat haiz hi.

2)

Harria edo aizkora
aldapan behera nahiz gora.
Galdera bat gelditzen da:
“Hurrengo marka noizko da?”.

3)

Ibil hadi baina kontuz
gehiegi ez nabarmenduz
besteek utzi ez dezaten, ai!
alperrik dela pentsatuz.

4)

Konkistarian lehena
pentatloian abilena.
Abizena behar huke
Irurogeitagoiena.

IÑIGO LAMARKA

1)
Barnatzen bada ekaitza
puskatzen da baita haitza.
Deiturak berak dionez
marka da zure emaitza.

2)
Zer xarma basoarena
berak berez dakarrena!
Ederrago askapen bat
norberak lortua dena.

3)
Lan braboa da *Gay nauzu*
Eredu ezetz diozu.
Bazaren ez dakit baina
eredu bat sortu duzu.

4)
Itsaso beti gazia
bi aldiz ez da bizia.
Goza dezazula orain
hain zailki irabazia.

5)
Aizkorri berean tinko
nahiz ez agian betiko.
Zeuk nahi ez baduzu ere
guk zu miresten segiko.

JUAN KRUIZ LAKASTA

1)

Atea joz kaska-kaska
kopla dezagun Lakasta.
Betor une baitekor bat
dena ez baita gatazka.

2)

Hilerrian harri hotza
ingudean burni hotsa.
Iritziaren azpian
nabari zaizu bihotza.

3)

Zenbat kausa hainbat aire
egona kartzelan ere.
Baduzu hor kide anitz
adibidez, Etxepare.

4)

Nafartar gihar beteko
zehazki iruindar peto.
Zehazkien Juan Kruz eta
hala zaitugu maiteko.

PELLO BILBAO

1)
Badoa Pello, badator Pello!
Zabaldu ate ta leiho!
Kaleak txalo eta kanpaiak
biba oles egin beio.

2)
Izan hinteken neke berdinez
Indurain edo Eddy Merckx.
Urdaibain, behintzat, aldi batean
hiri gain hartzekorik ez.

3) Orbea, Euskaltel, Rural eta zein?
Astana ta orain Barhein.
Jasoa zenbat den ez zakiat
baina ez duk gutxi erein.

4) Segi Bizkaia ta Gernikari
oihu-arazten aupa, hi!
Eta nola ez, eman entzute
on bat Euskal herriari.

AMETS ARZALLUS

1)
Ortzian izar ilada
erdi-erdian Xilaba.
Berria eman duena
Biriaturko ezquila da.

2)
Iragarri zuen pozik
baita argitu airosik
ez zela txapel bat izan
txapel bat gehiago baizik.

3)
Orain goza dezaala
bera bailitzan bakarra.
Edo agian hobeki
denak batean bezala.

4)
Bertsoaren goi-ikurra
Miñanen bizkarrezurra
Irabazle jaio hintzen
eta ez galdu adurra.

MIKEL URGANGARIN

Ezin izan nuen programan izan, covidagatik.

1)

Ekin da ekin, eragin!
Buruan poz, gogoan min.
Bi polotatik bat egin ziren
Mikel eta Urdangarin.

2)

Haize finik arinena
isil-isil dabilena.
Halaxe sortua da dohaina
Mikel Urdangarinena.

3)

Astrorik bada zilegi
Zornotza harro bizi bedi.
Munduak «zatoz!» agintzen dio
Mikel Urdangarineri.

4)

Biluz-biluzik ilbeltzak
ageri ditu saihetsak.
Ari delako loreak ontzen
Mikel Urdangarinentzat.

AIZPEA OIHANEDER

1)
Oihan, Eder eta Xarma.
Hoiek dira hiru arma.
Hindua banintz esango:
«Hau da Aizpearen Karma».

2)
Zure lanaren onena
esan duzu: «gozamena».
Zer da orduan bezero
batek sentitzen duena?

3)
Ondoan Xabier Diez
Kursaala ere urruti ez.
Zu zarenaz arrakastak
ezin dizu egin ihes.

4)
Sukal eta Kultur sormen
biak lagun onak omen.
Onena kultura eta
Xarman saio bat ondoren.

HODEI EZPELETA

1)

Hodei, Hodei Ezpeleta
baso bat ezpelez beteta.
Ezpel-ezpalen hodei gorri bat
aizkora tximistan eta.

2)

Besoak ondo askerik
txapeldun horren gazterik.
Orain ez daukak marka guztiak
ilaran hautsi besterik.

3)

Gerri bat eta bi begi
Bihurri grina beti bedi.
Baina, mesedez, ez laga aita
atzean urrutiegi.

4)

Nahi diagu Euskal Herri
guztiak ditzaala korri.
Eta munduan ere eragin
aizkora txapeldun horri.

UXUE ALBERDI

1)

Uxue eta Alberdi
dira osagai eder bi.
Ez dira bi erdi baizik
bi oso edo lau erdi.

2)

Zulutzen ditu hegalak
bistaratzen arrakalak.
Baditu hitz gezidunak
eta ez gutxitan balak.

3)

Igerian txit ahalduna
ahaldunago idazluma.
Batzuk beldur diotena
besteok maite duguna.

4)

Getariatik Zarautza
kresala bultza ta bultza.
Hark darabil Uxueren
etengabeko sorkuntza.

LIHER MUSIKA TALDEA

1)
Bai izen deigarria
Liher, Liher, Liher!
Deigarrien agian
Lide, Liher, Lider.
Liher, Liher
Lide, Liher, Lider.
Iñigo, Joshka, Ander
Liher hiru bider.

2)
Arrazoi gutxi eta
Tenpluak erre.
Hutsa baitzen Helmuga
bai eta Hauts ere
Tenpluak erre
bai eta Hauts ere.
Hemen Herensugeak
agintari daude.

3)
Liher erle bat nire
belarrian dabil
nola liteken buru
berdin batean bil
Hortxe dabil
berdin batean bil.
bertsolaria izan
eta rockero hil.

4)
Urumea da geza
Kantauri gazia
Emaiozue herri
honi garrasia
Gazia, honi garrasia
rockaren indarra ta
rollaren grazia.

PAULO AZPIAZU

1)
Instagram, youtube, fitness
figura bitxia zinez.
Harri bat non jarri bertan
nago asmatu ezinez.

2)
Arnasa hartu eta putz
Heldu eta tira goruntz!
Gorputza bihurtzen harri
harria bihurtzen gorputz.

3)
Ideiatsu ta gihartsu
Goian dabil Azpiazu.
Zorionak, Paulo, baina
nik nahiago azpian zu.

4)
Koloreen bateria
graffiti ibiltaria.
Segi sare horietan
liluratzen gazteria.

«TARARA»

1)

Ateburuan aizkora.
Antzerki hori noizko da?
Tarara tara, bagoaz
Bilboko San Frantziskora.

2)

Eskerrak Arriagari
begi bat Bilbori jarri
mundu arraro hau bertan
ikusteko maitagarri.

3)

Neu ere kale berezi
hortan nintzen erdi hezi
batzutan zerbaiten bila
beste batzutan ihesi.

4)

Gure ametsen lautada.
Goazen, lagunok, taulara!
Atsedon txiki bat hartu
eta berriz buelta hara.

5)

Artean garela libre
opa dizuegu kide
guztientzat izatea
bitzitza ta bizibide.

AITZIBER GARMENDIA

eta

TELMO IRURETA

1) Aitziber Zaldibiko
Telmo Zumaiako
zorteko gaude biak
batu ziralako.
Aitziber Zaldibiko
Telmo Zumaiako.
Batu ziralako ta
denon grazirako.

2) Aitziber, mila paper
eta lan egina
beti azaltzen zaigu
zerbait ezberdina.
Mila lan egina
beti ezberdina.
Bera nolakoa den
badut jakin-mina.

3) Telmori entzuna naiz
burlaizean hola
bera gure ginetik
bentajan dagola.
Burlaizean hola
bentajan dagola.
Saiatu naiz probatzen
baina ez dakit nola.

4) Laurogei urte eta
Sexberdin artean
pozik joango nintzake
Sexpiertos batean.
Sexberdin artean
Sexpiertos batean
Sexpiertos batean da
Seiscientos veintean.

5) Aitziber eta Telmo
zer esan zer konta
hau berrien alde
begi txarren kontra.
Zer esan, zer konta
begi txarren kontra.
Arrakasta luzea
dizuegu opa.

SARA GANDARA

1)
Banoa Lezaman hara
badator Sara Gandara.
Ikusleok neurri baten
beti aztoratzen gara
berriak nola datozen
aldera ala kontrara.

2)
Iribarre airosoak
ez beti hain erosoak
leuntzen ditu emaitza txarrak
eta handitzen gozoak.
Batzuetan poz horixe
dauka galtzaile gaizoak.

Lalara lala larala ...

3)
Kanpai-danda ta Urte Zahar
eta abar eta abar.
Uste bada «neska horrek
zortea bere gain dakar»
begiratu ondo bere
curriculumean zehar.

4)
Oles, oles atez ate
biziek entzun bezate!
Arrakasta baduzu ta
zer beste opa nezake.
Dezakegun bakarra da:
«Biba zu, nahi duzun arte!»

Lalara lala larala ...

«ERESIA»

1)

Hauxe da despedidea.
Agur, jende senidea!
Luzean suabea da
beste munduko bidea.

2)

Haitzak haitzari diotsa:
«Non galdu dugu bihotza?»
Bizitza arte bat bada
zergatik ez heriotza?

3)

Oi, Herio bizilege
sarri krudelegi ere!
Jo nazak, nahi baduk, baina
biziak desegin gabe.

4)

Zuek, hiruko airosa
hiru hostoko arrosa!
Herioren arantzetan
zabal denei bizipoza.

5)

Heriotzaren meneko
ikusten nauzeneko
ekin dantzan ito arte
Belen, Oier ta Eneko.

PEIO OSPITAL

1)
Mende erdi plazaz plaza
bai dela irrika basa.
Eta oraino gainezka
hatsa, bizia, arnasa.

2)
Pantxoarekin batean
orain heure xarmapean
zu zaude, Peio, kantari
maitatuenen artean.

3)
Miresten dut sinesmena
eta daukazun kemena
martxa berri bat hasteko
merezirik atsedena.

4)
Arrakasta, oihartzuna
hori da opa zaizuna
edo opa gabe ere
segur lortuko duzuna.

AMAIA ELIZARAN

«Arima»

1)
Galdetu nion: «Aizan, hi!
Zer naitekenan izan ni?».
Arima eskatu nion
Amaia Elizarani.

2)
Argitxo bat anabasan.
Erantzuna hau izan zan:
«Arima hori bilatu
behar duk heure arnasan».

3)
Aizak, Liam Ó'Maonlaí!
Nire arima ez duk gai
arnasan irakurtzeko
ez ala ez, bai ala bai.

4)
Liam-ek zidan erantzun:
«Badakit zer behar duzun.
Ez saiatu ezertan zu
baizik ikus eta entzun».

5)
Lehian bi erle lilian
Elizaran eta Liam.
Joango naiz, egongo naiz
bai zuen emanaldian.

KERMAN LEJARRAGA

- 1)
Biba Kerman Lejarraga!
Guztion deihadarra da.
Gogoz eta sutsu joan
zaitezen hurren gerrara.

- 2)
Gerra diot, baina ezta
baizik kirol eta festa
bertan eman diguzuna
hainbeste poztasun extra.

- 3)
Dragoi Bola eta beste
zaleak garaipen eske!
Zale ez direnek ere
berdin maitatzen zaituzte.

- 4)
Orain mundura begira
laster mundua gerrira.
Bizkaia sutuko da ta
Morgan zoratuko dira.

- 5)
Ametsa beti da amets
beldurra beti da ezetz.
Hemen ziur gaude Kerman
munduko txapeldun baietz.

JOSEBE ITURRIOTZ

1)
Zeru bat eta bi ortzi
buru bat eta bihotz bi.
Denak islatzen zaizkio
Josebe Iturriotzi.

2)
Ezkutuan nor da bera?
Agian txit samurbera.
Agerian zorrotasun
transgarri denen ubera.

3)
Iturri hotz, gordin ala
adimen originala?
Argi da dohain guztiak
“iturri” bera dirala.

4)
Pizten gaitun suharria
barnatzen zaigun irria.
Bi hitzetan laburtzeko
izaki maitagarria.

5)
Izaki hau da benetan
gelditzen zaiguna bertan.
Ez soilik gogoan baizik
hortxe gure begietan.

ANDRES OSA “SAKONA”

1)

Egunkari aspaldiko
batean zen lehen aldiko
EGINen aurkitu ginen eta
geroztik lagun betiko.

2)

Ondoren ikastoletan
zuzendari hainbat urtetan.
Problemak asko gutxitzen ziren
Sakonaren eskuetan.

3)

Bertso ta herri kirolen
arloan beharbada goren.
Bera zela kirolari onen
hau zen ustea askoren.

4)

Gure sagarrak bi lora
bi bakarrik baina txit gora.
Sakonaren adar nagusiak
patxada eta ganora.

5)

Zer behar luke Sakonak
grazirik falta ez zaionak?
Ez diot opatzen urte asko
baizik asko eta onak.

ANJE DUHALDE

(«Ni naiz» bere kanta doinuan)

1) Agur, ongi etorri!
Milesker lehenbailehen
Hau ez da Garden Palace
ez gaude Nou Campen
uste dut tronpaturik
zaudetela hemen.

2) Maite zaitut, ma cherie
te quiero, I love you!
Norbaitek unibertso
gordina nahi badu
bidai paralelorik
hemen ez daukagu.

3) Hiriko ta munduko
mister eta missen
gorputzen prezioak
airean zebiltzen.
Soldadua fusila
garbitzen ari zen.

4) Ni ez naiz Michael Jackson
I'm sorry benetan.
Nora kristo zatozte
zeren bila, zertan
ezinetik bizi den
hizkuntza batetan?

5) Ni naiz Anje Duhalde
zer grazi, zer pena!
Zoazte Chicagora!
Hau ez da zuena!
Ni naiz ahots basa bat
tribu zahar batena.

6) Azkenik, Anje, hau duk
mugaren airea:
Haizena haizelako
haizela gurea.
Chicagon nahiz Pekinen
gure ondarea.

IKER VICENTE
eta
MIKEL LARRAÑAGA

Mikeli:

1) Kantuan zozo zuri ta beltzak
Mikel Larrañagarentzat.
Piztu baititu erdi lo zeuden
ezetzak eta baietzak.

2) Azpeitiarren kasta aparta
braboa eta ausarta.
Irabazteaz gainera, Mikel
ea uzten duan marka.

Ikerri:

3) Iker Vicentek besoak harri
izen hutsa beldurgarri.
Gure aizkora betikoa du
distira berrian jarri.

4) Ikerren kolpe zuzen bakarra
izerdiaren aparra.
Azpeitin kasta aipatzen bada
zer esan odol naparra?

Biei:

5)
Aizkorak beheiti, ezpalak goiti
oihuak ia basati.
Lasai zuek ze galduta ere
errebantxa hor da beti.

6)
Zinez eskertzen dizueguna
biei zuen prestasuna.
Ikusmin eder hau orain eta
plazako ikuskizuna.

PAGADI
eta
GURRUTXAGA

1)

Arrakastak zer itxura
daukan jakin gura bada
begiratu bi aurpegi:
Pagadi ta Gurrutxaga.
Bata ikusiz batera
besteaz oroitzen gara.

2)

Behin edo behin sortzen dira
bi loreko krabelinak
bi lore diruditenak
bikiak edo berdinak.
Zuek bikiak ez, baina
bai elkarrentzat eginak.

3)

Berrehungarren Herri Txiki
zinez izan zen atsegin.
Zenbat gozatu genuen
Gizaburuagarekin!
Miren pozik dago eta
beste denak ere berdin.

4)

Berrehun saio, berrehun mila
begi zuekin ginenez
Orain zor dizkiguzue
beste berrehun gutxienez.
Eskari hau egiten dut
bostehun milaren izenez.

«ALBUM»

EDURNE, MIKEL, INTZA

1)
Hartzen badut idazluma
osatzen badut albuma
gehi gaztetasun bat, horra
ostrukaren erresuma.

2)
Edurne, Mikel ta Intza
emaitzak hiru baldintza
Bai zorte ona biltzea
langintza ta artegintza!

3)
Izan berri, izan gazte
gainera, ahal bada, aske.
Edonori inbidia
sortzeko martxan zoazte.

4)
Hautzaroan albumari
denak, noski, kirolari
begiratzen nion adi
ea orain zuenari.

5)
Gazteok segi ta tira!
Ez egon gora begira.
Zaharrak hiltzen gara ta
gazteak zahartzen dira.

ITZIAR ALDUNTZIN

1)

Itziar esataria
Alduntzin ozenkaria.
Nabarro ta Leitzarekin
osatu da miraria.

2)

Zure programen izenak
grazian bizi zirenak.
Dibertsio bat gehiago
ziruditen kasik denak.

3)

«Festaburu», «A ze banda!»
«Festaro», «Blai!» ere han da.
Horiek lanak badira
zer litzateke parranda?

4)

Besteak dibertiarazi
zailena bera da kasi.
Zuk erdia kostatzeko
badaukazu doble grazi.

5)

Orain nola baita lege
esker oneko bi ele
argitasun bat zabaldu
baituzu gaur hemen ere.

JOSEBA TAPIA

- 1)
Tapia edo Joseba
bat bestearen gose da.
Soinu urdin bat goizera
gau sakonetik goizera.
- 2)
Ez dakit zer den, zer ez den
maitasun ala miresmen.
Nori zertan ari naizen
oraindik ez dut sinesten.
- 3)
Esan gabe gaizki doa
nire gogo abidoa.
Lankide ta lagun handi
artista handiagoa.
- 4)
Handiena esan beharko
nuen agian hortako.
Ez dut esan ze oraindik
handitzen ari delako.
- 5)
Kopla zaharrak eta kantak
bizipenak ere hainbat.
Beti izango haiz nire
bizitzaren zati on bat.

IZARO ANDRES

1)
Mallabia, Donostia
Donostia, Amerika.
Abiatu zen zuzenki
destino bati segika.
Destino osoa, noski.
Ez baitzuen nahi erdika.

2)
Galdetzen baduzu zer den
izar baten izaera
argi batek markatzea
bide baten hasiera.
Edo sinpleki azalduz
diogun Izaro bera.

3)
Galdeturik zergatik den
Izaro izar egina
erantzuna sinplea da:
«Nabarmenki ezberdina».
Ahotsaren kolore ta
erakarmen hutsezina.

4)
Handitzen zoaz, Izaro
zeure dohainek ondua.
Nahi bazenu izan gure
desioak lagundua
belodromoa bezala
bete ezazu mundua.

JUAN LUIS ZABALA

1)

Juan Luis Zabala minbera
atera zaigu bidera.
Behatu behar dut zer den
ilgora ala ilbehera.

2)

Batek bultza, bestek tira
osoa ere bi zati da
mina ta literatura
ama-alabak baitira.

3)

Zein den alaba zein ama
txandan ala banan bana
biak batera agian
Juan Luisek dakarren zama.

4)

Beti zehatz esanguran
zintzoa ere jomugan
zintzotasun zehatza baita
arte eder bat kulturaren.

5)

Zintzo, zehatz eta gailen
segi salatari minen
eta, jakina, ahal baduk
sufrituz ahalik gutxien.

ALAIA MARTIN

1)
Una antiga poesia
gehi Lehoien afasia.
Alaiaren zentzumenak
mugez handik doaz ia.

2)
Hitz-jokoen sen subtila
beti zuntz berrien bila.
Misterio bat dirudi
bai eta soinu hurbila.

3)
Gidoi eta Barrubiak
zutabe eta zubiak
aurten dena bil dezake
txapel baten irudiak.

4)
Dotoretasun finkoa
irudimen kuantikoa
hitzek hartzen dute usain
kasik filosofikoa.

5)
Herritmia gehi herrimin
bertso edo prosan berdin.
Nik ez dut ezer asmatu
dena da Alaia Martin.

FRANCK DOLOSOR

1)
Koplatu nahi dut Dolosor
hainbeste dioguna zor.
Bere kronika zehatzak
ahots beroan dagoz hor.

2)
Hegoan Iparraldeak
bai eta munduak berak
baldin badu aurpegi bat
guretzako da hori Franck.

3)
Maite zaituzte Senperen
maite zintugun ETBen.
Zain gaude berriz Dolosor
noiz itzuliko ote den.

4)
Zure aurpegi noble hori
plazergarri edonori!
Ez dakit non eta zertan
baina izan beti ongi!

NAROA AGIRRE

1)

Pertikaren indar kurboa
gorputz bat airean doa.
Langa goian gelditu da
zoruan luze Naroa.

2)

Goian langa geldi-geldi.
Nor pasa da haren gaindi?
Naroak su bat dirudi
Record bat han dago garbi.

3)

Goiko une magikoetan
hain labur, hain azkar hoietan
ez al dago moduren bat
gelditzeko pixkat bertan.

4)

Zure miresle beti gu
pertikan izar zaitugu.
Kiroleko arrakasta
bizitzan opa dizugu.

JULIAN IPARRAGIRRE

1)
Hau zortea daukadana
koplatzera naramana
Euskal Herriak hain maite
duen gizon baten lana!

2)
Arantzan nonahi zuhaitzak
bat aldatu zuen Leitzak.
Ahotsa gozo-gozoa
eta arrazoizko hitzak.

3)
Gozatu dut pilotatik
neuk ere zenbat ez dakit.
Maiz piztu dut irratia
zu entzute hutsagatik.

4)
Eta orain zer, Julian
kantxetatik urrutian?
Goza ezazu bizia
zeure barne irratian.

5)
Trikitiaren soinua
edo bertsoen doinua:
baduzu norantz zabaldu
pilotaren erreinua.

PERU ABARRATEGI

1)

Zorion guztiak hiri
Peru Abarrategiri!
Txapelak burua jan dianik
itxuran ez duk agiri.

2)

Txapeldun multzo edo ilara
begiratu ta hi, hara!
Iritsi haiz, ba, gailur batera
eta Wikipediara.

3)

Hurren jauzi hipikoa
daukak Euskal Herrikoa.
Hortxe ere heuk lideratzen duk
ordena alfabetikoa.

4)

Familia ere txit egokia
txit zaleen biltokia.
Badiat antz bat zer litzateken
bertsoaren entropia.

5)

Zer den «egin», zer den «jaio»?
Hi bahaiz eta zer arraio!
Biba Peru ta Biba Araba
eta Biba Aramaio!

URDAIBAI ARRAUN ELKARTEA

- 1)
Biosfera bat bizi
arraun bat bizigai
traineru bat urdinez
izen bat Urdaibai.
- 2)
Munduan jende askok
uste du direna
gauza bera Urdaibai
eta garaipena.
- 3)
Mito handien bila
ez jo antxinara.
«Garaile bakarrik ez!
Garaiezina da!».
- 4)
Hamarkada batean
hainbeste garaipen
Bikingoen odola
hor dabil nonbaiten.
- 5)
Bermiotik mundura
Iker, Gorka, Alain
zegaz harritu behar
gaituzue orain?
- 6)
Diamantezko eskuak
granitozko hankak.
Zaindu Urdaibai eta
segi hausten markak.

HIRU KAPITAIN

Aitzol Atutxa, Nakor Markez
eta Xabier Garate “Seleta”.

- 1)
Aitzol, Nakor, Seleta
Karibeko elite!
Han ez dakigu zenbat
zuten elkar maite
hemen behintzat betiko
lagun dirudite.
- 2)
Indarrak izan arren
bere ebatzia
burua da duena
hemen garrantzia.
Burua, noski, baina
baita grazia.
- 3)
Gosea, ai gosea!
Gose maitea.
Alimentu ona da
aukeraz betea
beti geratzen baita
elkar jatea.
- 4)
Hirurak irabazle
zaila da hori
Hirurak galtzaileak
zailago dirudi.
Beste aukera zein den
zuek erabagi.
- 5)
Aurrez aurre ditugu
hiru kapitain
ikusminez gelditzen
gara hemen orain
kapitain jenerala
zein izango den zain.
- 6)
Biba zuek, ikusle
entzule bikainak!
Biba «Konkis»-lariak
eta kapitainak!
Biba Karibe eta
bere kaimanak.

HIRU VIKINGAK

Erika Olaizola, Zuriñe Hidalgo
eta Amancay Gaztañaga,
«Vikingak» teleaioa aurkezten.

1)
Vikingoak zirela
gerlari bortitzak.
Historian bertsio
hori dator behintzat.
Gaur agian aldatu
daitezke baldintzak.

2)
Vikinga aktualok
ez daukate antzik
egingo digutenik
txarririk edo gaitzik
noizean ontziren bat
urperatu baizik.

3)
Hala ere, nolana
ez gaitezen fida.
Hartu duten izena
zerbaitegatik da.
Hobe lagunak izan
eta esan «biba!».

4)
Urez, airez, lehorrez
nola ote datoz?
Bete kobazuloak
begiz eta dardoak.
Asalto txiki bati
eusteko prest gagoz.

5)
Amancay Gaztañaga
Zuriñe Hidalgo
Erika Olaizola
bat eta bi albo.
Vikingaformance hori
ez dut utzi ahalko.

6)
Hiru Vikinga suhar
dauzkagu atean.
Leihoa ere zabalik
ETB1ean.
Konkista gaitzazue
ahal bada bakean.

HAUXE DA DESPEDIDEA

2022-09-14. «Biba Zuek»
programari agur esan niona.

1)
Hauxe da despedidea
hor gelditzen da bidea.
Agur, Biba Zuek! Agur
ikuslego senidea!

2)
Agur, Maialen, Sukia!
Agur, ekipo guztia!
Banoala baina berriz
deitzeko eskatuz ia.

3)
Esker mila ta ikaspen
maitaturik konda zaizten.
Proba gisan abiatu
ta begira non zoazten.

4)
Biba zuek, biba, biba!
Bizi-marka bat hori da.
Ni saiatuko naiz hortan
zuei etxetik begira.

5)
Zenbat falta zaidan bizi
hontan nahi dut argi utzi.
Gaizki bizitzeko asko
ongi bizitzeko gutxi.

6)
Zuek, ikusle, eztakit
nor bait baden hor kezkatu.
Lasai, ze ez naiz hain erraz
galduko zuen bistatik.

AURKIBIDEA

Zirkulua	2
«Erriaren seme»	3
Esker mila, pandemia	5
Uztapide, Uztapide	6
Bizkargin sortu nintzen	7
Muga bat beti hor	9
Obabatxoa Patakon	10
Indar bat dabil hor	11
Ipar haizea	12
Durangoko bonbaketa	13
Hiru iheslari	14
Axpeko jaialdia	15
Haritza mendian	17
Anje Duhalde -Mende erdi	19
Maruri-Jatabe	20
Pello Josepe eta Karmentxu	21
Nestor Basterretxeari koplak	22
Aitita Medeo	23
Oiane eta Idurre	24
Agate Deuna	25
Txillardegia	26
Lau urtaroak	27
Bittor Kapanaga	28
Esnearen etxea	29
Arnaldo Otegi	30
Tronpatu naiz zorionez	33
«Herrira!» ekimena	34
«Gatza»	35
Alaia eta Xabi	36
Koplak umeentzat	37
Mintzola-Subijana etxea	38
Kultur Etxe berria	39
Alberto Badiola eta Xabier Elu	40
Bizkaian zehar	41
Anbototik Gorbeira	41
Jose Migelen batela	42
Txomin Ziluaga	43
Txinoak dauzkat goitik	44
Mikel Laboaren omenez	45
Perikoren arrazoiak	46
«Periko, betiko»	47
Sagua ordenagailuan	48
Lankuren 10. urtea	49
Berrizko kantu-afaria	51
San Martin, ai San Martin	52
Goazen mendirik mendi	53
Babestu nintzan Anboton	54
Amaia eta Zorion	55

Gazteak han eta hemen	56
Gure Hugo maitea	57
Josune Oyarbide	58
Aintzaldu daigun Enkarni	59
Martin Orbe	60
Martin Orberi Gatican	61
Martin Orberi Zeanurin	63
Agur, Resu!	64
Iratxe Amambay	65
Bidaia handiak	66
Oihane eta Endika	67
Zorionak, bikote	68
Miren Goikouria	69
Jabi Agirre Lupiola	70
Karlos Orue Rekarte	71
Jesus Mari Etxebarria, “Patxo”	72
Gizaburuaga	73
Agur, Madari.	74
Leke	75
Aupa, Joane!	76
Joane Maite	77
Maite eta Sabin	78
Sorginak badabiltza	79
Iraitz eta Garikoitz	80
Aretxa I.a eta Mari Kruz	81
Olaiz eta Fernan	82
Itxasne eta Oier	83
Miren eta Juanito	84
Maidar Unda	85
Migel Alberdiri agurra	86
Naparra eta Mari Jesus	87
“Taket”-en bizitza	88
San Salbadore-Gerediaga	89
Ni banaiz zu	91
Bagoaz	92
BERTSO BIKO SORTAK	93
Antonio Barajuen, “Matxin”	94
Badakit, ez naiz biziko	95
Bill Douglass	96
Fermin Barceló	97
Gaztezulo	98
Juan Gorriti Goldazarena	99
Ismael Aldekoa	100
Kas txirrindulari taldea	101
Larraitz Alonso Amezua	102
Laudioko Kike	103
Bilbo, 2016-04-17	104
Ohorezko euskaltzain	105

Pagaigoikoa	106
Biba Nafarroa	107
Segundo Urien	108
Hondamenen Jainkoa	109
Su-hiltzaileak Gernikan	110
Txinpas	111
Uxue Moreno Solabarria	112
Leturiaren agurra	113
Xose Estevez	114
Juan Legorburu	115
BERTSO BAKARREKOAK	116
Guk Oiartzunen	117
Aupa, Juankar!	118
Marux Sasiain	118
Albe, 35 urte	119
Jose Alberdi “Txo”	119
Astolako kartzelan	120
Ametsetako bertso bat	121
Aneren lehen jaunartzea	122
Anje, Eider, Ibai	122
Antxon Ezeiza	123
Alfredo Elortza	123
Argi-iluna	123
Berrizko kultur etxea	124
Berrizko sukaldariak	124
Dionisio Amundarain	125
Edurneri bihotzez	125
Egutegia-Berriz 2010	125
Eibar-Athletic	126
Izazkun eta Txemari	126
Elorri	126
“El viejo”	127
Felipe Alberdi	127
Gure Gotzon	128
Gure Ana Mari	128
Gure esku	129
Gure Maria Luisa	129
Hodei Egiluz	129
30 urte	130
Hondarribia Arraun Elkartea	130
Hori, hori!	130
Ibane	131
Iñaki Arregi	131
Nora joan zara, Jabi?	131
Jon Urretxa	132
Iñaki Uribe	132
Mariano eta biok	133
Jabiri agurra	133

Jon Goikolea	134
Jose Mujica presidente ohia	134
Joxe Azurmendi	135
Juan Mari Zuloaga	135
Julian Unanue Bereziartua	136
Karmelo Balda	136
Kepa Enbeitari Arrazolan	137
Lander Garrorentzat	137
Lourdes Gabiola	138
Luisi Astiazaran	138
Lurdeia	138
Lurretik lurrera	139
Manuel Lasarte	139
Mari Karmen Rubio	139
Mari Nieves	140
Maritxu Larrinaga	140
Markeliñe	141
Martin Arriaga	141
Migel Ajuria	142
Agur, Itziar	142
Marea laranja	142
Oizpe	143
Patxi Angiozar	143
Pello Mugarza “Elgetzu”	144
Rosa eta Jose Luis	144
Susana	145
Teresa	145
Unai Elorriaga	146
Xabier Abaunzari	146
Yolandari Ziortzak	146
Zeure lurraren edertasun bat	147
Amaia - Anaitasuna ikastola	147
Burudun makila bat	148
Pello Josepe Eskoriatzarantz	148
BAT-BATEKO BATZUK	149
Nire debuta	149
Haur jaio berriaren eskela	153
Agur, Gorbeia maitea	154
Lauroeta	155
Xalbadorren epaile	156
Acapulco	157
KOPLARIAK	174
Bizitzeko jaio	175
Urtaroak	176
Meridianoa Greenwichen	177
Ederregia zelako	178

Ene izar maitea	179
Porru gazia	180
Ezkondu nintzanean	181
Laja Badoa	182
Marinel emaztea	183
«KOPLARIAK» KONTZERTUAK	184
Campos antzokia	187
Gasteiz	188
Madril	189
Eibar	190
Hondarribia	191
Atarrabia	192
Andoain	193
Aretxabaleta	194
Getxo	195
Legorreta	196
Urduliz	197
Ataun	198
Berriz	199
Euskalduna B.....	200
Billabona	201
Soraluze.....	202
Berastegi	203
Lizarra	204
Artea	205
Lemoa	206
Balmaseda	207
Orio	208
Leioa	209
Sopela	210
Mungia	211
Zumarraga	213
Bakio	214
Anoeta	215
Zizurkil	216
KOPLARIAK KOPLARI	218
Zaldibar	219
Zizurkil	222
Maruri-Jatabe	224
Arriaga	226
Txirain elkartea	227
Iruñeko Bertsoaroa.....	227
Euskaraldia-Basauri	230
Biba Zuek I	231
Biba Zuek II	232
Bidebarrieta	233

Altzo	236
Ahoz aho.ETB	238
Ahotsenea	239
Legorreta	241
Bilbo Zaharra	243
Goldaratz	245
Bolibar	248
Basauri	250
Zigoitia	253
Altza	256
Zamudio	259
Gamiz-Fika	262
Albiztur	265
Gasteiz	268
Laudio	271
BIBA ZUEK	274
Julen Martija	275
Iñigo eta Alex	276
Aitor Merino	277
Sonakay	278
Ainhoa Larrañaga	279
Andoni Iruretagoiena, Izeta VI.a	280
Iñigo Lamarka	281
Juan Kruz Lakasta	282
Pello Bilbao	283
Amets Arzallus	284
Mikel Urdangarin	285
Aizpea Oihaneder	286
Hodei Ezpeleta	287
Uxue Alberdi	288
Liher musika taldea	289
Paulo Azpiazu	290
«Tarara»	291
Aitziber Garmendia eta Telmo Irureta	292
Sara Gandara	293
«Eresia»	294
Peio Ospital	295
Amaia Elizaran: «Arima»	296
Kerman Lejarraga	297
Josebe Iturriotz	298
Andres Osa “Sakona”	299
Anje Duhalde	300
Iker Vicente eta Mikel Larrañaga	301
Pagadi eta Gurrutxaga	302
«Album»: Edurne, Mikel, Intza	303
Itziar Alduntzin	304
Joseba Tapia	305
Izaro Andres	306

Juan Luis Zabala	307
Alaia Martin	308
Franck Dolosor	309
Naroa Agirre	310
Julian Iparragirre	311
Peru Abarrategi	312
Urdaibai Arraun Elkartea	313
Hiru kapitain: Aitzol Atutxa, Nakor Markez, Xabier Garate “Seleta”	314
Hiru Vikingak: Erika Olaizola, Zuriñe Hidalgo, Amancay Gaztañaga	315
Hauxe da despedidea	316